

EUSKAL IRRATIGINTZAREN HISTORIA

Arantza Gutierrez Paz

Udako Euskal **Unibertsitatea**
Bilbo, 2002



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

«Liburu hau Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailaren laguntzaz argitaratu da»

© Udako Euskal Unibertsitatea

© Arantza Gutierrez Paz

ISBN: 84-8438-031-9

Lege-gordailua: BI-2681-02

Inprimategia: RGM, Bilbo

Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti

Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Jexuxmari Zalakain

Dokumentazio-arloko laguntzailea: Jon Murelaga

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxe. 944793039

Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org

www.ueu.org

Zabaltzen: Igerabide, 88 DONOSTIA

Amari

*Haritz, Laura, Jon Ander, Maider, Iker, Iñigo, Aitor, Eneritz,
Patricia, Ainhua, Eneko eta Maialen umeei*

Aurkibidea

0. Sarrera	9
1. Irratiaren lehenengo urratsak: Bilboko eta Donostiako aitzindariak	13
2. 1930eko hamarkadaren nahasketa, irratigintzan ere bai	23
3. Ezkutuko irratia, erbestetik Hego Euskal Herrira Uhin Laburrean	33
4. Estatuko irratigintzaren zabalkundea 1940ko eta 1950eko hamarkadetan	41
5. Euskarazko irratigintza apaizen babesean	53
6. Irrati-mapa berriaren sorrera trantsizio-garaian: irradi nazionala gogoan	67
7. Emisora komertzialen oparotasuna EAEn, irradi-dialaren askatzearen ondorioz	79
8. Irrati askeen mugimendua, komunikazio alternatiboa 1980ko hamarkadan	97
9. Ipar Euskal Herrian, irradi-eredu propioa garatzen	119
10. Nafarroan, euskal irratigintza legez kanpo	129
11. Udal-irratia, gertutik gertura	139
12. Euskal irratia, bat eginda aro berriaren aurrean	153

GEHIGARRIAK

Kronologia	165
Euskal Herrian entzun daitezkeen iratiak	179
Irrati-diala herrialdez herrialde	189
Bibliografia	197
Hemeroteka	201
Web-orriak	215

0. Sarrera

Ia kasualitatez hasi nintzen egunkarietatik irratiei buruzko informazioa biltzen. 1987an edo 1988an irrati askeei buruzko artikulua bat egin behar nuen, eta emititzen ari ziren emisorei buruzko informazioa kazetetan zetorren. Horrez gain, lehendik ere banuen informazioa, horrelako emisora batean lan egin nuelako 1984/85 ikasturtean eta Orion egindako Irrati Askeen Lehenengo Topaketan ere egon nintzelako. Karpeta batean gordetzen hasi nintzen irrati txikiei buruz argitaratzen ziren informazioak, prentsa baita iturririk onena auzo-, eskola- edota herri-emisoren berri jakiteko, liburuetan ia agertzen ez direnez. Lan horretan behin baino gehiagotan lagundu didate ikasleek, eta emisora baten edo besteren berri ere eman didate, baita telefonoak edo kontaktuak ere. Beraz, hauek dira erabilitako iturririk garrantzitsuenak: prentsan argitaraturiko informazioak eta testigantza pertsonalak.

Ia berrehun emisora txiki ditut gaur egun zerrendatuta, batzuk desagertuak dira dagoeneko, eta beste batzuen existentzia ezin izan dut frogatu, bidean geratu ote diren jakin ezinik —egitasmo soilak izan direlako, edo oso epe laburrean existitu direlako edota izen ezberdinak hartu dituztelako—, edota, jarraitzen duten batzuei buruz, —ikerketan agertu direnei buruz, adibidez—, izena eta kokapena besterik ezin izan ditut jakin, ahaleginak egin arren. Beste batzuek, berriz, seguru aski ezkutuan jarraituko dute, nire asmoa izandako guztiak agerraraztea izan den arren.

Jakin badakit edozein emisorak, bakarka hartuta, liburu bat idazteko adina emango lukeela: nola sortu zen, zenbat pertsonak lan egin zuten, haien asmoak eta buruhaustea zeintzuk ziren aurrera jotzeko orduan, egoitza edo ekipamendua eskuratzeko egindako ahaleginak, egunez eguneko anekdotak, eta abar...; datu horiek guztiak ez dira testu honetan sartzen, eta gainera hori ez zen nire asmoa izan. Badakit ere, hemen agertzen diren irrati askoren atzean pertsona asko gordetzen direla, beren izen eta abizenek, eta norberak hainbat anekdota, hainbat oroitzapen dituela kontatzeko; denak oso interesgarriak. Hemen agertu beharko lukete Amaia, Xabier, Irantzu, Aitzol, Kepa, Txani, Pili, Kike, Agus eta beste hainbat esatari, teknikari, idazle edota kazetari, irratigintzan dabilzanek, baita horien entzuleek ere. Ez dira agertzen, lekuri ez dagoelako, eta agertzen direnak ez dira besteak baino garrantzitsuagoak. Hemen ez dago izarrik.

grabazioak dokumentu historiko bihurtzen dira ia nahi gabe, hori gertatu zitzaidan *Egin Irratiaren* irra-tsaio batzuekin. Ikasgelan adibide gisa aurkeztu nahi nituelakoan, saio batzuk gra-batu nituen; ez nuen uste azkenengoak izango zirenik, baina horrela gertatu zen. Gauza bera suertatu da irrati askeetako jendearekin egindako zinta-trukearen bi-dez heldu zaizkidan artxibo batzuekin, emisora horiek itxi eta gero, haien historia-ren zatitxo bihurtu dira.

Beraz, ondoko haxe esan nahi nizun, irakurtzen hasi nahi duzun horri: eskuen artean duzun liburu honetan ez da agertzen Euskal Herriko irratigintza-ren historia osoa, ezta pasarte guztiak ere; bai, ordea, hura eraikitzeko hezurdura, hasierako puntua, hortik abia zaitezten —zure kuriositateak bultzatzen bazaitu— gehiago ezagutzera, ingurukoei galdetzeraz, ia konturatu gabe bizi izan duzun hainbat pasadizotara itzultzera, pentsamenduaz bada ere. Izan ere, horixe da liburu hau idatzi duenaren helburu bat: irratiari buruzko historia ez ahaztea. Hain xumea den komunikabide horren presentzia ia nabariezina baita gure egunerokotasunean, nahiz eta bere eragina uste duguna baino urrutira joan.

Nire adineko askok gogoratuko dituzte gaixoaldiren batean edo *Herri Irratian* entzuten zituzten ipuinak, edo ama-aitaren disko-eskaintza, laster senda zitezen. Batzuek gogoan izango dute zelako emozioa sentitu zuten, ohean etzanda —oso gazteak baikin— danborradaren hotsekin batera esatariak lehenengo aldiz ikurrina igotzen zela azaldu zuenean. Nork ez ditu gogoan oraindik *Kortaturen Sarri Sarri* edo *La Pollaren Salve Regina*... bezalako kantak irrati aske horietan entzuten zirela, batzuetan audio-kalitatea oso kaskarra zen arren...? Edo, amama izango du gogoan, Errosarioa errezatzen, irratiko esatariaren letaniari jarraituz, edota Elena Francis zelakoaren aholkuak entzuten gakorraz-lana egiten zuen bitartean... Eta zer esan, institutuan geundela, goiz osoan irratiari pega-pega egon ginenean, Tejero izeneko guardia zibil bat Espainiako Kongresuan sartua zela eta... Horietan guztietan irrati zegoen, egongelako tramankulu marroia, handia, edo poltsikoan gordetzen genuen transistore txikia, baina gaur arte ez gara konturatu.

Amaitzeko, Euskal Herrian gaur entzun daitezkeen irrati zerrenda eskaintzen da liburuaren amaieran, baita dialeko zein puntutan aurki daitezkeen ere. Balia-garria izan dadin espero dut, baita kuriositateak irakurlea entzule bihurtzera bultzatzen ere. Euskal Herrian lehenengo emisora abian jarri zenetik ia laurogei urte bete dira; euskarazko irratigintza, berriz, azkenengo hogeitaz garatu da —aurretik ere euskarazko irratsaioak bazegoen ere—. Beraz, oso gaztea da oraindik euskal irratigintza. Gaztea eta etorkizun handikoa —batzuek kontrakoa uste duten arren—; horretarako behar duen gauzarik garrantzitsuena nork entzun izatea da, entzuleek behartuko baitute garatzera eta hobetzera.

1. Irratiaren lehenengo urratsak: Bilboko eta Donostiako aitzindariak

Guglielmo Marconi-k haririk gabeko telegrafia 1897an patentatu zuenean ez zuen pentsatu asmakizun berri hark etorkizunean halako zabalkuntza eta ospea izango zuenik. Fisikarien saiakuntza izatetik komunikabide izaterako igarobidea ez zen agian berak amestutakoa izan, baina, zalantzarik gabe, gaur egun hedabide garrantzitsua da irratia, gure eguneroko bizitzan presente dagoena. Beraz, gure historia-
ren lerro batzuk idatzi ditu, batez ere azkenengo laurogei urteetakoak, orain amaitu berri dugun mendearen hasieran Euskal Herriratu baitzen. Sortu bezain pronto, jarratzaile asko izan zituen asmakizunak, eta berehala heldu zen gure hirietara. Hasieran lanpara- eta galena-hargailuetan munduko beste herrietan egiten ziren emanaldiak entzuten zituzten zaleak irradiaren propaganda-eragile bihurtu ziren, eta laister hasi ziren bertako saiakuntzak.

Euskal Herriko irradi-hedapenaren hasierapuntua, beraz, 1920ko hamarkadan kokatu behar da. Estatuko hainbat hiriburutan bezala, irradi-entzuleen elkarteak¹ sortu ziren Bilbon eta Donostian. Haien helburu nagusietakoa Marconi-ren asma-
kizuna ezagutzea eman eta erabilpena bultzatzea zen. Horrez gain, irrati-
en aldeko mugimendua bultzatu zuten egunkariek, eta T.S.H.² izeneko atalak ageri ziren garai hartako prentsan.


Zaleek berek zuzentzen zituzten haririk gabeko telefoniari buruzko atalak eta, asmakizunaren inguruan sortzen ziren albisteak eskaintzeaz gain, galena-
hargailuak nola egin azaltzen zuten, entzuleek berek egin zitzaten, lanpara-irradiak

1. Irrati-entzuleen elkarte-
en funtzioak honako hauek ziren, Carmelo Garitaonaindiak azaltzen duen moduan:

- irratientzako dirua lortzea, bazkideek ordaintzen zuten kuotaren bidez.
- publizitatearen kudeaketa.
- irradi-lizentziak tramitatzeko gobernuarekiko elkarkidetzak.
- programazioen nondik norakoak ezartzea.

2. T.S.H.: *Telefonía Sin Hilos* delakoari dagozkion siglak dira —Haririk gabeko Telefonía—. Zentzu berean, asmakizun horren zaleak “haririk gabekoak” izendatuak izan ziren. Frantsesez, berriz, *Telegraphie Sans Fils* izenetik hartuta, *tezef* hitza erabili izan da irratia izendatzeko, Gorka Jakobe Palazioak azaltzen duen moduan, *Irratibidearen barrunbean zehar: harigabeko telegrafiatik ziber-irratietara* izenburuko liburuan (UEU, 2000).

oso garestiak baitziren. Hain zuzen ere, galenatarren eta lanparatarren arteko banaketa nabaria zen; lehenengok arazo gehiago baitzituzten emanaldiak entzuteko orduan, eta batzuetan kexati agertzen ziren igorleek kontuan hartzen ez zituztelako. Dena dela, bai batzuek bai besteek zaletasun bera zuten —irratia— eta egunkarrietan beren kezkak, asmoak eta egitasmoak ezagutzera ematen zituzten. Horiez gain, Europako hiriburuetatik eskaintzen ziren emanaldien ordutegia eta programa argitaratzen zuten kazetek, eta Espainiar Estatuan zein Euskal Herrian bertan —lehenengo garai hartan Donostian eta Bilbon— sortzen ari ziren proiektuak ere ezagutarazten zituzten. Beraz, atal haiei esker, irradi-aparatua nola egin edo non erosi —ekoizleek publizitate-euskarri egokia topatu baitzuten— jakin ahal zuen “haririk gabekoak”, baita legedia eta emankizunen edukiak³ ere.



Lehenengo zaleek egindako galena-irradiak.

Irratiak sortzearen aldeko ekimenarekin batera, estatu espainiarreko gobernuak komunikabide berri haren funtzionamendua arautu beharra aurreikusi zuen, eta, beraz, hainbat pauso eman eta gero —gobernuak irratia arautzeko dekretu bat argitaratu zuen 1923ko otsailean—, indarrean jarri zen irradi-hedapenerako lehenengo arautegia 1924ko maiatzean⁴, Primo de Rivera-ren gobernupean. 1924ko arautegiaren arabera, irradi-hedapenaren zerbitzuaren jabegoa estatuarena izan arren, irratiaren kudeaketa eta ustiapena esku pribatuetan geratzen zen, horretarako gobernuak emandako kontzesioen bitartez.

3. Garai horretan ezin da programazioaz hitz egin. Egunez egun, egitarauaren berri ematen zen, aurreko egunekoaren jarraitutasunik ez zegoen eta.

4. 1924an “Reglamento para el establecimiento y régimen de estaciones radioeléctricas particulares” izeneko arautegia eratu zuen gobernuak. Horren arabera, irratiaren garapena esku pribatuetan uzten zen, nahiz eta jabegoa estatuarena izan. Horrez gain, ez zen monopoliorik onartzen eta, horregatik, irratiek ezin zuten beste emisoren lizentziak edo kontzesioak erosi edo beren artean batu. Publizitatea onartzen bazen ere, gehienez orduko bost minutuz emititzen zen. Estatuak emititzeko baimena kendu ahal zien irratiari, ordena publikoaren aurkako ekintzen, nazio-defentsaren edo

bitarteko kuota ordaindu behar zuten, elkartearekin hartutako konpromisoaren arabera⁹.

La Gaceta del Norte egunkariak Bizkaiko irratikluba bultzatu eta lagundu zuen T.S.H. izeneko ataletik. Bien arteko lankidetzak urrutirago jo zuen, eta egunkariak bere egoitza eskaini zion elkarteari; horren truke, klubak antolatzen zituen ekitaldien berri ematen zion kazetari, eta, horrekin batera, publizitatea bereganatzen zuen egunkariak. Irratiklubaren helburuak asko ziren arren, sortu berria zen komunikabideak irratizaleen artean piztutako grinari erantzutea zen xede nagusia, horretarako ekitaldi desberdinak antolatuz. Baina, zalantzarik gabe, klubaren egitasmorik garrantzitsuenak irratia bat sortzea zen¹⁰.

1924ko uztailaren 24an amaitzen zen emititzeko baimena eskatzeko epea, eta Emiliano Amann lehendakariak eskatu zuen irratiklubaren izenean. Erantzunaren itxaronaldian, Bilboko lehenengo emisora urte horretako udan bertan emititzen hasi zen, baimen legalik ez zeukan arren.

Kontzesioa 1925eko urtarrilaren 24an lortu zuen irratiklubak. Aurreko abenduan laugarren mailako transmisorea eskatu eta gero, *Radio Club de Vizcaya* izeneko irratia Euskal Herriko lehenengo emanaldiak eskaini zituen, *EAJ-9* adierazleaz. Hala ere, 1925eko martxoaren 4an hasi ziren emanaldi erregularrak, aurretik froga moduan seinalea aireratu eta gero. Emanaldiak Carlton Hoteletik aireratzen ziren arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara. Emisoraren datu teknikoak honakoak ziren: 415 metroko uhin-luzera eta 1 kW-eko indarra¹¹.

Arrakastatsuak suertatu ziren lehenengo emankizunak, eta berehala ordutegia luzatu zuten irratiko arduradunek, arratsaldeko 18:00etatik gaueko 21:00etara bitartean; era berean, programazioa finkatuz joan zen. Besteak beste, Bizkaiko irratiklubaren osatu zuten klubekoek. Horren ondorioz, emanaldiaren lehenengo ordu eta erdian —18:00etatik 19:30etara— frantsesaren eta ingelesaren ikasketek, literaturak, arteak eta zientziek osatzen zuten programazioa, ondoren musika eskaintzen zuela. Igandeetan, berriz, esperantoari eta euskarari buruzko eskolak eskaintzen zituen irratia, eta baserritar, abeltzain eta arrantzaleei zu-

9. *La Gaceta del Norte*, 1924ko ekainaren 3.

10. *La Gaceta del Norte* egunkariako T.S.H.ko epigrafean *Radio Club de Vizcaya* elkartearen betebeharrak azaltzen da 1924ko maiatzaren 20an: «¿Qué debe ser el Radio Club de Vizcaya? Galenismo; estación emisora; local para reuniones y conferencias; laboratorio radiotelefónico para comprobación de aparatos; estación de carga para acumuladores; reglamentación del manejo de aparatos receptores...». Eta 1924ko maiatzaren 25ean honako hau irakurri ahal izan zen: «Situado Bilbao entre Santander, Vitoria y San Sebastián, tiene una posición estratégica para establecer una estación radioemisora que pronto contaría con miles de oyentes galenistas».

11. 1925eko martxoaren 25eko *La Gaceta del Norte* egunkarian azaltzen denaren arabera: «El aparato emisor es de 1 kilowatio de potencia, trabaja con 415 metros de longitud de onda y su alcance comprobado es superior a 2500 kilómetros, permitiendo escuchar los conciertos en un radio de 50 a 60 kilómetros, con aparatos de ínfimo coste».

zendutako hitzaldiak ere bai, hezkuntza gizarte-maila ezberdinetara hedatzeko asmoz¹².

Urte berean Armando Otero-k *Radio Vizcaya S.A.* izeneko emisora sortu zuen Bilbon¹³, *EAJ-11* adierazlea zuelarik. Bigarren estazio horren sostengurako *Unión Radio Asociación de Vizcaya*¹⁴ izeneko elkarte sortu zuten hainbat irratizale bilbotarrek 1925eko otsailean, eta lehendakaria Langa jauna izan zen. Carmelo Garitaonaindiaren ustetan, dirua jarri zuen enpresa, berriz, *Compañía Ibérica de Telecomunicaciones* izenekoa izan zen (Garitaonaindia, 1988: 34). Entzuleen elkarte horren eta irradi-klubaren arteko harremana eztabaidatsua izan zen. Lehenengoek programazioan parte hartuko lukeen entzuleen elkarte bat osatzeko beharra azpimarratzen zuten, eta klubekoek, berriz, beren elkarteak funtzio hori betetzen zuela argudiatzen zuten. Era berean, azken horien esanetan, berek martxan ziren Bizkaiko emisora biak bultzatzen zituzten bitartean, *Radio Vizcaya* irratiarekiko atxikimendua soilik bilatzen zuela leporatzen zioten entzuleen elkarteari¹⁵.

Radio Vizcaya izeneko emisora Bilboko *La Terraza*-tik emititzen hasi zen 1925eko maiatzean. Lehenengo emanaldiak proba moduan eskaini zituen hilean zehar —31n azkenengo proba-emanaldia iragarri zuen egunkarian—, eta emititzeko baimena ekainaren 19an lortu zuen. *Radio Vizcaya* izeneko irratiazen ezaugarri teknikoak honako hauek ziren: *De Forest* izeneko eta *D-MR* motako transmisorea zerabilen, eta hasierako 1 kW-eko emisio-potentzia bikoiztu zuen 35 metroko antenari esker. Emisora 418 metroko uhin-luzeran kokatzen zen, eta Bilbotik oso hedadura-eremu zabalera heltzeko gaitasuna zuen¹⁶.

Aipaturiko bi irradi-estazioek emititzen zuten legalki Bilbon, eta, garaiko kronika-egileen arabera, noizbehinkako emanaldiak eskaintzen zituzten beste zale batzuek hainbat lekutatik, Palomo Hoteletik eta Santutxu¹⁷ auzotik, hain zuzen ere;

12. *La Gaceta del Norte*, 1929ko apirilaren 25.

13. Emisora horren eraiketaren iragarpena *La Gaceta del Norte* egunkarian aurkitu dugu. Bertan, irradi-estazioaren teknologia espainiarra zela azpimarratu zuen kronika-egileak. Era berean, Estatuko indarrak gehien izan zuen emandegia zela esaten zuen, 3 kW-eko potentzia izango zuela aurreikusten zuten eta. Emisoraren egoitza Hurtado de Amezaga kalean kokatuta zegoen.

14. 1925eko urtarrilaren 25ean, *Radio Vizcaya S.A.* izeneko elkarteak *Unión Radio Asociación de Vizcaya* zelakoarekin lankidetzat bultzatzeko asmoa iragarri zuen *La Gaceta del Norte* egunkarian: «(...) acepta igualmente en principio la intervención y ayuda de delegados de la Unión Radio Asociación en la dirección artística de nuestra empresa (...); celebraremos que la Unión Radio Asociación cuente pronto en fraternal unión con la adhesión de los aficionados de Vizcaya, vistos los planes dignos de aplauso de dicha Asociación, los alicientes que presenta para sus asociados y las reducidas cuotas que se señalan». Elkartearen osaketari buruzko informazioa egunkari bilbotarrean aurkitu dugu, 1925eko otsailaren 19ko alean.

15. *La Gaceta del Norte* egunkarian eztabaida horren inguruko gutun asko jasotzen dira 1925eko udan zehar.

16. *La Gaceta del Norte*, 1925eko urtarrilaren 22.

17. *La Gaceta del Norte*, 1925eko ekainaren 11.

horiez gain, Olabeagatik egindako emanaldiak ere entzun zituzten irratizaleek¹⁸. Halaber, entzunaldiak nondik jasotzen zituzten eta nondik zetozen kokatu ezinik ibiltzen ziren behin baino gehiagotan irratizaleak¹⁹. Hori zela eta, arazoak sortzen ziren Europako beste hirietatik heltzen ziren emanaldiak jasotzeko, batez ere galena-aparatuak zituztenentzat, eta ezinezkoa bihurtzen zen hartzea. Hori dela eta, irradi-aparatuak eta osagaiak saltzen zituzten merkatariaak bildu ziren *Radio Bilbao* izeneko elkartearen. Haien eskaeren artean bertako irratiaren emanaldien murrizketa zegoen, horrela Europatik heltzen zirenak arazorik gabe entzun ahal izateko. 1925eko maiatzean sorturiko elkarte horren helburuak, berriz, zabalagoak ziren eta, besteak beste, irratientzako dirua biltzeko asmoa zuten²⁰. Beste aldetik, haien xedeen artean entretenimendu zientifikotzat jotzen zuten asmakizun berri hura giza sektore guztien eskura jartzea zegoen, maila umilekoenera ere bai²¹. Elkarte horretan, irradi-aparatuen saltzaileez gain, pertsonaia bilbotar ezagunek parte hartzen zuten²².

Irrati-emanaldiek zeukaten arrakastaren isla izan ziren Bizkaian sortutako entzuleen elkarteak²³. 1925eko udan beste talde berri bat sortu zuten zaleek, *Asociación Vasca de Aficionados Radio Escuchas* izenekoa, alegia. Helburu nagusia programazioetan parte hartu eta emanaldi batzuk antolatzea izan zen. Hain zuzen ere, *Radio Vizcaya* emisoratik eskaini ziren kontzertu batzuk bultzatu zituen elkarteak²⁴.

Radio Club de Vizcaya delakoaren irratia 1927an *Unión Radio* enpresaren eskuetara joan eta gero, beste elkarte berri bat sortu zuten entzuleek, *Unión de Radioyentes* izenekoa. Helburua *Unión Radio Bilbao* izeneko emisoraren sostengua izatea zen. Emiliano Amann izan zen presidentea, irradi-klubeko zuzendaria izan zen berbera²⁵.

18. *La Gaceta del Norte*, 1925eko ekainaren 16.

19. Kokatu ezin zituzten emanaldi horien existentziaren lekukotasuna dago *La Gaceta del Norte* egunkarian 1925eko urtarrilaren 16an argitaratutako entzule baten gutunean. Entzule hark zioenez, gauean honakoa entzun zuen: «*Ume eder bat tal y como se canta en Donostia (sic) y el Guernicaco Arbola (sic.)*». Urtarrilaren 18an beste entzule batek erantzun zion, emanaldia Madrilgo *Radio España* zelakotik zetorrela argituz.

20. *La Gaceta del Norte* egunkariak 1925eko maiatzaren 2an elkarte horren berri eman zuen: «*No pueden ser más simpáticos. Recaudar fondos para cooperar al mejor éxito de las emisoras locales. En los Estatutos se consignan los medios de contribuir al desarrollo de este nuevo entretenimiento científico al alcance de todas las clases sociales, por humildes que sean*».

21. *La Gaceta del Norte*, 1925eko maiatzaren 16.

22. *La Gaceta del Norte* zelakoan pertsona horien partaidetzaren berri eman zuten, 1925eko maiatzaren 6an: «*(...) varias significadas personalidades bilbaínas de indiscutible autoridad en la ciencia, en la literatura y en la música*».

23. *La Gaceta del Norte* egunkariak 1924ko ekainaren 10ean eman zituen datuen arabera, Bizkaian 300 irradi-entzule edo "haririk gabeko" zale ziren, Estatuan, berriz, 25.000.

24. Elkarte horren arautegia irailean osatu zuten, eta kontzertu baten lehenengo emanaldia urriaren 3an antolatu zuen.

25. *La Gaceta del Norte*, 1927ko apirilaren 17.

handitzeko baimenik lortu, eta Carlton-etik emititzen zuen irratiairen seinalea entzuteko arazoak zituzten entzuleek, batez ere, galena-irratia zutenek³⁵. Azkenean, itxi egin behar izan zuen, Donostiakoa geratu zen Hego Euskal Herriko emisora bakar gisa, eta Penintsularako iparraldeko zonalderako buru bihurtu zuen *Unión Radio* enpresak.

Aurretik, *Unión Radio* delakoak kateko emanaldi batzuk eskaini zituen Bilboko eta Donostiako irratien seinaleen bidez. Hala nola, *EAJ-7 Unión Radio Madrid* izeneko irratiairen lehenengo urteurrenean —1926ko ekainaren 17an— *Radio Barcelona* emisorarekin batera emititu zuen *Radio San Sebastián* estazioak (Gari-taonaindia, 1988: 39). 1927ko martxoaren 31n, berriz, *Unión Radio Bilbao* irratia *Union Radio Madrid* estazioarekin batera katean emititzen hasi zen. Bilboko Udaletxetik agurra eta euskal musikaren programa bat eskaini zituen emisorak (Ezcurra, 1974: 208). Madrilgo irratiairen bigarren urteurrenean sei izan ziren katean emititu zuten irratia, emandegi donostiarrarekin eta bizkaitarrarekin batera, Madril, Bartzelona, Sevilla eta Salamanca-koek ospatu zuten urtebetetzea (Gari-taonaindia, 1988: 40). Urte berean Donostiako emandegia katearen barruan sartu zen osorik, eta oso irati garrantzitsua izan zen *Unión Radio* taldean, bere hedadura-eremua oso zabala baitzen, tokikotasuna gainditzen zuena. Estatu osoko entzuleriak emankizun asko jaso ahal izan zituen; besteak beste, zezen-plazatik Uzku-dunen eta Haymann-en arteko boxeo-burrukaldia eskaini zien zuzenean *Radio San Sebastián* irratia Madril, Bartzelona eta Sevillako emandegiei (Ibidem: 41). Era berean, 1927ko maiatzean *Unión Radio San Sebastián* delakoak Zaragozan burutu zen Real Madrid futbol-taldearen partida zuzenean eskaini zuen (Ezcurra, 1974: 208).

Beraz, *Unión Radio* enpresak aurrera eramaneen erorketa- eta batze-prozesuaren ondorioz, gutxi ziren lehenengo dekretuaren arabera estatuan martxan gelditzen ziren emandegiak; Euskal Herrian Donostiakoa besterik ez zegoen.

estaciones emisoras de Madrid y Bilbao, elevando en la primera su potencia, y en cuanto a la segunda, no sólo pretendía elevar su actual potencia, sino que nos iba a proporcionar la gran satisfacción de cambiar su actual instalación y emplazamiento, suprimiendo con ello el grave y molesto defecto de la actual estación...».

35. *La Gaceta del Norte* egunkariak arazo horien berri eman zuen, 1928ko martxoaren 28an: «(...) Según nuestros informes, Unión Radio no sólo no ha logrado obtener el permiso solicitado para llevar su estación a Archanda, sino que tampoco le han concedido autorización para aumentar la potencia (...) los lampistas continuarán oyendo el molesto zumbido que caracteriza al aparato emisor de la estación del Carlton. Los galenistas (...) pueden perder la esperanza de un próximo aumento de potencia en la recepción».

2. 1930eko hamarkadaren nahasketa, irratigintzan ere bai

Donostiako *Radio San Sebastián* delakoa zen Euskal Herrian zegoen emisora bakarra 1930ko hamarkadaren hasieran, Bilboko bi emisorak itxi eta gero. 1930eko abenduan irratitari buruzko dekretu berri bat ezarri zuen Berenguer-en gobernuak, zeinak irradi-kontzesioei buruzko behin behineko plangintza ezarri zuen. Horren bidez, «*Provincias Vascongadas*» izeneko eskualdeari —Gipuzkoak, Bizkaiak eta Arabak osatutakoari— 10 kW-eko irratia sortzeko kontzesioa egokitu zitzaion. Erabakia, ordea, ez zen indarrean jarri (Garitaonandia, 1988: 47).

II. Errepublikaren garaian ere egon ziren irradi-hedapenari buruzko plangintza batzuk. Besteak beste, 1931ko azaroaren amaieran *Ministerio de Comunicaciones* zelakoak estatuan zehar hamairu estazio jartzeko asmoa agertu zuen; horietako bat Bilbori egokituko zitzaion, eta 1 kW-eko potentzia izango zuen. 1932ko apirilean kontzesio horiek lehiaketara atera arren, ez zen epairik eman eta irradi-hedapenarako sare estatala osatzeko saiakera bertan behera geratu zen (Garitaonandia, 1988: 59).

Urtebete beranduago, 1932ko azaroan argitaratutako dekretu baten bidez, tokiko emandegiak sortzeko kontzesio berriak eskaini zituen Madrilgo gobernuak. Irrati horiek oso potentzia txikikoak ziren —200 edo 300 watiokoak—, eta beren hedadura-eremua oso lokala. Dekretu horren bidez, Hego Euskal Herriko hiriburu guztiek lortu zuten irratia izateko kontzesioa¹.

Dekretu horren ondorioz sortutako lehenengo emisora Iruñeko *Radio Navarra* (EAJ-6) izan zen. Emititzeko baimena 1933ko hasieran lortu zuen arren, horren berri beranduago eman zuten Iruñeko egunkariak; hain zuzen ere, 1932ko abenduan argitaratu zen lehenengo aldiz *Radio Navarra* izena prentsan (Albillo eta Sánchez

1. Dekretu horretan ez zen kontzesioen iraupena ezartzen. Hala ere, bertan behera uzteko arrazoiak azaltzen ditu Carmelo Garitaonandiak: «*Se señalaban tres causas para la caducidad de la concesión: que no se ajustaran las condiciones técnicas de la emisora a las señaladas; que el Estado instalase una estación radiodifusora de la red nacional en la misma localidad y que sin causa justificada se dejara de emitir un mínimo de dos horas de programación*». Publizitatea orduro 10 minutuz emititu ahal zen, eta horren bidez eskuratutako diruaren %20 Estatuak jasotzen zuen. *Dirección General de Telecomunicación* izeneko erakundeak ikuskatu behar zuen irradi horien funtzionamendua (Alvarez, J. T., eta beste batzuk, 1992: 71)

mak arratsaldeko 13:00etatik 15:00etara, eta gaueko 21:30etatik 23:00etara emititzen ziren, eta kulturak, kirolak, nekazaritza eta haurrak ziren ardatz nagusiak⁵.

Beste dekretu baten bidez, 1934ko urtarrilaren 27an, gobernu espainiarrak kontzesio berriak emateko epea itxi zuen, eta 1924ko kontzesioak —horien artean, Donostiako *Radio San Sebastián* irratia— behin betiko egin zituen. Dekretu horretan, hirurogeita zazpi estazioen existentzia ezagutzen zuen gobernuak; irradi horietako berrogeita hemeretzi tokikoak edo lokalak ziren, zazpi 1924ko dekretuaren arabera, eta beste bat, berezia (Ezcurra, 1974: 244). Euskal irratiei zego-kienez, *Unión Radio* enpresarena zen Donostiako *Radio San Sebastián*, baina beste guztiak pertsona partikularren eskuetan zeuden. Luis Ezcurrak irradi horien jabeen eta emisio-potentziaren arabera sailkapen hau eskaini du (Idem: 245):

Emandegia	Sorrera-dekretua	Jabea	Potentzia (W)
EAJ-6 Radio Navarra	1932	Ismael Palazio	200
EAJ-8 Radio Sn. Sn.	1924	Unión Radio	3000
EAJ-26 Radio Emisora Bilbaína	1932	Daniel Urquijo	200
EAJ-66 Radio Tudela	1932	Aurelio Hernández	200
EAJ-62 Radio Vitoria	1932	Francisco Hernández	200

Garaiko programazioetan, musika nagusi

Irrati-programazioaren kontzeptua emanaldien erregularotasunarekin batera jaio zen. Lehenengo irradi-emankizunetan, isolaturiko saioak eskaintzen ziren, jarraitutasunik izaten ez zutenak. Uhin bidezko komunikabide berriaren hedadura zabalduz joan zen heinean, edukia osatu behar zutela konturatu ziren arduradunak. Era berean, publizitate-euskarri ona zela konturatzean, egunerokotasuna eta parrilla finkatzea lortu zuen irratigintzak. Era berean, disko bigunaren asmakizunak grabaturiko soinuak —musika, bereziki— eskaintzeko aukera berria zabaldu zien emisorei. Irrati-programazioak egunkarietan iragartzen ziren; laburrak ziren, ordu-tegi-tarte ezberdinetan banatuta.

Esan bezala, 1920ko hamarkadan eskaintzen ziren emanaldietan kontzertuek osatzen zuten tarterik handiena, hirietako bandek edo orkestrek zuzenean eskaintakoak edota, beranduago, lehenengo grabazioen entzunaldiak. Lehenengo programazio horietan, kanpoko orkestren kontzertuen ondoan, bertako musikaren ema-

5. Machain, F.: <www.euskalnet.net/fmachain/page19.html>.

naldiak aurkitu ahal izan ditugu. Horrez gain, astiro-astiro hitza sartu zen parrillan, eta hitzaldiak, testu literarioen irakurketak eta horrelako beste saio batzuk eskaintzen zituzten hainbat adituk. 1930eko hamarkadan aisialdirako eskaintza zabala ematen saiatzen ziren emisorak, oraindik ere musikak tarte handiena osatzen zuen arren. Horregatik, irradi gehienek beren orkestra izaten zuten. Donostiako *Radio San Sebastián* delakoaren orkestraren eta Donostiako Sinfonikoaren kontzertu bateratuak antolatu zituen irradiak, baita konpositore batzuei buruzko zikloak ere. Esaterako, 1934an “*Gran Concierto de Música Española*” izeneko saioa eskaini zuen Ernesto Halfter-rek Paristik, eta Maria Ortiz eta Gaspar Casado abeslariak parte hartu zuten. 1934ko abuztuan, Vienako Orkestra Filarmonikoak kontzertua eskaini zuen Salzburgotik, Arturo Toscanini-ren zuzendaritzapean.

Radio Navarra zelakoak, bere aldetik, Antonio Pertierra, Luis María Pérez eta Elías Arizcuren osaturiko hirukotearen kontzertuak eskaini ohi zituen, baita *Los Cuatro* izeneko laukotearenak ere. Horrez gain, lehen hezkuntzako hiru irakaslek hezkuntzari buruzko hitzaldiak eskaintzen zituzten (Albillo eta Sánchez Aranda, 1995: 38). Bestalde, zezenek, eta espresuki San Fermin jaiek, toki garrantzitsua zuten udako programazioan.

Javier Díaz Noci irakasleak dioenez, *Radio San Sebastián* delakoak euskarazko saioak eskaini zituen hasieratik. Era berean, *Argia* aldizkariak oso begi onez hartu zuen komunikabide berria, euskara eta euskal kultura hedatzeko oso tresna egokitzat jotzen zuelako —kontuan hartu behar da, lehenengo garai horretan emisorak Europa osoan entzun ahal zirela—. Emandako garrantziaren adibidez, astekariak programazioa argitaratzen zuen, eta horrez gain, bertako bi idazlek —Joseba Zubimendik eta *Luzear* ezizena zuen Ander Arzelusek— parte hartu zuten irratsaio horietan. Gainera, 1925eko amaieratik aurrera irratitari buruzko zutabe bat eskaintzen zuen *Argiak*, *Nabarritzarrak* sinatua (Díaz Noci, 1991: 367-374).

Musika nagusi zen arren, erlijioak bazuen bere tokia parrilla horretan; Díaz Noci-ren esanetan: «Erljioak ere garrantzi handia zuen. Euskaltzaleek irradiak izan zezakeen garrantzia, euskara ez ezik katolikotasuna ere zabaltzeko ikusi zuten» (Ibidem: 370). Iñaki Caminok 1934ko irailaren 9an kokatzen du Euskal Herriko meza baten zuzeneko emanaldia, hain zuzen ere, Arantzazuko Mezaren eman-kizuna eskaini zuen Donostiako emisorak Santutegitik bertatik. Abestutako meza zen hura eta, beraz, ekitaldi hartan erlijioa eta musika batu ziren.⁶ Gabonetako mezek, Aste Santuko ospakizunak eta beste ekitaldi erlijioso batzuek ere lekua izan zuten euskal emisoretan.

Kontzertuek eta diskoek programazioaren tarte handia bete zuten arren, beste ekitaldi kultural batzuk ere eskaintzen ziren: hala nola, antzerkiari edo zinemari buruzko kritikak, eta, ahal zenean, protagonistei egindako elkarrizketak; gaztelania

6. Iñaki Caminok aipatua, “Radio Euskadi, de la clandestinidad antifranquista al cyberespacio”, EHUKo Udako Ikastaroetan eskainitako hitzaldian, Donostian, 2001eko uztailaren 23an.

ez beste hizkuntzei buruzko eskolak —baita euskarari buruzkoak ere, batzuetan— eta ipuinen edo eleberrien irakurketa. Entseguak eta artikuluak ere irakurtzen zituzten esatariek edota irakasleek, eta azken horiek oso pulpitu egokia aurkitu zuten eskola magistralak eskaintzeko. Beste batzuetan, adituen mintzaldiak edo agerraldiak beste nonbaitetik eskaintzen ziren zuzenean.

Horrez gain, nekazaritzari buruz baserritarrei zuzendutako informazioak ere agertzen ziren irradi-emankizunetan, eguraldiari buruzko buletinekin batera. Kirolak ere berehala hartu zuen garrantzia lehenengo emanaldi horietan: futbol-taldeen gora-beherak eta partida garrantzitsuenak eta zezen-kronikak, batik bat.

Irratiek informazioa ere eskaintzen zuten, baina garai horretan oraindik oso lotuta zegoen kazetaritza idatzian erabilitako taxuerei, eta askotan egunkariak argitaraturiko albisteak irakurtzera mugatzen ziren esatariak, taxuera propiorik landu gabe. Dena dela aipatzekoa da *Radio Emisora Bilbaína* zelakoak eskaintzen zuen *Alas* izeneko albistegia, zeinak oso garrantzi handia hartu baitzuen gerra-garaian. 1936ko erdialdean, Guda Zibila heltzean frogatu zuen irratia bere balioa zuzeneko eta lehen eskuko albisteen berriemate gisa.

Merkatariak ez ezik, politikoak ere berehala konturatu ziren beren mezuak zabaltzeko orduan komunikabide berriak eskaintzen zituen aukerak askotarikoak zirela, eta, ondorioz, hasieratik irratia erabiltzen saiatu ziren propaganda-tresna gisa. Dena dela, II. Errepublikako Gobernuak debekatu egin zuen uhin bidezko propaganda politikoa 1933ko azaroaren hauteskundeetan, horien berri eman ahal bazuten ere. Sevillan Sanjurjo jeneralak eman zuen estatu-kolpeak irratietan izan zuen oihartzunaren ondorioz, edozein agerraldi edo ekitaldi politikoren emanaldia debekatu zuen gobernuak 1934an eta, ondorioz, irradi bidezko diskurtso politikoen emanaldiak bertan behera geratu ziren (Garitaonaindia, 1988: 94).

Hala eta guztiz ere, Asturias-ko *Urriako Iraultzak* eragin handia izan zuen Hego Euskal Herrian, eta horren berri eman zuten bertako irratiek. Carmelo Garitaonaindia historialariak dioenez, garai horretan Bizkaiko gobernadore zibila zen Velarde jaunak *Radio Emisora Bilbaína* izenekoetik hitz egin zien herritarrei. Murgaja jaunak, berriz, Donostiako *Unión Radio San Sebastián* emisoratik lasaitzeko deia zabaldu zuen, bertako esatariak irakurritako oharren bidez. Dena dela, orduan gertatutakoa sobera gainditu zuen, zalantzarik gabe, urtebete eta erdi beranduago gertatu zen altxamendu militarrek.

Euskal irratia Espainiako Gerran

Franco jeneralaren estatu-kolpearekin batera ia hiru urtez iraungo zuen gerra zibila hasi zen estatu espainiarrean, 1936ko uztailaren 18an. Bai Errepublikako gobernu legítimoak, bai Francoren matxinatuek propaganda- eta informazio-bitartekari moduan erabili zuten irratia. Emisora handien artean, Kataluniako *Radio Barcelona* eta *Radio Associació*, Madrilgo *Radio España* eta *Unión Radio*,

Radio Valencia eta Donostiako *Radio San Sebastián* izenekoak II. Errepublikako alderdien eskuetan geratu ziren. Matxinatuek, berriz, emisora bakar bat zuten, *Radio Sevilla* izenekoa. Dena dela, altxatuek gerra-propagandarako tresna moduan hobetu erabiltzen jakin zuten, aditu batzuen ustez, eta lehenengo unetik beren proklamak irakurri zituzten mikrofonoetatik; Errepublikakoek, berriz, informazio zentsuratua ematen zuten.

Hego Euskal Herrian, Altxamenduaren egunean bertan eta hurrengoetan ez zen prentsarik argitaratu; eta militarrek estatu-kolpea eman zutela jakin orduko, irratira jotzen zuten herritarrek berri gehiagoren bila. Uhinak zentsuratuta zeuden, eta Casares Quiroga-ren gobernu baikor eta lasai agertzen saiatzen zen, populazioari dena kontrolpean eta bare zegoela sinetsaraziz. Bitartean, ordea, *Radio Sevilla* zelakoa entzuten zutenek beste mota bateko informazioa jasotzen zuten, “nazionalek” lehenengo unetatik zabaldu baitzituzten⁷ beren mezuak.

Beraz, Hego Euskal Herrian —estatuko beste lekuetan bezala— emisorak ziren informazio-bide bakarra. *Unión Radio San Sebastián* Hego Euskal Herriko estaziorik indartsuena zen garai horretan, eta bertan irakurri zuten, altxamendua ezagutu bezain pronto, EAJko Manuel de Irujo eta J. M. Lasarte diputatuek bidali zuten oharra, Errepublikako gobernu legitimoaren alde (Garitaonandia, 1988: 162-163).

Militarrek ere erabili zuten *Unión Radio San Sebastián* bozgorailu moduan. Garitaonandiak azaldutakoaren arabera, Carrasco izeneko koronel batek soldaduak bidali zituen emisora zaintzera, eta bertan zegoen Angel Molina esatariari gerra-bandoa idazteko eta irakurtzeko agindua eman zion⁸. Dena dela, miliziako gudariak militarrek bertan zirela jakin bezain pronto, irratiairen egoitzara sartu eta bota egin zituzten, eta, normaltasunera itzuli ondoren, gerra-egoeraren aldarrikape-na gezurtatu eta faxisten ekintza puntuala izan zela esan zuten⁹. Arratsaldean, berriz, EAJko Manuel de Irujo eta J. M. Lasarte diputatuen oharra irakurri zuten (Ibidem: 163).

Radio Emisora Bilbaína irrati bilbotarraren emanaldian ere EAJren oharra irakurri zuten, eta, irakurritakoaren arabera, gobernu errepublikarraren alde agertu zen euskal alderdia. Gauean, berriz, Echevarría Novoa gobernadore zibilak lasaita-

7. Garitaonandia, C. (1988): “Información, propaganda y guerra de ondas en el País Vasco (1936-37)”, *Muga*, **62**, 32.

8. Bandoak honako hau zioen: «Resignado el mando de la autoridad civil, y habiendo secundado las fuerzas de la guarnición el movimiento militar encaminado a terminar con el actual estado de anarquía, y a restablecer el orden en la patria, queda declarado el estado de guerra en la capital y provincia, entrando en vigor todas las disposiciones del Código de Justicia Militar, sometidos a mi autoridad todos los infractores de las mismas y cuantos perturben el orden. De la sensatez y patriotismo de todos los guipuzcoanos espero la colaboración necesaria. ¡Viva España! ¡Viva el Ejército! El comandante militar, León Carrasco” (Ibidem: 33).

9. Ibidem.

sunak mantentzeko eta Errepublika defenditzeko deialdia egin zuten herritarrei. Era berean, autoak Kale Nagusian ziren soldadu-taldeen eskuetan uzteko deia egin zuen. Estatu-kolpearen aurka protestatzeko uztailaren 20an greba egiteko, eta *Frente Popular* zelakoak, *EAJk* eta *Euskal Langileen Elkartasunak* antolaturiko gudari-taldeei janaria emateko deialdia egin zuten agintariek Bilboko estaziotik (Ibidem: 166).

Nafarroan, berriz, matxinatutako militarrek erabili zuten *Radio Navarra*, uztailaren 19an pikete batek okupatu eta gero. Mola jeneralak berak hitz egin zuen emandegitik. Gerra-egoera aldarrikatu zuen, eta, horrekin batera, grebak, manifestazioak eta alderdien ekitaldi guztiak debekatu zituen (Albillo eta Sánchez Aranda, 1995: 51). Molak oso tresna egokitzat jotzen zuen irratia eta, beraz, *Radio Navarra* izenekoaren emisio-potentzia gehitu zuen, lehenengo pauso moduan (Ibidem: 157). Jenerala beste une batzuetan ere agertu zen emisoran, gerraren gorabeherak azaltzeko, “nazionalen” aurrerapenak, batik bat. Bertatik egindako aldarrikapenez gain, Queipo de Llano-k, *Radio Sevilla* delakotik, eta Francok, Burgosko *Radio Castilla* izenekoetik egiten zituzten aldarrikapenak eta agerraldiak ere ematen zituen *Radio Navarra* zelakoak. 1937ko ekainaren 14tik aurrera, emanaldi horiek Salamancako *Radio Nacional* delakotik eskaintzen hasi ziren (Albillo eta Sánchez Aranda, 1995: 51-53).

Radio Navarra zelakoa *Junta Central Carlista de Guerra de Navarra* zelakoaren eskuetan geratu zen, 1937ko martxoaren 10ean, ehun mila pezetaren truke (600 euro, gutxi gorabehera). Jabeen aldaketarekin batera, izena ere aldatu zuen emisorak, eta 1984ra bitartean *Radio Requeté de Navarra* deitu zen estazioa (Ibidem: 56).

Errepublikaren alde, mikrofonoetatik

Donostiako *Radio San Sebastián* desmuntatu eta tresneria Debara eraman zuen Jaurilaritzak, bertan hamar egun egon ondoren, Getxoko Galeako Golf-klubera eraman eta *Euzkadi Irratia* izena eman zioten (Arrieta eta Rodríguez, 1995: 7). Donostian geratu zen emisora, ordea, *Radio Requeté* adierazleaz emititzen hasi zen, 1936ko irailean hiriburu gipuzkoarra Francoren armadaren eskuetan erori eta gero.

Era berean, Eusko Jaurilaritza osatu baino astebate lehenago, 1936ko irailaren 30ean, *Radio Emisora Bilbaína* emisoraz jabetu zen Errepublikako gobernua. Irrati horren bidez, informazioa eskaintzen zuen goizeko 8:30etan eta arratsaldeko 14:00etan. Gauean ere informazio-saio berezia eskaintzen zuten uhin ertainean eta estralaburrean, azkenengo hori herri frantsesari eta ingelesari zuzendua. Díaz Noci-k dioenaren arabera, eguerdiko eta gaueko albistegiak euskaraz ere eskaintzen ziren 1936ko urriaren 28tik aurrera, Estatutuaren onarpenarekin batera euskararen ofizialtasuna onartzearen ondorioz (Díaz Noci, 1991: 374). Beraz, aipaturiko bi emisora horiek —eta uhin laburreko beste bi— izan ziren Jaurilaritzaren emisora ofizialak, altxatuak Bizkaian sartu ziren arte.

RADIO REQUETE DE NAVARRA EAJ 6-Cadena SER PAMPLONA PROGRAMA DE ONDA MEDIA	
8'00	APERTURA
8'02	BUENOS DIAS, DOMINGO
10'00	HOY ES FIESTA
10'30	RADIO VERANO
12'00	EL GRAN MUSICAL
13'05	REVISTA INTIMA
13'30	MUSICAL TURISMO
14'00	GRAN DEPORTIVO
14'30	INFORMATIVO SER
15'00	NECROLOGICAS Y PERDIDAS
15'05	CARTELERA DE ESPECTACULOS
15'15	FELIZ SOBREMESA
17'00	CARRUSEL DEPORTIVO
17'30	FUTBOL: Partido ESPAÑA-BELGICA
20'00	DEJESE LLEVAR
20'30	LOS SUPERVENTAS
21'55	NECROLOGICAS Y PERDIDAS
22'00	INFORMATIVO SER
22'15	CANCIONES DE OTRO TIEMPO
22'45	ESTA NOCHE...
	GANDES ORQUESTAS
23'30	HORA 25 EXTRA GARCIA
	MEDIANOCHE
2'00	CIERRE
8'00	APERTURA
8'03	DISCO DOMINGO
14'00	MUSICA EN EL AIRE
24'00	TIEMPO DE JAZZ
1'00	CIERRE

Radio Requeté izeneko emisorearen programazioa agertu zen *Egin* egunkarian, 1980ko hamarkadaren hasieran.

Jaurilaritzaren eskuetan geratu eta gero, asko izan ziren euskal politikarien agerraldiak mikrofonoen aurrean. Echevarría Novoa gobernadore zibilak Autonomia Estatutuaren onarpenaren berri eman zuen 1936ko urriaren 1ean, *Radio Emisora Bilbaína* zelakotik¹⁰.

10. Ibidem: 43.

Jose Antonio Agirre lehendakariak, adibidez, Jaurilaritzak sei hilabete betetzen zituela eman zuen gobernuaren ekintzen berri. Aurretik, 1936ko Gabonen aurrean, abenduaren 22an, mezu instituzionala irakurri zuen. Agerraldi horietan euskaldunei deialdi zuzena egin zien, Errepublikaren eta Euzkadiren alde borrokatzeko¹¹.



Radio Emisora Bilbaína zelakoak Gernikako bonbardaketari buruzko irratsaio berezia eskaini zuen.

Gernikako bonbardaketaren ondoren ere hitz egin zuen Jose Antonio Agirrek. 1937ko apirilaren 26an, herri bizkaitarra bonbardatu eta hiritar asko erail zituzten hegazkin alemanek. Francoren aldeko irratietatik¹² bonbardaketa euskaldunek euskaldunen aurka buruturiko erasotzat aurkezten zuten bitartean, *Radio Emisora Bilbaína* zelakotik lehendakariaren ohar bat irakurri zuten. Egun batzuk berandua-go, maiatzaren 4an, bonbardaketari buruzko irratsaio berezia eskaini zuen emisora bilbotarrak, Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak antolatua, eta gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egina. Saio horretan, Gernikako alkatea zen Jose de Labauría-k bere testigantza emateaz gain, Andra Mari elizako Eusebio Arronategi apaizak ere azaldu zuen berak ikusitakoa. Telesforo Monzonek —orduan Gobernazio Sailburua zenak— Bonbardaketaren ondorioak azaldu zituen, eta Jesús María Leizaola Justizia eta Kultura Sailburuak hildakoen zerrenda irakurri zuen¹³.

Bizkaia Franco jeneralaren armadaren eskuetan erori ondoren, emisora bilbotarraren izena ere aldatu zuten frankistek, eta *Radio Requeté* izena izan zuen ekainetik “nazionalak” Santanderrera sartu arte. Ondoren, 1937ko abuztuan, *Radio España de Bilbao* izendatu zuten, gerra amaitu arte. Lehia armatua bukatu eta gero, gaur duen izena hartu zuen: *Radio Bilbao*, alegia (Sánchez Tirado, 2000: 300). SER kate espainiarrak erosi zuen emisora 1943an.

11. Ibidem: 44. Diskurtso horien laburpenak eskaintzen ditu Garitaonaindiak, garaiko prentsatik hartuta.

12. C. Garitaonaindiak azaltzen duen legez, Nafarroako *Radio Requeté* zelakoak gezurtzat jo zituen bonbardaketaren berriak, eta *Radio Salamanca* zelakotik, berriz, Agirreri berari leporatu zioten erasoak. Bertsio hori bera defenditu zuten Queipo de Llano-k *Radio Sevilla* izeneko emisoratik eta Alemaniako hainbat irratik (Ibidem: 45).

13. Ibidem: 45.

3. Ezkutuko irratia, erbestetik Hego Euskal Herrira, Uhin Laburrean

Aurreko atalean esan den bezala, Eusko Jaurlaritzaren eskuetan zegoen irratia isildu zuten “nazionalak” 1937ko ekainean, Bilbon sartu ondoren. Uhinen isiltasunarekin batera, euskal herritar askoren ahotsa isildu zen. Batzuk bertan geratu ziren —erregimen berriaren aldekoak ere bazeuden—. Beste batzuek, berriz, erbestera eramango zituen bidaia bat hasi zuten, gartzeletatik, Estatuko beste nazioetatik edota kontzentrazio-zelaietatik pasatu eta gero; gutxi batzuek, ordea, utzitako lurretara itzultzeko erabakia hartu zuten, aurkituko zutenak beldurtzen bazituen ere. Europara —estatu frantsesera, batik bat— joan zirenek beste gerra bat jasan behar izan zuten sei urtez, Munduko II. Gerra, alegia, baita horretan parte-hartze zuzena izan ere.

Barruan geratu zirenek, berriz, ez zuten zorte handiagorik izan, goseteaz eta pobreziaz gain, errepresio politikoa bortizki jasan behar izan baitzuten. Francoren aurka ezin hitz egin, eta, egitekotan, ezkutuan eta ahopeka egin behar zen, auzokoak entzun ez zezan, badaezpada. Irratiak, bitartean, optimismoa eta folklore espainiarra eskaintzen zituen, irabazleen mezuekin nahastuta. Informazio guztiak zentsuratzen zituen erregimenak, eta oso zaila zen erresistentziaren ekintzak edo errepresioaren ondorioak ezagutzea; bide ofizialek, behintzat.

Diktadurak aurrera jotzen zuen heinean, gero eta beharrezkoagoa zen hark kontrolatzen ez zuen informazioa jasotzea, eta baita estatuaren barruan gertatzen zenaren berri ezagutaraztea. Horretarako ezinbesteko tresna izan ziren estatutik kanpoko irratietatik egindako emanaladiak, horiek zabaldu baitzuten joan-etorriko bide bat, informazioa trukatu ahal izateko. Horrela, batzuek jakin izan zuten ondoan bazeudela oraindik frankismoaren aurka borrokatzen zirenak, edo nazioartean elkartasun-ekintzak egiten zirela, edota presoak bazeudela, eta abar... bertako egunkariak eta irratiek —are gutxiago telebista bakarrak— eskaintzen ez zituzten albisteak, alegia. Kanpotik igorritako emankizun horiek uhin laburrean jasotzen ziren, alde batetik, jatorria kokatzea eta oztopatzea zailago zelako, eta, beste aldetik, uhin horiek oso urrutira heldu ahal zirelako, batez ere gauean.

Euzkadi Irratia¹, erbesteko Jaurlaritzaren emisora

Erbestera joan zirenen artean Jaurlaritza osatu zutenak zeuden, horien artean Joseba Rezola, gartzelatik atera eta gero Euskal Erresistentziaren buru izendatu zutena. Hari esleitzen diote Leyre Arrieta Alberdi eta José Antonio Rodríguez Ranz historialariek *Euzkadi Irratiaren* sorrera, 1946an (Arrieta Alberdi eta Rodríguez Ranz, 1998: 77-78). Erbestetik Hego Euskal Herrian ziren euskal hiritarrei Jaurlaritzaren mezuak helarazteko bitarteko bat behar zutela-eta sortu zuten irratia, Europako egoerak horretarako aukera ematen baitzuen —munduko gerran zehar nazien eta aliatuen arteko informazio- eta propaganda-gerra gertatu zen uhinetan, eta ezinezkoa zen egoera horretan irradi bat abian jartzea—.

Euskal irradi bat sortu aurretik, *Radio Paris* izeneko emisoratik emititzeko aukera izan zuten Jaurlaritzako kideek, estatu espainiarreko erbesteratuak utzitako emanaldi-tartearen barruan. Emankizun horiek Paristik, atzerritik, eginda ziren arren, estatuaren barruan bizi zirenei zuzenduta zeuden. Uhin Laburrean eskaintzen ziren, eta ez zen erraza entzutea: alde batetik, Uhin Laburreko maiztasunak hartzeko gai zen irradi-aparatua beharrezkoa zelako: eta, beste aldetik, emankizun haiek aditzea debekaturiko ekintza zelako, gartzela-zigorraz ordaintzen zena. 1946ko Aberri Egunaren bezperan eta Gernikako bonbardaketaren bederatzi urteurrena betezen zen egunean agerraldi bana eskaini zituen Jaurlaritzak. Aberri Eguna ospatzeko, Telesforo Monzon barne-arazoetarako sailburuak eta Jose Antonio Agirre lehendakariak hitz egin zuten *Radio Paris* zelakotik (Ibidem: 80-81).

Dena den, espainiar emanaldien arduradunekin arazoak zirela tartean, emisora propioa sortzeko proiektuak aurrera jo zuen. Bitartean, *Radio Paris* izeneko emisoratik estatuaren barruan zentsuratuta ziren albisteak heltzen ziren euskal biztanleengana, baita Jaurlaritzak erbestean egiten zituen jardueren berri ere, beti erdi debakaturik zeuden abestiz lagunduta. Oso harrera ona izan ohi zuten albiste-egarri ziren barruko biztanleen artean, eta eragina ere bai (Ibidem: 82-83).

Irratiko langileak hezi eta emisora muntatzeko tresneria eskuratu eta gero, 1946ko azaroaren amaieran eta abenduaren hasieran proba-emanaldiak egin ziren Akizetik (Ibidem: 89). 1946ko abenduaren 21ean lehenengo emanaldi ofiziala eskaini zuen euskal emisorak, eta hasiera-ekitaldi horretan gaztelaniazko diskurtso bat irakurri zuten esatariek, ongi-etorri moduan. Emanaldietan gaztelania erabiltzen zen arren, euskarazko saioak eta abestiak eskaintzen zituen emisorak, bere helburuetako bat euskal kultura eta euskara bultzatzea baitzen. Irratiaren beste xedea «totalitarismo komunista» deitzen zuenaren aurka borrokatzea zen (Ibidem: 95), eta, horregatik, komunistekin lehian zegoen II. Munduko Gudaren ondorengo European.

1. Emisora horren historiari buruzko honako liburu hau argitaratu zuen EITBk 1998an: Arrieta Alberdi, L. eta Rodríguez Ranz, J. A. (1998): *Radio Euskadi, la voz de la libertad: Iparralde 1946-54, Venezuela 1965-77*. EITB, Bilbo. Era berean, horren soinu-artxiboak entzun ahal izateko, honako helbidera jo daiteke: <www.clandestineradio.com/archivs/inactive/spain.htm>.

Emanaldiak Mugerretik eskaintzen ziren, gaueko ordutegian astean zehar eta bazkalorduan jaiegunetan. Arazo tekniko ezberdinei aurre egin eta gero, emanaldiak Euskal Herri osoan entzuten ziren —Ipar Euskal Herriko hainbat lekutan baziren entzuteko arazoak, hasieran—. Hori zela eta, isilarazteko ahaleginak egin zituzten estatu espainiarreko agintariek, emisio-maiztasunean interferentziak sartuz. Horiei aurre egiteko, hainbat trikimailu asmatu zituzten irratia ren arduradunek: maiztasunen eta emanaldien ordutegien aldaketak, besteak beste. 1948an, berriz, beste urrats bat eman zuten erbesteratuek uhinen gerra horretan, barruko emisoren seinalean sartzea, alegia. Urte horretako uztaillean *Radio San Sebastián* delakoaren emanaldietan sartu ziren, uztailaren 18ko eta abuztuaren 15eko ospakizunetan, hain zuzen ere (Ibidem: 107-109).

Haiek ez ziren izan, aldiz, egin zituzten interferentzia bakarrak, eta beste batzuetan ere sortu ziren, batez ere *Radio San Sebastián* eta *Radio Bilbao* direlako uhinetan, erregimen frankistaren ospakizunen egunetan edo Aberri Eguna bezalako euskal jaietan. Urte batzuk beranduago, ETAk sistema bera erabili zuen behin baino gehiagotan bere komunikatuak ezagutzera emateko.

Esan bezala, *Euzkadi Irratia* Mugerren zegoen kokatuta hasieran, baina hortik Ziburura eraman zuten egoitza 1949an. Bigarren etapa horretan arazo teknikoak gaintitu behar izan zituen Euskal Herrian ondo entzunarazi ahal izateko. 1950eko urrian lortu zuen hori, eta bere hartan mantendu zen 1952ko martxora bitartean. Garai horretan hiru emanaldi eskaintzen zituen: goizeko 8:30etan, arratsaldeko 14:00etan eta gaueko 22:00etan, ordu erdiko iraupenez (Ibidem: 126-127).

Arazo teknikoek jarraitzen zutenez, ordutegi-aldaketak egin zituzten irratia ren arduradunek. Arrietak eta Rodriguez-ek azaltzen dutenez. Azkoitiako eta Azpeitiako langileek eta Gipuzkoako korrespontsalak eskatuta, beste programa bat sartu zuten eguerdiko 13:00etan (Ibidem: 129).

Dena dela, Ipar Euskal Herriko garaia amaitzear zegoen. Gobernu frantsesak estatu-esparruan irratia pribaturik kokatzea debekatuta zuen arren, euskal irratia ren ekitaldiak garatzen uzten zuen, eta ez zuen egoitza aurkitzeko edota ixteko ahalegin berezirik egiten, ofizialki ezagutzen ez zuen arren. Dena den, azkenean, Francoren Gobernuak urte horietan egindako presioek bere uza izan zuten eta, 1954ko abuztuan, emititzeko debekua heldu zitzaion irratia ri, François Mitterrand barne-arazoetarako ministroa zela (Ibidem: 74).

Urte horietan eskainitako programazioari dagokionez, *Euzkadi Irratia* ren emanaldietan informazioa eskaintzen zen bereziki, eta nazioarteko albisteek osatzen zuten tarterik handiena. Ez zen oso erraza, berriz, Euskal Herriko albisteak eskaintzea, eta estatu espainiarretik —Hego Euskal Herritik, bereziki— heltzen ziren berri gehienak politikari buruzkoak ziren, errepesio frankistari eta Jaurilaritza-ri buruzkoak, batik bat. Estatuko albiste gehienak Madrildik heltzen ziren (Ibidem: 150-151).

Era berean, emanaldi bereziak eskaintzen ziren, Hego Euskal Herrian gertatzen ziren ekitaldi politikoen inguruan: grebetan, hauteskundeetan, Aberri Eguna-ren ospakizunetan, eta abarretan. Euskarazko emanaldiak eskaintzen ziren arren, gaztelaniazkoak ziren nagusi, eta frantsesez eta ingelesez ere zabaltzen zituzten hainbat mezu, Europako biztanleei helarazteko xedez. Beti ere, frankismoaren aurkako tresna izan nahi zuen irratia, horretarako bide bat informazioa zabaltzea zela, diktaduraren gehiegikeriak, batik bat (Ibidem: 162).

Esan bezala, 1954an *Euzkadi Irratia* itxiarazi zuten Parisko agintariak. Horren ondoren, eta hamaika urtez isilik egon zen emisora, 1965ean Venezuelako hiriburutik, Caracastik, emititzeari ekin zion arte.

Bigarren etapa horretan, EAJren gazteek, EGIk, hartu zuten irratia-aren ardura. Macuto izeneko eskualdean kokatuta zegoen emisora, eta 1965eko uztailaren 11n hasi zen emititzen froga moduan, lehenengo emanaldietan adierazlea aipatzen ez zen arren, inork emisoraren existentzia ezagun ez zezan (Ibidem: 220). Adierazlearekin batera, Leizaola lehendakariaren diskurtsoa eta *Eusko Gudariak* abestia entzun zituzten entzuleek inaugurazio egunean eskainitako emanaldian, 1965eko irailaren 15ean (Ibidem: 226).

Venezuelatik eskainitako emanaldiak gauez eskaintzen ziren, 21:30etik 23:30era, eta ez zegoen hasteko ordu finkorik, hasiera-ordutegia arazo tekniko- edo estrategiko-aren arabera aldatzen baitzen. Programazioan, musikak eta informazioak garrantzi handia zuten, eta lehenengo garaian antzeko edukiek osatzen zuten emankizuna; era berean, Leizaola lehendakariak behin baino gehiagotan bidali zituen grabaturiko diskurtsoak, irratitik zabal zitzaten (Ibidem: 269-270), eta Jaur-laritzak erbestean egiten zituen ekitaldiak ezagutarazten ziren. Horrekin batera, euskal musika eta abestiak jartzen ziren hitzari laguntzeko, entzuleen gustukoa zela baitzekiten esatariek.

Euzkadi Irratiaren azkeneko emanaldaia 1977ko apirilaren 30ean eskaini zen, eta maiatzaren 1ean errepikatu zuten.

***Radio España Independiente, La Pirenaica*²**

Euskal Herriko irratia ez bazen ere, *Radio España Independiente* zelakoak —*La Pirenaica* izengoitiaz ezatutzen zena— toki bat izan zuen euskal irratigintzaren historian; alde batetik, bere sortzailea eta urte askotako zuzendaria Dolores Ibarruri, *Pasionaria*, izan zelako, eta, beste aldetik, ostiralero Hego Euskal Herriko biztanleei saio bat eskaintzen zuelako. Era berean, Euskal Herriko bizitza politikoan eragin handia izan zuten gertaera batzuen lekukotasuna eman zuen emisora horrek.

2. Emisora horren soinu-artxi- boak entzun daitezke honako helbide hauetan: <www.pce.es/PIRENAICA/REI.htm>, edota <www.clandestineradio.com/archivs/inactive/spain.htm>.

Esan bezala, *Pasionariak* sortu zuen *Radio España Independiente* zelakoa, eta lehenengo emanaldia 1941eko ekainaren 22an eskaini zuen Moskutik. Europa II. Munduko Gerran sartuta zegoela, eta faxismoaren aurka jotzeko irratia arma garrantzitsua izan zitekeelakoan, komunistek emisora batzuk abian jarri zituzten; estatu espainiarretik erbesteratutako komunistek kudeatu zutena, adibidez. Emanaldiak Sobiet Batasuna zelakoko hiriburutik eskaini ziren, alemaniarren armadak eraso zuen arte. Horren ondorioz, Ufa-ra eramán ziren, eta Ufa-tik Bucarestera; hiri horretatik emititu zuen 1955etik aurrera, eta 1976ra bitartean.



Francoren eta faxismoaren aurkako propaganda nagusitu ziren programazioan, batez ere lehenengo garaian; baina, estatu espainiarrean entzuten hasi zela eta entzuleek gutunak eta informazioak bidaltzen hasi zirela kontuan hartuz, estatu espainiarraren barruko informazioak toki garrantzitsua hartu zuen programazioan. Estatuan bizi zirenek *La Pirenaica* irratitik heltzen ziren informazioen bidez ezagutu ahal zituzten bertan gertatzen ziren gertaera asko, barruan zentsurak iragazten zituen eta; horrela, emisorak amnistiaren aldeko kanpainen, langileen ekintzen eta aldarrikapenen, sindikatuen deialdien, eta beste hainbat borroka politikoren eta sozialen berri ematen zuten, Francoren gobernuak isilarazten zituen ekintzak ezagutaraziz. Era berean, debekaturik ziren soinuak eta abestiak igortzen zituzten, adibidez Raimon edo Serrat abeslari katalanen abestiak. Uhin Laburrean eskaintako emankizunak ziren, gauean eta ezkutuan entzun ohi zirenak, askatasun- edo iraultza-ekintza moduan, eta batek baino gehiagok oraindik gogoratzen dute —entzunaldia bera delitua izanda—, beldurrez aditzen zituztela *La Pirenaica* ren emanaldiak. Emisoraren kudeaketaren atzean PCE³ zegoen arren, komunistak ez zirenek ere aditzen zuten, informazio-egarri.

Irratiak azpiegitura sendoa lortu zuen; hala nola, zazpi agentzia, eta Parisko eta Madrilgo idazkaritza bana, Bucaresteko egoitzaz gain, eta korrespontsalen eta laguntzaileen sare zabala munduan zehar. Era berean, militante komunistek eta sindikalistek berek bidaltzen zuten antolatutako ekintzen berri, emisoratik ezagutzera eman zitzaizten.

Estatu espainiarreko beste nazioek zeukaten moduan, Euskal Herriak ere bazuen bere programazio-tartea; ostiralero *Antena de Euskadi* izeneko irratsaioa

3. *Partido Comunista de España*.

eskaintzen zuen. Euskadiko Alderdi Komunistak zuzentzen zuen irratsaioa, eta Pedro Felipe eta Mikel Antia esatariek eramaten zuten aurrera. Antiak ezkutuan bidaltzen zituen kronikak Bilbotik. Peru Errotetak —Javier—, eta Arantza Eluk —Mayte— haien ordezkoa hartu zuten beranduago (Mendezona, 1995). Ostiraleko emanaldi haietan, noizbehinka euskarazko saioak ere tartekatzen ziren.

Burgosko kartzelan ziren preso politikoek —gehienak PCEko militanteak ziren— ere beren kronikak bidaltzen zituzten irratan irakurtzeko, eta Burgosko Epaike-taren berri ere eman zuen emisorak, epai-gelan bertan egindako grabazio batzuk barne.

Suárez-en gobernuak PCE legeztatu zuela, alderdiak bertan behera utzi zituen emanaldiak, eta *Radio España Independiente* zelakoak azkenengo aldiz agurtu zuen bere entzuleria 1977ko uztailaren 14an, Madrilgo Legebiltzarrean Gorte Konstituziogileen inaugurazio-ekitaldiaren zuzeneko emanaldia eskainiz.

4. Estatuko irratigintzaren zabalkundea 1940ko eta 1950eko hamarkadetan

Espainiako Gerran lehian ari ziren bi sektoreek erabili zuten irratia. Guda amaitu eta gero, berriz, garaileen esku geratu zen informazioaren eta entretenimenduaren monopolioa, bai gobernuaren ardurapean zuzenean, bai bere aldeko alderdien edo erakundeen —Mugimendua deitutakoaren— kontrolpean. Horien ondoren biziraun zuten irratia pribatuak, baina zentsurak eta informazio ofizialak bahituta.

Hori ez zen izan, ordea, Euskal Herriak garai hartan jasan zuen gerra bakarra. Munduko II. Gerran alemaniarrek irratia pribatu frantsesak erabili zituzten propaganda-tresna moduan, eta horrek ondorio txarrak ekarri zituen gerrarren ondorengo irratigintzan. Ordura arte bizi ziren irratia pribatuak itxi edota zerbitzu estatalean sartzeko erabakia hartu zuen gobernu frantsesak. Sistema oso zentralista zen, Paristik periferiara hedatua, Departamenduen edo herrialdeen zein nazionalitateen ezaugarriak kontuan hartzen ez zituen, eta frantsesa hizkuntza bakartzat ezagutzen zuena. Beraz, Ipar Euskal Herrian ez zegoen emisora sortzeko aukerarik garai hartan.

Estatu espainiarrari zegokionez, Gerra Zibilaren ondoren, 1940ko hamarkadan, honako emisora hauek existitzen ziren¹:

- Hirurogeita zortzi emisora pribatu, EAJ adierazlea zutenak. Horietako hirurogei oso lokalak ziren, 1932ko dekretuaren arabera sortuak; eta beste zortziak, berriz, *Unión Radio* zelakoaren partaideak; adibidez, Donostiako *Radio San Sebastián*.
- Uhin Laburreko hogeit hamar emisora, oso lokalak eta FET² adierazlea zutenak. Gerran zehar sortutakoak ziren, eta helburu nagusia propaganda-bitartekariaren funtzioa betetzea zen.

1. Munso Cabus, J. (1980): *Cuarenta años de radio (1940-1980)*, Ediciones Picazo, Bartzelona, 130.

Garitaonandia, C. eta Multiguer, G. (1992): “La Radio, de 1940 a 1960: ocios y negocios rigurosamente vigilados”, in *Historia de los Medios de Comunicación en España: Periodismo, Imagen y Publicidad (1900-1990)*, 275.

2. FET: *Falange Española de los Trabajadores*. José Antonio Primo de Rivera politikari espainiarrak sortutako alderdi politikoa izan zen. Irratiek alderdi horren siglak bereganatu zituzten izendatzeko.

- *Radio Nacional* izeneko bost estazio: Bartzelona, Huelva, A Coruña, Madril eta Malaga hiriburuetan. Irrati-sare estatala 1939ko urtarrilaren 19an inauguratu zen arren, 1960ko hamarkadan finkatu eta estatuan zehar hedatu zen.
- Irrati-eskolen sorreran zegoen Madrilgo *Radio Seu* izeneko emisora sortu zen 1941ean.

RNE, *FET* eta *JONS* izeneko emisorek *Sociedad Nacional de Radiodifusión* izeneko elkarte sortu zuten talde horietako emisorak kudeatzeko, baina ez zuen luzaz iraun. 1942an *Red Nacional de Radiodifusión (REDERA)* izeneko sarea sortu zuen gobernu espainiarrak estatu osoko hedadura izango zuen lehenengo irrat-i-sarea osatzeko asmoz (Albillo eta Sánchez Aranda, 1995: 63).

Erregimen frankistarekin lotura zuzena zuten irrat-i horiekin batera, sare pribatua ere hedatzen hasi zen. Hain zuzen ere, 1940ko irailean *SER*³ izeneko kate estatala sortu zen, *Unión Radio* zenaren gainean. Munso Cabus-ek dioenez, kate horrek hamasei estazio zituen 1940ko hamarkadan, horien artean Bilbokoa eta Donostiakoa (Munso Cabus, 1980: 130).

MUGIMENDUKO IRRATIAK

Mugimenduko emisoren sorrera Espainiako Gerra Zibilean kokatu zen. Gudan zehar *FET* adierazleaz emititzen zituzten irrat-iak oso txikiak eta lokalak ziren, potentzia txikikoak; gehienak Uhin Laburrean kokatuta eta *Falangearen* ardurapean zeuden. Irrati horien funtzio nagusia propaganda-tresna izatea izan zen, eta Franco jeneralaren jarraitzaileen aldeko diskurtsoak, mitinak eta aldarrikapenak hedatu ziren bertako mikrofonoetatik.

Emisora horiek eta beste komunikabide asko kudeatu eta kontrolatzeko erakunde propioa osatu zuen Francoren gobernuak, *Delegación Nacional de Prensa y Propaganda* izenekoa, eta ordezkaria Gobernazio-Ministerioaren⁴ barruan kokatu zen. Urte batzuk beranduago, 1942an, eta irratigintza ordenatzeko asmoz, *Red Española de Radiodifusión (REDERA)* izeneko sarea osatu zuen. Sare horretan, aipaturiko irrat-iez gain, sortu berria zen *Radio Nacional de España (RNE)* delako kate publikoa ere sartu zen. Ondoren, 1952ko azaroaren 14ko dekretuak definitu zuen estatu osorako irrat-i-hedapenaren sarean hiru irrat-i-mota aurreikusten ziren: estatalak, eskualdekoak eta lokalak. Lehenengoak Estatuaren eskumenekoak ziren; eskualdeak eta lokalak, berriz, estatuarenak zein pribatuak izan ahal ziren. Azkenengo horien artean, enpresa pribatuak zein Mugimenduko erakundeak ziren, eta bien helburu nagusiak komertzialak ziren arren, mugimenduko xedea

3. *Sociedad Española de Radiodifusión* esan nahi du siglak.

4. Gobernazio-Ministerioari Informazio eta Turismoarako Ministerioa izena eman zioten beranduago; gaur, berriz, Barne Ministerioari dagozkio ardura batzuk.

erregimenaren ofizialtasuna sostengatzea zen. Franco hil ondoren eta Erregimen Konstituzionala ezarri eta gero, Estatuaren sarean sartu ziren irratikate haiek.

REM⁵ KATEA

1950eko hamarkadaren hasieran REM kate estataleko irratiak emititzen hasi ziren “*La Voz de...*” izenarekin. Oso irratikate txikiak ziren, Uhin Ertainean⁶ kokatuak eta oso lokalak, emisio-potentzia txikia zutenak. Euskal Herriko Hegoaldean haiek izan ziren sortutako emisora: *La Voz de Álava* (1953), *La Voz de Guipúzcoa* (1956) eta *La Voz de Navarra* (1957) zirelakoak. Emisora horien arautzeko dekretu bat argitaratu zuen gobernuak 1953ko abuztuan, eta 1954ko azaroaren 14an REM izeneko katea osatu zen, *Red Nacional de Radiodifusión* izeneko sarearen barruan.

Esan bezala, Arabakoa izan zen REM kateko lehenengo emisora Euskal Herrian. *La Voz de Álava* izeneko irratitik 1953ko abuztuaren 8an hasi ziren emititzen, Andra Mariaren omenezko jaietan. Rafael Gutiérrez Benito-k eta Luis Alfaro-k sortu zuten emisora, eta hasieran Gasteizko autobus-geltoki zaharrean kokatuta zegoen. 1966an izena aldatu zuen eta *Radio Álava* deitu zen hortik aurrera. Irratikomertziala zen, eta Arabako informazioa eta kirola —*Alavés* futbol taldearen jarraipena, bereziki— ziren programazioaren ardatz nagusiak. Horrez gain, ospakizun erlijiosoak ere eskaintzen zituen.

Maiztasun Modulatuan emititzen hasi zen 1972tik aurrera. Emanaldiak, ordea, 1981ean finkatu ziren, *Canal 2* izeneko kanalean. *Radio Alava* zelakoa *Radiocadena* izeneko katean sartu zenean, *Radiocadena Compás* izena hartu zuen⁷ FMko emankizun horrek.

La Voz de Guipúzcoa izeneko emisora 1956an inauguratu zen, Donostian. Emandegi horren estudioak *Unidad* izeneko egunkaria zegoen egoitzan bertan kokatu ziren, eta antena zein emisorea Uliamendian. Programazioa komertziala zen, *Delegación Nacional de Prensa y Radio del Movimiento* izeneko erakundearen kontrolpean. Irratsaioen artean euskarak bazuen bere tokia; eta oso ezaguna izan zen Enrike Zurutuza eta Manu Oñatibiaren “*Jose Miguel eta Don Antonio*” izeneko irratsaioa. Baserritarren kezka batzuk antzezten zituzten bi esatariek, baita aholku batzuk eman ere.

Iruñean *La Voz de Navarra* izeneko emisora sortu zuten. 1957ko apirilaren batean hasi zen emititzen Uhin Ertainean —inaugurazioa, berriz maiatzaren gertatu

5. REM: *Red de Emisoras del Movimiento*.

6. Kasu batzuetan, irratikate horiek Uhin Laburrean sortu ziren arren, 1954ko azaroaren 4an Informazio-Ministerioak eta *Secretaría General del Movimiento* zelakoak ezarritako ordenaren arabera; orduan existitzen ziren 48 emisora Uhin Ertainera aldatzeaz gain, EFE adierazlea bereganatu zuten.

7. Machain, F. (2002): <www.euskalnet.net/fmachain.page5.htm>.

zen⁸— eta aurrekoak bezala, komertziala zen. Besteek ez bezala, oso emisio-indar handia zuen, 5 kW-ekoa hain zuzen ere; hori zela eta, Nafarroan ez ezik, inguruko herrialdeetan ere entzuten zen.

Kate bereko bigarren kanala 1971n sortu zuten Maiztasun Modulatuan, *Radiocadena Compás* adierazleaz. Horren programazioa nagusiki musikala zen, eta publiko gaztea erakartzea zuen helburu. 1989tik aurrera, gainerako emisorekin gertatu zen moduan, *Radio 4* izeneko katearen emanaldi lokala eskaini zuen, 1990eko hamarkadan *Radio1* delakoaren bikoiztailea bilakatu zen arte.

Eskola- eta sindikatu-irratiak

REM katea ez zen izan Mugimenduko erakundeek bultzatutako bakarra. *Frente de Juventudes* zelakoak bere irratia-sare propioa izan zuen, eskola-irratiek osatutakoa. Mota horretako lehenengo emisora Madrilgo *Radio Seu* zelakoa izan zen. Estazio hori 1941ean sortu zen Uhin Laburrean eta 200 W-eko potentziaz. Urte batzuk beranduago, aipaturiko gazteen erakundean sartu eta gero, eskola-irratia bihurtu zen; hala ere, programazio konbentzionala eskaini zuen.

Horren ereduari jarraituz, eskola-irratia berehala ugaritu ziren estatuan zehar. 1952an hogeit bat ziren eta, urtebete beranduago, hogeita hamar. Sortzen ziren emisora berri horiek *EFJ*⁹ adierazlea zeukaten eta horrela deitu ziren 1958ra bitartean; urte horretan “*Radio Juventud de...*” izena hartu eta *CAR*¹⁰ izeneko katea osatu zuten. Ordurako, hirurogei eskola-irratia ziren katean, potentzia gutxikoak eta oso lokalak (Albillo eta Sánchez Aranda, 1995: 84). Mota horretako emisora bana egon ziren Eibarren eta Bilbon.

Eibarko emisora 1953an sortu zen. Uhin Ertainean emititzen hasi zen arren, Maiztasun Modulatuan emititu behar izan zuen 1964tik aurrera. *Radiocadena* zelakoarekin bat egin eta gero, *Radio 4* zelakoaren Eibarko emisora bihurtu zen; 1991n, berriz, *RNE*ren birmoldaketaren ondorioz desagertu zen, eta gaur egun *Radio 1* izeneko emisorearen bikoiztaile hutsa da.

Bizkaiko hiriburukoa, *Radio Juventud de Bilbao* izenekoa, berriz, urtebete beranduago hasi zen emititzen. Nerbioi ibaiaren ezkerraldeko herrietan biltzen ziren emisora horren entzule gehienak, eta kirol-informazioak oso garrantzi handia zuen programazioan. Informazio lokala ere eskaintzen zuen, eta albistegi propioak egiten zituen, nahiz eta *RNE*ren informazio-buletinak eman behar zituen derrigorrez. Komertziala zen eta publizitate asko zuen 1970eko hamarkadan; horren ondorioz, kateko emisorarik errentagarriena zen Hego Euskal Herrian kokatzen zirenen artean¹¹.

8. *Diario de Navarra* (1958): “Bendición e inauguración de la emisora local «La Voz de Navarra»”, maiatzaren 27, 8.

9. *EFJ: Estación del Frente de Juventudes*.

10. *CAR: Cadena Azul de Radiodifusión*.

11. *Punto y Hora* (1977): “Emisoras de radio: Adiós franquismo, adiós”, irailaren 3-9, 10-13.

Erregimen frankistaren beste oinarria egitura sindilaka edo “sindikatu bertikala” deiturikoa izen zen. Gazte-erakundeak bezala, horrek ere bere irratia-sare propioa izan zuen, *CES*¹² izenekoa. Kate horren barruan emisora bana izan zuen sindikatuak Tafallan eta Tuteran 1960ko hamarkadan.

Tuterako *Radio Tudela* izenekoa 1952an sortu zen. Aurretik, 1932an, Aurelio Hernández izeneko enpresarioak irratia bat muntatzeko baimena lortu zuen, EAJ-66 adierazleaz. Dena den, proiektu hori bertan behera geratu zen, eta hogeitau urte beranduago berreskuratu zuen sindikatuak. Emisora 1952ko uztailaren 18an inauguratu zen, Altxamendu Frankistaren ospakizunarekin bat eginez (Albillo eta Sánchez Aranda, 1995: 78). Hasieran, Uhin Laburrean emititu zuen arren, 1955etik aurrera Uhin Ertainean kokatu zen. Uhin Ertainen Plangintzaren arabera, itxi egin behar izan zuten 1965eko uztailaren, eta 1966ko apirilaren berriz hasi zen, baina Maiztasun Modulatuan; urte batzuk beranduago, instalazioak hobetu zituzten, emisora sindikalen katean sartu ondoren¹³. Eibarko emisoraren prozesu bera izan eta gero, gaur egun *Radio 1* izeneko emisoraren bikoiztailea baino ez da.

Carlos Albillo-k eta José Javier Sánchez Aranda-k idatzitako Nafarroako irratigintzaren historian jasotzen den legez, *La Voz de Tafalla* izeneko emisora 1965ean sortu zen, eta 1966ra bitartean iraun zuen. Estudioak Tafallako Udaletxean kokatuta zeuden eta arratsaldeko 6etatik 9etara artean emititzen zuen; ordu horretan, berriz, *RNE*ren programazioarekin bat egiten zuen. Oso lokala zen, eta inguruko herrietako informazioak eta gertaerak tarte handia hartzen zuten programazioan. Horrez gain, entzule-kluba osatu zuten zaleek, eta ordaintzen zituzten kuotak irratia-aren sostengurako erabiltzen ziren (Ibidem).

Gerra-ondorengo programazioa

Zinta magnetofonikoaren asmakizunak aldagaita batzuk ezarri zituen irratia-programazioan 1940ko hamarkadan. Teknologia berri horri esker, soinuak grabatu ahal ziren eta, beraz, emanaldiak eta programazioak bereizi. Zuzenean emateaz gain, aurretik grabaturiko soinuak eskaintzeko aukera zuen irratia, hortik aurrera. Era berean, grabazioei esker, zuzenean emititzeaz gain, ordu desberdinetan emateko grabaketak trukatu ahal zituzten kateko emisorek, publizitate-iragarkiak barne.

Irratsaien edukiei zegokienez, Espainiako eta Europako gerrek eragin zuzena izan zuten programazioak eratzeke orduan. Gerraren ondorengo sufrimendua ahanzarazteko asmoz, entretenimendua eskaintzen zuten irratiek. Beraz, musikak tarte handia betetzen zuen programazioan, eta senide edo lagunei entzuleek eskainitako diskoek oso arrakasta handia zuten garai horretan. Horiekin batera, irratia-

12. *CES: Cadena de Emisoras Sindicales*.

13. Pina, J. (1969): “Acaba de crearse la cadena de emisoras sindicales. Radio Tudela, una de las pertenecientes, se verá afectada con grandes mejoras en sus instalaciones”, *Diario de Navarra*, 1969ko martxoaren 1.

-nobelak, lehiaketak eta dibertimendu-irratsaioak ere nagusitu ziren irratigintza europarrean.

Hego Euskal Herrian informazioa bahituta zegoen. Gobernazio-Ministerio espainiarrak 1939ko urriaren 6an ezarritako ordenak irradi-programazioaren alde zentsura ezarri zuen, eta hori indarrean jartzeko arduradunak eskualde bakoitzeko propagandarako edota *FET y de las JONS* izeneko alderdiaren buruzagiak ziren. Horrez gain, informazio ofizial bakarra eman behar zuten irradi guztiek, hau da, *RNE*tik eskaintzen zutena. Beraz, gainerako irratiek horrekin konektatu behar zuten informazio hori eskaintzeko. 1960ko urtarrilaren 14ko dekretuak ezarri zuenez, *RNE*ren eguneroko mintzatuak¹⁴ emateaz gain, irratiek horien gastuak ordaindu behar zituzten. Behar hori bertan behera utzi zuen UCDren gobernuak, 1977ko urriaren 25eko dekretuaren bidez.

Aukera mugatuak zituzten irratiek parrilla programatzeko orduan: esan bezala, eskaintako diskoek eta garaiko musika herrikoiak —zarzuela eta koplak, bereziki— tarte handia hartzen zuten. 1950eko hamarkadan, berriz, irradi-nobelek eta futbolak entretenimendua eskaintzen zion oraindik autarkian eta gerra ondorengo probrezian eta desolamenduan murgilduta zegoen herriari. Horrez gain, emakumeei zuzendutako irratsaioak ugaritu ziren estatu espainiarreko emandegietan; esaterako, *Radio Bilbao* delako irratitik “*Saludos amigas!*” izeneko irratsaioa eskaintzen zuten (Mansu Camus, 1980: 178).

Bitartean, Ipar Euskal Herrian, irradi periferikoek foiletoiak, musika herrikoia, eta gerraurrean eskaintako programazioa eskaintzen jarraitu zuten; estatuko irratiek, berriz, irratsaio kulturalak, eztabaidak, musika klasikoa eta saio berritzaileak eskaintzen zituzten¹⁵

Euskarak toki gutxi zuen, bai batean, bai bestean. Euskal hizkuntzan egiten ziren irratsaioen artean oso ezaguna zen *La Voz de Guipúzcoa* zelakoak eskaintzen zuen “*Jose Miguel eta Don Antonio*” saioa. Taxuera dramatikoaren eskainia, Azpeitiako albaitari Enrike Zurutuza zen Joxe Miel; eta Manu Oñatibia, Don Antonio. Lehenengoa, baserritarra; bigarrena, gauza askotan aditua. Joxe Mielek baserriarren ardura batzuk planteatzeko zizkion besteari: hala nola, baserria mantentzeko aholkuak, behiak saltzeko modurik onena, Torrelavegako azokari buruzko informazioa... Don Antonioren erantzunak eta aholkuak beti ziren egokiak, eta kontuan hartzekoak. Hori guztia, antzezpen-modu entretenigarrian eskaintzen zen, eta ironia ez zen falta. Aipaturiko bi esatariez gain, oso ezagunak egin ziren beste batzuek parte hartzen zuten: Maria Dolores Agirrek etxeko andreei aholkuak

14. “Parte” izenarekin ezagutu ziren mintzatu horiek. Gerra zibilean Franco-ren aldeko irratietan gudari buruzko parteak ematen ziren. Amaitu eta gero, *RNE*k ematen zituen albistegiak “eguneroko mintzatuak” deitzen ziren arren, kaleko jendeak *parteak* izendatu zituen horiek ere.

15. <<http://members.aol.com/Encyradio/Enciclopedie/Historique/historique03.html>>.

eskaintzen zizkien; *Basarri* bertsolariak zein Nemesio Etxaniz idazleak ere parte hartu zuten. Azken horren parte hartzeak arazoak sortu zituen gobernadorearekin, eta ez zen nahikoa izan zuzendari falangistaren babesa gatazka konpontzeko. Ondorioz, Etxanizek irratsaioa eta emisora uztea erabaki zuen. Jose Arretxek gogoratu zuen bezala:

Irratsaioaren kudeatzailea falangista izanik ere, arazo larriak izan zituen gobernadorearekin, taldean Nemesio Etxaniz zegoelako batik bat. Une batean Nemesio irratsaiotik bota edo bestela itxi egingo zuela agindu zuen gobernadoreak. Guk planto egitea erabaki genuen, baina Nemesiok berak esan zigun oso garrantzizkoa zela euskararentzat guk aurrera segitzea eta utzi egin zuen¹⁶.

Nafarroako *RNE*k, bere aldetik, “*Zuribeltz*” izeneko emanaldia eskaini zuen euskaraz 1982tik 1994ra bitartean.

RNE, ESTATUAREN ZERBITZURAKO IRRATI PUBLIKOA

Radio Nacional de España (RNE) irrati-katearen lehenengo emanaldia Donostiatic 1961ean egin zen, urriaren 1ean egoitza donostiarra inauguratu zelarik. 1970eko maiatzaren 16an inauguratu zuten *RNE*ren egoitza Bilbon eta, 14 urte beranduago, Gasteizko egoitzaren ateak zabaldu ziren. 1984an bertan ere inauguratu zen Iruñeko *RNE*ren emisora, bi urte lehenago hasitako prozesu baten ondorioz (Albillo eta Sánchez Aranda, 1995: 235-6).

Estatu espainiar osorako irrati-kate publikoa sortzeko asmoa irratigintzaren hastapenean kokatu behar da. Asmakizunaren hedapena inizatiba pribatuak bultzatu zuen arren, estatuko agintariek, komunikabidearen garrantziaz jabeturik, hasieratik aurreikusi zuten irrati ziurtatu beharreko zerbitzu publikoa zela. Ondorioz, Carmelo Garitaonaindiak dioenez, irratiari buruzko 1924ko arautegian, estatu osoan irrati-emanaldiak ziurtatzeko partzuergo bat sortzeko aukera aurreikusten zen. Testuaren arabera, inizatiba pribatuak sortutako irratiek kalitate tekniko nahikorik eskainiko ez bazuten, edota eskainitako irratsaioen kalitatea eskasa izatekotan, partzuergo horrek hartuko zuen emankizunen ardura. Material irrati-elektrikoko enpresek, ekoizleek eta saltzaileek osatuko zuten partzuergoa. Dena dela, ez zen inoiz gauzatu.

Halaber, Irrati-hedapenerako Zerbitzu Nazionala osatzeko beharra ikusita, estatu espainiarreko gobernuak dekretu bat argitaratu zuen 1929an, lehiaketa publikoa iragarritz. Lehenengo lehiaketa hori esleitu gabe geratu zen arren, gobernuak bigarren saio bat egin zuen hilabete batzuk beranduago. 1931n, berriz, Errepublikaren ezarpenak bertan behera utzi zituen aurreko gobernuen disposizio guztiak, irratiari buruzkoak barne (Garitaonandia, 1988: 58).

16. Agirre, J. (1999): “«Goenkaleren» irratiko aintzindari apalak”, *Gara*, maiatzaren 2, 52.

Orduan, Espainiako Komunikazioetarako Ministerioak hamahiru irrati jartze-ko plana agerian utzi zuen, 1931ko azaroaren amaieran. Estazio horien ezartzearen ondorioz, estatuaren lurralde-azalera osora heldu nahi zen. Besteak beste, plan horretan Bilbon 1 kW-eko potentzia zuen irrati bat kokatzea aurreikusten zuen gobernuak. 1932ko apirilaren 8ko dekretuaren bidez, *Red de Estaciones de Radiodifusión* izeneko irrati-hedapenerako sarea osatzeko lehiaketa publiko batera deitu zuen gobernuak, baina ez zen inoiz horren epairik argitaratu (Ibidem: 59).

Bi urte beranduago, irrati-hedapenerako sare bat sortzeko proiektua berreskuratu zuen *Junta Nacional de Telecomunicaciones* zelakoak. Era berean, 1933ko ekainean, Luzernan buruturiko Irratitelefonari buruzko Nazioarteko Konferentzia-aren ondorioz, Uhin Luzeko maiztasun bakarra egokitu zitzatzen estatu espainiar-rrari; eta Uhin Ertaineko, sei. Uhin Luzeko bandaren kudeaketa zuzenaren bidez, estatu-eremuaren ehuneko hirurogeira iritsiko zen irrati-zerbitzua eratze-ko asmoa zuen gobernuak (Ibidem: 99). Beraz, maiztasun horretan emititzen zuten irrati pribatuak Uhin Ertainera eramane ziren, besteak beste, Donostiako *Unión Radio San Sebastián* delakoa.

Ahokadura horiek guztiak egiteko asmoz, Espainiako Ministroen Kontseiluak irrati-hedapenerako lege-proiektua onartu zuen 1934ko otsailaren 3an. Plangintza horretan, estatu osora helduko zen irrati-sarea sortzeaz gain, kanpoko emanaldiak eskainiko zituzkeen beste bat sortzea ere aurreikusten zuen ministerioak. 1934ko ekainaren 26ko irrati-hedapenari buruzko legeak irrati-hedapenerako zerbitzu estatalaren oinarri juridikoak ezarri zituen; horien arabera, monopolioa Estatuaren eskuetan geratzen zen. Ondorioz, irrati-hedapenaren plana hornitzeko lehiaketa deitzeko baimena eman zion gobernuak Komunikazioetarako Ministerioari. Plangintza horretan irrati-estazio bat zegokion Bizkaiari, estatuaren iparraldeko hedadura-eremu osora heldu ahal izteko. Estazio horren ezaugarriak honakoak ziren: 1258 Hz-eko maiztasuna eta 30 kW-eko potentzia. Emisora bi urtetako epean martxan jartzea aurreikusten zuen ministerioak. Urtebete eta erdi pasatu ondoren, 1935eko urtarrilean, lehiaketarako baimena eman zion Ministroen Kontseiluak Komunikazioen Zuzendaritza Orokorrari eta 1935eko azaroaren 2an arautegia onartu zen (Garitaonaindia, 1988: 101). Hala ere, irrati-hedapenaren sare estatala osatzeko saiakera hori bertan behera utzi zuen 1936ko uztailaren 18ko altxamenduak, eta horrek eragindako gerra zibilak.

Espainiako Gerra Zibilean zehar osatu zen *RNE* estatu-kate publikoaren lehenengo emisora, *Radio Salamanca* izenekoa hain zuzen ere. 1940ko hamarkadaren amaieran bost estazio zituen kate espainiarrak estatu osoan. Hego Euskal Herrira, berriz, beranduago heldu ziren *RNE*ren emisorak. Lehenengoa Donostia-koa izan zen, 1961ean; eta ondoren, Bilbokoa, 1970ean. Gasteizko eta Iruñeko estazioak, berriz, *PSOE*ren¹⁷ gobernuaren garaian finkatu ziren; aurretik, *RNE*ren

17. *PSOE*: *Partido Socialista Obrero Español*. Pablo Iglesias politikari espainiarrak sortu zuen.

irratsaio asko *Radio Alava* eta *La Voz de Navarra* izeneko emisoretan eskaintzen ziren. Horrez gain, aipaturiko bi emisora horiek eta Donostiako zein Bilboko *RNE*ko irratiek saio bateratu batzuk eskaini zituzten 1970eko hamarkadan. Dena dela, emankizun gehienak Madrildik bidaltzen ziren, eta Euskal Herrian egindako programazioak egunero hiru orduz besterik ez zuen betetzen. Igandeetan aste osoko informazioak batzen zituen albistegi bat eskaintzen zen euskaraz, eta hilean behin baserritarrei zuzendutako irratsaio bat¹⁸.

RNE kateak aldaketa asko izan ditu estatu espainiarrean Monarkia Parlamentarioa ezarri eta gero. 1960ko hamarkadaren erdialdean Maiztasun Modulatuan sorturiko emankizunei nortasun propioa ematen ahalegindu ziren. Bigarren programako ardatz nagusia musika klasikoa zen; hirugarrena, berriz, emisora esperimental bilakatu zen 1980ko hamarkadan. 1979an *Radio Nacional* irratikatearen hirugarren kanalean —*Radio 3* delakoan— abangoardia kulturala integratzeko emanaldi berezia eskaintzen hasi zen gaueko programazioan. Era berean, Madrilgo gobernuan buru zegoen *UCD*¹⁹ alderdiarekiko kutsu kritikoa nabaria zen eskaintzen zituen informazio-saioetan. Baina, 1982an, *PSOE* Ek Estatuko Hauteskunde Orokorrak irabazi eta gero, gobernuak ez zituen kritikak onartu nahi izan eta irratia ibilbidea aldatu zen, 1991n irati-formula bihurtuz. Aurretik, 1989an, *Radio 1* emisorearen albistegiak eskaintzen hasi zen, eta irratsaioak parrillatik desagertuz joan ziren poliki-poliki, behin-behineko kontratazioan oinarritutako egitura bati esker. Beraz, 1980ko hamarkadan, “*Movida Madrileña*” deitutakoa eta kontrainformazioa edo informazio alternatiboa eskaintzen zuen arren, irratsaioen edukiak arinduz joan ziren, eta gainerako emisoren antzeko programazioa aineratzen hasi zen.

1995ean, *RNE* kate estatalak jasan zuen berregituraketaren ondorioz, *Radio 3* emisora ere aldaketa ugari gertatu ziren eta 1980ko hamarkadako ospea berreskuratzen ez zuen arren, gainerako emisoretan eskaintzen ez ziren irratsaioak sartu ziren programazioan, hala nola, dramatikoak, gutxiengoei eskainitako musika-saioak, etab.

Beste bi programa gehiago gehitu zitzaizkien aipatutakoei: *Radio 4* eta *Radio 5* izenekoak, hain zuzen ere. Horiek *Radiocadena* izeneko katearen gainean eraiki ziren 1980ko hamarkadan. 1990ekoan, berriz, beste berregituraketa baten ondorioz, lehenengoa desagertu zen, eta bere maiztasunetan *Radio 1* delakoaren programa eskaintzen hasi zen. Bigarrena, berriz, *Radio5 TodoNoticias* izeneko emankizuna bilakatu zen 1994ko apirilaren 18an. Baina prozesu hori Mugimenduko irratia *RNE*ren barruan sartu zirenetik gertatutakoa izan zen, gaurko egiturara heldu arte.

18. *Punto y Hora* (1977): “Emisoras de radio: Adiós franquismo, adiós”, irailaren 3-9, 13.

19. *UCD*: *Unión de Centro Democrático*.

Mugimenduko irratia RNE

Mugimenduko irratia sare publikoan sartu ziren 1980ko hamarkadan. Aurretik, eta irratigintzan ordena jartzeko asmoz, *REDER* An zeuden sareak batu ziren; hain zuzen ere, *REM* eta *CAR* kateetako emisorak batu ziren 1972an, *REM-CAR* izeneko katea osatuz. Kate berri hori Informazio eta Turismorako Ministerio espainiarraren ardurapean geratu zen. Beranduago, 1977ko apirilaren 1eko eta 15eko errege-dekretuen arabera, *Organismo Autónomo de Medios de Comunicación Social del Estado* zelako erakundea sortu zuen gobernuak, Kultura Ministerioaren ardurapean. Erakunde horrek Mugimenduko prentsa eta irratigintza zuzendu zituen handik aurrera. *REM-CAR* eta *CES* sareen bateratzea urtebete beranduago gertatu zen. Moncloa-ko Itunen ondorioz, 1978ko azaroaren 2ko Errege-Dekretuak *Radiocadena Española* izeneko katea sortu zuen, aipaturiko sareetako emisorak bertan sartuz.

Espainiako Trantsizio Politikoa izendatutako epealdian zehar, *REM-CAR* eta *CES* kateek urte batzuk iraun zuten, irati horien egoera kasu askotan oso txarra zen arren²⁰. Emisora horiek, azkenean *Radiocadena Española (RCE)* izeneko katean sartu ziren 1978ko abenduan. Kate hori jaio berria zen *RTVE* ren²¹ barruan kokatu zen; hau da, estatuak irati eta telebista publikoak kudeatzeko sortu zuen erakundean. Hego Euskal Herriko hiriburuetan bi programazio bereizi ziren. Alde batetik, Uhin Ertaineko emisorek programazio konbentzionala eskatzen zuten, eta, beraz, oso tarte handia eskaini zitzaion bertako informazio- eta kirol-emankizunei. Maiztasun Modulatuak emankizunek, berriz, estereoaz emititzeaz gain, musika klasikoaz eta eskaintako diskoaz osatzen zuten programazioa, garaiko abestiekin batera. Informazio orokorrari zegokionez, *RNE* k eskaintzen zituen albistegiak ematen jarraitu zuten.

Entzunezko Irrati-hedapenaren Plangintza Teknikoaren dekretua 1978ko urriaren 27an indarrean jarri zen; dekretu horren bidez, Geneva-ko Plangintzak aurreikusitako lau sareak antolatu ziren. Plangintza horrek Uhin Luzeko maiztasun bat eman zion estatu espainiarrari, eta Uhin Ertaineko beste hiru: bi *RNE* rentzat, eta beste bat *Radiocadena* zenarentzat.

20. *Punto y Hora* aldizkarian azaldutakoaren arabera, 1977an *La Voz de Guipúzcoa* izeneko emisoraren geroa kolokan zegoen eta aukera ezberdinak aurreikusten ziren: enkantean ematea —*La Voz de España* eta *Unidad* egunkariekin egin zen bezala—, langileek kudetatzea kooperatiba moduan, edo —eta hori, zurrumurrua besterik ez zen— alderdi politiko batek instalazioak erosteko asmoa zuela esaten zen. Aldizkarian aipatzen zutenaren arabera, Bilboko *Radio Juventud* eta Gasteizko *Radio Alava* emisorak ziren errentagarri bakarrak katearentzat; gainerakoak, berriz, oso egoera ekonomiko larrian zeuden.

21. *RTVE: Radio Televisión Española*.

Espainiako Irrati eta Telebistaren estatutu juridikoa 1980ko urtarrilean onartu zen²². Horren arabera, estatutaren esku geratzen ziren *RNE* eta *Radiocadena* irratikateen kudeaketa, horretarako sorturiko enpresen bidez²³. Era berean, *Radiocadena* zelakoak programazio lokala eskainiko zuela idatzi zen Estatutuan²⁴.

1989ko urtarrilaren 1ean, *Radiocadena Española* osorik sartu zen *RNE* katean²⁵. Hortik aurrera, *Radio 4* eta *Radio 5* izeneko programak eskaini ziren kate horren maiztasunetan; lehenengoa Maiztasun Modulatuan, eta bigarrena, Uhin Ertainean.

Radio 4 izeneko programa *RNE*ren kanal autonomikoa izen zen, *Radiocadena* zenaren tokiko eta eskualdeko egituraren oinarritua. Katalunian, urte batzuk lehenago martxan jarritako programazio-ereduari jarraituz, 1989tik aurrera, eta Euskal Irrati Telebista (EITB) taldeko irratiekin lehiatzeko asmoz, emankizun autonomikoa jarri zuen abian kate estatalak. Beraz, bertako ekoizpeneko irratsaioak egiteaz gain, euskarazko irratsaio batzuk aurrera eramateko lan-talde batzuk eratu ziren garai hartan. Era berean, Nafarroan, *RNE*ren laugarren kanal horretan euskarazko programazioa eskainiko zela arguditu zuen Nafarroako Gobernuak, *Xorroxin Irratiari* eta *Euskal Herria Irratiari* lizentziarik gabe uztea euskararen aurka jotzea zela salatzen zutenen aurrean, baina proiektua ez da inoiz gauzatu²⁶.

Radio 4 zelakoak programazio propioa eskaintzeko egitasmoak, beraz, ez zuen luzez iraun eta 1991n egindako berregituraketaren ondorioz, programa autonomikoa desagertu ziren²⁷, Euskal Autonomia Erkidegokoa barne. Hortik aurrera, *Radio 1* izeneko emankizuna eskaini zen *Radio 4* zelakoaren maiztasunean, FMn. Horrez gain, *RNE*k ehun mila baino biztanle gutxiagoko hirietako estazioak ixtea erabaki zuen, horien artean Tuterakoa eta Eibarkoa. Beste aldetik, *Radio 5* zena *Radio5 TodoNoticias* izeneko irratiformula bilakatu zen 1994an. Ondorioz, ordura bitartean eskainitako tokiko programazioa desagertu zen, eta kateko korresponentsalia bilakatu ziren euskal hiriburuetakoko egoitzak, deskonexio lokal gutxi eskaintzen zituzten arren.

22. 1980ko urtarrilaren 10eko legea, *Estatuto de Radio y Televisión* izeneko estatutua onartu zuena, 1980ko urtarrilaren 12ko *BOEn* jasoa.

23. « (...) el Estatuto establece que la gestión del servicio público de radiodifusión se realizará por dos sociedades mercantiles estatales: Radio Nacional de España (R.N.E.) y Radiocadena Española (R.C.E.), (...)» (Gorostiaga, 1982: 77).

24. « (...) emisión por R.C.E., en FM, de ámbito local, en todas las capitales de provincia y ciudades de 50.000 habitantes» (Ibidem).

25. 1988ko utzailaren 20ko errege-dekretuaren arabera, 1988ko abuztuaren 6ko *BOEn* jasoa.

26. Ezker, A. (1995): "Periodistas navarros apoyan en un manifiesto a "Euskalerrria Irratia", *Diario de Noticias*, 1995eko urtarrilaren 18.

27. Carmen Peñafiel-ek dioenez, Kataluniako eta Sevillako programak mantendu ziren 1992ra bitartean; lehenengoan Olinpiadak eta bigarreanean Erakusketa Unibersala ospatzen zirelako (Peñafiel, 1992: 99).

Hego Euskal Herriko Mugimenduko irratia RNE katean sartzeko prozesua:

Arabian:

Gasteizko La Voz de Álava (1953) → Radio Álava (1966) → Radio Cadena (1979) → Radio 5 AMn
Radio Cadena Compás → Radio 4 FMn

Bizkaian:

Bilboko Radio Juventud (1954) → Radio Cadena (1979) → Radio 5 AMn
Radio Cadena Compás → Radio 4 FMn

Gipuzkoan:

Eibarko Radio Juventud (1953) → Radio Cadena (1979) → Radio 4 (1991n itxita)
Donostiako La Voz de Guipúzcoa (1957) → Radio Cadena (1979) → Radio 5 AMn
Radio Cadena Compás → Radio 4 FMn

Nafarroan:

Tuterako Radio Tudela (1952) → Radio Cadena (1979) → Radio 4 (1991n itxita)
Iruñeko La Voz de Navarra (1957) → Radio Cadena (1979) → Radio 5 AMn
Radio Cadena Compás → Radio 4 FMn
Tafallako Radio Tafalla (1965) → (1966an itxita)

RTFREN²⁸ MONOPOLIOA IPAR EUSKAL HERRIAN

Esan bezala, 1939tik 1945era bitartean, Ipar Euskal Herriak, Frantziak bezala, alemaniarren okupazioa eta gerra jasan zuen. Egoera horrek bere eragina izan zuen irratigintza frantsesean, eta, ondorioz, iparreko euskal lurraldean. 1920ko hamarkadan sortutako irratia pribatuak propagandarako tresna moduan erabili zituzten naziek, bai beren eskuetan erori zirelako, bai Vichy-ko gobernu kolaborazionistaren eskuetan egon zirelako. Beraz, gerra amaitu eta gero, irratia pribatuak konfiskatu eta sare publikoan sartzeari erabaki zuen estatuak, irratia berriak jartzeko lizentziak bertan behera utziz. Hortik aurrera, berrogei urtez ez zen irratia komertzialik sortu estatu-eremuaren barruan²⁹.


28. RTF: *Radiodiffusion et Télévision de France*.

29. 1945eko otsailaren 23an, bi ordenuren bidez, estatuaren monopolioa eta irratia pribatuaren konfiskatzea baieztatu zuen gobernuak: *L'histoire de la télévision*:
<www.telesatellite.com/articles/histoire_de_la_tv/index.asp?p=2>.

Irrati periferikoek, irratia pribatu komertzialak zirenek, ondoko estatuetatik emititzen jarraitu zuten frantsesez, gerra aurrean zeuden emisoren programei jarraituz. Estazio horiek estatutik at zeuden arren, bertan inbertituriko dirua frantziarra zen. Irrati periferiko ezagunenak *Radio Luxembourg*, *Radio Andorre* eta *Radio Monte-Carlo* zirelakoak izan ziren: “100 ans de radio” izenburuko laburpena, <<http://members.aol.com/Encyradio/ENCICLOPEDIE/Historique/historique03.html>>.

Aurretik, 1939ko uztailaren 29ko Dekretuaren bidez, *Radiodiffusion Française Nationale (RN)* izeneko erakundea sortu zuen gobernuak, irradi publikoak kudeatzeko asmoz. Irrati horien barruan armadarenak, entzuleen elkartearenak eta *PTT*³⁰ zirelakoak zeuden. 1933ko abenduaren 31n estatu osoan hamabi irradi pribatu³¹, hamalau publiko eta hiru periferiko —*Radio Luxemburg*, *Radio Monté-Carlo* eta *Radio Andorra*— zeuden³². Lehenago, 1934ko uztailan, irradi-telebistarako zerbitzu publikoa antolatu, arautu eta kudeatzeko batzorde bat eratzeke erabakia hartu zuen gobernuak. Horren lanen ondorioz, 1935ean *Conséil Supérieur de la Radio* zelako erakundea sortu zuen.

Alemaniarrek alde egin eta gero, 1945eko otsailaren 23an *RN* erakundea *RDF* (*Radiodiffusion Française*) bilakatu zen; erakunde hori *RTF* bihurtu zen telebistaren ezarpenaren ondoren, 1949an. Erakunde bi horiek Frantziako Informazio Ministerioaren ardurapean egon ziren, eta beren helburua komunikabide publikoak kudeatzea izan zen. *ORTF*³³ izeneko bulegoak ordezkatu zuen *RTF*, 1964tik aurrera.



Esan bezala, zerbitzua oso zentralizaturik zen eta eskualde-irradiak ziren arren, programa estatuala eskaintzen zuten nagusiki. Dena dela, esperientzia lokalak ere gertatzen ziren. Adibidez, 1960ko hamarkadan, *Biarritz Côte Basque* zelako estazioak emititzen zuen udal-kasinetik, *ORTF*ren kontrolpean. Bere programazioa oso lokala zen eta bereziki udatiarrei zuzenduta zegoen. Uztailan eta abuztuan emititzen zuen, eta 1968an *France Inter*, *France Culture* eta *France Musique*³⁴ izeneko kateen programazioa eskaintzen zuen³⁵.

Iturria: <www.radiofrance.fr/chaines/radio-france/memo_rf/affiches/fiche.php?fiche=12>.

30. *PTT: Postes, Télécommunication et de la Télédiffusion*.

31. 1928ko martxoaren 19ko Legeak hamalau irradi pribatu onartzen zituen: *Poste Parisien*, *Radio Agen*, *Radio Béziers*, *Radio Bordeaux Sud Ouest*, *Radio Jean les Pins*, *Radio LL*, *Radio Lyon*, *Radio Mont de Marsan*, *Radio Montpellier*, *Radio Nîmes*, *Radio Toulouse*, *Radio Vitus*, *Radio Paris*, *Radio Normandie* zirelakoak: "L'histoire de la télévision" izenburuko artikulua, <www.telesatellite.com/articles/histoire_de_la_tv/index.asp?p=2>.

32. *Ibidem*.

33. *ORTF: Office de Radiodiffusion et Télévision de France*.

34. Programa horiek 1963an sortu zituzten *ORTF*ren barruan, bakoitza bere nortasun propioa eta entzuleria ezberdinei zuzendua zena. Programa horiek France I, II, III eta IV izenekoak ordez abian jarri ziren. Era berean, urte hartan desagertu ziren eskualdeko emisorak:

<www.radio-france.fr/chaines/radio-france/date>. Estatuko katearen barruan *France Info* izenekoak sortu zuten 1987an. Irrati horiek albisteak eskaintzen dituen egunero eta eguneko 24 orduz.

35. <www.radio-france.fr>.

Irrati publiko frantsesa 1963an hasi zen Baionatik emititzen, turistei zuzendutako emanaldia zen bereziki, eta euskarazko meza ere eskaintzen zen tartean. Dena dela, 1967ra bitartean ez zen bertako egoitza finkatu, baina horrekin batera euskarazko emanaldiak hasi ziren, Maite Barnetxe esataria zela. Horrekin batera, Ramuntxo Kanblong, Gexan Lantziri, Jakes Etxeberri, Janbattit Dirassar eta Pierre Narbaitz esatariek zuten bost minutuko euskarazko irratsaioa egiteko ardura, eguerdiko 12:15etan; igandeetan ordutegia luzatzen zuten, eta ordu erdiko elkarrizketak eskaintzen zituzten³⁶.

ORTF zelakoak sei azpibulego autonomotan banatu zen 1974an³⁷, horien artean *FR3* izenekoak. Horri egokitu zitzaion katearen barruan programa desberdinak bultzatzea. Hain zuzen ere, hiru kanal berri martxan jarri ziren 1980an: *Fréquence Nord* (erregionala), *Radio Mayenne* (departamentala) eta *Melun* (hirikoa)³⁸. Saio horiekin batera, estatuaren irrat-monopolioa bertan behera uzteko lehenengo urratsak ematen hasi ziren. Maiztasun Modulatuko monopolioa bertan behera geratu zen 1981eko azaroan, eta tokiko irrat pribatuak sortzeko aukera aurreikusi zuten agintariek. Baina, zalantzarik gabe, 1982ko uztailaren 29ko legeak, *Loi Fillioud* izenekoak, ireki zuen irrat-hedapenaren aro berria.

Era berean, *Radio France* delakoa, *FR3*-k bultzatutiko deszentralizazio-esperientzietan oinarrituta, eskualdeko irratia sortzen hasi zen estatu frantsesean zehar. Ipar Euskal Herrian, *Radio-France Pays Basque* izeneko emisora sortu zuen 1985ean. Estatu-irrat horren euskal programazioa Baionatik emititzen du geroztik. Emisora horretan, Ipar Euskal Herriari buruzko informazioa eskaintzeaz gain, tarte handia bete du bertako musikak eta kulturak. Horrez gain, irratsaio batzuk eskaini ohi ditu euskaraz, portzentaje hori, euskal irratia finkatuz doazen heinean, behera joan den arren. *Radio France* delakoaren kate lokalak *France Bleu*³⁹ izena hartu zuen 2000n, eta, ondorioz, Ipar Euskal Herriari dagokion emisora *France Bleu Pays Basque* izena du gaur egun.

Horrez gain, Ipar Euskal Herriko eremuari zuzendutako euskarazko irrat publikoa egiteko eskaera egin zuen *PS* alderdi sozialistako Jean Pierre Destrade-k 1991n. Eskaera horren arabera, emisora hori Baionan kokatu zen, eta *Radio France Pays-Basque* izenekoaren inguruan antolatu zen⁴⁰. Garaiko prentsan euskal irratien inguruan egin ziren elkarrizketetan erantzun beharreko galdera bihurtu zen egitasmo publikoa, baina ez zen inoiz garatu, eta asmo huts bilakatu zen.

36. *Argia* (1986): "Euskal irratia: bost urte betetzen dituen iraultza", *Argia*ko urtekaria, 183.

37. 1974ko uztailaren 8ko legea.

38. <www.radio-france.fr eta www.membres.aol.com/EncyRadio>.

39. *France Bleue* izeneko programa 1980an sortu zen, eta 50 urte baino gehiago zuten pertsonen zuzentzen zitzairen. Esan bezala, 2000. urtean programa horrek bat egin zuen tokiko emanaldiekin, eta, beraz, kate berriko emisoraren izena osatzeko, *France Bleu*... adierazleari eskualdearen izena gehitzen zaio.

40. *Argia*ren 1991ko urtekarian goraipatutako albistea da.

5. Euskarazko irratigintza apaizen babesean

IRRATIA KRISTAU-IKASBIDEAREN ZERBITZUAN

Irratia sortu bezain pronto, Ebanjelioaren mezua hedatzeko tresna egokia izan zitekeela antzeman zuen Eliza Katolikoak. Isabel Sánchez Redondo idazleak azaltzen duenez, Erromako Eliza berehala jabetu zen komunikabide horren eragiteko ahalmenaz, eta 1931n —Pío XI.a Aita Santua zela— *Radio Vaticano* izeneko emisora sortu zuen (Sánchez Redondo, 2001: 13 eta 17). Estatu espainiarrean Elizak zeregin garrantzitsua bete du historian zehar, eta bereziki Franco jeneralaren diktaduran, eta, beraz, ez zuen arazo handirik izan irratimaiztasunak eskuratzeko. 1950eko hamarkadan estazio parrokiak sortzen ari ziren, *Estaciones Audiodifusoras de Acción Católica* izena zutela (Albillo eta Sánchez, 1995: 96). Tokian tokikoak ziren, potentzia eskasa zutenak eta, ondorioz, hedadura-ahalmen gutxikoak. Base-ritarren zonaldeetan ugaritu ziren, hirietan baino gehiago, eta Elizaren mezua eta sakramentuak elizetara hurbildu ezin zirenei helarreztea zen helburu aipagarriena, dekretuz katolikoa zen estatu batean.

Estatu espainiarrean irratimapa nahiko nahasia zen 1950eko hamarkadan. Irrati txiki asko bizi ziren aldi berean; batzuk, komertzialak —*SER* eta *Rato*¹ katekoak—; beste batzuk, Francoren aldeko alderdienak —*REM*, *CAR* eta *CES* izenekoak—; zenbait, elizarenak eta beste gutxi batzuk, publikoak, jaio berria zen *Radio Nacional de España* delako katekoak, hain justu. Eliza katolikoak zati bat eskuratu nahi zuen maiztasunen banaketan, eta 1956an *Comisión Episcopal de Cine, Radio y Televisión* izeneko erakundea sortu zuen, besteak beste irratigintza- ren garapenean parte hartzeko gogoz. Horren bidez, Elizaren partaidetza eta komunikabideen kudeaketa zuzentzea bilatzen zuten elizako arduradunek (Sánchez Redondo, 2001: 39). Egoera hori guztia ordenatzeko asmotan, *Ministerio de Información y Turismo* izeneko ministerioaren menpeko *Dirección General de Radio* zelakoak bilera batzuk burutu zituen irratien enpresetako arduradunekin. Lehenengo bi batzarretan Eliza kanpoan utzi zuen gobernuak; haren kexen ondorioz, berriz, hirugarren batera gonbidatu zuen. Biler horretan *Plan Nacional de Radiodifusión* izeneko plangintza- ren irizpideak ezarri ziren (Sánchez Redondo, 2001: 36).

Plangintza horren arabera, Uhin Ertaineko (AMko) eta Uhin Laburreko (LWeko) maiztasunak estatuaren esku geratzen ziren, eta, gainerakoak, berriz, Maiztasun Modulatuan (FMn) kokatu behar ziren; hala ere, Mugimenduko emiso-

1. Rato familiaren jabetza ziren emisora horiek.

rei Uhin Ertainean emandako kontzesioak errespetatzea erabaki zen. Elizari, berriz, FMko maiztasunak egokitu zitzaizkion. Erakunde katolikoa ez zen ados agertu erabaki horrekin, garai horretan salgai ziren irradi-hargailu gutxik ematen baitzuten FMko seinalea harrapatzeko aukera. Dena dela, baimenik izan ez arren, estatuan zehar elizaren edo parrokiako irratia sortzen jarraitu zuten, gobernuaren permitibitatearen babesean.

Interes komunak zituzten arren, botere sekularraren eta erlijiosoaren arteko harremanak ez ziren bareak izan, eta akordio batera helduta ere ez ziren beren arteko tira-birak gelditu. Negoziazio eta bilera asko egin eta gero, 1959ko azaroaren 11an, *Dirección General de Radiodifusión y Televisión* izeneko zuzendaritzak eliza espainiarren irratien sarearen oinarriko arauak onartu eta Apezpikuen Batzarraren proposamenak jaso zituen. Horren ondorioz, Elizaren eta Estatuaren arteko akordio-protokoloa sinatu zen. Hitzarmenaren arabera, *Red de Emisoras Diocesanas de la Iglesia* izeneko emisoren sarearen oinarriak onartzeaz gain, estazio horien kontzesioa eta ezaugarri teknikoak ezarri ziren. Era berean, Elizak irratia sortzeko zuen askatasunari uko egin zion, emititzeko potentzia eta kontrol gehiagoren truke (Ibidem: 49).

Akordio-protokolo horren arabera, elizari Uhin Ertainean maiztasun batzuk emateaz gain, FMra pasatu behar zuten elizaren emisorek Uhin Ertainean jarraitu ahal zuten 1963ko urriaren 31ra bitartean, baina aldaketa egiten lehenek kontzesioaren iraupenaren luzapena izango zuten sari moduan². Epe horiek bi urtez luzatu ziren, 1963ko urriaren 24ko dekretuaren arabera. Hala eta guztiz ere, gehienak bigarren epe hori amaitu baino lehenago itxi ziren; Hego Euskal Herrikoak, adibidez.

Horren guztiaren ondorioz, elizaren irratia ordenatu ziren, eta elizbarrutiko lauorgeri bat emandegi abian jarri ziren *Plan Nacional de Radiodifusión* zelakoaren arabera.

EUSKAL IRRATIAK PARROKIEN ARTERPEAN

Estatu espainiarreko beste leku batzuetan bezala, Hego Euskal Herrian ere irradi parrokiak sortu ziren 1950eko hamarkadaren amaieran eta 1960koaren hasieran.

2. Dekretuak jasotzen zuenez, honako epe hauek ezarri ziren:

«(...) si la emisión de que se trate cesa voluntariamente en la prestación del servicio de onda media antes del 31 de Octubre de 1963, los plazos de autorización administrativa para emitir con la emisora de FM serán:

a) Si cesa de prestar servicio en OM antes del 31 de diciembre de 1961, el plazo de autorización para la emisora de frecuencia modulada se entenderá otorgado hasta el 31 de diciembre de 1980.

b) Si cesa en la prestación del servicio de OM antes del 31 de diciembre de 1963, la autorización administrativa para emitir con la emisora de FM no caducará hasta el 31 de diciembre de 1984» (Sánchez Redondo, 2001: 50-51).

Irrati haiek ezaugarri propioa izan zuten: kasu gehienetan baserritarren zonaldeetan kokatu ziren eta, beren mezu ebanjelikoa herritar guztiei helarazteko helburuz, euskara erabiltzen zuten, eliztar euskaldunek uler zezaten. Ikusiko denez, euskaraz aritzeak buruhaute bat baino gehiago ekarri zizkien irratietako arduradunei. Hala-ber, apaiz euskaltzale eta kulturazale batzuk izan ziren irradi gehienen bultzatzaile, eta, ondorioz, eduki erlijiosoez gain, euskal kultura eta ohiturak bultzatzen saiatu ziren.

Zesareo Elgarreta izan zen horrelako apaiz bat. 1955ean sortu zuen *Segura Irratia*, EOP-86³ *Radio Segura* adierazlea zuena, eta 1956ko apirilaren 2an hasi zen emititzen. Irratia Segurako *Acción Católica* zelako erakundeak zuen zentroan sortu zen, eta hasieran 25 W-eko potentzia zuen; hau da, bertan entzuteko nahikoa soilik. Horren programazioa eduki erlijiosoek betetzen zuten ia osotasunean; hain zuzen ere, Errosario Santua eskaintzen zen eta baita albistegi katolikoak ere. Kirolak, eskaintako diskoek eta euskarazko abestiek osatzen zuten emankizuna.

Beste apaiz batek, Pedro Gorostidik, sortu zuen *Arrate Irratia* Eibarren. 1959ko abenduaren 23an emititzeari ekin zion. Lehenengo emanaldiak Arrateko Santutegiko atzealdetik egin ziren, eta Uhin Ertainean jasotzen ziren. Garrantzi handia izan zuten programazioan erlijioak eta kristau-ikasbideak; euskaraz emititzeko aitzakia eta arrazoia; berriz, kristau-ikasbidea baserritarrei helarazteko baserritarrek erabilitako hizkuntzan ematea komeni zela.

Baina aipatutako biak ezagunenak izan ziren arren, ez ziren bakarrak izan. Sánchez Redondo-k dioenaren arabera, Elizaren eta Gobernuaren arteko protokoloa sinatu aurretik —*Comisión Episcopal* izeneko erakundeak aurkeztutako zerrendaren arabera—, berrehun irradi parrokiak ziren estatu espainiarrean, horietako bederatzi Hego Euskal Herrian.

Hain zuzen ere, honako hauek ziren bertako emisorak, eta honakoak bakoitzaren emisio-potentzia (Sánchez Redondo, 2001: 53-58):

3. EOP = *Emisora de Ondas Populares* izenari zegokion. Carlos Albillo eta José Javier Sánchez Aranda ikerlariak azaltzen dutenaren arabera, 1963ko maiatzaren 22tik aurrera EOP adierazlearen ordeztuz, EAK adierazlea eman zitzaion elizaren irratiei, lehenengoa beste estatu bati zegokiolarako (Albillo eta Sánchez, 1995: 100).

Emisora	Potentzia
Bilboko Herri Irratia	2 kW
Iruritako Irratia	500 W
Iruñeko Herri Irratia	2 kW
Eibarko Arrate Irratia	2 kW
Irungo Irratia	1kW
Loiolako Herri Irratia	1kW
Donostiako Herri Irratia	1kW
Segura Irratia	1kW
Gasteizko Irratia	2 kW

Zerrenda horri Tolosan eta Arantzan egon ziren elizaren irratia⁴ gehitu behar zaizkio. Azaldutako estazio horietako batzuk, *Herri Irratia* adierazlea zutenak, *COPE*⁵ katearen sorreran egon ziren; beste batzuek, berriz, ez zuten denbora luzez iraun.

Uhin Ertainetik Maiztasun Modulaturako itzulerarik gabeko bidaia

Estatu espainiarreko irratia-maparen ordenatzeko helburuz, gobernuak dekretu bat ezarri zuen 1958ko urriaren 8an, zeinaren arabera, Uhin Ertainean emititzen zuten tokiko emisora guztiek —haien artean elizarenek— Maiztasun Modulatuan emititzera pasatu behar zuten. Bertan ezarritako epea amaitutzat eman zuen 1963ko urriaren 24ko dekretuak. Horren aplikazioak tokiko irratia asko ixtera behartu zituen, dial berrira egokitzeko baldintza teknikoak bete ezin zituztelako. Horien artean euskal irratia asko itxi ziren. Adibidez, Segura, Tolosa eta Arrate irratia itxi zituen Informazio eta Turismo Ministerio espainiarrak 1964an.

Zesareo Elgarretak Uhin Ertainean emititzen jarraitzeko baimena eskatu arren, ez zuen lortu. 1971n berrirori ireki zuten, baina FMn emitituz eta baimen legalik gabe. Programazioa 1972an jarri zen abian, elebiduna —gaztelaniaz eta euskaraz— eta erlijioari garrantzi handia ematen jarraitzen ziona; goizero 10etan Meza Santua eskaintzen zuen Arantzazuko Santutegitik, eta Meza Nagusia igandero 11etan. Antena eta zentro igorlea Haizeleku mendian zeuden, Gabiriaren eta Legazpiaren artean. Bigarren garai horretan 800 W-eko potentziaz emititzen zuen.

Dena dela, euskal irratia horren ibilbidea ez da erraza izan. 1977an “*Radio Segura S.A.*” izeneko entitate bihurtu zen emisoraren jarraipena bermatzeko asmoz, eta *Opus Dei* delako entitatearen pertsonaia batzuk sartu ziren zuzendaritzan; eta

4. Tolosako eta Arantzako elizaren irratien berri ez du aurkitu idazleak, dena dela, bere itxiera aipatzen da *Argiako Gure Mendea* izeneko kronologian: <www.Argia.com/mendea>. Era berean horien aipamena aurkitu du egileak F. Machain-ek jasotzen duen irratigintzari buruzko historian: <www.euskalnet.net/fmachain>.

5. *COPE: Cadena de Ondas Populares de España*.

nahiz eta dirurik ez jarri, akzioen %49 eskuratu zuten. Dena dela, ez zuten jabetza lortu eta alde egin zuten. Hori dela eta, 1980an, fundatzailea hil eta gero, bere lehengusu Jose Elgarretak hartu zuen irratia ren ardura⁶.

Aurretik, eta ezezko asko jaso eta gero, 1977ko ekainaren 15ean emititzeko baimena lortu zuen⁷. Gaur egun irradi komertzial moduan ari bada ere, oraindik ere eduki erlijiosoa duten irratsaioak eskaintzen ditu.

Esan bezala, 1964ko maiatzean *Arrate Irratia* ere itxiarazi zuen Madrilgo gobernuak epe guztiak agortu eta gero⁸. 1978ko uztailan berriz hasi ziren emisora eibartar horren emanaldiak, baina berriz itxiarazi zuten urte bereko azaroan, baimenik ez zuelako. 1982an ireki zen, Bernardo Ibarraren zuzendaritzapean. Irrati pirata moduan aritu eta gero, 1989ko abuztaren 9an emititzeko baimena eman zion Eusko Jaurlaritzak.

Irrati horren finantzabidea bikoitza izan da hortik aurrera: alde batetik, publizitatea eta bestetik, bazkideek ordaintzen dituzten kuotak⁹. Programazioari dago-kionez, irradi-formula erabiltzen duten arren, ez dute modako edo kanpoko musika jartzen, bertakoa baizik, hots «trikitixa, rantxerak, musika klasikoa»¹⁰. Era berean, bizkaiera eta gipuzkera erabiltzen dute, esatarien jatorriaren arabera.

Herri-irradiak eta COPE kate espainiarra

Aipatu denez, gobernuarekiko akordio batera heldu eta gero, eliza katoliko espainiarrak irratia ren munduan sartu zen erakunde gisa. Eliza parrokiak baztertu gabe, 1959an *Cadena de Ondas Populares*, *COPE*, izeneko elizaren emisoren katea sortu zen, Espainiako apezpikuen batzarraren ardurapean. Halaber, urte horretako urriaren 12an, katearen barruko estazioek “*Herri-Irratia/Radio Popular*” adierazlea izango zutela erabaki zuten. Ondorioz, Iruñeko, Bilboko eta Donostiako gotzaindegien ardurapean irradi bana sortu zen hiru hiriburu horietan; horrez gain, Jesusen Lagundiak laugarren bat sortu zuen Loiolako Santutegian. Hego Euskal Herrian elizak zituen beste irradiak, berriz, saretik kanpo geratu ziren, eta batzuk desagertu egin ziren, esan bezala.

6. Otermin, M. (1978): “*Segura Irratia*” don Zesareo gabe ez da opus-ena izango», *Argia*, irailaren 28, 27-28; *Punto y Hora* (1977): “Radio Segura no es del Opus”, 1977ko azaroaren 3-9.

7. Ibidem.

8. Bernardo Ibarra *Arrate Irratiko* zuzendariak *Argiari* emandako elkarrizketa batean Felix Monederori leporatu zion ixteko erabakia; elizbarrutiko irratien arduradunari, alegia.

Etxezarreta, A. (1990): “Bernardo Ibarra: «Euskararen aldeko postura eginez gero programazio osoak euskara hutsean behar du»”, *Argia*, ekainaren 24, 61.

9. Ibidem.

10. Apaolaza, E. eta Irazu, A. (1991): “Bernardo Ibarra: «Lekuko euskara baztertzea astokeria galanta da»”, *Argia*, otsailaren 17, 61.

Hego Euskal Herriko hiriburuetakoko lehenengo emisora Iruñekoa izan zen; *Iruñeko Herri Irratia*, alegia. Estazioa 1959ko abuztuaren 4an inauguratu zen¹¹, EAK-4 adierazleaz. Emisio-potentzia 900 W-ekoa zen eta tresneria teknikoa Atarrabiako Aita Domingotarren Apaizgaitegian zegoen kokatuta, bi estudiorekin batera; hirugarren estudio bat Iruñeko Santo Domingoko Komentuan zegoen. Hara eramán ziren estudio guztiak 1962an (Albillo eta Sánchez, 1995: 103-104).

Nafarroako irratigintzaren historiari buruzko liburuan Carlos Albillo eta José Javier Sánchez Aranda adituek azaltzen dutenaren arabera, *Radio Requeté* izeneko emandegian Atarrabiako Aita Domingotarrek eskaintzen zituzten irratsaio erlijio-soetan oinarritu zen *Iruñeko Herri Irratiaren* sorrera. Domingotarrek 1952an hasi ziren emankizun erlijiosoak eskaintzen; besteak beste, Errosarioa, *Angelus*-a, gaixoentzako emanaldi bereziak, meditazioak, mezak, hitzaldiak, sermoiak, aholkularitzak eta Gabonetako zein Aste Santuko emanaldi bereziak (Ibidem: 102).

Beste aldetik, *Bilboko Herri Irratia* (EAK-13) 1959an sortu zuen Bizkaiko Goitzaindegiak. Kultura era erlijioari buruzko gaiak nagusitzen ziren programazioan, eta eduki batzuk euskaraz eskaintzen ziren: adibidez, *Irrintzi* saioan, *Omi-lían*, *Errosario Santua* izeneko emanaldian, larunbateko *Euskal Orduan* eta *Eusko Ikastolan* euskara zen hizpide. Horrez gain, euskarazko eskolak ematen zituzten Itziar Arrarte eta Juan Jose Pujana *Txinparta* antzerki-taldekoek¹².

Esan bezala, Gipuzkoan bi emisora sortu ziren. 1961eko otsailaren 11n¹³ hasi zen emititzen *Loiolako Herri Irratia* (EAK-66) eta, urtebete beranduago, 1962ko abuztuaren 15ean, *Donostiako Herri Irratiaren* emanaldiak abiatu ziren, EAK-44 adierazleaz.

11. Diario de Navarra (1959): “Solemne y brillante bendición e inauguración de Radio Popular de Pamplona”, abuztuaren 8.

12. A. A. (1965): “*Bilbaoko Erri Irratia*, Argia, **104**, 10. Jose M^a Martin de Retana, *Bilboko Herri Irratiaren* zuzendariak honela azaltzen zuen euskararen erabilpena irrati-programazioan: Irrintzi: folklore izparrak emoten dira: dantzak, zortzikoteak, txistulariak, euskal jaiak... Eguaz-tenetan, gabeko 9^{1/2}etan. Entzute andienetakoa da eta jenteentzako, dakigunez, oso atsegingarria. Erderaz egiten da. (...) Euskal Ordua: dana euskeraz, larunbatetan 4^{1/2}etan eta 12^{1/2}etan au bere euskeraz, Baserri Orduan. (...) eta ordu bietan Omilia bat euskeraz. Errosario Santua, eguneko goizeko 8^{1/2}etan euskeraz eta bai ta bere egunero (...) Eusko Ikastola: goizeko 8^{1/4}etan euskeraz eta gabeko 9^{1/2}etan.

13. Iturri batzuen arabera, emisora 1961eko otsailaren 2an abian jarri zen arren, bederatzi egun beranduago hasi ziren emanaldi erregularrak. Horregatik, data desberdinak aurkitzen dira ikerturiko testuetan.



Herri Irratiaren logotipoa. Iturria: <www.herri-irratia.com>.

Loiolako emisora Jesusen Lagundiaren eskutik sortu zen, eta Loiolako Santutegiko egoitzan jarri zituen estudioak; 60 m-ko antena, berriz, Erlenate mendian zegoen. Emisio-potentzia 2 kW-ekoa zen eta, beraz, Azpeitian ez ezik, inguruko herri askotan jasotzen zen seinalea. Irratsaio erlijiosoez gain, pilota-partidak eta bertso-saioak eskaintzen zituen, baita txirrindularitza-lasterketen emanaldiak ere. Arrate, Segura eta Tolosako irratia itxita zeudela, *Loiolako Herri Irratiak* jarraitu zuen euskaraz emititzen 1964an. Dena dela, aipaturiko dekretuan oinarrituta, emisora horri ere heldu zitzaion ixteko agindua. Beraz, 1965eko uztailaren 26an, *Loiolako Herri Irratia* itxi zuten agintariek. Urtebete beranduago, 1966ko uztailaren 31n, berriz ere ekin zion emititzeari, baina Maiztasun Modulatuan. Bigarren garai horretan, estudioak handitu zituzten eta emisore berri bat kokatu zuten Itsumendin.

Madrilgo gobernuarekin gero eta arazo gehiago zituen euskaraz emititzea-gatik, eta oso txarrak ziren emisorak erakunde ofizialekin zituen harremanak. Herritarren atxikimendua, ordez, gero eta beroagoa zen, eta horren froga da, zalantzarik gabe, garai berri horretan bost mila familia gipuzkoarrek eskaintzen zioten sostengu ekonomikoa, kuota finkoa ordaindiz. Horrela azaldu zuen Karmelo Otaegik garai horretako egoera:

Borroka asko egin izan behar genuen, baina hala eta guztiz Madrileko ministeritzan ez genuen “aita pontekorik” izan, eta aldiz, bai etsaia eta orduan hau ixtea erabaki zuten. Ikusten zen irteera bakarra, bai hemen bai Madrilén, F.M.ra pasatzea zen. Emisora bat F.M.n ipintzea orduan abentura haundia zen eta guk itxi aurretik kanpaina bat eratu genuen jendeari zuzenduta, ea prest egongo al ziren gu apoia-tzeko. Herriaren erantzuna oso ona izan zen —geroago atentatua jasan genuenean bezalaxe—. Bost mila bazkide genituela baimenak eskatu eta F.M.n hasi ginen¹⁴.

14. Arano, J. M. eta Petrikorena, J. J. (1988): “Karmelo Otaegi: Euskal Irratigintza ez da behera joango”, *Argia*, **1187**, 35-9.

Donostiako Herri Irratia 1962ko abuztuaren 15ean sortu zuen Gipuzkoako Gotzaindegia, Félix Monederok bultzatuta. Hasieran, estudioak Bengoetxe kalean kokatu ziren eta zentro igorlea Aieten, — 1974an Garibai kalera eraman ziren estudioak, eta hortxe daude oraindik —. Lehenengo urteak ez ziren oso onak izan, eta, zuzendari batzuk eduki arren, ez zuen enpresa moduan finkatzea lortu. Beraz, 1971n *Loiolako Herri Irratiko* zuzendaritzak hartu zuen emisora donostiarraren ardura, aurreko urtearen abenduan jabetza Jesusen Lagundiak eskuratu eta gero¹⁵. Hortik aurrera, Juan Lekuonak gidatu zituen emisora biak, Gipuzkoan erroto zen irrat-egitasmoa bultzatuz. Emisora donostiarra Uhin Ertainean emititzen zuen, eta Loiolakoak Maiztasun Modulatuan eskaintzen zuen programazioa. Saio bateratuak egiteaz gain, bakoitzak bere nortasuna mantentzen jarraitu zuen.

Herri Irratiek beren nortasun eta programazio propioa mantendu zuten, *COPE* katearen barruan egon arren. Halaber, euskal emisorek saio bateratuak eskaintzen zituzten, Santander eta Burgos hiriburuetakoa estazioekin batera *COPE*ren ipar-zirkuitoaren barruan, edota haien entzuleei zuzendutako emanaldi batzuetan. Horrez aparte, tokiko gertaeren jarraipena zen nagusi.

Loiola, Donostia eta Bilboko *Herri Irratiek* autonomia mantendu zuten aurretik, eta, 1971n *Radio Popular SA* izeneko enpresa eratu zenean, katearekiko asoziatu moduan jarraitu zuten 1993ra bitartean; Iruñekoa, berriz, *COPE*ren egituraren barruan sartu zen erabat 1989ko urtarrilaren 1ean (Albillo eta Sánchez, 1995: 248).

Trantsizio Politikoa deitutakoan, arazo asko jasan izan zuen *Donostia-Loiola Herri Irratiak*, batez ere Mariano Ferrer zuzendaritzan zela. Askok izan ziren bere aurka egindako salaketak eta isunak, eta, azkenean, 1975ean bere kargutik bota zuten irrat-arduradunek. Gaur, berriz, Mariano Ferrer bera da emisorak duen esatari ezagunenetarikoa, audientzia handia duen *El kiosko de la Rosi* magazina gidatzen duena. Agintarien erasoez gain, 1977ko ekainaren 2an *Loiolako Herri Irratiaren* Itsumendiko emisorean lehergailu batek eztanda egin zuen; *Batallón Vasco-Español* talde ultraeskuindarrak bereganatu zuen ekintza hori. Berritoki ere, herritarrek emandako diruari esker abian jarri ahal izan zuten emisora, hamabost egunez itxita egon eta gero.

Gasteizko Herri Irratia sortzen azkena izan zen. Eusko Jaurlaritzak 1989an egindako maiztasunen banaketan Jesusen Lagundiari egokitu zitzaion bat, Gasteizen. Aurreko banaketan, berriz, *COPEk* eskuratu zuen maiztasuna, “*Herri Irratia*” adierazlea zuena. *Gasteizko Herri Irratia* katetik atera zela, bi erakundeen artean banatu ziren maiztasunak. 1998tik 2000ra bitartean, *Gasteizko Herri Irratiak* tokiko programazioa eskaini zuen *Canal Gasteiz* izeneko enpresari alokatutako maiztasunean. Hortik aurrera, berriz, Loiolako, Donostiako eta Gasteizko

15. Auzmendi, T. (1998): “Herri Irratia: iragana eta etorkizuna”, *Eusko News & Media*, 5.

Herri Irratiek programazio bera eskaini dute 2002ko iraila arte; data horretan, *Cadena 100* izeneko programazio musikala eskaintzen hasi zen maiztasun horretan.

*COPE*ko zuzendaritzak irradi guztietan programazio komun bat egitea erabaki zuen 1983an, eta programazio lokalak deskonexioen bidez ematen ziren. Horren ondorioz, Uhin Ertainean Madrildik eskainitako irratsaio nagusiak ematen ziren; Maiztasun Modulatuan eskainitako programazioa, berriz, lokalagoa izaten zen¹⁶. Hau da, irratsaio batzuk Euskal Herrian bertan egiten ziren bitartean, beste batzuk, berriz, Madrildik emititzen ziren. Hori zela eta, irizpide desberdinak nabarmentzen ziren irratsaio batzuen eta besteen artean: alde batetik, bertako irratsaioetan euskal kultura eta tokiko ahotsen presentzia bultzatzen saiatzen zen; bestetik, ordea, kritikatu ez ezik, eraso egiten zitzairen; bortizki, batzuetan. Egoera jasanezinera bultzatu zituen horrek euskal emisorak, Txema Auzmendik azaldu zuen legez:

COPE-k ABC egunkariaren jokaera ekarri zuen irrati mundura, gizarte giroa zakartuz eta txartuz; eta bai kultur arloari zegokionez: euskera eta euskal kulturaren aldeko zenbait ekimen eta ekitaldi irainduz eta gutxietsiz. Ez genuen horrela aurrera egiterik gure artean eta gure entzule askorengan nolabaiteko “eskizofrenia” eta bestelako “patologiarik” sortzen lagundu nahi ez bagenuen¹⁷.

Auziaren ondorioz, 1993ko irailaren 1ean, Loiola, Donostia, Bilbo eta Gasteizko emisorek *COPE*ekin zuten lotura bertan behera utzi zuten.

Kate espainiarrarekiko harremana eten eta gero, bi irrati gipuzkoarrak eta gasteiztarrek batera emititzeko akordiora heldu ziren; bilbotarrak, berriz, “*Katerik gabeko irratia*” le mari eutsi zion, eta oraindik bakarka jarraitzen du, aurrekoekiko kolaborazio batzuk mantentzen dituen arren.

Euskarazko irratsaioak, gatazkaren sortzaile

Esan bezala, Elizaren eta Estatuaren arteko harremanak ez ziren errazak izan, eta negoziazio eta tira-bira asko egon ziren bi erakundeen artean, irratiaren inguruan ere bai. Arazoak areagotu egin ziren Euskal Herriko elizaren kasuan, ezaugarri propioak zirela eta. Euskal elizaren zati handia lerro nazionalistetan kokatuta zegoen, eta bat baino gehiago izan ziren frankistek atxilotu zituzten apaizak,

16. 1964ko abenduaren 23ko *Plan Transitorio de Ondas Medias* izeneko plangintzaren arabera, Uhin Ertainean emititzen zuten emisorek beste bat sortu behar zuten FMn. Horren ondorioz, *COPE*ko emisorek bigarren bat sortu zuten dial berrian eta, hasieran, bietan programazio bera eskaintzen zen arren, beranduago programazio espezializatuagoa egin zen FMn, AMn programa konbentzionala eskaintzen zen bitartean. Hego Euskal Herriari dagokionez, tokiko informazioa eta bertako ekoizpena nagusitu zen FMn, baita euskarazko irratsaioak ere. 1990eko hamarkadan, FMko emisorak *Cadena 100* izeneko kate musikalean sartu ziren. Hego Euskal Herrian, banaketaren ondorioz, maiztasun batzuk *COPE*ren eskuetan geratu ziren, eta beste batzuk, berriz, bertako Herri Irratienetan.

17. Auzmendi, T. (1998): “Herri Irratia: iragana eta etorkizuna”, *Euskonews & Media*, 5.

erregimenaren aurkakoak zirelako akusaziopean. Era berean, euskal elizatik Francoren diktadura salatzen zuten ahotsak ugariak ziren. Beste aldetik, asko ziren sermoi eta platiketan euskara erabiltzen zutenak, eta, beraz, euskaraz mintzo ziren irratian eskaintzen zituzten mintzaldietan. Programazioa euskaraz egiteak arazo asko sortu zituen elizaren irratiaren arduradunen eta ministerioaren agintarien arabera. Sánchez Redondo-k azaltzen duenez, elizaren eta gobernuaren arteko harremanak gaiztotu egin ziren 1961ean; egoeraren okertze horren arrazoen artean euskal irrati parrokiak batzuek euskaraz emititzen zutelako ministerioak egindako salaketa zegoen (Sánchez Redondo, 2001: 66). Bereziki asko ziren *Loiolako Herri Irratiaren* aurkako salaketak euskaraz aritzeagatik, «*segurtasun publikoaren*» aurka jotzen omen zuelako, nazio espainiarraren batasunaren aurkako aldarrikapena baitzen euskaraz aritzea¹⁸.

Garai hartan —1960ko hamarkadan, hain justu—, irratiak askatasun gutxi zuten programazioa osatzeko orduan. Alde batetik, alde aurreko zentsura indarrean zegoen 1939az geroztik, eta, eskaintzen ziren edukiak zaintzeko eskubide eta beharra zuten Madrilgo gobernuko ordezkari probintzialek. Beste aldetik, 1960ko urtarrilaren 14ko dekretuak ezarri zuenez, estatu espainiarreko emisora guztiek zuzenean eman behar zituzten *RNE*ren eguneroko mintzatuak, eta debekaturik zegoen beste albistegi-buletinik egitea, informazio ofiziala besterik eskaini ezin zelako. Gobernuak, ordea, euskaraz aritzeko baimena eman zien euskal irrati parrokiaiei, baina beti ere baldintza batzuen pean.

Juan Mari Torrealdai idatzitako *El libro negro del euskera* liburuan jasotzen denez, irrati-arduradunek ordezkarietza espainiarrean zehaztu behar zuten euskarazko irratsaioen zerrenda, eta baimenduak zirenak soilik eman ahal ziren euskal hizkuntzan. Publizitatea eta arrakasta handia zuten disko eskainiak hortik kanpo geratzen ziren¹⁹. Idazleak azaltzen duenez, euskara «*denboraz kanpoko*» irratsaioetan soilik erabil zitekeen; hau da, kulturaletan, literatura edo historiari buruz-

18. Gatazka horren berri zehatza eskaintzen du Sánchez Redondo-k *COPE*-ri buruzko historian. Hona hemen idazleak esaten duena: «*Por otro lado, se intentaba presentar a Radio Popular de Loyola, propiedad de la Compañía de Jesús, como una emisora que atentaba contra la seguridad pública al dar programas en lengua vasca, por lo que el Ministro de Gobernación debía realizar las acciones pertinentes*» (Sánchez Redondo, 2001: 67). Era berean, Carrero Blancori Iruñeko Artzapezpikuak 1961eko irailean zuzendutako gutunaren pasarte hau jaso du adibide moduan: «*Se quiere alegar que la emisora de Loyola da programas en vascuence atentando contra la seguridad pública. Es cierto que se traducen al vascuence algunas informaciones, como se hace con sermones y catecismo allí donde apenas conocen el castellano, pero siempre con la más perfecta ortodoxia y amor a la patria, sin atisbo de separatismos, bien vigilados en la formación del personal que interviene: Padres Jesuitas y algunos seglares bajo la responsabilidad del Obispo de San Sebastián*» (Ibidem: 68-69).

19. Juan Mari Torrealdai jaso du *Ministerio de Información y Turismo* zelakoaren ordezkari probintzialak *Loiolako Herri Irrati*ko zuzendariari 1964ko urriaren 30ean bidalitako gutuna: «*Visto su escrito de fecha 27 del actual, por el que solicita autorización para retransmitir en lengua éuskara los programas señalados en el informe, que al mismo acompaña, esta Delegación*

koetan, eta erabat debekaturik zegoen gaurkotasunarekin zerikusia zuten edukietan, publizitarioak izan arren (Torrealdai, 1998: 172 eta 173).

Dena dela, arazoak izan arren, euskarazko irratsaioak eskaintzen ziren emisora horietan guztietan. Oso ezagunak egin ziren batzuk aipatuko dira hemen. Esaterako, *La Voz de Guipúzcoa* zelako irratia emititzen zuen “Jose Miguel eta Don Antonio” antzezki-zuna —*Arrate Irratiak* bi edo hiru egun beranduago ematen zuen—. *Loiolako Herri Irratiak*, berriz, “*Senar-emazteak*” izeneko irratsaioa ematen zuen —Jose Maria Iriondok zuzendutako komedia zen—. *Herri Irratiko* beste esatari ezagunak Jose Ramon Beloki, Jose Mari Otermin eta Iñaki Zubizarreta izan ziren. Horietako batzuk gaur ere euskal komunikabideetan ari dira.

Bilboko Herri Irratia euskara ikasteko saioa emititzen hasi zen 1965ean, Xabier Peñaren gramatika-liburuan oinarrituta. Ikastaroa hasi eta bigarren egunean, Peñaren lana erosi nahi zutenek ilarak sortu zituzten irratia-aren atarian, eta, hirugarren egunerako, 2000ko tirada zuen gramatika-liburua agortu egin zen. Bi hilabete ondoren, Jon Oñatibiak euskara irratia-aren bidez ikasteko metodoa, “*Método de euskera radiofónico/Euskera irratia bidez. Primer curso*” izeneko eskuliburua, plazaratu zuen, eta, horretan oinarrituta, Donostiako Herri Irratiak Bilboko saioa errepikatu zuen udazkenean. 1969an testu horren frantsesezko itzulpena egin zuen “*Methode d’eskuara radiophonique*” izenburupean²⁰. Euskarazko eskolak ere eskaintzen ziren *Iruñeko Herri Irratian* 1969an.

provincial, que en modo alguno pretende coartar la utilización del vascuence como medio de expresión —tal como parece haber interpretado esa Dirección a juzgar por los términos del mencionado informe— sino que trata de regular, de acuerdo con las instrucciones recibidas de la Superioridad, las condiciones que deben reunir determinados espacios, ha resuelto acceder a lo solicitado, siempre que se cumplan los siguientes requisitos:

1. El número y características de las emisiones en lengua vasca habrán de ser, precisamente, los señalados en la solicitud de referencia.

2. Del contenido de los programas, de su supervisión y vigilancia, se hace Vd. especialmente responsable, en su calidad de director de la emisora.

3. En ningún caso podrán ser difundidos anuncios en lengua vasca, toda vez que la publicidad no puede ser considerada como integrante de los programas religiosos cuya competencia exclusiva corresponde a la autoridad eclesiástica.

4. Por las mismas razones, y habida cuenta de que los llamados discos solicitados constituyen una modalidad publicitaria, sin conexión alguna con la tarea de apostolado religioso, queda terminantemente prohibida la difusión de discos acompañados de dedicatorias en lengua eúskara.

Todo lo cual me complace en comunicarle, significándole que la transgresión de cualquiera de las normas anteriores supondría la automática anulación de la autorización concedida» (Torrealdai, 1998: 172).

20. Argiaren Gure Mendean azaldua: <www.Argia.com/mendea>.



“24 Orduak Euskaraz” jaialdiaren argazkia, *Argiaren Gure Mendean*.

Baina zalantzarik gabe, euskaraz egindako irratsaierik aipagarriena *24 orduak euskaraz* emankizun berezia izan zen, Trantsizio Politikoaren garaian kokatua. Donostia, Loiola, Iruñea eta Bilboko *Herri Irratiaren* inizatibaz eta Jose Ramon Belokik zuzenduta, 1976ko martxoaren 27an ekitaldia antolatu zen Donostian. Udaberriko egun horretan lau orduz euskarazko programazioa eskaini zuten lau irratiek. Belokiz gain, entzule euskaldunek ezagutzen zituzten esatariek parte hartu zuten, hala nola Joxe Mari Iriondo, Joxe Mari Otermin, Karmelo Otaegi, Txaro Arteaga, Iñaki Zubizarreta, Nikolas Aldai, *Basarri*, Nemesio Etxanizek.

Argiaren kronikaren arabera,

kultura izan zen nagusi emankizunean eta besteak beste, honako ekitaldi hauek osatu zuten emanaldia: hamahiru mahai inguru —euskalduntze-alfabetatzea, poesia, folklorea, komunikabideak, ekonomia, Aranzadi eta inestigazioa, margolari-eskulturgileak, liburu argitaldariak, antzerkia, nobela eta saiakera, bertsolariak eta kantari eta diskoetxeak gaiei buruzkoak—, bi ordu eta erdiko mahainguru berezia euskal irakas-kuntzaz, hogeita lau bailaratan euskal kulturaren egoera zer-nolakoa den kontatuko duten beste hainbat kronika, euskal kulturaren izena duten zenbait gizon-emakumeri egindako hogeita bost elkarrizketa, Euskaltzaindiaren batzarra eta bertsolariak...²¹.

Amaitzeko, eta ekitaldia borobiltzeko, jaialdia antolatu zen Anoetako Belodromoan.

Saioa gaueko hamabiak eta laurdenetan hasi zen, eta honela azaltzen da *Argiaren Gure Mendeko* kronikan:

21. Ibidem.

Joxe Mari Odriozola, Kontxi Zabaleta, Pedro Diez de Ulzurrun, Martin Manterola eta Joxe Manuel Aleman bildu dira euskalduntze-alfabetatzearen inguruan. Joxe Migel Barandiarani eginiko elkarrizketa etorri da gero. Banan-banan, ahal diren konexioak zuzenean eginez, orduak aurrera doaz. Ahalegina alde guztietan ikusten da. Goizaldeko ordutan atera da jendea ohetik elkarrizketa egin diezaioten. Kronistak ere ez dira nolanahikoak: Gorka Knörr Gasteiztik, Jean Haritxelhar Behenafarroatik, Patxi Zabaleta Iruñetik, Rogert Idiart Zuberoatik, Piarres Lafitte Lapurditik, Juan Luis Goikoetxea Gernikaldetik... Eguerdian, Euskaltzaindiaren batzar berezi bat eskaini da. Interes handia dago lau diputazioetako ordezkariak azal daitezen, beraiek sortua den erakunde honi behingoz zor dioten babes ofizial guztia aitor diezaioten, eta hala izan da. Euskaltzaindiari babesa eskaintzearena, ez da sinbolikoa. Belodromoko musika jaialdian bildutako sos guztiak ere euskal akademiarentzat izan dira.

Orduak aurrera doaz. Gauerdian, Donostiara hurbiltzerik izan ez duen entzulea Herri Irratiak “Kantagintza eta disko etxeak” gaiaren inguruan emititzen ari den mahai inguruarekin konformatu da. Bien bitartean belodromoan, zirrarak pospolo su forma hartzen du kantu hunkigarri bakoitzarekin. Hamaika mila lagunengorek eta oihuek behin eta berriz eteten dituzte Laboaren, Leteren, Knörren kantuak. Ikurrinak ateratzen dira jakapetik deiadarren gainean astintzeko, globoak dabilta harmailetan gora eta behera... Hegoaldeak Jean Mixel Bedaxagarren artea ezagutzen du... Ordutegi aldaketak ere erantsi dio anekdota politik. Baten beharrean bi egunez luzatu diren 24 ordu izan dira²².

Emanaldiaren hizkuntza euskara izan zen, *RNE*ren informazio-saioekin egin beharreko konexioa eta Jorge Oteiza eta Julio Caro Barojari egindako elkarrizketa bana kenduta, horiek gaztelaniaz egin behar izan ziren eta.

Ipar Euskal Herrian ere, emisora kristauak entzungai

Hego Euskal Herrian bezala, Iparreko zonaldean ere badaude entitate erlijio-soek bultzaturiko emisorak. Eliza katolikoari dagokionez, Ipar Euskal Herriko elkarte kristauari zuzendutako irratia bat sortzeko elkarteak sortu zen 1988ko abuztuan, *Association Pour une Radio de l'Eglise en Pays-Basque* delakoa, alegia. Urrats desberdinak eman eta gero, 1992ko uztailan *Lapurdi Irratia* emititzen hasi zen, herrialdeko hamabost parrokiaren arteko akordioaren ondorioz²³.

Irratiko arduradunek dioten moduan, irratia horren helburua Ipar Euskal Herriko kristauei zerbitzu eskaintzea da, eta, ondorioz, eleaniztasuna hautatu zuen hasieratik; beraz, elkarte katolikoan bezala, frantsesa eta euskara erabiltzea erabaki zuten, fededun guztiengana beren hizkuntzan heltzeko asmoz. Halaber, emisoraren programazioa lau ardatz nagusitan oinarritzen da: alde batetik, fedeari buruzko gaiak eskaintzen dira —kristau-ikasbidea, hezkuntza biblikoa, *angelus*-a, otoitza, adibidez—, beste aldetik, kulturari buruzko irratsaioak, informazioa eta irratsaio

22. Ibidem.

23. <www.lapurdi.org>.

musikalak —frantsesezko eta euskarazko abestiek, mundu osoko kanteak, musika klasikoak edota instrumentalak eta abesti erlijiosoek osatua—²⁴.

Horrez gain, *Radio Bonne Nouvelle* izeneko emisora kristauaren sintonia dago entzungai Ipar Euskal Herrian, hizkuntza frantsesa den arren.



Lapurdi Irratiaren logotipoa, <www.lapurdi.org> web-orrian.

24. Ibidem.

6. Irrati-mapa berriaren sorrera trantsizio-garaian

Franco hil eta gero, diktaduran gertatzen hasi ziren aldaketa politikoak nabarmentzen hasi ziren gizartean. Irratigintzan ere aldaketa asko suertatu ziren trantsizio-garaia deituriko hartan. Alde batetik, 1977an bertan behera geratu zen *RNE*ren informazio-zerbitzuekin konektatzeko beharra. Beste aldetik, 1960ko hamarkadan hasitako prozesu baten ondorioz, programazio-taxuera berriak sartu ziren dialean, gazteen gustuei egokituagoak. Aldi berean, nazioen aldarrikapenekin batera, komunikabide nazionalen beharra aurreikusi zuten estatuko hainbat herrik; horien artean, Euskal Herriak. Garai horretan, autonomia-estatutuak onartu ziren, eta horrek irratigintzaren deszentralizazio administratiboa ekarri zuen. Horren guztiaren ondorioz, aldaketa batzuk gertatu ziren estatu espainiarreko irradi-mapan, baita Hego Euskal Herrikoan ere.

IRRATIGINTZA ESPEZIALIZATUAREN JAIOTZA

Aurreko atalean azaldu den bezala, 1960ko hamarkadan Hego Euskal Herriko irratigintzan oso eragin zuzena izan zuen aldaketa bat gertatu zen, nazioarte mailan sinatu ziren akordioen ondorioz: Maiztasun Modulatuak dialaren sorrera, alegia. Hain zuzen ere, 1952an Stockholm-en hartutako Nazioarteko Irrati-hedapenaren Itunaren ondorioz, FMko laurogeita bat maiztasun egokitu zitzaizkion estatu espainiarrari. Akordio hori eta horren arabera nazioarteko maiztasun-banaketa kontuan hartuta, *Plan Transitorio de Ondas Medias* izeneko plangintza abian jarri zuen Madrilgo gobernuak, 1964an estatu espainiarreko irradi-mapa ordenatzeko asmoz. Plangintza horren arabera, Uhin Ertaineko emisora txikiak Maiztasun Modulatura pasatzeko 1958an irekitako epea ixteaz gain, dial berria bultzatzeko asmoz, AMn emititzen ari ziren irradiak FMn beste bat ezartzera behartu zituen espainiar ministerioak, 1965ean. Aurretik, 1957an, *RNE* hasiak zituen maiztasun horretako emanaldiak esperimentalak ziren; adibidez, Donostian 1965ean emititzen hasi zen *RNE*ren FM (Pedrero, 2000: 43).

Horrekin batera, beste neurri bat hartua zuen gobernu espainiarrak: 1959ko abuztuaren 18ko dekretuaren arabera, FM jasotzeko aukera eskaini behar zuten irradi-hargailu guztiek, 1960ko urriaren 1etik aurrera.

Era berean, dialean gertatu zen aldaketa azaltzeko, oso kontuan hartzekoa da irrati-seinalea maiztasunean modulatzeko eskaintzen dituen aukera berriak, anplitudean modulatzearen aldean: alde batetik, behar zuen kanal-zabalera handiagoak eragina izan zuen soinu-kalitatean eta igorritako informazio-kopuruan; beraz, soinua —eta bereziki, musika— estereofonian emititzea ahalbidetzen zuen teknologia berriak. Beste aldetik, uhin ertainekoak baino hedadura-eremu txikiagoa eskaintzen zuen maiztasun modulatuko seinaleak; eta, ondorioz, dila hobeto aprobetxatzea ahalbidetzen zuen, eremu geografiko ezberdinetan dialeko puntu berean emisora bana kokatu ahal baitziren. Ondorioz, irrati berriak sortu zitezkeen maiztasun berrian, Uhin Ertaineko dila guztiz beteta baitzegoen.

Beste aldetik, gero eta irrati-hargailu txikiagoak eta mugigarriagoak egiten hasi ziren enpresa elektronikoak, eta, ondorioz, irrati entzuteko beste era bat sortu zen; hain zuzen ere, bakarkako entzunaldia kolektibo bihurtu zen. Hau da, entzuleek ez zuten gela batean zegoen irrati-aparatuaren inguruan eseri behar, eta hargailu txikiak edonora eraman ahal zituzten, hobetsitako katea edo programa aditzeko.



Aparatu eramangarriek (esk.) ordezkatu zituzten tramankulu handiak (ezk.).

Iturria: <andurik/eupvg.upc.es/radio>.

Horren guztiaren ondorioz, beste mota bateko irratigintza sortu zen 1960ko hamarkadaren erdialdean, irratigintza espezializatua edo irrati-formula deiturikoa, alegia. Beraz, froga-emanaldien epe baten ondoren, bi motatako programazioak bereizi izan dira maiztasun-banden arabera, 1970ko hamarkadatik aurrera: konbentzionala edo orokorra (AMn) eta irrati-formula, (FMn¹).

Legez, FMko beste emisora bat sortu behar zutenez, emisora askok AMn emititzen zuten programazioa errepikatu egiten zuten hasieran, bigarren bide ho-

1. Programazio orokorra edo konbentzionala denetariko irratsaio-motak eta gaiak sartzen dituen, eta publiko heterogeneo desberdinei zuzendua dena da; irrati-formula, berriz, errepikatzen den taxuera batean oinarritzen dena da, adibidez “musika-notizia-musika-notizia” bezalako eskemaren arabera (Gutierrez Paz, 2001: 11-13).

rretan, baina berehala konturatu ziren maiztasun berriak askotariko aukerak zabaltzen zituela, eta Estatu Batuetan arrakasta frogatuta zuen taxuera sartu zuten estatu espainiarrean: *Top*-zerrenda edo irrati-formula musikala deiturikoa.

SER izeneko kateak oso apustu handia egin zuen taxuera horren alde, eta 1966an sortu zuen *40 Principales* izeneko irrati-kate musikala. Gazteei zuzenduta, berrogei abestiren zerrenda baten emanaldian oinarrituriko programazioa eratu zuen kateak. Uhin Ertainaren bidez eskaintzen zuen *El Gran Musical* saio musikala izan zen horren aurrekaria, eta esperientzia horretan oinarrituta abiatu zen kate berria. Hasieran, hiri bakoitzeko irratia bazuen tokiko programazioa, ordu batzuetan katean emititzen zuen arren. *El País* egunkaria argitaratzen duen *PRISA* komunikazio-taldeak *SER* katearen akzio-multzo bat erosi eta gero, aldaketa asko gertatu ziren horren barruan 1980ko hamarkadan, *40 Principales* delakoan ere bai. Programazioa zentralizatuz joan zen, sateliteei esker, eta poliki-poliki tokiko emanaldiak desagertuz joan ziren, euskal hiriburuetaoak barne.

Euskal Herrian, Maiztasun Modulatuako emanaldiak 1963an hasi zituen *Radio Requeté* zelakoak. Hasieran programazio musikal propioa eskaini zuen arren, beranduago Uhin Ertainean eskaintzen zuen parrilla bera emititzen zuen, arratsaldeko saio musikala salbu. 1960ko hamarkadaren amaieran *40 Principales* emititzen hasi zen FMn, eta 1978an guztiz bereizi ziren FMko eta AMko emankizunak (Sánchez Aranda eta Albillo, 1995: 111-118). *Radio Bilbao* delakoak abian jarri zuen FMko programazioa 1967an, eta 1970eko hamarkadaren amaieran *40 Principales* katearen emanaldi espezializatua eskaintzen hasi zen maiztasun horretatik. Kate horren emankizun donostiarra 1979ko apirilean hasi zen emititzen, aurretik *Radio San Sebastián* izenekoak programazio propioa eskaini eta gero. Emisora donostiarraren FMko emanaldietan euskara erabiltzen zen, hizkuntza horretan egiten zen parrillaren portzentajea oso murrizta zen arren. Araban, Gasteizko Aurrezki Kutxaren *Radio Vitoria* emisoraren bidez eskaintzen zen kate musikalaren programazioa 1982ra bitartean, FMn zuen maiztasunean. Urte horretan Eusko Jaurlaritzak erosi zuen emisora, eta emankizunak bertan behera geratu ziren. Entzuleria gasteiztarra ez galtzeko asmoz, *SER* kateak Miranda de Ebron zuen maiztasunaren bidez emititu zuen programa hori, 1987an *Radio 40 Vitoria* sortu zuen arte, Eusko Jaurlaritzak egindako banaketan *SER* kateak maiztasuna lortu eta gero.

Maiztasun Modulatuako emanaldiak abian jarri zituen beste kate pribatua elizarena izan zen. Hain zuzen ere, Bilboko *Herri Irratiak* euskarazko emanaldia eskaintzen zuen FMn, eta gaztelaniazko programazio konbentzionala AMn. Donostiako eta Loiolako *Herri Irratiek* ere FMko eta AMko emanaldiak bereizi zituzten; baserritar kutsu handiagokoa eta euskalduna, lehenengoa; hiritarragoa eta elebiduna, Uhin Ertainekoa. Ondoren, beste kateekin lehiatu ahal izateko, maiztasun modulatuako dialean programa musikala eskaintzen hasi ziren, 1992an *Cadena 100* izena hartu zuena, hain zuzen. *Herri Irratiek* FMko maiztasunak —Loiolakoa izan ezik— galdu zituzten 1993an, *COPE* katearekiko akordioa bertan behera utzi

eta gero. *Radio Popular de Pamplona* delakoak emanaldi musikala eskaini zuen FMn, 1974an (Sánchez Aranda eta Albillo, 1995: 111). Beranduago, emanaldi bera eskaini zuen bi bandetan —AMn eta FMn—, 1980ko hamarkadaren amaieran bi parrillak berriro bereizi arte; 1992an, berriz, *Cadena 100* katearen emanaldia eskaintzen hasi zen (Ibidem: 268-270).

EUSKARAZKO EMANKIZUNAK

Zalantzarik gabe, trantsizio-garaian Hego Euskal Herrian zeuden eta sortu ziren komunikabideek erronka handia zuten euskara eta euskal kultura ezagutarazi eta bultzatzeko. Berrogei urteko zentsura eta ukazio ofiziala jasan eta gero, Hego Euskal Herriko emisora askok euskaldunen eskakizunei egokitu behar izan zieten irratihizkuntza. Elizaren emisorek euskara erabiltzen zuten hainbat irratsaiotan, eta beste emisora batzuetan ere bazeuden euskarazko saioak, baina egoera tamalgarria zen 1977an, *Punto y Hora* aldizkariak urte horretako azaroan argitaratu zuen txostenaren arabera. Astekariaren erreportajeak agerian utzi zuen bezala, Franco hil zenean oso gutxi ziren euskaraz eskaintako irratsaioak²:

- a) Gipuzkoan, euskaraz emititzen zuten elizaren irratiek —*Loiolako Herri Irratiak*, *Segura Irratiak* eta *Arrate Irratiak*—, Donostiako *Herri Irratian* gaztelaniazko irratsaio asko eskaintzen ziren arren. Beste aldetik, Donostiako *Radio Nacional* delakoan, astean zehar ematen ziren albistegietako edukien laburpena eskaintzen zuten igandeetan euskaraz, baita hilean behin baserritarrei zuzendutako irratsaio bat ere. *Radio San Sebastián* delakoan, berriz, oso irratsaio gutxitan erabiltzen zen euskara. *La Voz de Guipúzcoa-Radio Cadena Española* zelakoan euskarazko irratsaio batzuk eskaintzen ziren, baina emisoraren egoera oso txarra zen, eta ez omen zen ekonomikiki bideragarria, eta, beraz, itxieraren mehatxuak kateatuta zegoen.
- b) Nafarroan, *SER* kateko *Radio Requeté* izenekoak “*Batzarre*” irratsaio elebiduna eskaintzen zuen arratsaldeko 15:15etatik 16:00etara. Iruñeko *Herri Irratiak* euskarazko ikastaroak eskaintzen zituen, eta, euskarazko irratsaiorik ez zuen arren, euskaraz sartzen zituen ohar batzuk igandeko programazioaren barruan.
- c) Bizkaian, Bilboko *Herri Irratiak* euskarazko programazioa eskaintzen zuen FMn. Horrez gain, *Radio Bilbao* delakotik Oñatibiak euskarazko irratsaio bat eskaintzen zuen 1965az geroztik.
- d) Araban egoera okerragoa zen, eta euskarak ez zuen ia islarik irratietan.

2. *Punto y Hora* (1977): “Emisoras de radio: Adiós franquismo, adiós”, irailaren 3-9, 10-13.

Beraz, ez zen erronka erraza parean zeukatena, eta, irratien arduradunek azaltzen zuten modura, asko ziren gainditu beharreko arazoak³:

- Ohitura falta, bai entzuleen aldetik, bai esatarien aldetik. Irrati-hizkuntza sortu beharra zegoen. Adibidez, oso barneratuta ziren klitxeak, eta esaldiak euskarara egokitu beharra zuten; hasierako kazetariak eta esatariak gaztelaniatik itzultzen zuten, batzuetan ez oso era egokian. Euskara nekazaritzaz edo herri-kirolari buruz hitz egiteko tresna egokitzat jotzen zuten arren, futbol-partidak edo antzeko gertaerak zuzenean emateko gai ez zelako ustea zegoen.
- Era berean, euskararen batasunerako prozesua hasita zegoen, eta euskaldunek ere ez zekiten batzuetan zein zen irratietan erabili behar zuten hizkuntza: batua ala norberaren euskalkia, literarioa ala mintzo naturala... Gaur oraindik erabat itxi gabe dagoen eztabaida izan zen hura.
- Profesionalen gabezia. Leioako Gizarte- eta Komunikazio-Zientzien Fakultateko lehenengo promozio euskaldunak 1980ko hamarkadaren amaieran sortu ziren. Profesional euskaldun ezagun batzuk baziren arren, ez ziren aski plantilak osatzeko. Hori zela eta, *Euskadi Irratiaren* sorrerak kalte ugari eragin zituen ordura arte euskaraz ari izan ziren hainbat emandegitan, batez ere *Herri Irratian*, hortik profesional asko arlo publikora pasatu ziren eta.
- Beste aldetik, informazio-iturriak ere guztiz erdaldunak ziren. Euskarazko prentsa-agentziarik edota ekoizpen-zentrurik gabe, teletipoak gaztelaniatik itzuli behar zituzten irratilariak, eta heltzen ziren adierazpen gehienak ere erdaraz jasoak ziren. Halaber, ez zegoen ia bozeramale edo prentsa-arduradun euskaldunik, ez administrazioan, ez enpresa pribatuan ere. Dena den, Goizalde Landabasoren *Korte bat, mesedez* izenburuko nobelan agertzen den moduan, nahiz eta orain bozeramale euskaldun gehiago izan, hauxe da erakunde, alderdi, talde eta kultura-eragile askok oraindik gainditu ez duten ikasgaia: bozeramale euskaldunak behar direla, hain justu.
- Euskarazko publizitatea erakartzeko zailtasuna. Entzuleria euskalduna murrizta zela eta, enpresa handiek ez zuten harentzako publizitate propioa egiten, errentagarria ez zelako, eta guztiek gaztelania ulertzen zutela zioten, hizkuntza maioritarioa erabiltzeko aitzakiatzat. Tokiko iragarkiak soilik agertzen ziren euskaraz, eta normalean euskarazko saioetan tartekatuta, oso zaila baitzen horrelakorik entzutea programazio konbentzional erdaldunetan. Irrati komertzialek ere ez zuten euskararen aldeko apusturik egin, eta hizkuntza horretan iragartzeko espresuki eskatzen zuten bezeroei soilik ematen zieten aukera, besterik gabe.

3. Argia (1982): “Euskarazko irratsaioak zertan diren”, martxoaren 14, 19-21.

Arazo horiei aurre egiteko asmoz eta euskarazko irratigintza bultzatzeko helburuz, Eusko Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak euskaraz egindako irratsaioentzako diru-laguntzak eskaini zituzten 1980ko hamarkadaren hasieran. Hori zela eta, gaztelaniazko programazioa zuten emisora pribatu batzuek euskarazko tarteak sartu zituzten parrillan. Hala nola, *Radio San Sebastián* delakoak FMn zuen emankizunean sartu zuen euskarazko programazioa; dena dela, euskarak publizitatea erakartzen ez zuelako aitzakiaz, emisorak ez zuen horren aldeko apustu sendorik egin.

Donostiako Herri Irratiak euskaraz eskaintzen zuen programazio-tartea luzatu zuen, eta egunero zazpi orduz euskaraz emititzeari ekin zion. Irrati horrek bazuen euskaldunek osaturiko lan-talde profesionala eta, beraz, ez zuen moldaketa handirik egin behar izan, euskarazko idazketa-taldea eratzeko. *Bilboko Herri Irratiak* euskarazko irratsaioen iraupena luzatu zuen laguntzei esker, eta, esan bezala, euskarazko emankizunak eskaini zituen FMn. Eusko Jaurlaritzak berak bultzatu zuen irrati-publikoaren harrobia osatu zuten *Herri Irratietako* kazetari eta esatari askok.

Beste aldetik, aldaketa gehiago egin behar izan zuen Donostiako *Radio Cadenana* izeneko emisorak. Lau orduz emititzen zuen euskaraz egunero 1982ko hasieran. Goizez eskaintzen zuten irratsaioa, eta bereziki etxekoandreei zuzentzen zitzaien⁴.

Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi zituen euskarazko emnaldiei zuzendutako diru-laguntza horiek guztiak *Euskadi Irratia* abian jarri bezain pronto —Gipuzkoako Aldundiak, berriz, oraindik eskaintzen ditu euskarazko komunikabideentzako subentzioak; irratientzakoak ere bai—. Subentzioen desagerpenarekin batera, oso denbora laburrez iraun zuten euskal emanaldiek hainbat irrati pribatutan, errentagarriak ez zirelako.

IRRATI NAZIONAL BATEN ESKAKIZUNA

Euskara eta euskal kultura bultzatzeko ez ezik, euskal nortasuna sendotzeko tresnak eratzeke eta euskal ikuspuntutik informazioa jasotzeko aldarrikapenak hedatu ziren Hego Euskal Herrian zehar autodeterminazio nazionalaren eskakizunarekin batera; eta horretarako, ezinbestekoak ziren euskal komunikabideak izatea. Prentsa-arloan bi inizatiba ezberdin sortu ziren 1977an: *Deia* eta *Egin* egunkariak, argitaratzen ziren beste kazeta pribatuekin lehiatzeko prest jaio ere, xede komertzial hutsa ez zuten arren. Ikus-entzunezko komunikabideei zegokienez, berriz, irrati eta telebista propioak inizatiba publikoak bultzatu behar zituela aurreikusten zuten askok, batez ere egin beharreko inbertsio ekonomiko altuak kontuan hartuta.

4. Ibidem.

Bitartean, euskal irrati-telebistaren aldarrikapena gehitzen zitzairen beste nazio-eskakizunei katean, batez ere autonomia-estatutuaren inguruko eztabaidan. 1976ko martxoko “24 orduz euskaraz” irrati-emankizunaren adibideari jarraituz, euskararen ofizialtasuna eskatzeko manifestazioa egin zen Donostian, 1978ko urtarrilean; irakaskuntzan eta administrazioan ez ezik, komunikabideetan ere euskararen ofizialtasunaren ezagutzeko eskatzen zuten antolatzaileek. Urte bereko urrian, *Herri Irratiak* bultzatuta, euskarazko irratigintzaren aldeko manifestazio bat burutu zen Donostian. Hain zuzen ere, Uhin Ertaineko maiztasunen eta potentzien banaketan euskal irratiek jasan zuten bazterketa salatu zuten han bildutako 15.000 lagunek. Horren ondoren —eta batzuen ustez, ondorioz—, 1978ko azaroaren 23an argitaraturiko legearen arabera egin zen irrati-maiztasunen banaketan 2 kW-eko potentziaz emititzeko baimena eman zioten gobernu-agintariek, nahiz eta lehiakidetzat zituzten beste emisorei 10 kW-ekoa eman zieten. Beraz, zigor moduan jaso zuen erabakia elizaren emisorak.

Autonomia Estatutua onartu eta gero, 1981eko Gabonetan euskarazko irrati-telebistaren aldeko kanpaina burutu zen Hego Euskal Herrian zehar. Horren erantzunez, *Euskal Irrati Telebista* sortu zuen Jaurilaritzak 1982an, lege organikoak eskaintzen zuen aukeraz baliatuta.

Eusko Irratia, euskal emisora publikoa

Autonomiaren inguruko eztabaidan euskal irrati baten premiaren inguruko debatea indartu zen arren, eskakizun horren aurrekaria aurkitu ahal izan dugu irratigintzaren hastapenetan. Hain zuzen ere, *Gaceta del Norte* izeneko egunkari bizkaitarrak Hego Euskal Herri osora helduko zen emisora bat sortzeko beharra azaldu zuen, T.S.H. sailean 1925eko urrian argitaratutako artikulua batean⁵.

Garaiko eskakizunaren adibidetzat, *Murumendi* ezizenez sinaturiko artikulua argitaratu zuen *Argiak* 1981ean:

(...) Garaia dela uste dut —hiztun eta berriemalerik ez zaigu falta eta— Aralar (Gipuzkoa aldean Nafarroako diputazioak ezetz esan ez dezan), Aizkorri, Gorbea, Larrun eta ahal dakit non?, ahal diren antenatzarrik handienak jarri eta Euskal Herriko gaurko zazpi herrialdeak harrapatzen saiatuz, geuk emandako geure eritziak euskaraz, españolez eta frantsesez (%50 euskaraz, %25 españolez eta %25 frantsesez) geuk zabaltzeko eta ez bestek. Bestela nafar asko navarrista izango da,

5. «...pedíamos, por lo que al País vascongado se refiere, que las tres Diputaciones y si convenía la de Navarra además, se concertasen para montar una gran estación, una poderosa y perfecta estación que fuese de verdadera utilidad pública, de constante propaganda y de selecto entretenimiento, que no está reñido con la difusión de temas de alto interés. No se nos hizo caso (...) y ocurrió... lo que está ocurriendo en todas partes. Empresas particulares, que llenas de ilusión y de inmejorables intenciones se lanzan a resolver el problema de la radiodifusión como negocio». *La Gaceta del Norte*, 1925eko urriaren 7.

Iparraldean Parisa begiratuko dute eta beste hiruetakook Buenos Días España esanez esnatuko gara goizero⁶.

Eskakizun horri emandako erantzun administratiboa 1982an iritsi zen, Gernikako Estatutuan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak *Euskal Irrati Telebista* sortu zuenean. Espainiako Legebiltzarrak 1979ko urriaren 25ean onartu zuen estatutua. Lege autonomiko gorenaren 19. artikuluan Euskal Autonomia Erkidegoak bere komunikabide publikoak sortzeko duen ahalmena jaso zen:

1. Euskal Herriari dagokio giza komunikabideei dagozkienetan Estatuko oinarritzko arauen legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik.
2. Titulartasun estatala duten komunikabideei aplikatu behar zaien arautegi bereziari dagokionez, goiko parrafoan aipatu diren gaien bururapena Estatuarenarekin koordinatuko da.
3. Artikulu honetako lehen parrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak.

Irratiaren eta telebistaren sorrera-legearen atarian, euskal kultura eta euskara bultzatzeko komunikabide propioak izateko beharra jaso zuten idazleek:

Agintepide hori erabiliz, eta funtsezko herri-zerbitzu deneko irizpidea aitortuz, Lege honen gai diren gizarteadierazpideak, herritar euskaldunak argipide eta politikan eskuhartzeko lehen-lehen mailako bide direnez eraten dira, eta bai hezkuntzarekiko eta euskal kulturaren suztapen eta zabalkundearekiko gure erapidetzaren oinarritzko lankidetasun-tresna direnez ere, euskeraren suztapena eta zabalkundea bereziki kontutan izanik eta, hori guzti hori, Autonomia-Elkarte honetako herritarren eskubide eta jaurpideak behar bezala egiteratzeko eustazpi eta oinarri. Labur-labur esandako oinarri-irizpide hoietatik abiatuta, Lege honek, orotariko oinarritzko irizpideei men egitea ezezik, erantzuneskubidea araupetzea ere egiten du, lehen aipatu ditugun oinarritzko jaurpide hoiek elkar-egokitasunez osatu eta, batean esanda, horretarako egoki diren lege-bideez baliatuz Legearen xede diren helburuei egokitutako egitura bat ezarri⁷.

Lege horretan, erakunde publikoari buruzko zehaztapenak agertzeaz gain, bai osaketari, bai funtzionamenduari dagozkienez, euskal komunikabide publikoek betebeharreko oinarri orokorrak jaso dira⁸. Horiez gain, euskararen erabilpenari buruzko oso azalpen orokorra agertzen da, horren aplikazioa bermatu gabe:

6. *Murumendi* ezizenaz sinaturiko "Irratia" zutabea, *Argia* **902**, 14-15.

7. EHAA (1982): "Euskal-Irrati Telebista" Herri-Erakundea sortzeko Maiatzaren 20ko 5/1982 legea, **1982071**, 1250.

8. Honako oinarri jasotzen ditu legeak: «a) Berriemanketen gauzak direneantxe ikustea, egitasuna eta alderdikierarik eza. b) Berriemanketa eta iritziaren arteko zehazketa eta bereizketa, azken honek adierazten dutenak nor diren hertsiki eskatuz. Merkataritza-berriemanketak erabilkera zehatz eta berezi bera eskatuko du hertsiki. c) Berdintasun-sortarauarekiko, politika, erlijio, gizarte,

Kulturaren eta euskeraren suztapena, euskera erabiltzearen xedetarako, oinarritzko egitarau eta sortarauak ezarri, orotariko eskeintza mailan Elkarte Autonomiadunean euskeraz irrati-telebistazko emankizunen oreka beharra kontutan izanik⁹.

Hurrengo pausoa irratia abian jartzea zen. Uhineratu zen lehenengo emisora *Euskadi Irratia* izan zen, Donostiako Antia kaletik, eta euskaraz. Hasierako emanaldia 1982ko azaroaren 23an entzun ahal izan zen. Hurrengo urtearen udaberrian Bilbotik eta elebiz —gaztelania nagusi zen arren— hasi zen emititzen *Radio Euskadi* delakoa. 1986an, berriz —Carmen Peñafiel adituak bere doktorego-tesian azaltzen duen legez—, elebitasuna bertan behera geratu zen eta irrati-formula komertzial bihurtu zen bigarren emisora hori —hasierako hizkuntza-helburuetatik urrunduta— Jose Maria Gorordo zuzendari orokorra zelarik (Peñafiel, 1992: 67). Gogor salatu zuen estrategia-aldaketa *Argia* aldizkariak, batez ere euskarari zegokionez, gaztelaniazko emisorekiko audientziaren lehian, kanpoko profesionalak kontratatu baitzituen euskal emisorak¹⁰. Bikoizketa horren ondorioz, oso nabaria izan da bi kateen arteko bereizketa, erabilitako hizkuntzan ez ezik, edukietan¹¹ ere bai: *Euskadi Irratia* euskalduna eta gipuzkoarra da; *Radio Euskadi*, ordea, erdalduna eta bilbotarra.

Radio Euskadi delakoarekin batera, Arabako dekanoa zen *Radio Vitoria* izenekoa ere erdal programazioa ematen zuen. Eusko Jaurlaritzak¹² Gasteizko *Aurrezki Kutxari* —gaur, *Vital Kutxa* deritzonari— erosi zion emisora 1981ean. Aurretik, *SER* kate espainiarrarekin zeukan hitzarmena irrati gasteiztarrek; haren saio batzuk eta albistegiak eskaintzeko akordioa, alegia. Irrati hori izan zen taldeko lehena, hasieratik bi maiztasun ezberdinetan emititzen zuena: Uhin Ertainean eta Maiztasun Modulatuan, hain justu. Beste bi emisora arabar heldu dira epe ezberdinetan *Radio Euskadi* delakoarekin batera emititzeko akordiora; *Radio Rioja Alavesa*

kultura eta linguistika-aniztasunarekiko begirunea. d) Orotariko interesaren alde, Autonomia-Estatutoan eta Konstituzioan onartutako elkarbizitzaren herri-balioen aldezen eta suztaketa. e) Konstituzioak eta Autonomia-Estatutoak onartzen dituen eskubideekiko begirunea. f) Pertsona ohorearekiko, izen onarekiko begirunea eta, bereziki, urkotasun eta berarizko irudirako eskubidearekiko. g) Gazteriaren eta haurtzaroaren babesa...».


9. Ibidem.

10. «(...) Bilboko Radio Euskadi da hauen artean aurtengoan zer esanik gehien eman duena, erakutsi dituen asmo erabat baikorregatik, kontratatu duen kanpoko jendearregatik eta jaso dituen kritikengatik. Daukan entzulegoa baino hiru aldiz handiagoa lortzearen, bide errazetara jo du, Herranz, Torrelledó edo Félix Linares bezalako kanpoko irratigizon ezagunak kontratatuz». *Argia* (1986): “Euskara Irratietan: iruzurrak, koordinazio handiengoaren premia eta ahalegin ugari”, *Argiaren urtekaria*, 126.

11. Publizitate-iragarkiak aztertzerakoan, oso nabaria da bereizketa geografikoa: *Euskadi Irratiko* iragarki asko Gipuzkoako dende eta enpresek sartu dituzte; *Radio Euskadi* delakoan, ordea, Bizkaikoak dira nagusi. *Radio Vitoria* lokalagoa denez, Arabako publizitatea biltzen du.

12. Aipaturiko legearen lehenengo erabaki gehigarri moduan jaso zuten *Radio Vitoria* izenekoa talde publikoan sartzeara: «“Radio Vitoria, S.A.” Herri-Baltzua “Euskal IrratiTelebista” Herri-Erakundearen barruan sartzeara».

eta *Laudio Irratia*, hain zuzen ere. Irrati errioxarrak talde publikoaren barruan jarraitzen duen arren, emisora laudiotarra bertan behera utzi zuen emisora publikoarekin zuen hitzarmena, 1987an komertzial modura emititzeko baimena lortu eta gero; hortik aurrera, *PRISA* komunikazio-taldearen barruan dagoen *M-80* katearen programa eskaintzen du. *Radio Rioja Alavesa* delakoa Errioxa Arabarreko Mankomunitateak sortu zuen Biasterin, eta 1989an emititzeko lizentzia lortu zuen; gaur asoziatu moduan dago *EITB*ren barruan. Horiez gain, Hego Euskal Herrian zehar badaude emisora publikoaren programa eskaintzen dutenak, ekoizpen propioaren irratsaioetatik kanpo, udal irrati batzuk eta Iruñeko *Euskalerrria Irratia*, kasu.



Hiru kanal hauetatik eskaintzen du programa orokorra *EITB*k AMn eta FMn.

Kate publikoaren historian beste aldaketa batzuk gertatu dira. Besteak beste, 1989an hasi ziren Uhin Ertainean emititzen, Garraio, Turismo eta Komunikaziorako ministerio espainarraren eta Jaurlaritzaren akordio baten ondorioz, zeinaren arabera lehenengoak Uhin Ertaineko sei maiztasun eman zizkion gobernu autonomikoari (Peñafiel, 1992: 66). Aurretik, 1986an, eguneko hogeita lau orduz emititzeko gaitasuna lortu zuten *EITB*ko bi emisorek, ordutegi batzuetan irratsaioak errepikatu arren. Era berean, irrati-formula baztertu eta emanaldi konbentzionalari ekin zion euskal emisorak, haren porrota agerian geratu eta gero.

Dena dela, eta maiztasun batzuk erabiltzeko aukera zuenez, gazteei zuzendutako irrati-formula musikala abian jarri zuen FMn, *EITB*ko irratia hamargarren urtean sartzen zirela. Ez zen apustu erraza izan, *SER* kateraren *40 Principales* delakoa oso finkatuta baitzegoen Hego Euskal Herriko gazteen artean, eta ez zuen bere lekua uzteko asmorik —beraz, harekin lehiatzeko zerbait berria eskaini behar zuten, besteak ematen ez zuena, *target* berdinari zuzentzen zitzaizkien eta—. 1990eko martxoaren 21ean hasi zen emititzen; euskaraz Donostiatik, eta gaztelaniaz

Bilbotik. Eskizofrenia horrek ez zuen arrakastarik erdietsi, eta 1994an gaztelaniazko irratsaioak bertan behera utzi zituzten irrati-arduradunek. Euskarazko irrati-formula musikal gazte bakarra bilakatu zen orduan *Euskadi Gaztea*, eta, horrekin batera, besteeikiko ezberdintasuna eta arrakasta lortu zuen. Hizkuntza eta hurbiltasuna ziren beste *Top* zerrendek eskaintzen ez zutena, eta horrek erakarri zuen 16 eta 20 urte bitarteko gazte-multzo euskaldun bat, ez-euskaldunen artean ere zaleak lortuz, oso erraz jarraitu ahal duten taxuera baita.

Kate gazteak beste aldaketa bat izan zuen 1996an, irrati-formula hutsa izate-tik irratsaioez osaturiko parrilla-tarte bat eskaintzera pasatu baitzen orduan, entzuleriak zituen gurariei erantzuteko asmoz. Esatari gazteek gidaturiko saio arinak dira horiek, eta ezagunetarikoen artean “*Hi bizi haiz*” eta “*Salgai*” aipatu behar dira, entzule askok jarraitzen omen dituztelako¹³.

Berrikuntza teknologikoari ekin zion *EITBk* 1996an; orduan *Euskadi Irratiaren* estudioak Donostiako Miramongo egoitzara eramateaz gain, hiru ekoizpen-egoitzak —Donostiakoa, Bilbokoa eta Gasteizkoa— informatika-sarearen bidez lotu zituzten, bide batez estudioetan ordenagailuak errealizazio-tresna bilakatzuz, *GDS* sistemari esker. *Intranet* sarearen bidez, estudio guztiak *ISDN* edo *ADSL* hari telefonikoz loturik egoteaz gain —eta, beraz, soinu-informazioa batetik bestera kalitate handiz bidali ahal izateaz gain—, zerbitzari zentral batean grabaturik zeuden artxiboetara heltzeko aukera zuten edozein estudiotik, oso modu errazean. Halaber, programazioa automatizatzea lortu zuten digitalizazioari esker, baita publizitatearen kudeaketa hobetzea ere. Horrez gain, Interneten agertu zen irrati publikoa 1996an, www.eitb.com web-orrian. Era berean, *DAB* sistemaren bidezko emanaldi digitalak eskaintzen ditu 1999az geroztik, esperimentalki bada ere, Gasteiztik.

Teknologia berriek eskaintzen dituzten aukerak aprobetxatuz, 2001eko udan beste kate bat abian jarri zuen *EITBk*, *EITB Irratia* izenekoa. Irrati-formula kulturaltzat definitu zuen Julian Beloki zuzendariak emisora berria, eta horren helburu zehatza Euskal Herrian —eta bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan— urtean zehar gertatzen diren ekitaldi kulturalak zuzenean eskaintzea zen: hala nola, Gasteizko, Getxoko eta Donostiako jazzaldiak, Donostiako Zinemaldia, Bertsolari Txapelketa, eta abar. Dena dela, parrillaren tartetik handiena zerbitzari digitaletik eskaintako musikak betetzen du, esataririk gabeko hari musikal modukoa. Hala ere, 2002an oraindik zehazteke zeuden kate horren izaera eta edukiak.

Digitalizaziorako beste aurrerapausoa ematear dago kate publiko autonomikoa: estudio guztien digitalizazio osoa eta batzea. 2002ko ekainaren 21ean inauguratu zuten *EITBko* Gasteizko egoitza digitala, lehenengo urrats modura. Osotara, hogeita zortzi milioi euro inguruko kostua izango du digitalizazio-prozesu

13. Doxanbaratz, B. (2000-IV-9): “Patinetean 10 urtez uhinetan”, *Argia*, 1757.

osoak, eta irratiaarena ez ezik, telebistaren digitalizazioa ere aurreikusitako plangintza baten barruan kokatuta dago, *DIGIBAT* izenekoan, alegia, eta horren helburu nagusia *Euskal Irrati Telebistaren* ekoizpen-egoitza guztiak —Donostia, Iruñea, Gasteiz, Baiona eta Bilbokoa, alegia— batu eta emanaldi digitaletara egokitzea da¹⁴. Modu horretan, gobernu espainiarrak irradi-hedapen digitala ezartzeko plangintzan ezarritako epeen barruan egokitu nahi dituzte azpiegiturak *EITB*ko arduradunek.

14. EITB (2002) “EITBk lehen irradi eta telebista egoitza digitala ireki du Gasteizen”: <www.eitb.com>, 2002ko ekainaren 21.

7. Emisora komertzialen oparotasuna EAEn, irrati-dialaren askatzearen ondorioz

Aurreko atalean esan dugun moduan, aldaketa asko gertatzen hasi ziren Franco hil eta gero estatu espainiarreko komunikabideetan, eta bereziki irratigintzan. *RNE*ren albistegietatik askatuta, irrati komertzialek inbertsio handiak egin zituzten kaze-tarien plantilak osatzeko, horietan baitzetzaten emisoren sinesgarritasuna eta marka-ospea. Adibidez, garai horretan sortu ziren *Hora 25* gisako irratsaio infor-matiboak. Aditu batzuen ustez, irratigintza informatiboaren aroa hasita zegoen, zeinaren unerik garrantzitsuen 1981eko otsailaren 23ko estatu-kolpean —23-F deiturikoa— kokatzen duten.

Era berean, Geneva-n egindako irrati-hedapenari buruzko biltzarrean maizta-sun berriak egokitu zitzaizkion espainiar Estatuari, eta irrati gehiago sortzeko aukera zabaldu zen. Halaber, 1978ko urrian *Plan Técnico Nacional de Radiodifu-sión Sonora* izeneko plangintza onartu zuen gobernu espainiarrak¹. Ondorioz, 1979ko ekainaren 8ko errege-dekretuak maiztasun modulaturatuko uhin metriko bidezko soinu-irratia-aren hedapenaren zerbitzu publikorako behin-behineko plan teknikoa ezarri zuen². Horren arabera, emisora berriak sortu ziren estatu espainia-rrean, horien artean *Antena 3* izenekoa. Informazioan eta iritzian oinarrituriko pro-gramazio konbentzionala eskaintzen zuen emisora horrek, baina bere berezitasuna, ordea, ez zen hori, horrelako irratsaioak FMn eskaintzea baizik, garai horretan irrati-formula musikalen dila baitzen Maiztasun Modulaturatua. Hala ere, apustua irabazi zuen enpresa berriak, eta entzule asko lortu zituen 1990eko hamarkadaren hasieran, dialean urte gehiago zeramatzatzen batzuenak gaindituz. Hala ere, laister desagertu zen, komunikazio-enpresen estrategia monopolistikoaren ondorioz.

Aldaketa horiek guztiek beren isla izan zuten Hego Euskal Herriko irratigin-tzan eta bereziki Bizkaikoan. Herrialdean zehar, edonon sortu ziren irrati-eman-degi berriak. Batzuk aske moduan hasi baziren ere, argi geratu zen berehala beren helburua komertziala zela, edo, gutxienez, beren ogibidea bihurtzea zela bultza-

1. BOE (1978): “Real Decreto 2.648/1.978, de 27 de octubre por el que se aprueba el Plan Técnico Nacional de Radiodifusión Sonora”, 1978ko azaroaren 9.

2. BOE (1979): “Real Decreto 1.433/1.979, de 8 de junio por el que se establece el Plan Técnico Transitorio del Servicio Público de Radiodifusión Sonora en Ondas Métricas con Modulación de Frecuencia”, 1979ko ekainaren 18.

tzaileen asmoa. Dena den, garaiko nahasketaren ondorioz, horrelako emisora batzuk irrati askeen mugimenduaren barruan sartu dituzte hainbat adituk. Teresa Santos-ek, berriz, irrati aske komertzialak deitzen ditu emisora horiek (Santos Díez, 1994: 12). Liburu honetan, ostera, piratak deitzen ditugu baimenik gabe emititzen dituzten emisora komertzialak, beren helburua legalitatearen barruan aritzea baita, eta ez uhinen okupazio askea aldarrikatzea, irrati askeek egiten duten bezala. Era berean, emisora piraten atzetik babesle modura dauden taldeak enpresa moduan eratzeaz gain, publizitate komertziala onartzen dute finantzabide gisa, eta helburua etekin ekonomikoak lortzea da, gizarte-zerbitzua izatea baino gehiago.

Sortutako emisora horien hedadura-eremua oso lokala zen, batzuk geroago estatuko kateen barruan sartu ziren arren, eta bereziki tokiko publizitateaz hornitzen ziren finantzabide nagusi moduan. Maiztasun Modulatuan kokatuta, musikak garrantzi handia zuen programazioan, eta disko eskainiak izeneko taxuera erabiltzen zuten, entzuleen parte-hartzea eta atxikimendua lortzeko bide. Jaioberria zen EHUko Informazio-Zientzien Fakultateko ikasleek ere osatu zuten emisora horien harrobia, eta behin baino gehiagotan kazetarigaiek eta lizentziatu berriek bultzatu zituzten irrati-proiektuak, lanbide moduan. Hitzarmen eta lege berriak eraikitzen hasi ziren esparruaren barruan aritzeko prest agertu ziren emisora horien bultzatzaileak, eta, gehienetan, emititzeko lizentzia lortzea izan zen helburu nagusia; lortu ez izanak, berriz, porrotera eta itxierara eraman zituen hainbat irrati.

EMISOREN UGARITZEA BILBO HANDIAN

Trantsizio-garaian emititzen hasi zen lehenengo emisora pirata *JMC-Radio* izenekoak izan zen. Getxoko Areeta auzotik emititzen hasi zen 1978an, sortzailearen etxetik bertatik. 1979ko uztaillean itxiarazi zuten arren, emititzen jarraitu zuen, eta 1983an Portugaletera eraman zituen estudioak. Jaurlaritzaren irrati-lizentzien banaketetan emititzeko baimenik eta maiztasunik lortu ez zituela, 1989an itxi egin behar izan zuen; hala eta guztiz ere, urte batzuk gehiago iraun zituzten haren emanaldi ilegalek, 1990eko hamarkadan betiko isildu zen arte.

Teresa Santos-ek dioten moduan, tokiko emisora horren finantzabideak askotarikoak izan ziren: publizitate-kuinak emateaz gain, bertako futbol-partiden babesa onartzen zuen, eta orduko 6 mila pezetaren truke —36 euro, gutxi gora-behera— bezeroek kirol-emankizuna babestu ahal zuten. Horrez gain, entzuleek ordaintzen zuten, disko bat eskaintzearen edota pertsona bat zoriontzearen truke. Publierreportajeak ziren dirua lortzeko beste bide bat (Ibidem: 27).

Portugaletetik bertatik *Onda 3* izeneko emisora hasi zen emititzen 1981eko apirilaren 14an, 1980ko ekainean hasitako lanak amaitu eta gero. Kooperatiba moduan sortu bazen ere, bazkideen arteko gatazkek aldaketa asko eragin zituzten lehenengo proiektuan, eta sortu zuten 20 pertsonetatik sei geratu ziren Jaurlaritzak

legalizatu zuenean; gaur egun, berriz, hasierako ekipoko inor ez dago irratian, zuzendaritza ugari eduki ostean.

Hogei urteko historia laburrean aldaketa asko izan ditu programazioan, tokiko irrattia izatetik estatuko kate baten barruan kokatu artean. Eusko Jaurlaritzaren lehenengo lizentzia-banaketan maiztasunik lortu ez zuen arren, bigarrenen bat ego-kitu zitzaion, baina Balmasedatik. Garai batean *Rueda de Emisoras Rato* izeneko katean emititu zuen. Ondoren, *Radio Gernika*, *Santurtzi Irratia* eta Gasteizko *Estéreo-2* izeneko emisorekin batera *Cadena Vasca de Radiodifusión* izendatukoa osatu zuten. 1990eko hamarkadan *Onda Cero* katearen³ programazio espezializatua eskaini zuen, *Onda 10* izeneko programa musikala, hain zuzen ere. *Onda Mini* eta *Onda Melodia* izeneko adierazleak ere erabili zituen garai desberdinetan, eta 2000tik aurrera *Europa FM* delako katearen emanaldiak eskaintzen du Bizkaiarako.

Bilbon, *Canal 3* izeneko emisora 1983ko maiatzean hasi zen emititzen Begoñako parrokiatik. Handik hiriaren erdigunera joan zen 1987an, irrati komertzial moduan aritzeko. Gaur egun dialeko puntu berean emititzen jarraitzen du; 94,3 MHz-etan, hain zuzen ere —*Topbilbao* izenarekin—, eta Interneten ere bai, <www.topbilbao.com> helbidean. 2002ko irailetik *Cadena 100* delakoaren programazioa eskaintzen dute bertan.

Leioako KV-30 zelakoak zorte gutxiago izan zuen. Pertsona partikular batek bultzatuta, 1983ko abenduan hasi zen emititzen, Bizkaiko herri horretako ganbara batetik. Beranduago, Udalak utzitako lokaletara eraman zen, baina ez zuen tokiko administrazioaren inplikazio osoa izan, eta Jaurlaritzaren maiztasun-banaketan lizentziarik lortu ez zuenez, itxi egin behar izan zuen 1990eko hamarkadaren hasieran udal-emisora bihurtu ezinik. Informazio-Zientzien Fakultateko ikasle askok parte hartu zuten emisora horretan, zeinak bereziki programazio musikala eskaintzen baitzuen.

Informazio-Zientzietako ikasleek sortu zuten *Radio Metro* izenekoa 1985eko ekainean. Baina berehala itxi zuten, ideologia politikoaren inguruko arazoak zirela medio. Geroago, horren sortzaile bik eta beste hogeit hamar pertsona gehiagok koope-ratiba bat sortu eta *Radio Sur-20* izeneko emisora bultzatu zuten (Ibidem: 30-31).

Santurtzi Irratiaren emanaldiak 1985eko abenduaren 2an hasi ziren, *Haizea* kultura-elkarteak eraginda. Emisora hori *Cadena Vasca* zelakoaren partaidez osatu zen, baina ez zuen iraun lizentziarik gabe geratu eta gero. Trapagarandik, *JB Irratia* hasi zen emititzen urte berean, sorrera bi urte lehenago kokatu behar den arren (Ibidem: 34). Unibertsitateko eta Lanbide-Hezkuntzako ikasleek bultzatu

3. Garai horretan, *Onda Cero* delakoak *Rato* katearen irrati batzuk bereganatu zituen.

zuten emisora, eta kooperatiba moduan antolatu ziren lizentzia lortzeko helburuz, baina ez zuten eskuratu.

Onda Vasca izeneko emisora *Instituto Vasco de Nuevas Carreras* izeneko ikastetxeko ikasleek sortu zuten 1986ko udan. *Antena 3* zelakoarekin sinaturiko akordioaren ondorioz, kate horren irratsaio batzuk eskaini zituen denbora batez, maiztasun propioa lortu zuen artean. 1987an emititzeko baimena lortu zuen, eta *Radio Miramar* izeneko katearen barruan zegoen *Cadena Ibérica* zelakoaren programazioa eskaini zuen, *Onda Cero* delakoak 1992an emisora horiek erosi zituen arte. *Radio Miramar* katearen partaideak, aldiz, *COPE*ren egituran sartu ziren, eta *Cadena 100* adierazleaz hasi ziren emititzen. EAEn maiztasunak alokatuta zeudenez, *Onda Cero* delakoaren eskuetan geratu ziren, eta *COPE*k berrantolatu behar izan zituen bere maiztasunak dial autonomikoan.

Barakaldoko *Radio 7* izeneko emisoraren hasierako puntua ere 1986an kokatzen da. Pirata moduan sortu zen emisora horren egoera administratiboa ez da aldatu, ez baitzuen emititzeko lizentziarik lortu. Gaur egun *Formula 50* izeneko irati-formula musikalak osatzen du programazioa, eta Interneten ere aurki daiteke honako helbide honetan: <<http://pymes.wanadoo.es/mundo/radio7>>. Era berean, *Tele 7* izeneko tokiko telebista irratia kudeatzen duen talde berean dago kokatuta.

Gernika Irratia 1986ko uztailaren 24an hasi zen emititzen, Informazio-Zientzien Fakultateko ikasleek bultzatuta. 1989ko udan emititzeko lizentzia lortu zuen Jaurilaritzak egindako banaketan. *Radio España-Cadena Ibérica* izeneko katearen programazio musikala (*Top 40*) eskaini zuen, eta beranduago, *PRISA* komunikazio-taldearen programazio konbentzionala —*SER* izenekoa— eskaintzeko akordio batera heldu zen 1996an. 2000tik aurrera, berriz, aipaturiko taldeko beste kate baten programazioa eskaintzen du, *Cadena Dial* delakoarena, alegia, *Cadena Dial-Onda Vasca* adierazleaz.

Radio Nervión/Nerbioi Irratia izeneko emisora 1986ko maiatzean hasi zen emititzen Bilbotik. Estilo askotako musika espainiarra eta “bilbainadak” deituriko abestiak eskaintzen zituen programazioan zehar, baita entzuleekiko harreman zuzena bilatu ere, batez ere disko eskainiak izeneko taxuera erabiliz. Fenomeno soziologikotzat jo izan dute askok irati-formula horren arrakasta, hala eta guztiz ere imitatzailerik ez dute hainbeste arrakasta lortu.



Nerbioi Irratiak oso irati-formula arrakastatsua asmatu zuen 1980ko hamarkadan.

Radio Encartaciones izeneko emisora 1987ko urtarrilean hasi zen emititzen Zallatik, langabeziari aurre egin nahi zion pertsona bakar batek zuzenduta (Ibidem: 35). *Barakaldo Irratia*, bere aldetik, 1987ko maiatzean hasi zen emititzen Ezkerraldeko izen bereko herritik, kazetari-talde batek eraginda, eta elbarritu fisikoen parte-hartzearekin, batez ere administrazio- eta teknika-lanetan (Ibidem: 33).

ARABAN, IRRATIAK SUSTATZEN

Oso irrati gutxi zeuden Araban 1980ko hamarkadaren hasieran, eta bertan kokatzen ziren gehienak *RNERi* eta Mugimenduko kateari lotutakoak ziren. Irratigintza komertzialaren ordezkari nagusia Gasteizko Aurrezki Kutxaren *Gasteiz Irratia/Radio Vitoria* izenekoa zen, eta hori ere sare publikoan sartu zen, 1982an Eusko Jaurlaritzak erosi zuenean. Beraz, beste euskal herrialdeetan baino leku gehiago zegoen libre dialean emisora bat sartu ahal izateko, eta, beraz, horretan saiatu ziren estatuko enpresak zein bertako tokiko inizatibak.

Radio Estéreo-2 izeneko emisora 1986an sortu zen Gasteizen. Pirata moduan aritu zen, eta Bizkaiko beste emisorekin batera emititzen zuen *Cadena Vasca* adierazleaz. Blas Herrero enpresariak Gasteizen maiztasuna lortu zuenean, haren instalazioak erosi eta hasiera batean adierazlea mantendu zuen, *Onda Cero* delakoarekin emisio-akordio batera heldu zen arte. 2002ko apiriletik aurrera, enpresario asturiarraren eta katearen artean sortutako *Kiss FM* delako irrati-formula eskaintzen da FMko 106.7 MHz-eko maiztasunean.

Laudio Irratia 1985ean sortu zen, jaiak bizitzeko irrati modura. Bi urte beranduago, 1987ko ekainean, era erregularrean emititzen hasi zen, baimenik ez zuen arren. Hamar mila sinadura lortu zituzten arduradunek baimenaren eskakizunarekin batera aurkezteko, eta 1989an lortu zuten lizentzia.

Lehenengo urteetan tokiko programazioa eskaini zuen, eta *Radio Euskadi* delakoarekin batera konexioak egiten zituen albistegiak eskaintzeko. Kate autonomikoaren asoziatu moduan ari zen orduan, bultzatzaileen asmoa irrati publikoa —herritarren zerbitzuan— izatea zen eta.

Bere bideragarritasun ekonomika bermatzeko, berriz, 1990ean *PRISA* komunikazio-taldeko *SER* irratiaren programa eskaintzen hasi zen, eta kate espainiarraren asoziatu bilakatu zen. 2000ko abuztuan *M-80 Radio* katearen programazioa eskaintzen hasi zen, hori ere *PRISA* taldearen barnean.



Iturria: <www.laudio.com>.

Aiara bailara osoan jasotzen da *Laudio Irratiaren* seinalea, baita Zalla, Balmaseda, Basauri eta Bilboko erdialdean ere, eta baita Espinosa de los Monteros eta Miranda de Ebro herrietan. 2000. urteaz geroztik *Aiara Irratiak* biderkatzen du *Laudio Irratiaren* seinalea Amurriorako, FMko 107,5 MHz-etan.

Gaztelaniazko programazioa nagusitzen da emisora horretan, noizbehinka euskarazko saioak eskaini dituen arren. Aipatzekoak dira, adibidez, 1993ko ekainaren 20an bertan ospatutako *Araba Euskaraz* jaian zehar eskainitako saio bereziak.

SER kate espainiarraren emanaldiak *Radio Vitoria* delakoaren AMren bidez eskaintzen ziren Araban, eta *40 Principales* FMn. Jaurlaritzak irradi gasteiztarra erosi eta gero, maiztasunik gabe geratu zen kate espainiarra, eta Miranda de Ebro hiri burgostarretik heldutako seinalea jaso behar zuten *SER* irradiaren emanaldiak entzun nahi zituzten gasteiztarrek. Azkenean, maiztasuna lortu zuen 1987ko banaketan; hasieran, kate bereko *40 Principales* delakoaren programazioa hasi zen emititzen arratsaldeetan, emanaldiak bereburu egin ziren artean. *Avante Radio* enpresak eskuratutako maiztasunean emititzen du gaur egun *Radio 40 Vitoria* delakoak.

Gipuzkoan, berriz, ez zen aldaketa handirik gertatu irratigintza pribatuari edo komertzialari zegokionez. Herrialde horretan sortu ziren proiektu berriak batez ere estatuko kateei eta bertako egunkariei lotuak izan ziren. Era berean, 1959tik dialean zegoen *Arrate Irratia* lehiatu zen maiztasuna lortzeko, legez kanpo emititzea segurtasunik gabeko egoeran lan egitea zen eta. Dena dela, oso proiektu sendoa eta entzuleria fidela izan arren, ez zuen lehenengo maiztasun-banaketa lortu; bigarrenen bai, ordea.

EUSKO JAURLARITZAREN LEHENENGO MAIZTASUN-BANAKETA

Esan bezala, 1980ko hamarkadaren hasieran irradi berriak sortzeko aukera sortu ziren estatu espainiarrean. Madrilgo gobernuak 140 maiztasun berri banatzeko deialdia 1982an⁴ zabaldu zuen arren, Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, Jaurlaritzak zuen horretarako eskudantza, Gernikako Estatutua indarrean jartzearen ondorioz. Beraz, 1981ean argitaratu zuen Jaurlaritzak irradiari buruzko lehenengo dekretua⁵ Euskal Autonomia Erkidegoan. 1986an, berriz, ireki zituen lehenengo maiztasunak emateko epea eta prozedura⁶; 1987ko azaroan hartu zuen erabaki hori

4. BOE (1982): “Orden de 19 de febrero de 1.982 de la Presidencia del Gobierno, por la que se establece el plazo para la presentación de solicitudes de concesión de emisoras en frecuencia modulada y se relacionan las 140 emisoras que contemplan el Plan Técnico Transitorio de 8 de junio de 1.979”, 1982ko otsailaren 25.

5. EHAA (1981): “Kultura-Sailaren Abenduaren 14ko 138/1981 Dekretua, metro-mailako moldatutako uhinezko (FM) Indarretxeentzako (Herrierakundepoko eta norbanako-jabetzapeko) baimenak ematea araupezu”, **1981112**, 02432.

Gasteizko gobernuak.

Lehenengo banaketa horretan, irratigutxien zuen lurralde historikoari, Arabari, bost maiztasun egokitu zitzaizkion, eta hiruna Gipuzkoari eta Bizkaiari. Hona hemen banaketa horretan maiztasuna lortu zuten emisoren zerrenda⁷:

Arabian:

Antena 3 irratikateari eta *El Correo* kazetari loturiko *Tele-Basconia* enpresari bat egokitu zitzaion FMko 105.5 MHz-etan. Gaur egun *Cadena 100* delakoaren emanaldia eskaintzen da bertan.

Avante-Radio izenekoak 100.4 MHz-etan kokaturiko maiztasuna lortu zuen. Gaur egun *Cadena 40* izeneko kateak emititzen du maiztasun horretan.

SER kate espainiarrari maiztasun bat egokitu zitzaion Gasteizko FMko 88.2 MHz-etan; horrela, hiriburu arabarrean kokatzea lortu zuen kate espainiarrak, 1982an *Radio Vitoria* delakoarekin zuen hitzarmena bertan behera geratu ostean.

Deia egunkariak kudeatutako *Editorial Iparragirre* izeneko enpresak FMko 102.4 MHz-etako maiztasuna lortu zuen. Maiztasun horrek adierazle eta emanaldi desberdinak izan ditu bere historian zehar, baina *Radio Miramar* zelakoari lotuta hasi zen emititzen.

Bosgarren maiztasuna *Gasteizko Herri Irratia-COPE* emisorari egokitu zitzaion, 101.0 MHz-etan. *Herri Irratiak* 1993an galdu zuen maiztasun hori, *COPE* katetik alde egin eta gero, horren eskuetan geratu baitzen.

Bizkaian:

Sortu berriak ziren *Onda Vasca* eta *Radio Nervión* irratiek maiztasun bana lortu zuten: 101.5 MHz-etan, lehenengoak; eta 88.0 MHz-etan, bigarrenak.

Beste aldetik, *El Correo* egunkariari eta *Antena 3* irratitari loturiko *Tele-Basconia* izeneko enpresak maiztasun bat lortu zuen 103.7 MHz-etan.

Gipuzkoan: bertan emandako maiztasun guztiak prentsarekin loturiko proiektuek eskuratu zituzten.

6. EHAA (1986): "Azaroaren 11ko 240/1986 Dekretua, Maiztasun Modulaturako Uhin Metrikoetako Irratihedapeneko emisorentzako baimena emateko prozedura jartzen duena", **1986227**, 05866.

7. EHAA (1988): "Kultura eta Turismo Sailaren 1987.eko Azaroaren 30eko Erabakia, Maiztasun Modulaturako Uhin Metrikoetako Irratihedapeneko emisorentzako baimenak behin behingoz emanaz", **1988003**, 00110. Testuaren gehigarrian.

Deia egunkaria kudeatzen duen *Editorial Iparragirre* izeneko enpresak FMko 102.3 MHz-etako maiztasuna lortu zuen.

Egin egunkariaren *Orain SA* enpresak, ostera, FMko 103.0 MHz-etan kokatu zuen bere irrati-seinalea.

Azkenik, *El Diario Vasco* kazetari eta *Antena 3* irrati-kateari loturiko *Tele-Basconia SA* enpresak maiztasun bat lortu zuen 106.2 MHz-etan.

Lehenengo banaketa horren ondorioz, emisora berriak sortu ziren EAEn, eta lehendik zeuden batzuk finkatu, pirata moduan emititzetik legalitatera igarotzeak eman zien segurtasunari esker.

Dialean zeudenen artean, *Radio Nervión* eta *Onda Vasca* emisorek emititzen jarraitu zuten Bizkaian. Esan bezala, lehenengoaren programazioa musika espainiarrak pisu handia izan du hasieratik, eta horri esker oso arrakasta handia lortu du, batez ere estatu espainiarreko zenbait zonaldetatik heldutako etorkinak biltzen ziren esparruetan, Bilbo Handiko Ezkerraldean bereziki. Tokikotasunari eta entzuleekiko hurbiltasunari uko egin gabe, eta komunikazio-talde erraldoiak sortzen ari diren garaian bizirik jarraitzeko, katean emititzeari ekin zioten, Gasteizko *Radio Gorbea* delakoarekin eta Cantabria-ko *Radio Rabel* izenekoarekin batera, *NGR* izeneko irrati-taldea osatuz. *Telebilbao* eta *Telegasteiz* izeneko tokiko telebistak ere badaude. Programazio osoa gaztelaniaz eskaintzen dute, eta, esan bezala, musika espainiarrak pisu handia du programazioan.

Onda Vasca, bere aldetik, garai batean *Radio Miramar* katearen emanaldiak eman eta gero, *Onda Cero Radio*⁸ taldearen barruan sartu zen, aipaturiko katea *COPE*k erosi ondoren desagertu eta gero.

Egin Irratia 1989ko maiatzaren 7an hasi zen emititzen, *Egin* egunkaria argitaratzen zuen *Orain SA* izeneko enpresaren eskutik. Lehenengo garai batean, Donostian eta inguruan emititzen zuen, hiriburu gipuzkoarrari zegokion maiztasunean. Ondoren hedadura-eremua zabaltzeko, Euskal Herriko eskualde askotara helduz. Lehenengo pausoa Bilboko emisora irekitzea izan zen. Gobernu zibilaren baimenaz emititzen zutela arguditu zuen Joseba Macias zuzendari ohiak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak emanaldi horiek bertan behera uzteko eskatu zuenean:

Bilbokoa ulertzea erraza da. Irrati nazional bat eratu nahi dugu, eta Bilbon ere duela hilabete pare bat hasi ginen emititzen. 103 frekuentzia. Gobernu zibilari berri eman genion, baina frekuentzia horretan Euskadi Irratia eta Bizkaia Irratia zeudenez, 102ra pasatzera erabaki genuen⁹.

8. EHAA (1996): "Agindua, 1995eko abenduaren 28koa, Kultura sailburuarena, IPAR ONDA, S.A. sozietate merkantilaren akzioak UNIPREX, S.A. sozietatearen eskuetara aldatzeko baimena eman eta lehen egindako beste esku aldaketa batzuk konpontzeko dena", **1996016**, 01701.

9. Gartzia, M. (1992): "Joseba Macias Egin Irratiko zuzendaria: «Gobernu Zibilaren baimenarekin hasi ginen emititzen Bilbon», *Argia*, **1415**, 31.

Hala ere, hori izan zen Kultura Sailak erabili zuen aitzakia nagusia behin betiko kontzesioa ukatzeko. Emisorak salatu zuenaren arabera, beste irrati batzuek eskatutako parametro teknikoak betetzen ez zituzten arren, eta potentzia gehiagoz edota egokitzen ez zitzairen maiztasunean emititu arren, gobernuak berari baino ez zion baimena berriztatzea ukatu¹⁰.

Hasieratik euskara eta gaztelania konbinatu zituen programazioan, eta euskararen presentzia oso nabaria zen — programazioaren %70 euskaraz emititzen zuela aitortzen zuen irratiak —, zuzendaritzaren asmoa euskara nagusitzea baitzen: «Guk bi hizkuntzak erabiltzeko aukera egin dugu, beti ere baldintza bat jarritz: euskara positiboki diskriminatzea»¹¹.

Donostiatik emititzeko baimena zuen arren, asmoa emisora nazionala izatea zela eta, Euskal Herriko hainbat lekutan jaso ahal zen, batzuetan hartzeko zailtasunak zeuden arren. Arazoak areagotu egin ziren emisoraren instalazioek jasandako sabotajeen ondorioz¹².

Entzutegi Nazionaleko Baltasar Garzón epailearen aginduz, 1998ko uztailaren 15ean itxi zuten emisora, *Egin* egunkariarekin batera, ETArek egituraren partaide omen zelako; lau urte beranduago, emisora isilik jarraitzen du, epaiketaren zain. Itxieraren aurkako adierazpenak eta manifestaldiak eta zuzendaritzarekin zein langileekiko elkartasuna zabaltzeko ziren Euskal Herrian ez ezik, gure mugetatik kanpo ere bai. Adierazpen-askatasunaren aurkakotzat jo zuten askok epailearen erabakia, judiziala baino gehiago politikoa zela azalduz.



Egin egunkariaren batera itxi zuten *Egin Irratia*, 1998ko uztailaren.

Garai horretan ere, estatu espainiar osorako emititzen zuen *Antena 3* kateak EAEko hiru hiriburuetan kokatzea erabaki zuen, *Correo* eta *Diario Vasco* egunka-

10. Egin (1993): “Egin Irratia isildu nahi dute”, [Monografiko berezia, I-VIII], 1993ko martxoaren 2.

11. Ibidem.

12. Horiek ere salatu zituen irratiari buruzko monografikoan. Ibidem.

riei lotutako *Telebasconia SA* izeneko enpresari egokitu zitzaizkion maiztasunei esker. Kate espainiarra 1982ko ekainean hasi zen emititzen Madrildik, Manuel Martín Ferrand kazetaria buru zuela, eta Javier de Godó enpresario espainiarraren inbertsioari esker. Informazioa eta iritzia konbinatzen zituen irrati-formulan oinarrituta, lidergoa lortu zuen estatu espainiarreko irratigintzan; hain zuzen ere, 1992ko EGMren arabera, 3.100.000 entzule izatera heldu zen¹³.

SER katea kudeatzen duen *PRISA* taldeak erosi zituen *Antena 3* zelakoaren akzioak 1992an, eta, horren ondorioz, katearen kazetari ospetsuenek alde egin zuten; era berean, *PRISA*k *Antena 3* zelakoaren emisora batzuk *SER* katearen egituraren barruan sartu zituen —azken hori existitzen ez zen tokietan bereziki—, programazio konbentzionala estatuko hiri garrantzitsuenetan zabaltzeko asmoz. Era berean, *Antena 3* adierazlea mantendu zuten emisoren maiztasunean beste programazio bat abian jarri zuen Jesús Polanco enpresarioak zuzentzen zuen taldeak 1994an: *Sinfo Radio* zelakoa, musika klasikoari buruzko irrati-formulan oinarrituta. 2002ko apiriletik aurrera, berriz, eta kate klasikoaren porrota frogatuta, *dance* izeneko musikari buruzko irrati-formula eskaintzen du, *Maxima FM* adierazleaz.

Dena dela *Sinfo Radio* eta *Maxima FM* kateen emanaldiak ez dira Euskal Autonomia Erkidegoan eskaini —dial analogikoaren bidez, behintzat—, *Antena 3* zelakoaren maiztasunak *Grupo Correoren* jabetzak baitira. Horregatik, *PRISA*k katea erosi eta gero, emanaldiak bertan behera geratu ziren. Horren ondoren, garai labur batez, *Radio Correo* —Arabian eta Bizkaian—, eta *Radio Diario* —Gipuzkoan— adierazleaz emititu zuten *Telebasconiak* kudeatutako emisorek, emanaldia *COPE* katearekin eskaintzeko akordiora heldu arte.

Aipaturikoaz gain, lehenengo banaketan maiztasunik lortu ez zutenek bigarren aukera batean lortzeko itxaropenaz jarraitu zuten emititzen. Era berean, emisora berriak sortu ziren 1988ko urtean. *Radio Mundo* zelakoa maiztzean hasi zen emititzen, *Instituto Vasco de Nuevas Carreras* izeneko ikastetxeko ikasleei praktikak eskaintzeko asmoz, *Onda Vasca* emisorak utzitako egoitzatik, emisora hark lizentzia lortu eta gero, profesional gisa emititzen hasi baitzen Bilboko erdialdetik, eta *Radio Miramar* zelakoaren sarean sartu zen. Hilabete bi lehenago, martxoan, *Radio 2002* izeneko hasi zen emititzen Bizkaiko hiriburutik.

JAURLARITZAREN BIGARREN MAIZTASUN-BANAKETA

Eusko Jaurlaritzak egindako lehenengo banaketan maiztasunik lortu ez zuten irratiek bigarren aukera bat izan zuten 1989ko udaberrian, bigarren deialdi bat iragarri

13. Sánchez-Vicente, C. (1994): “El nuevo mapa de la radio española”, *Interviú*, ekainaren 27, 96-99.

baitzuen Gasteizko exekutiboak¹⁴.

Bigarren banaketan honako emisora hauek lortu zuten emititzeko baimena:

- *Bizkaia Irratia* kudeatzen duen *Irratibide SA* izeneko enpresak maiztasun bat lortu zuen Araban, eta beste lau, Bizkaian.
- Arabako Errioxaren Mankomunitateak maiztasun bat lortu zuen Biasterin.
- *Laudio Irratiak* ere legalitatean emititzeko baimena eskuratu zuen, bi urte lehenago emititzen hasi zen arren.
- Gasteizko maiztasun bana *Sociedad de Geriatría y Gerontología del País Vasco* izeneko elkarteari, *Loiolako Jesusen Lagundiari* eta *Sociedad de Telecomunicaciones Vasca SA* delakoari egokitu zitzairen. Azkena, PSOE-rengandik ideologikoki hurbil omen dagoen Blas Herrero enpresario asturiarraren eskuetan geratu zen, bera baitzegoen Araban eta Bizkaian *Sociedad de Telecomunicaciones Vasca* eta Gipuzkoan *Sociedad de Telecomunicaciones Donostiarra* izenak zituzten enpresen atzean.

Hain zuzen ere, *Sociedad de Telecomunicaciones Vasca SA* delakoak maiztasun bat lortu zuen Barakaldon. Halaber, Gipuzkoan, *Sociedad de Telecomunicaciones Donostiarra SA* izenekoak Donostirako eta Eibarrerako maiztasun bana lortu zituen. Beraz, aipaturiko enpresarioak lau maiztasun edo lizentzia eskuratu zituen EAEn.

- Eibarko beste bi maiztasun bi enpresen artean banatu ziren: alde batetik, 1959an sortutako *Arrate Irratiak* lortu zuen emititzeko baimena —gora-behera eta itxiera asko jasan eta gero—, eta, beste aldetik, *Iniciativas Para el Desarrollo de la Comunicación SA* izeneko enpresak eskuratu zuen FMko 97.1 MHz-etan kokatutakoa.
- Juan Antonio Lekuona izeneko enpresarioak lortu zuen Irun hirian kokatutako maiztasuna, irrati-proiekturik ez zuen arren.
- Bizkaian, irrati gehien lehiatzen ziren herrialdean, banaketak bi epe markatu zituen: aurrekoa eta ondorengoa, eta maiztasuna lortu zutenek aurrera jarraitzeko eta garatzeko aukera izan zuten bitartean, lizentziarik eskuratzeko aukera galdu zuten gehienek emanaldiak bertan behera uztera behartuak izan ziren. Emisoren ugaritasuna zela eta, hautatzea beharrezkoa zen teknikoen ustetan. Hala eta guztiz ere, erabilitako irizpideak ez ziren guztien gustukoak, eta erabaki bat baino gehiagok harridura sortu zuen, batez ere existitzen ez ziren egitasmoek baimena lortu zutelako, dialean finkaturik zeuden beste proiektu garatuak kanpoan geratu ziren arren.

14. EHAA (1989): “Agindua, 1989.eko martxoaren 21ekoa, Kultura eta Turismo Sailburuarena, Frekuentzia Modulaturako Uhin Metrikoetako Irratihedapeneko Emisorak emateko lehiaketarako dei egiten duena”, **1989059**, 01941.

Esan bezala, *Bizkaia Irratiak* bultzatu duen *Irratibide SA* delakoak lau maiztasun lortu zituen dial bizkaitarrean. Emisora hori da programazio osoa bizkaieraz emititzen duen irrati komertzial bakarra, eta oso harrera ona du Bizkaiko nekazarien zonaldeetan eta kostaldeko herri euskaldunetan.

- Getxoko maiztasuna Bizkaiko kostaldeko herri horretako batzokian egoitza duen *Itzartu* kultura-taldeari esleitu zion gobernu autonomikoak; aurreikuspenen arabera, lizentzia Uribe Kostan martxan zegoen KV-30 emisorari egokituko zitzaiolako ustea zegoen arren. Alde batetik, Getxon udal-irratia sortu berria zegoelako, eta, beste aldetik, lizentzia lortu zutenek garatutako proiekturik ez zutelako. Gasteizko Gobernuan ziren bi alderdi politikoek (*EAJk* eta *PSOEk*) ideologikoki hurbil zituzten taldeen alde jo zutelako susmoa piztu zuen erabaki horrek.
- *Busturi aldeko Irrati ikastola SA* izeneko enpresak lortu zuen *Gernika Irratiak* eskatutako maiztasuna; bertako *Betekada Kultur Elkarte*a, ordea, banaketatik at geratu zen.
- Historikoen artean lizentzia lortu zuena *Onda 3* izenekoa izan zen; baina ez Portugaleten —estudioak zituen herrian—, Balmasedan baizik, zonalde horretan dila garbiagoa omen zegoen eta. Dena dela, behin betiko kokapena Barakaldon esleitu zion Jaurlaritzak 1992ko behin betiko kontzesioetan.

Beste hainbestek, berriz, ez zuten lizentziarik lortu. Alde batetik, maiztasun gehiagorik gabe geratu ziren, aurreko banaketan lortu zuten komunikazio-enpresak, baita pirata moduan ari ziren irrati gehienak¹⁵: *EAK-13 – Radio Popular de Bilbao-Radio Segura SA*, *Radio Cooperativa Vasca-Radio Popular SA-COPE*, *Sociedad Vascongada de Publicaciones SA-Bilbao Editorial SA*- “*Radio Correo*”- *Onda Vasca SA*, *Asociación prensa de San Sebastián-Centro Vasco de Nuevas Profesiones*, *Betekada Kultur Elkarte*a, *Euskal Kultur Elkarte*a-Iglesia Bautista Bíblica, *Asociación Cultural Mozoilo Irratia Besaide SA*, *Editorial Iparragirre SA-Radios Escolares*, *Margen Media SAL-Leizaur Kultur Elkarte*a-Radio Mundo, *Unión Iglesias Cristianas Adventistas del Séptimo Día de España*, *Felipe García de Albéniz-Emisora Mundo Nuevo-Radio Urdaibai*, *Irratia Orain SA*, KV-30 Leioa, SUR-20 *Sociedad Universitaria Radiodifusión-Colegio Nuestra Señora de Europa- FM Nervión SA-Divercisa SA-Radio 2000*, *Información e Imagen SA-Asociación de Periodistas de Vizcaya*, *Sabin Uriarte Mitxelena*, *María de las Nieves Babio*, *Asociación Cultural Amigos de la Radio Información y Sonido SA*, *Comunicación Radiofónica SA*, *Mikeldi Irratia*, *Evan Radio*, *Francisco Javier Azkarate*, *Sociedad Española de Radiodifusión SA-Teleser SA*, *Rueda de Emisoras*

15. EHAA (1989): “Erabakia, 1989.eko Abuztuaren lekoa, Kultura eta Turismo Sailburuarena, Frekuentzi Modulatuzko Uhin Metrikoetan Irratizabalkundezko Irrategiak behin behingorako onetsi eta gaitzesten dituen”, **1989151**, 05337, II. eranskina.

Rato SA-MAS Radio SA, Arrasate Euskaldun Dezagun, Radio Sur SL-Cadena Vasca SA-Radio 7 SAL, Radiodifusión del País Vasco SA-Radiotelevisión, comunicación y sonido SA, School of English Radio-Antena 3 de Radio SA-Radio Telebasconia eta SA Promotora de Televisión y Radio, hain zuzen ere.

Bigarren banaketan maiztasuna lortu zuten irrati-proiektu batzuk emisora bilakatu ziren 1980ko hamarkadaren amaieran eta 1990ekoaren hasieran.

Gorbea Irratia/Radio Gorbea izeneko emisora 1990ean hasi zen emititzen Sociedad de Geriatria y Gerontología de Euskadi izeneko elkarteak lortutako maiztasunean¹⁶. Emisora *Cadena NGR*¹⁷ izeneko katearen partaidea da, Bizkaiko *Radio Nervión* eta Cantabria-ko *Radio Rabel* izeneko irratiekin eta *Telebilbao* eta *Televitoria* telebistekin batera.

Euskadi Bihotzeko Irratia/Radio Estudio izeneko emisora 1991n hasi zen emititzen Eibartik, *Iniciativas para el desarrollo de la Comunicación SA* izeneko enpresak lortutako maiztasunean. Enpresa horrek beste maiztasun bat du Madrilen *Radio Estudio* adierazleaz. Tokiko informazioa eskaintzeaz gain, katean emititzen du *COPE*ren programazioa eskainiz. Era berean, Interneten agertzen da <www.radioestudio.com> orrialdean.

Kosta Irratia, ostera, Getxotik emititzen hasi zen 1990eko udan, *Itzartu Taldeari* egokitutako maiztasunean. Tokiko informazioa eta euskarazko zein gaztelaniazko irratsaioak eskaintzen hasi zen arren, berehala *SER* katearekin lotutako *M-80* irrati-formula musikarekin akordio batera heldu zen horren programazioaren tarteak sartzeko. Poliki-poliki, berriz, tokiko irratsaioak murriztuz joan ziren katearen emanaldien alde. Maiztasuna Getxon zuen arren, Bilbon eragina eta publizitate-sarrerak igo ahal zituelakoan, Bizkaiko hiriburuan kokatu zen 2000n. Beste aldeketara bat gertatu zitzaion milurteko berriarekin, eta 2001ean *Cadena Dial* delakoaren emankizuna eskaintzen du *Cadena Dial Euskadi* adierazleaz.

Juan Antonio Lekuonak Irunen eskatutako maiztasunean, 1990eko udaberrian hasi ziren emanaldiak *Irun Irratia* adierazlean. Dena den, emisora horretatik tokiko deskonexioak eskaintzen dira soilik, *SER* katearen barruan sartu baitzen hasieratik, eta horren programazio konbentzionala eskaintzen du.

Bizkaia Irratia ere 1990ean hasi zen emititzen Bilbotik. Zalantzarik gabe, *Bizkaia Irratiak* eskaini zuen proiekturik berriena herrialde horretan, ez hainbeste edukiei dagokienez —musika eta hitza batzen dituen programazio orokorra eskaintzen baitu—, hizkuntzari dagokionez baizik, euskaraz aritzea erabakitzeaz gain, bizkaieraz egitea hautatu baitzuten emisoraren arduradunek. Gipuzkoan euskarazko irratigintza nahiko finkatuta zegoen arren, Bizkaian zailtasun gehiago

16. Maiztasun hori *F.M. Nervión S.A.* izeneko enpresari egokitu zitzaion Jaurilaritzak 1992ko abenduan egindako behin betiko banaketan.

17. *NGR: Nervión, Gorbea eta Rabel* hitzei dagozkie siglak.

zituzten emisorek euskarazko programazioak aurrera bultzatzeko, oso errentagarria ez zelakoan. *Bilboko Herri Irratiak* FMn euskaraz aritu zen arren, emanaldi horiek bertan behera geratu ziren komertzialagoak ziren taxueren nesedetan.



Iturria: <www.bizkaiairratia.com>.

Bizkaia Irratia, Bilboko Herri Irratia beza-la, Bilboko elizbarrutiaren komunikabideen barruan dago kokatuta, eta, bera kudeatzeko, *Irrati-bide SA* enpresa sortu zen 1973an, Jaurilaritzak emisorari esleitu zizkion bost maiztasunen jabea dena. Irratiaren web-orrian azaltzen den legez, emisoraren helburua euskararen normalkuntzaren zerbitzuan dagoen komunikabidea izatea da:

Bizkaiko euskaldunei eskainitako irrati zerbitzua da. Programazino guztia euskara hutsean egiten da. Bizkaiera batuan emititzen dau. Euskera hutsean emititzearena bada, euskara sustatzeko eta normalizatzeko bidean ezaugarri garrantzitsua, eta horrez ganera, kontuan hartzen badogu publizitatea euskeraz pentsatu eta gauzatzen dala, oraindino inportanteagoa izan daiteke egiten dan lana. Baina euskerazko publizitatea behar beste ondo garatuta ez dagoen arloa da oraindino¹⁸.

Era berean, entzule bizkaitarrentzat zuzendutako emisora izateko asmoa agerian uzten du : «Horrez gain, programazino guztia bizkaieraz eskaintzen dauen bakarra ere bada. Etxekotik baturantzako bidean zubia egiten dau»¹⁹. Agian horregatik oso arrakasta handia lortu du Bizkaiko kostaldeko herrietan zein nekariztza-lurraldeetan; eskualde horietan entzule euskaldunak identifikatuagoak sentitzen omen dira bizkaieraz ari diren esatariekin, Donostian kokaturiko *Euskadi Irrati*ko kutsu gipuzkoarra duen batueraz mintzatzen direnekin baino. Entzuleria heldua da bereziki, eta berari zuzentzen zaio programazioa, zeinean euskal musika herritarra eta tokiko informazioa biltzen diren. Horrez gain, meza egunero eskaintzen da emisora bizkaitar horretan.

AMETS BATEN AMAIERA: ITXIERAK ETA SALEROSKETAK

Bigarren banaketa horrekin itxi ziren EAEko dial komertzilean sartzeko atea, eta irrati batzuek seinalea behin betiko isilarazi behar izan zuten bitartean, beste batzuen arteko maiztasunen salerosketak eta alokerak hasi ziren, eta aldaketa asko suertatuz joan ziren gaurko diala osatu arte. Alde batetik, Espainiako kateek emititzeko lekua bilatu zuten, eta, bestetik, tokiko irrati komertzialek ezin zuten banaka aurrera jo; beraz, beste batzuekin batzea edota katean aritzea izan zen bizirauteko irtenbidea kasu askotan.

18. <www.bizkaiairratia.com>.

19. Ibidem.

Hiru urtez tokiko programazioa eta *Euskadi Irratiarekiko* konexioak tartekatzen zituen emanaldiak eskaini ondoren, *SER* irratiarekin akordio batera heldu zen *Laudio Irratia*, kate horren programazioa eskaintzeko, eta, ondorioz, tokiko irratsaioak —eta bereziki euskaraz eskainitakoak— murriztuz joan ziren. Gasteizko *SER* dialean finkatu eta gero, berriz, *Laudiokoa* komunikazio-talde bereko (*Unión Radioko*) *M-80 Radio* kate musikalaren programazioa eskaintzen hasi zen 2000ko abuztutik aurrera.

Antzeko ibilbideari jarraitu zioten *Gernika Irratiak* eta *Kosta Irratiak*, baina, esan den moduan, biek *M-80 Radio* izeneko irrati-formula eskaini zuten arren, gaur egun *Cadena Dial* delakoaren emankizuna eskaintzen dute, *Cadena Dial/Onda Vasca* eta *Cadena Dial Euskadi* adierazleaz, hurrenez hurren.

Donostia, Loiola, Gasteiz eta Bilboko *Herri Irratien* eta *COPE*ren arteko elkarte apurtu eta gero, aldaketa batzuk gertatu ziren dialean, kate espainiarra Euskal Autonomia Erkidegoan lekua izan ahal izateko. Alde batetik, *COPE-Herri Irratia* izenean ziren FMko maiztasunak katearen eskuetan geratu ziren Bizkaian eta Gipuzkoan —herrialde horretan Loiolako emisorak FMko bat mantendu zuen—; Araban, ordea, bat *COPE*ri egokitu zitzaion, eta, beste bat, Jesusen Lagundiari zegokiona, *Gasteizko Herri Irratiari*.

Horren ondorioz, *Herri Irratiak* independente moduan hasi ziren emititzen, Donostia-Loiola eta Gasteizko emisorak katean emititzeko akordiora heldu zirelarik; Bizkaikoak, aldiz, bere ibilbidea bakarrik jarraitu du “*Katerik gabeko irratia*” lemapean. Dena den, emisora bizkaitarrak lankidetzatza-hitzarmen batzuk ditu Gipuzkoako eta Arabako emisorekin.

*COPE*k, bere aldetik, emankizunak birrantolatu behar izan zituen Autonomia Erkidegoan. 1993an *Grupo Correo* zelakaorekin akordio batera heldu zen, *Antena 3* zelakoak erabiltzen zituen maiztasunetan emititu ahal izateko; emisio horiek kudeatzeko *COMERAVASA* —*Consorcio de Medios Radiofónicos Vascos*— izeneko enpresa sortu zuten EAEn. Era berean, urte batzuetan zehar, alokatuta zituen *Ipar-Onda/Radio Miramar* zelakoaren maiztasunak *Cadena 100* izeneko programazio musikala emititzeko. *Correo* eta *COPE* komunikazio-enpresen arteko hitzarmena bertan behera geratu zen 2002ko udan, eta, ondorioz, elizaren kateak emisio-puntuak aldatu behar izan zituen EAEko dialean.

Sociedad de Telecomunicaciones Vascas izeneko enpresaren bidez, Bizkaian eta Araban lortu zituen maiztasunetan *Cadena Vasca* —*Stereo2*, *Santurtzi Irratia*, *Gernika Irratia* eta *Onda 3*-ek osaturiko katea— izenekoaren programazioa eskaintzen hasi zen Blas Herrero, baina talde txikiaren bideragarritasuna kolokan zegoela, *Onda Cero* irratiarekin akordio batera heldu zen, horren programa eskaintzeko, 1991-1999ko abuztura bitartean. Hortik aurrera, *OCR* taldearen barruko emanaldi musikala eskaini du; eta adierazlea behin baino gehiagotan aldatu eta gero, 2002ko apirilatik aurrera *Kiss FM* izeneko emanaldia eskaintzen

da maiztasun horietan²⁰; Donostian, berriz, *Sociedad de Telecomunicaciones Donostiarra* delakoaren maiztasunean ere.

Onda 3 irratiak, *Onda Cero* katearekin akordio batera heldu eta gero, horren emankizun berezia, musikala, eskaini zuen urte askotan; eta 2000tik aurrera *Europa FM* adierazleaz emititzen du. Era berean, aldatu zuen emisio-lekua, eta 1989ko banaketan Balmasedako maiztasuna egokitu zitzaion arren, 1992ko behin betikoan Barakaldon kokatu zuen Jaurilaritzak.

Gipuzkoaren kasuan, *Onda Cero* delakoaren programazio konbentzionala eskaintzen jarraitu zuen Eibarko maiztasunaren bidez, 2002ko udaberrira artean. Orduan, *Antena 3* telebistak katea erosi eta gero, emanaldiak bertan behera uztea erabaki zuen jabeak²¹, gutxienez akordio batera heldu bitartean.

Lehenengo banaketan *Iparragirre SA* argitalpenari maiztasun bana egokitu zitzaion EAEko hiru lurralde historikoetan. Lizentzia horien kudeatzailea *Ipar Onda SA* izeneko enpresa izan zen, eta, urte batzuetan zehar, *Radio Miramar* izeneko katearen programazioa eman ondoren, *COPEk* 1993an katea erosi zuenean —ez lizentzia—, desagertu egin zen, eta, bere ordeztan, *Cadena 100* izeneko emanaldia eskaintzen zen seinale horretatik. Dena dela, 1997an *Onda Cero* delakoak alokatu zuen maiztasuna, katearen programazio musikala, *Onda 10*, emititzeko. 1999tik aurrera, aldis, *Onda Cero* katearen programazio konbentzionala eskaintzen du.

Bi banaketetan emandako maiztasunen behin-behineko kontzesioak behin betiko bihurtu zituen Jaurilaritzak 1992an. Guztiek lortu zuten 10 urteko luzapena zekarren behin-behineko kontzesioa, *Egin Irratiak* izan ezik. Garai horretan, Gas-teizko exekutiboak bazterketa salatu zuen emisorak, eta hala ere emititzen jarraitu zuen, esan bezala Garzon epaileak itxi zuen arte. Beraz, honako enpresa hauek lortu zuten behin betiko kontzesioa:

Araban: *Tele-Basconia SAK* —*Radio Correo/COPE*—, *Avante Radio SAK* —*Cadena 40*—, *Sociedad Española de Radiodifusión SAK* —*SER*—, *Ipar Ondak* —*Onda Cero*²²—, *Radio Popular SAK* —*COPE*—, *Irratibide SAK* —*Bizkaia Irratia*—, *Errioxa Arabarreko Mankomunitateak* —*Radio Rioja Alavesa*—, *Laudio Irratiak* —*Laudio Irratia/M-80*—, *FM Nervión SAK* —*Gorbea Irratia*—,

20. 2002ko apirilaren 13an Blas Herrero eta *Onda Cero* kateak *Kiss FM* izeneko kate musikala sortu zuten; adierazle horrek *Onda Cero Música* zelakoak ordezkatu du hainbat maiztasunatan.

21. Penedo, M. (2002): “Herrero desconecta nueve emisoras de Onda Cero por falta de acuerdo con la dirección”, *La Razón digital*, 2002ko maiatzaren 9.

22. Behin betiko kontzesioak eman zirenean, *Ipar Onda Radio Miramar* katearen barruan sartuta zegoen arren, beranduago *Onda Cero Radio* delakoarekin akordio batera heldu zen, 1996ko urtarrilaren 23ko EHAAn jasotzen den legezt. *Uniprex* izakundearen ordeztan, *Admira* izenekoak kudeatzen zituen Telefónicak erositako irratikatearen emisorak 1999tik aurrera. 2002ko udaberriaz geroztik, berriz, *Antena 3* telebistak erosi ditu maiztasun horiek.

Loiolako Jesusen Lagundiak —Gasteizko Herri Irratia—, Sociedad de Telecomunicaciones Vascak —Europa FM—.

Gipuzkoan: *Ipar Onda SAK —Onda Cero—, Radio Tele Basconia SAK —Radio Diario/COPE—, Arrate Irratia, Iniciativas para el Desarrollo de la Comunicación SAK —Euskadi Bihotzeko Irratia-Radio Estudio/COPE—, Sociedad de Telecomunicaciones Donostiarak —Kiss FM—, Juan Antonio Lekuonak —RadioIrun/SER—.*

Bizkaian: *Ipar Ondak —Onda Cero—, Radio Tele Basconia SAK —Radio Correo/COPE—, FM Nervión SAK —Nerbioi Irratia—, Francisco J. Gandoyk —Europa FM—, Sociedad de Telecomunicaciones Vasca, SAK —Kiss FM—, Irratibide SAK —Bizkaia Irratia—, Busturi aldeko Irrati eskolak —Cadena Dial Onda Vasca—, Itxartu Komunikabideak —Cadena Dial Euskadi—.*

Azaldu den bezala, Eusko Jaurlaritzaren maiztasun-banaketa horietan lizentziarik lortu ez zuten emisorek bertan behera utzi behar izan zituzten emanaldiak. Aurreko urteetan, eta gobernu autonomikoaren erabakien itxaronaldian zehar, Gobernu Zibilak ixteko aginduak bidali zizkien legaltasunetik kanpo emititzen zuten emisorei, norenak ziren kontuan hartu gabe. Horren ondorioz, eta presio-ekintza ezberdinen amaiera moduan, guztiek batera mikrofonoak isiltzea erabaki zuten 1989ko martxoaren 6an (Santos Díez, 1999: 74).

Batzuentzat betikoa izan zen itxiera, baina beste zenbaitek berriro dialera irtetera erabaki zuten. Esaterako, Barakaldoko *Radio 7* edo *Canal 3* direlakoek; lehenengoak izena eta maiztasuna mantendu zituen; bigarrenak, aldiz, dialeko leku berean jarraitzen duen arren, izena aldatu du, eta gaur egun *Top Bilbao* adierazleaz emititzen du.

Horrez gain, irrati berriak sortu dira nonahi. Emititzeko lizentziarik gabe, toleratuak dira beste batzuen seinalea oztopatzen ez duten bitartean. Batzuk estatuko kateen barruan sartu dira, legalitatetik kanpo aritu arren. Askotan langileek ez dute lan-egoera onik izaten, bekario gisa edo praktiketan daude, asko baitira komunikazio-arloan lan egiteko aukera eske dauden ikasleak eta lizentziatu berriak. Egon omen dira bertan lan egiteko inbertsio ekonomikoa aurretik eskatu duten emisorak ere, langabezian zeuden kazetarien eta esatarien egoeraz baliatu zirenak. Irrati komertzial horien izenak ere oso aldakorrak dira, atzean duten katearen edo taldearen arabera —akordioak eta kontratuak batzuetan ez baitute luzez irauten—, eta dialean agertu diren bezalaxe desager daitezke.

Mungian, adibidez, *Radio Economía* dago. 1990eko jaian sortutako *Mungia Irratia* izeneko emisora, bertako irratizale batek bultzatuta, udalaren babesa eskatu arren, eta udal-bilkuran proiektuaz eztabaidatu zen arren, ez zen udal-emisoraren proiektu moduan gauzatu. Hala eta guztiz ere, emanaldiek aurrera jarraitu zuten, eta 1993an izena aldatu zuen, *Radio Corazón* deitzera pasatuz. *Onda Cero*

katearekin negoziatu arren, lizentziarik ez zuenez, ezin izan zuen akordio batera heldu. 1996tik aurrera, berriz, enpresario batek erosi zuen emisora, eta ekonomiari buruzko informazioa eskaintzen hasi zen, musikarekin tartekatuta. Ikasleez hornitzen da batez ere emisora horren plantila, eta Mungian kokatuta dagoen arren, *Radio Economía Bilbao* izena erabiltzen du. Interneten ere aurki daiteke <www.radioeconomia.es> helbidean.

Nerbioi Ibaiaren Ezkerraldean, gutxienez beste hiru emisora gehiago kokatu dira azkenengo hamarkadan: Barakaldoko *Radio 90* eta Portugaleteko *Radio Sintonía* —*Radio Voz* izeneko taldearekin lotuta egon zena— eta *Hit Radio* izenekoa. Gaur egun, ordea, ezin da horien seinalea jaso, merkatuaren gorabeherak desagerrarazi baitituzte.

Gipuzkoan ere badaude baimen administratiborik gabe emititzen duten irratia. Donostiako *Radio Aldamar* edo *Radio País Vasco* izenekoak, adibidez, saiatu dira dial donostiarrean finkatzen, azken hori *Radio Voz* katearen barruan egon zen, eta Errealaren futbol-partidak eskaintzen zituen zuzenean, baita Interneten ere; 2002ko irailetik aurrera, *Cadena 100* delakoaren programazio musikala eskaintzen da maiztasun horretan. *Radio Planet* izeneko emisora ere entzungai dago, Donostian, *dance* delako musikan oinarrituriko irradi-formula eskainiz. Lasartetik *Radio Bahía* izeneko emisorak emititzen du.

Zailagoa da, berriz, Pasaiaiko *Urdin Irratia* edo Basauriko *Bidebieta Irratia* emisorak komertzialen artean kokatzea. Publizitate komertziala onartzen duten arren, oso proiektu lokalak dira eta ez dute atzean enpresa-egitura handirik. Era berean, Araban, Gasteizen hain zuzen, badago Remar delako elkarteak bultzatzen duen emisora bat, *RKM* izenekoa. 1997an Sevillan sortu zen arren, 1999. urteaz geroztik entzun daiteke emisora hori, elkarteko kide musikoek egindako abestiak jasotzen dituen irradi-formulan oinarritutako programazioa eskaintzen duena.

8. Irrati askeen mugimendua, komunikazio alternatiboa 1980ko hamarkadan

Irrati askeen mugimendua Europan sortu zen 1970ko hamarkadan. Bere burua irrati aske izendatu zuen lehenengo emisora Italian agertu zen 1960ko hamarkadaren amaieran. *Danino Dolci* izeneko taldeak irrati klandestinoak sortu zuen Siziliako Partinica-n; lehenengo irrati horren helburua Belia-ko biztanleen bizi-baldintza txarrak salatzea izan zen (Colectivo de Radios Libres, 1981: 10).

Mugimendu horren aitzindariak urte batzuk lehenago kokatu dituzte idazle batzuek. Horien ustez, irrati askeen aurrekariak 1918-1919 urtealdian Alemanian gertatu ziren, Kaiserren abdikazioa zela eta. Orduan, Langileen eta Soldaduen Errepublika aldarrikatu zuten langileek, eta harreman- eta koordinazio-tresnatzat erabili zuten haririk gabeko telefonia. 1924an *Arbeiter-Radio Club Deutschland* sortu zuten irrati-zaleek, kultura suspertzeko berrikuntza teknikoen trukea errazteko helburuz. Garai horretan Bertold Brecht idazlea ere konturatu zen irratia-aren garrantziaz, eta entzuleen parte-hartzea aldarrikatu zuen, entzunaldi pasiboaren aurka, berak idatzitako irratia-ri buruzko teorian (Ibidem: 10-11).

Beste irrati alternatibo batek oso paper garrantzitsua jokatu zuen Algeriako independentzia-gerran, 1956-1962 urtealdian, *La Voix de l'Algérie libre* izenekoa, alegia. Kontzientzia anticolonialista sortzeko eta talde etnikoen arteko harremana errazteko funtzioa bete zuen FLN¹ sortutako emisora hark (Ibidem: 11).

Baina, zailtzarrik gabe, irrati askeen mugimendua 1970eko hamarkadaren erdialdean hedatu zen Europako Mediterraneoan. 1976an RAiren monopolioaren aurka jo zuen Kontseilu Konstituzionalak. 1974ko azarotik 1976ko uztaila bitartean irrati aske ugari sortu ziren; besteak beste, *Onda Rossa*, *Radio Alice*, *Città Futura*, *Contrarradio*, *Radio Popolare*, *Black-Aut* edota *Radio Lilith*.

Estatu frantsesean *Radio Lille Campus* izeneko irratia sortu zuten ikasleek 1969an. Hori izan zen sortutako lehenengo emisora alternatiboa, baina ez bakarra, Estatuaren monopolioaren aurka. 1975ean *Radio Active* izenekoa sortu zuten Lyon-en, Creys Malville-ko zentral nuklearraren aurka. 1977an, Parisen, *Radio Verte* sortu zuten ekologistek. Irrati horiei beste batzuek jarraitu zieten estatu frantsesean zehar: adibidez, *Radio Calamine*, Alsaziako *Radio Verte-Fesseheim*,

1. FLN: *Front de Libération Nationale*.

Montpellier-ko *Radio Fil Bleu*, *Radioteuses*, *Radio Kaki*, *Radio File Rose*, *Radio Frou*, *Radio Détraké*, *Radio 59*, *Radio Beau* eta *Delire*.

Estatu espaniarrean lehenengo irrati askea Kataluniako *Onda Lliure* izan zen; 1979ko apirilaren 4an hasi zen emititzen, 1978ko udan zehar emanaldi solte batzuk egin eta gero. Horrek irekitako bideari beste askok jarraitu zioten: Bartzelonako *La Campana de Gracia*, *Contrarradio*, *Farigola*, *La Gavina*, *P.I.C.A.* eta *Gavá*; Santa Coloma de Gramanet-eko *El Avispero*; Sabadell-go *La Seba*; Granollers-ko *La Maduixa*; Sant Adrià del Besós-ko *Alternativa*; Cornellá-ko *Almeda*; Vic-eko *Boira Lliure*; Tarragonako Plá de Santa María-ko *Juventut del Plá*; Gironako Figueres-ko *Los Piratas del Ampurdán* eta Valentziako *Galena*..., besteak beste.

Euskal Herrian sortu zen lehenengo irrati askea Donostiako *Osina Irratia* izan zen, 1979an. Hortik aurrera, asko izan ziren euskal lurraldean zehar sortu ziren irrati aske eta alternatiboak. Oso emisora lokalak ziren arren, mugimenduak oso oihartzun handia lortu zuen euskal gizartean, batez ere 1980ko hamarkadaren erdialdean.

Irrati askeen definizioa

Hedabide boteretsu eta handiei erantzuteko eta kate pribatuen zein estatualen aurrean komunikabide alternatiboa izateko nahiarekin sortu ziren irrati askeak. Era berean, emisora horien bultzatzaileek eremu elektromagnetikoaren erabilpen librea aldarrikatzen zuten, nazioarteko itunen bidezko banaketaren aurka. Hau da, uhinetara edo irrati-dialetara edonor heltzeko eskubidea aldarrikatzen zuten, estatuen arteko akordio murriztaileen edota irrati-arauegien aurrean. Beraz, irrati askeek ez zuten emititzeko baimenik eskatu beharra onartzen, uhinen okupazio librea baizik. Hori zela eta, legalizazioari uko egin izan diote historian zehar, garai batzuetan aurretik paktaturiko dial-zati batean kokatzeko prest agertu ziren arren. Orokorrean, berriz, libre ziren maiztasunetan —ezelango irratik erabiltzen ez zituztenetan— kokatu dira, inori baimenik eskatu gabe, okupa moduan jokatu.

María Teresa Santos Díez-ek irrati aske komertzialak eta ez-komertzialak bereizten ditu. Bere iritziz, oso zaila da irrati askearen kontzeptua mugatzea eta, emisora libreen elkarrekin irrati instituzionalak edo komertzialak baztertzeko dituzten arren, legearen aurrean eta entzuleriaren aurrean oso ezaugarri komunak dituzte, bai lehenengoek, bai bigarrenak (Santos Díez, 1999: 30-32). Alde batetik, irrati guztiek baimen legalik gabe emititzen dute; gehienetan ez dute oso enpresa-egitura finkoa izaten; langileak ez dira beti profesionalak izaten; eta, amaitzeko, oso lokalak izaten dira, emisio-indar txikikoak.

Beraz, irakasle horrek proposatzen duen definizioa oso zabala da eta errealitate ezberdinei erantzuten die; bere esanetan, giza taldeek, instituzioek edota

diru gutxiko talde ekonomikoek bultzatzen dituzten emisorak dira eta uhinak erabiltzen dituzte, horretarako baimenik izan ez arren (Ibidem: 12).

Liburu honetan, berriz, irradi askeek emandako autodefinizioa ontzat hartuz, irradi askeen eta irradi piraten arteko bereizketa egiten da. Hori dela eta, irradi askearen deitura helburu komertzialik ez duen baimenik gabeko irradiari dagokio. Irrati pirata, berriz, legala izan gabe, enpresa moduan ari den emisora orori esaten zaio. Hau da, irradi piratak — Santos-ek irradi libre komertzialak deitzen dituenak — komertzialak dira; hots, helburu ekonomikoa dute, eta horregatik baimena bilatzen dute, baita uhinetan puntu zehatza izatea ere. Maiztasunen banaketa onartzen duten arren, oraindik bat lortu ez dutelako libreki emititzen dute.

Irrati askeen definiziotik kanpo geratzen dira irradi instituzionalak ere; hau da, erakunde ofizialek — udalek, mankomunitateek, eskolek edo unibertsitateek — kudeatzen dituztenak. Emisora horiek baimenik gabe emititu arren, instituzioen babes ofiziala dute, eta, beraz, ez daude legaltasunetik kanpo.

Hori guztia kontuan hartuta, irradi askeak honako hauek dira: baimenik eskatu gabe, irradi-maiztasunak libreki okupatzeko eskubidea aldarrikatzen duten emisorak, eta beren helburuetariko bat bide ofizialetan tokirik ez duen komunikazioa ahalbidetzea dutenak, herritarren parte-hartze zuzena bultzatuz.

Kudeaketa-modu desberdina duten irratia sartzen dira definizio horretan. Dena dela, emisora horiek guztiek ezaugarri komunak dituzte. Hona hemen aipagarrienak:

a) Kontrainformatzea, informazio ofizialari aurre egiteko.

Irrati askeen mugimenduaren sorreran, emisorek alternatibotzat definitu zuten beren burua. Horregatik, helburu nagusia beste emandegietan agertzen ez diren informazioak eta gertaerak ezagutzera ematea izan da, informazio “ofizialetan” agertzen ez dena, alegia². Hori dela eta, informazioaren kontzeptua baino gehiago kontrainformazioarena erabili ohi dute, *Pititako Irratikoek* azaltzen duten moduan: «Bertsio ofizialetaz nazkatuta gaudelako. Ez ditugulako gezurrik, distortsiorik eta desinformaziorik nahi. Komunikabide ofizialetan azaltzen ez dena eta izkutatzen digutena ikusi eta zabaldu nahi dugulako»³.

Beraz, informazio zein iritzi alternatiboen bozgorailua izateko funtzio hori oso garrantzitsutzat jotzen zutelako, Euskal Herriko Irrati Askeen Koordinadorak *Tas-Tas* kontrainformazio-agentzia sortu zuen 1986an:

2. «Partout la parole est volée, dérobée, détournée, tronquée, falsifiée: ceux qui font la vie réelle, qui travaillent, qui luttent, qui rêvent sont systématiquement évacués des ondes. (...) Il est apparu possible prendre à revers l'information officielle et de faire entendre une autre vérité, libre de l'argent et du pouvoir. La contre-information, le rétablissement d'une vérité, est un souci et un devoir d'une expression radio libre» (Les radios libres, 1978: 23).

3. *Pititako Irratiaren* publizitate-triptikoetan, 1998.

Irrati libreen koordinadorari esker, kontra-informazio ajentzia sortu zen irrati bakoitzeko informatiboetarako egin behar zen informazio transformaketa arintzeko, honi esker informazioa eskainiko zaie zuzenean kaleratzeko (...) agentziaren ideia zera da, talde herrikoiek diotena kaleratzea. (...) Komunikabide ofizialetan izkutatzen edo manipulatzuten duten informazioa kaleratzea da geure helburu nagusia, herri erakundeekin lotuta⁴.

b) Subjektibotasuna eta zintzotasuna, objektibotasunaren mitoaren aurrean.

Horrekin batera, informazioaren subjektibotasuna ere goraipatu ohi dute irrati askeek, objektibotasunaren mitoaren aurrean⁵. Errealitatea hori dela kontuan hartuta, “beste komunikabideetan agertzen ez diren” iritziak eta subjektibitateak agertzea da irrati askeen funtzio nagusia. Marta Llorente *Txomin Barullo Irratikoak* horrela azaldu zuen ideia hori:

Bakoitzak bere eritzia dauka, eta normalean munduan bi eritzi daude, bata boterean daudenena eta bestea boterean ez gau-denona eta inon azaltzen ez dena. Eta hori da irrati libreen funtzioa, beste inon agertzen ez direnen eritziak plazaratzea⁶.

Era berean, kazetariaren zintzotasuna azpimarratzen dute informazioa lantzeko orduan:

Gertaeren azalpenentan, sinesgarritasuna gureganatzeko eta propa-ganda susmoa ekiditeko. Zintzotasuna, zehaztasuna eta osotasunaz hornituriko objektibotasuna. Hala ere busti egingo gara⁷.

c) Kultura alternatiboaren suspertzea.

Baina, informazioa edo kontrainformazioa oso garrantzitsuak badira ere, irrati askeek kultura alternatiboari ere tokia eskaini diote. Kultura “ofizialetik at” dauden mugimenduek beren jardueren berri emateko aukera izateaz gain, beren adierazbidea aurkitu izan dute irrati askeetan. Zalantzarik gabe, kultura alternatibo horren adierazpen hedatuena musika da. Bide komertzialetatik landa, musika-talde alternatiboen maketak eta joera berriak entzun dira emisora askeetan, irrati komertzial handiagoetan lekurik izan ez dutenak, hain zuzen ere. Gaztetxeetatik eta tabernetatik uhineratu ziren musika-talde asko, batez ere 1980ko hamarkadan, musika-

4. Egaña Osa, (1990): “Kristian Reinake: «Irrati libreak ideologikoki finkatzen goaz»”, *Argia*, 1281, 61.

5. *Pititako Irratiak* horrela aldarrikatzen du subjektibotasunaren existentzia, irratiak banatzen dituen triptikoetan: «...trasladando a la audiencia noticias a las que no se tiene acceso en los medios de comunicación de masas o, simplemente, ofreciendo una o unas versiones diferentes; opinando, por supuesto, y desarmando una de las mayores falacias que acostumbran a utilizar los medios habituales, cuando se autodenominan independientes. Las noticias, la información siempre tiene una carga subjetiva, el sello propio de quien la obtiene y de quien la distribuye (...)».

6. Uria, I. M. (1987): “Irrati librea, komunikabide alternatibo eta herrikoia”, *Punto y Hora*, 468, 42.

7. *Tas-Tas Irratiaren* web-orrian: www.tas-tas.com.

-zirkuitu alternatiboak sortuz. Era berean, taldeek irrati askeak erabili zituzten beren lanak promozionatzeko, disko-etxeen menpekotasunetik kanpo.

d) Mintzaira berria erabiltzea.

Irrati askeetan irratsaio berritzaileak, sormen-programak egiteko aukera dago, publizitatearen menpekotasunik gabe, edukiak eta taxuerak planteatzeko orduan askatasun gehiago dutenak; halaber, mintzaira berri bat asmatu behar izan dute. Hasieratik, islatu edo bideratu nahi zuten diskurtso berria adierazteko hizkuntza propioa eratu behar zutelakoan ziren irrati askeetako kideek⁸. Ez da eginkizun erraza izan, ordea, eta gehienetan beste irratietan erabilitako taxuerak eta lengoaia erabiltzen dituzte, hedaturiko ereduari jarraitzen dietelako. Hala ere, hitzen garrantziarekiko sentiberatasuna nabaria da irrati alternatibo horietan, eta, horregatik, hitz eta esamolde sexistak, xenofoboak edota homofoboak baztertzeko saiatzen dira. Era berean, esan bezala, talde gutxituek erabilitako hizkuntzak, musikak eta adierazpenak osatzen dute mintzaira berri hori.

Mintzaira eta adierazpen berriek bezala, hizkuntza txikiek ere badute beren lekua emisora horietan. Euskal Herriko irrati askeek oso argi izan zuten hasieratik euskarak garrantzi handia zuela hizkuntza propioa garatzeko. Askok hitzetik ekin-tzetarako urratsa ematea lortu ez duten arren, irrati gehienek euskararen aldeko apustua aldarrikatzen zuten. Egon ziren hasieratik euskaraz aritu zirenak, oso eremu erdaldun batean kokatuta bazeuden ere, Getxoko *Bost Axola*, adibidez. Beste batzuk, berriz, elebidun hasi ziren arren, euskara hutsez aritzea lortu dute, Hernaniko *Molotoff Irratiak* bezala. Emisora horren arduradunek hasieratik euskarazko irratsaioak bultzatu zituzten:

(...) helburu nagusia horixe izan da, gero eta euskara gehiago sartzea eta gero eta maila handiagokoa. Programa egin nahi duenak, euskalduna baldin bada, saioa euskaraz egin behar du. Programazioaren erdia baino gehiago euskaraz egiten da, ea jende gehiago animatzen den⁹.

e) Entzuleen parte-hartzea bultzatzea.

Eduki eta hizkuntza propioek garrantzi handia dute irrati askeen programazioa eratzeke orduan. Emisoren bultzatzaileek, berriz, oso argi izan zuten hasieratik hori ez zela nahikoa komunikabide alternatiboa eskaintzeko. Mezuak, diskurtso berritzaileak, bazuen helburu zehatza, entzulearengana heltzea eta, era berean, beste hedabideetan bazterturik zegoen entzuleriari hitza eskaintzea, alegia. Beraz,

8. Vian, B.: «Créer des radios libres ce n'est pas seulement envoyer des signaux hertziens, c'est aussi et surtout rendre la vie à la parole, la parole à la vie, imposer une vraie différence. (...) i l s'agit d'inventer un nouveau langage correspondant aux aspirations et aux désirs nouveaux. Provoquer un autre type d'écoute: un écoute active. Parler du présent avec les phrases du futur» (Collectif des Radios Libres, 1978: 28-29).

9. Mikel Arrietak *Argiari* egindako adierazpenak. Irazu, A, (1991): "Mikel Arrieta «Irrati libreek jende berriaren premia dute»", *Argia*, maiatzaren 6, 61.

oso garrantzitsua zen entzuleekin zubiak eratzea. Horregatik, programazioa ez zen goitik behera eratzten, horizontalean baizik, eta entzuleen parte-hartzea bultzatu dute irradi askeek:

Baina, entzuteaz gain, guk zuk parte har dezazun nahi dugu, nahi duzun dena kontatuz, jakin nahi duzuna adieraziz eta gure saio honetan parte hartuz¹⁰.

Horrez gain, oso garrantzitsutzat jotzen dute entzuleen parte-hartze aktiboa, eta hizketatzaile guztien adierazpen-askatasuna ere bai. *Tas-Tas Irratiak* honako oinarri hauen adierazpena egiten du bere web-orrian:

Laburbilduz, elkartasuna, justizia, berdintasuna, demokrazia, askatasuna, partizipazioa, kritikotasuna, sormena... defendatzen ditugu. Askatasun-adierazpenean iharduten dugu, debatea eta iritzien elkartrukaketa suspertzen ditugu gure ideiei eutsiz. Honela, mintzaira sexista, naturaren suntsipena edo jarrera zapaltzaileak guregandik at geratuko dira¹¹.

Dena dela, irradian lan egiten duten guztien parte-hartzea ezinebestekotzat jotzen dute irratiaren arduradunek. Horregatik, irratsaioa egiten dutenei konpromisoa exijitzen diete asanbladek, Aitor Sarasua Oretetako *Zintzilik Irratiko* kideak azaldu zuen legez:

Irrati librearen filosofiari jarraitzea eta hori bizitzea ez datza soilik irratsaio bat egitean. Funtzionamendu honek lan eta inplikazio handia eskatzen ditu, noski, eta neketua da. Horregatik parte-hartzean gorabeherak izan dira urte hauetan, normala denez...¹².

Halaber, herriko biztanleengandik hurbil dagoen komunikabidea izateko asmoa duenez, askotan irradi askeak irratigintzan aritzeko aukera ematen die zaleei edo ikasleei, horiek ere beren irratsaioak egin ditzaten:

Bestetik, irradi libreak tailer modura ere jokatzen dute; beste irratiaren parte hartzeko aukerarik ez duen jendeak hemen bere espresio bidea aurkitzeaz gain komunikabide batean lan egiten ikas bait dezake¹³.

f) Herri-taldeekiko elkarlana.

Hasieratik, irradi askeen mugimendua herri-ekimenekin edo herri-taldeekin lotuta jaio eta garatu dira. Beren helburuetariko bat talde hoiei adierazbide bat ematea izan da, beste komunikabideetatiko bazterketaren aurrean. Irrati askeetan talde askok dute beren tokia: gazteek, emakumeek, auzokoek, nazionalistek, etorkinek, homosexualek, intsumisoe...; beste komunikabide ofizialetan baztertuak dauden

10. *Pititako Irratiaren* triptikoak, 1978.

11. *Tas-Tas Irratiaren* web-orria: <www.tas-tas.com>.

12. Domingo, E. (2000): "Aitor Sarasua, Zintzilik Irratiko kidea: «Irrati librean aritzea ez da saio bat egitea soilik»", *Gara*, 2000ko martxoaren 25.

13. Joseba Leizeagak *Argiari* egindako adierazpenetan. Yarza, A. (1991): "Joseba Leizeaga: Irrati libreak ahotsagabeen ahotsa dira", *Argia*, irailaren 15, 61.

minoriek alegia. Boris Vian-ek dioen moduan, herri-mugimendu horiek ere beren mintzaira propioa garatzeko aukera dute komunikabide askeetan, diskurtso ofizialek urrun¹⁴. Horretarako, behar beharrezkotzat jotzen zuen Vian-ek talde horien diskurtsoen azalpen zuzena, bitartekaririk gabea.

Emisoren eta herri-mugimenduen arteko loturak ezarri ditu irrati askeen arteko aniztasuna eta ezberdintasuna, kontzeptu beraren barruan kolektibo ezberdinek bultzaturiko iniziatibak biltzen baitziren. Hala nola, irrati aske batzuk une edo garai batean irauteko jaio dira, edo protesta baten inguruan, jarraitutasunik nahi izan gabe; beste batzuk auzo edo herri baten interesei lotuta; badaude ere, kultura alternatiboaren euskarria edo adierazbidea izatea helburu zutenak, eta, beraz, tentsioa batekin lotuta daude; edota hizkuntza minorizatuaren bozgorailua direnak. Boris Vian-ek dioenez: «Praktika anitz eta ezberdinek behar izan dituzte irrati ezberdin asko» (Collectif des Radios Libres, 1978: 24-25).

Hala Bediren ordezkari batek honela azaldu zuen herri-ekintzak bultzatzeko asmoa *Argia* aldizkariari egindako adierazpenetan:

Herri mugimenduen irratia izan nahi dugu, gauzak komunikabide ofizialek esaten dutenaren modu ezberdinez kontatuz. Estatuak bere irratietan ematen duen ikuspegiari bira eman nahi diogu. Gizartea, sistema eta estatua aldatzea da gure azken helburua. Gizarte ekologikoagoa, sexuen arteko berdintasunaren eta gutxiengoekiko errespetuaren aldekoa nahi dugu¹⁵.

g) Legez kanpoko emanaldiak.

Esan bezala, irrati piraten eta askeen arteko ezberdintasun bat legearen aurrean izan duten jarreraren datza. 1980ko hamarkadan Hego Euskal Herrian sortu ziren irrati piraten helburua legalitatearen barruan emititzea izan zen, eta horregatik Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak irrati-maiztasunak banatzeko egindako deialdietan parte hartu zuten. Lehiaketa horietan baimenik ez lortzeak ilegalizaziora bultzatu zituen emisora horiek. Irrati askeek, berriz, hasieratik uko egin zioten aukera horri, eta aske eta mugarik gabe emititzeko eskubidea aldarrikatzen zuten. Legeztatzeak abantaila batzuk ekarri arren, zentsuraren atzaparrak sentiaraziko zizkiola azaltzen zuen *Osina Irratiko* ordezkariak aukera horren aurka:

Legeztatuak egonda, zentsuraren azpitik jokatzeko duzu eta ez da ezer gertatzen ala nahi duzuna eta egurtzen zaituzte, beraz... Lehenengo kasuan mugitzen dira gaur arte

14. «Pour que l'expression soit libre et réellement celle des pratiques multiples, il faut refuser de déléguer son pouvoir en déléguant sa parole: faire sauter le filtre du journalisme professionnel qui stérilise le vécu, faire sauter le filtre du langage politique qui se pose en savoir, faire sauter les canons d'une esthétique apprise pour le détourner dans ces pratiques multiples qui créeront leur propre langage (...) mais un lieu ouvert que toutes les expressions des pratiques populaires s'approprient et développent» (Collectif des Radios Libres, 1978: 23-24).

15. Irizar, O. eta Aberasturi, L. (1992): "Miguel Angel Hernández: «Hala-Bedik herri mugimenduena izan nahi du», *Argia*, 1374, 61.

16. Auzmendi, L. eta Garmendia, E. (1979): "Osina Erredura", *Argia*, maiatzaren 27, 19-24.

dauzkagunak eta guk ez dugu nahi bide horietan mugitu. (...) Alderdi onak, bai lokal legal bat eduki ahal izango genuke eta neurri honetan posibilitate gehiago noski...¹⁶.

Iruñeko *Eguzki Irratiko* Sergio Ibarrolak honela azaltzen zuen irrati askeen jarrera legeztapenaren aurrean: «...guk ez dugu behar legalizapenik esaten duguna esateko, ez barruan egon ezta kanpoan ere, gu hor gaude, pakean utzi, bakoitzak berea eta kitto»¹⁷.

Dena dela, Eusko Jaurlaritzarekiko negoziazioetan, zenbait irrati askek dialeko tarte batean kokatzeko aukera eskatu zuten; horrela, baimena eskatu ez arren, bere egoera legala boterearen tolerantzian oinarrituko zen; hau da, inplizituki irrati-tien existentzia ezagutu eta onartu egingo zuen gobernuak. Gaur egun, idatzita ez dagoen itun baten ondorioz, irrati askeak dialean kokatzen dira inori kalterik egin gabe, eta, horren truke, ixteko mehatxu gabe.

h) Katerik gabeko finantzabidea.

Finantzabideari dagokionez, irrati askeek publizitate komertziala eta erakundeen diru-laguntzak errefusatu dituzte. Beraz, autokudeaketa bilatzen dute, eta horretarako erabiltzen dituzten diru-iturriak askotarikoak izaten dira: herriko jailetan antolaturiko txosnak; kontzertuak eta jaiak; kamiseten, pegatinen, pizgailuen eta beste material batzuen salmentak eta bazkideen kuotak.

Horiez gain, udalen subentzioak ere onartu dituzte emisora batzuek. Laguntza hori era desberdinez gauzatu da, praktikan: adibidez, udal batzuetako agintariak lokala dohainik utzi izan diote herriko irrati askeari, eta beste batzuek, berriz, dirua eman diote tresneria erosteko. Udala herriarengandik hurbilen dagoen erakundea dela argudiatu dute batzuek laguntza horiek onartzeko; beste batzuek, berriz, errefusatu egin dituzte, botere politikoa den aldetik, udalaren subentzioak emisoraren askatasuna mugatuko lukeela esanez.

Publizitatearen auzia ere eztabaidagai egon da irrati askeen artean. Iragarki komertzialik ez onartzeko adostasuna zegoen arren, herri-taldeen, ekitaldi kultural minorizatuena edota beste hedabideetara heldu ezin duten jardueren, zerbitzuen edo produktuen publizitatea eskaintzea onartu dute emisora batzuek, horrek bere independentzia kolokan jartzen ez duelakoan.

Irrati askeen mugimenduaren urrezko garaia (1978-1988)

Uhinetan, lizentziarik gabe eta “aske” moduan emititzen hasi zen Euskal Herriko lehenengo emisora *JMC-Radio* izen zen. Estazio horren emanaldiak 1978ko abenduan aireratu ziren Getxoko Areeta auzoan. Zazpi hilabete beranduago, 1979ko

17. Martin, X. (2001): “Eguzki Irratia. “Eguzkiero”-ren laugarren denboraldia martxan da. Kontrainformazioa, eguneroko lanaren ardatza”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2001eko urriaren 27.

uztailean, itxi egin behar izan zuten. Geroago, Portugaletetik emititu zuen, baina irrati komertzial¹⁸ bihurtuta.

Donostialdeko eta Euskal Herriko lehenengo irrati askea —aurretik egindako definizioa kontuan hartuta— *Osina Irratia* izan zen. Emisora hori 1979ko otsailaren 23an hasi zen emititzen, FMko 102,5 MHz-etan. Hasiera batean ordu erdiz emititzen zuen. Informazio orokorra emateaz gain, zenbait gai jorratzen zituen monografikoen bidez: esaterako, 1979ko maiatzaren 27an “*Día de las Fuerzas Armadas*” delakoa ospatzen zela, 24an antimilitarren iritzia jaso nahi izan zuten irratsaio batean; 31an antinuklearrek hitz egin zuten, ekainaren 3an Bardeetarako konzentrazioa burutuko baitzen¹⁹.

Mugimendu herritarrekin harremanetan, ez ziren alderdien menpe egon; bertakoek adierazten zutenez, ideologia ezberdineko pertaideak ziren.

Ideologi mailan desberdintasunak badaude, noski, baina denok dauzkagu printzipio batzu eta horien arabera mugitzen gara. Batzuk HBren sinpatizanteak gara, beste batzuk EErenak, baina oraingoz ez dugu inongo arazorik izan egin dugun lanean eta printzipio minimoak errespetatzen jarraitzen badugu ez dugu arazorik izango²⁰.

Bere programazioa *Egin eta Deia* egunkarietan iragartzen zuten, jendeak non eta noiz kokatu jakin ahal zezan.

Tolosan *Satorra Irratia* sortu zuten 1979ko abenduan, baina 1980ko azaroan itxiarazi zuen Gobernuak, eta irratiko kide guztiak atxilotu zituen poliziak (Santos Díez, 1999: 44).

Urte bereko maiatzean *Mozoilo Irratia* jaio zen Galdakaon. Hori izan zen Bizkaiko lehenengo irrati askea. 1981ean itxi behar izan zuten Gobernu-ordenak aginduta; 1986an berrirori hasi zen emititzen, baina udal-irradi bihurtuta; orindik emititzen jarraitzeaz gain, Interneten ere topa daiteke honako helbide honetan: <212.73.32.210/hosting/000af/mozoiloirratia/mozoilopot.html>.

Bizkaian *Gramola Irratia* emititzen hasi zen 1983ko otsailean, Bilboko San Inazio auzoko Kultura Etxean, bertako auzo-asanbladak bultzatuta, eta bi urte lehenago sortutako proiektuaren emaitzaz. Batik bat, auzoari eskainitako programazioa bultzatu zuen emisorak. Batzuetan konexio bateratuak eman zituen Bilboko beste irrati askeekin, *Iluna*, *Txomin Barullo* eta *Basurto* irratiekin, alegia (Ibidem).

18. Pirata moduan aritu zen, emititzeko baimenik ez zuen eta.

19. Auzmendi, L. eta Garmendia, E. “Osinarek Erredura”, *Argia*, 19-24, 1979ko maiatzaren 27.

20. Ibidem.



Txomin Barullo Irratiak izen bereko konpartsaren txosnatik emititu zuen 1983an.

Bilboko Aste Nagusian jaio zen *Txomin Barullo Irratia* (TBI) 1983ko abuztuan, izen bereko konpartsak eraginda. Hurrengo udan, aurretiaz izandako esperientzia kontuan hartuta, irratia indartsuagoa abian jarri zuten Bilbo erdian. Poliziak tresneria prezintatu zuen orduan. Hala ere, ekipoak berreskuratu eta berriro emititzeari ekin zioten, baina konpartsaren txosnatik bertatik. Horren ondoren, kalez kaleko kanpaina burutu zuten, udazkenetik aurrera emanaldi erregularrak hasteko. *TBI*ren asmoa Bilbon ari ziren herri-mugimenduekin lan egitea zen. Horregatik, zenbait talderekin harremanetan jarri eta irratsaioak egiteko aukera eman zieten arduradunek:

Bilbon kale mugimendu majoak daude: ekologistak direla, rockeroak, edo feministak, antimilitaristak, gaiak, euskalduntze mugimenduak direla. Guzti horiek ondan jarri, hori da egin nahi duguna. Mugida guzti horiek koordinatzeko, elkartzeko bide izan daiteke. Guk hitzegin dugu jende guzti horrekin, egon gara ezker-sindikalistekin, internazionalistekin, AEKrekin... ez dakit, denekin. Eta oso ondo hartu dute ideia, gogoz. Ordun guk talde bakoitzari egun batzu eta ordu batzu eskaini dizkiogu, eta beraiek montatuko dituzte heuren programak²¹.

Irrati horretan Bilboko talde askok parte hartzen zuten: besteak beste, ekologistek, gay eta lesbianek, antimilitaristek, eta abarrek. Hasieran eguneko sei orduz emititzen zuen arren, 1986an ordutegia zabaldu zuen. Era berean, informazio-arloa indartzeko asmoz, urte horretan Informazio-Zientzien Fakultateko²² ikasleak sartu

21. Azkargorta, A. eta Landa, K. (1984): "Txomin Barullo Irratia edo Bilboko Uhin Setatiak", *Argia*, irailaren 30.

22. Gaur Gizarte- eta Komunikazio-Zientzien Fakultatea deitzen den arren, horixe zen izen zaharra.

ziren albistegietako idazlaritzan. Bazkideen kuoten bidez sostengu finantzarioa zuen arren, oso diru-iturri beharrezkoa zen Aste Nagusian konpartsak jartzen zuen txosna.

Bilboko Santutxu auzoan *Iluna Irratia* hasi zen emititzen 1984ko otsailaren 9an, bertako auzo-elkartearen lokaletatik. Santutxun ez ezik, inguru zabal batean entzun ahal zen seinalea; Otxarkoagan, Txurdinagan, Lemoan, eta Basaurin, besteak beste (Ibidem: 45).

Zirika Irratia Barakaldon sortu zen 1985ean, bertako gazte-talde batek bultzatuta (Peñafiel, 1995: 105). Udalak utzitako lokal batean kokatu zen estudioa eta 50 W-eko potentziaz emititzen zuen FMko 106,5 MHz-etan (Santos Díez, 1999: 45).

Ezkerraldeko beste herri batean, Sestaon, *Karibe Irratiaren* emanaldiak hasi ziren urte berean, ekainean, jaien ospakizunekin batera. *Karibe Kolektiboak* bultzatuta, emisora hori abian jartzeko lehenengo pausoak aurreko urtean, 1984an, hasi ziren. *Karibe Irratia* FMko 102,5 MHz-etan kokatzen zen eta oso potentzia txikia zuenez —30 W—, oso lokala zen bere hedadura-eremua (Ibidem).

Urte bereko urtarrilean hasi zen emititzen *Betekada Irratia* Gernikan, herri bizkaitar horretako Kultur Elkartek bultzatuta. FMko 192,3MHz-etan kokatzen zen eta 50 W-eko potentzia zuen; finantzabide nagusia bazkideek ordaintzen zuten 1000 pezetako kuota zen (Ibidem).

Otxasko Irratia 1985ean hasi zen emititzen Bilboko Otxarkoaga auzoan, hainbat taldek bultzatuta. Besteak beste, *Emakumeen Asanbladak*, *Salhaketak* eta beste komunikabideetan baztertutako taldeek parte hartu zuten haren eraketan eta antolaketan. FMko 105,5 MHz-etan emititzen zuen eta oso eremu lokala zuen (Ibidem).

Arrakala Irratia Lekeitioko irrati askea da, 1985ean sortu zen eta, beste askok bezala, bizipen desberdinak izan eta gero, gaur egun arratsaldero emititzen du FMko 106 MHz-etan; gainerako denboran musika eskaintzen dute, diala okupatzeko²³ asmoz. Horrez gain, web-orria du Interneten: <www.geocities.com/Heartland/Pond/5468/1.htm>. Bizkaiera erabiltzen du, *lekeitiera* zehazki, eta horrek beste proiektuekiko diferentzia ezartzen du; bertakoa izateaz gain, bertako hizkuntzan aritzea, alegia. Ondarroako *Radixu* irratiak ere bizkaiera erabiltzea erabaki zuen, bertako euskalkia erabiltzeak jendeareiko hurbiltasuna indartzen duelakoan. Bermeon, *Itsuki Irratiak* ere hartua zuen bizkaiera erabiltzeko erabakia. Irrati aske gisa sortu zen arren, gaur egun udal-irrati moduan ari da, Udalak utzitako lokaletatik.

Data horretan, 1985ean bertan, Bilboko Uribarri auzoko *Ortzadar Irratiaren* emanaldiak hasi ziren FMko 101,5MHz-etan.

23. Okupak moduan daude dialean.

Hurrengo urtean, 1986an, elektronika-ikasle talde batek *Basurto Irratia* sortu zuen izen bereko auzoan (Peñafiel, 1995: 105). Urte bereko otsailean emititzen hasi zen, 106 MHz-etan. Data horretan, Durangalderako emititzen hasi zen *Aldaba Irratia*, Durangon. Hortik oso gertutik, Elorriotik *Txintxibiri* izeneko irratia emititzen du oraindik ere.

Oraindik martxan jarraitzen duen beste emisora bat Markikano *Eup! Irratia* da. Aurrekoen garaian sortua, urte askotan isilik egon eta gero, 1998an berriro hasi zen emititzen. 2002an, berriz, funtzionamenduan egon arren, berrikuntza teknologikoaren prozesuan murgilduta, noiz emititu zain dago.

Enkarterrietan ere bere irratia propioa bultzatu zuten, *Azur Irratia*, alegia. Bost lagunek bultzatuta, Karrantzatik emititzen hasi zen 1986an (Ibidem: 105).

Santurtziko *Pititako Irratia* 1987an hasi zen emititzen. Beste batzuk bezala, kudeaketa asanblearioan oinarritzen zen, eta *Pititako Kolektiboa* arduratzen zen estazioaren administrazioaz, baita horren inguruan sorturiko jarduera kulturalaz ere. Gorabehera batzuk jazo eta gero, gaur egun martxan jarraitzen du. Halaber, 2002ko hasieratik irratia santurtziarraren irratsaioak Interneten bidez entzun daitezke zuzenean, <www.sindominio.net/pititako> helbidean.



Santurtziko *Pititako Irratiak* jarraitzen du emititzen, dial analogikoan zein Interneten bidez.

Bilboko Iralako auzo-elkarteak bultzatuta, *Irola Irratiak* emititzeari ekin zion 1987an. Emisora horren finantzabide nagusienetarikoa maketen salmenta izan da; hain zuzen ere, lehenengo grabazioa 1993an kaleratu zuten, eta 2000an, bigarrena. Krisialdi bat igaro eta gero, 1998an berregituraketa izan zuten, eta, emisoran parte aktiboa hartzen ez zuten kideak kanporatu eta gero, partaide berriak, gazteak bereziki, sartu ziren. Hortik aurrera, FMko 107,5 MHz-etan kokatzen dira emanaldiak, arratsaldeko 15:00etatik gaueko 01:00etara, asteko zazpi egunez. Web-orria baten bidez bere historia eta filosofia ezagutzera ematen du: <www.we.lc.ehu.es/~jgtorre/ppal.html> helbidean.

Getxoko Algorta auzoan *Bost Axola* izeneko emisora abian jarri zen 1987an. Herriko talde batzuek parte hartzen zuten bertan, hots, *Langabetuen Asanbladak*, *Amnistiaren aldeko Batzordeak*, *Antinuklearrek*, *AEK-k* eta abarrek. Euskaraz emititzea erabaki zuen, eta horrek arazo batzuk ekarri arren, batez ere proiektuaren

inguruan jendea biltzeko orduan, ez zuten etsi; eta inguruko irrati aske euskaldun bakarra izan zen, nahiz eta oso udalerri erdaldunean kokatuta zegoen.

Bilboko Zorrotza auzoko *Zaldiko Maldiko* 1989an hasi zen emititzen. Proiektua, berriz, aurretik sortu zen; esaterako, jaietan tresneria erosteko dirua lortzeko nahian, musika-kontzertua antolatu zuten auzo-elkartearen laguntzaz, baita jaietan txosna bat jarri ere. Hurrengo urratsa lokal bat lortzea izan zen, eta, horretan urte batzuk eman eta gero, 1989an abian jarri zuten. Dialeko 105,8 MHz-etan kokatuta daude, aldaketa batzuk izan eta gero; besteak beste, 1994an emisio-potentzia handitu zuten, 50 W-etara igoz. Auzo-irratia izateko asmoa izan du hasi zenetik; beraz, Zorrotzako taldeek parte hartzen dute emisoraren programazioan, eta ikastetxeetako haurrek eta gazteek ere bai. Era berean, bertako kirol-taldeen jarraipenak pisu handia du programazioan, batez ere asteburuetan.

Araban, gaur egun euskal irrati aske zaharrena den *Hala Bedi Irratia* sortu zen 1983ko abuztuaren 5ean Gasteizen. Ezker mugimenduaren barruan kokatzen zuen bere burua, eta horregatik bere helburu nagusia honako hau zen:

Herri mugimenduen irratia izan nahi dugu, gauzak komunikabide ofizialek esaten dutenaren modu ezberdinez kontatuz. Estatuak bere irratietan ematen duen ikuspegiari bira eman nahi diogu. Gizartea, sistema eta estatua aldatzea da gure azken helburua. Gizarte ekologikoagoa, sexuen arteko berdintasuna eta gutxiengoekiko errespetuaren aldekoa nahi dugu²⁴.

Poliziak 1985ean itxi zuen emisora lehenengo aldiz. Protesta ugari egin ziren itxiera horren aurka; besteak beste, Bilboko *RNE* eta Donostiako *Radio San Sebastián* eta *Loiolako Irratiak* okupatu ziren, adierazpen-askatasunaren aurkakotzat jotzen baitzuten eraso. Berriro ireki eta gero, gehiagotan emititzen jarraitu zuen, baina behin eta berriz ere ixten zuten gobernu-agintariek. Adibidez, irratiares tresneria guztia bahitu zuen poliziak 1988an, Telekomunikazioen Antolakuntzarako Legearen aplikazioaren pean. Beste etenalditxo baten ondoren, 1992an hasi zen berriro emititzen. Berrikuntza teknologikoari ekin eta gero, gaur egun Gasteizen ez ezik ia Araba osoan entzun daiteke, baita Interneten bidez ere.

Teresa Santos Díez irakasleak beste hiru irrati askeren existentzia azaldu du. Irakasle horren esanetan, 1982an *Ganbara Irratia* sortu zuten hamabi ikaslek Amurrión. Era berean, Laudioko *AEK*-k *Pirula Irratia* izeneko emisora sortu zuen «euskararen hedape-tresna» *moduan*, Errioxa Arabarreko Biasterin kokaturik zegoen *Basterra Irratia* bezalaxe. Biak 1985ean sortuak izan ziren (Santos Díez, 1999: 46).

24. Irizar, O. eta Aberasturi, L. (1992): "Miguel Angel Hernández: «Hala-Bedik herri mugimenduen izan nahi du", *Argia*, 1374, 61.

	hala bedi ERRATZA en					PROGRAMAZIOA	
	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA	IGANDA
10:00	SUELTA LA OLLA					BERTSOKO	JUEVES DE MERCADO
11:00						BERBAK KANTU	LA TORRE DE MARFIL
12:00						JUEVES DE MERCADO	HITZA TA EKINTZA
13:00	BAGAZINA					A DESALAMBRAR	SASI GUZTIEN GAINETIK
14:00						HIRU KORTXEAK	EL GUIRIGAY
15:00						EL PINTALABIOS	UNA HORA TARDE
16:00	EL PUPUT AMB ULLERES	HITZA ETA EKINTZA	A LA CALLE	LA VOZ DEL PUEBLO	LA 5ª DIMENSION	MANEXAK	HAPPY HOUR
17:00	SASI GUZTIEN GAINETIK	A DESALAMBRAR	BERTXOKO	KARRIKAREN KANTOIA	HIRU KORTXEA	JAZZTEIZ	KASA KATXAN
18:00	LA ZYBERTRAINERA	EL QUID DE LA CUESTION	LA 5ª DIMENSION	MANEXAK	EL PINTALABIOS	BERBAK KANTU	EL SEXO SENTIDO
19:00	UNA HORA TARDE	LA TORRE DE MARFIL	PAREAK BAI	EL GUIRIGAY	FLASH BASK	LA VOZ DEL PUEBLO	HAPPY HOUR
20:00	MENDIAN GORA MENDIAN BEHERA	UNA HORA TARDE	MENDIAN GORA MENDIAN BEHERA	KASA KATXAN	LA ALCANTARILLA	EL PUPUT AMB ULLERES	
21:00	BAGAZINA						
22:00							
23:00							
00:00							
01:00							
02:00							
03:00							
04:00							
05:00							
06:00						EL SEXO SENTIDO	FLASH BACK
07:00						JAZZTEIZ	LA ALCANTARILLA
08:00						KARRIKAREN KANTOIAN	A LA CALLE
09:00	LA ZYBERTRAINERA	SASI GUZTIEN GAINETIK	JUEVES DE MERCADO	EL QUID DE LA CUESTION	JUEVES DE MERCADO		
10:00							
	ZUZENEAN		ERREPIKAPENA		MUSIKA		

Hala Bediren programazio-parrilla. (Iturria: <www.halabedi.org>).

Esan bezala, Gipuzkoan sortu ziren lehenengo irratia Donostiako *Osina* eta Tolosako *Satorra* izan ziren, eta, ondoren, beste batzuk. Azpeitian *KakaFlash* ize-neko irratia askea martxan jarri zen 1984an²⁵. Urtebete beranduago itxi egin zuen poliziak, baita tresneria bahitu ere.

Oreretako *Zintzilik Irratia* 1984ko abenduan sortu zen. Irratia abian jartzeko dirua eskuratzeko asmoz antolatu ziren ekitaldien alorrean jaialdi bat egin zuten Patxikuko landan. Hasieran, Erdiko kaleko etxe okupatu batean egon ziren, lokalik ez zutelako. 1995ean gaurko egoitzara aldatu ziren, Herrería kalera. Hobekuntza teknikoak egin ondoren, 1993an 30 W-eko potentzia lortu zuten, eta seinalea Oreretan ez ezik bailara osoan hartu ahal da hortik aurrera. 2000. urtean, hamasei saio eskaintzen zituzten astean, gaueko 8etatik 12etara bitartean —astelehenetik ostegunera hiru, eta ostiraletan lau—, euskaraz zein gaztelaniaz —gazteleniaz, gehienak—. Finantzabideari dagokionez, diru-iturririk garrantzitsuena Madalenetako jaietan jartzen duten txosna da, eta pegatinak, pizgailuak eta antzekoak ere saltzen dituzte. Horrez gain, irratiko kideek kuota bat ordaintzen dute.

Elgoibarko *Zazpiki Irratia* ere 1984an sortu zen; abenduan, hain zuzen ere. Irrati horren oinarrietan elgoibartarren eta euskararen alde lan egiteko asmoa jasotzen zen²⁶. Ideologia desberdinetako pertsonak eta taldeek parte hartu dute bertan hasieratik; besteak beste, Gazte Asanbladak, Senideek, Talde Antimilitaristak, eta abarrek.

Irrati horrek arazo asko gainditu behar izan ditu historian zehar. 1990eko otsailean jaso zuen itxeko lehenengo mehatxua. Orduan, Telekomunikazioetako bi teknikari heldu ziren emandegira, eta bost eguneko epean tresneria desmuntatu eta emititzeari utzi behar ziotela agindu zieten. Urte bereko apirilean, ixteko agindua heldu zitzaizen bigarren aldiz; Gobernadore Zibilak sinatuta, gainera. Dena dela, oraindik jarraitzen dute hasierako kokapenean, FMeko 107,6 MHz-etan:

(...) Telekomunikazioko bi funtzionari etorri zitzaizkigun mehatxatuz lau egun genituela emititzeari uzteko. Lau egun horiek pasa eta emititzen jarraitu genuen; ez zen inor agertu. Gerora, Gobernu Zibilaren eskutitz bat heldu zen, emisioa eten ez ezizk, lokala ere utzi behar genuela esanez. Ez genien inolako kasurik egin. Udaletxearen esku beltza somatu genuen, tentsio batean baikeunden haiekin²⁷.

Eibarko *Pottoka Irratia* 1986an uhineratu zen lehenengo aldiz. Hiru urtez emititzen egon eta gero, 1989an gelditu behar izan zuen, beste irratia askok bezalako krisiak jota. 1991n abian jartzen saiatu ziren berriz ere, baina ez zuten lortu.

25. Carmen Peñafiel-en esanetan, 1982an hasi zen Azkoitian, Jakin **105**.

26. Igor Sota, *Zazpiki Irratiko* kideak *Argiari* egindako adierazpenetan: «*Ideia minimo batzuk onartu zituen asanbladak. Besteak beste, adierazpen askatasunaren defentsa eta elgoibartar guztiei, inongo trabarik gabe, nahi dutena adierazteko aukera ematea. Euskarari bultzada bat emateko ahaleginetan gabiltza*», *Argia*, 1993ko apirilaren 4, 63.

27. Doxanbaratz, B. (1999): “Zazpiki Irratia. Saguzarren ganbaratik”, *Argia*, **1714**.

2000n lau lagun bildu ziren irratia-idea berpizteko, eta Donibaneko jaietan saiakera arrakastatsua egin zuten. Euskaraz emititzeko erronkari eusteko asmoz, izena aldatuta —*Matrila Irratia* deitzen da gaur egun—, beste euskal emisorekin batera *Arrosa* egitasmoan sartuta dago.

Bergaran, gaur oraindik emititzen duen *Txapa Irratia* sortu zen 1984an. Hasi-eraren, herriko sindikatu batek utzitako lokalean hasi ziren emititzen, eta 1989an udaletxearekin lortutako akordio baten ondoren, udalaren jabetzapeko lokal batera —gaur egungo egoitzara— pasa zen emisio-zentroa. Hala ere, hura utzi eta Gazte-Lokalera joateko asmoa dute, beste herri-talde batzuekin batera. *Txapa Irrati-kolektiboak* emisora kudeatzen duen arren, beste herri-taldeen partaidetasuna bultzatzen dute, haiek beren irratsaioak egin ditzaten. Guztion artean eztabaidatzen dituzte programazioari eta gestioari dagozkien erabakiak, larunbat goizero egiten diren asanbladetan. Finantzabideari dagokionez, udalak diru-laguntza ematen dien arren, autofinantzatzen saiatzen dira, materialaren salmentaren eta irratia-eren festaren bidez. Jaietako txosna izaten da beste diru-iturri garrantzitsu bat.

Aipaturiko *Osina Irratiaz* gain, Donostian beste bi irradi aske sortu ziren garai horretan: Amarako *Erresistentzia Amara Irratia*, 1985ean, Amara Zaharreko gazte-talde batek bultzatuta; eta *Antiguako Nuklearren aurkako Komiteek* sortutako *Txantxangorri Irratia*, 1986an.

Hernaniko *Molotoff Irratia* 1987ko urtarrilaren 13an uhineratu zen lehenengo aldiz, urte batzuk lehenago hasitako prozesu baten ondorioz. Emisora abian jartzeko orduan udalak egoitza utzi zien arren, lokal horrek buruhauste batzuk eman zizkien irratiko arduradunei: 1988an pipi-plaga batek emankizunak bertan behera uztera behartu zituen, eta 1993an arazoak izan zituzten garai hartako udal agintariekin, eta egoitza uzteko eskatu zieten. Dena dela, gorabehera ugari izan arren, bizirautea lortu zuen, eta, adibidez, kazetariak hezteko tailer bat antolatu zuten. Irratigintzarekin izandako lehenengo harremana bertan bizi izan zuten gazte askok. Bere burua finantzatzeko orduan, hiru diru-iturri izan ditu emisorak:

(...) lehena bazkideek ematen duten laguntza da. Guztira 150 bazkide dira, eta batez beste bakoitzak urtean 12.000 pezeta ingururekin (480 libera) laguntzen du. Bestetik, Hernaniko Udalak 1.000.000 pezetako laguntza ematen du (40.000 libera). Finantzaketaren hirugarren zutabe Molotoff Irratiak Hernaniko San Joan jaietan jartzen duen txosna da²⁸.

Irratiaren sostengua bermatzeko, *Ahotsa Kultur Elkarte*a sortu zuten²⁹ bazkideek.

28. Martin, X. (2001): “Molotoff Irratia. Eguberri arteko programazio berriarekin hasi da Hernaniko irratia. Eskaintza zabalagoa eskura”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2001eko urriaren 18.

29. Doxanbaratz, B. (2000): “Molotoff Irratia. Molotoff estiloa hobetuz”, *Argia*, 2000ko apirilaren 30.

PROGRAMAZIOA
AZAROA 00
OTSAILA 01

99.2 FM **MOLOTOFF** **IRRATIA**

AUTELDIOA AUTWATEA ASTEAKOIA OSTEGUNA OSTERALA LARUNDIA

10.00 **musika** **MAGAZIN MUSIKALA** **erreplikapena** 12.00 **GAZTE PARANCIA**

11.00 **HAMAIKETOFF** 13.00 **musika**

13.00 **musika** 17.00 **AFONIA**

19.00 **HAMAIKETOFF** **erreplikapena** 18.00 **KOSMIK**

21.00 **GATZA** **HARMONY CORRUPTION** **NAHIA DA GAIA** **RASKLAT** **LET'S GO**

22.00 **PRESOEN DEIHADARRA** **MAGAZIN MUSIKALA** **ELE MELE**

23.00 **BEGININIAK KULUNKAN** **IGO TELOIA**

HAMAIKETOFF: Goleko magazin informatiboa. Eguneroko kontakizunak hurbiltzen dizkiguzu / dizkizugu.
MAGAZIN MUSIKALA: Diska berriak, albiseak, elkarrizketak, kontzertuak...zapore, usain eta kolore guztietako musika.

GATZA: Magazina. Hitzez-hitz.
PRESOEN DEIHADARRA: Euskal preso politikoa ardatz.
BEGININIAK KULUNKAN: Ipuin muskatuak, jazz.
HARMONY CORRUPTION: Musika kanerua.

IGO TELOIA: Antzerkiak bial.
NAHIA DA GAIA: Magazina soziokulturala.
RASKLAT: Reggae, ska, afrikar musika. Kontzertuen berriak.
LET'S GO: Punk-Rock & Roll session.

ELE MELE: Gazte magazina.
GAZTE PARANCIA: Gazte magazina.
AFONIA: Punka not dead.
KOSMIK: Reggae, jungle, hip-hop, dub...

BAZKIDE IZAN ZAITEZ !! Gaur egungo irratien jardura zihurtatzeko ezinbestekoa da diru iturriak sendotzea. Bazkideen laguntzari esker posible da une honetan daukagun programazioa. Beraz, Molotoff bazkide izateak irratia erorkizuna bermatzen du.

MOLOTOFF IRRATIA Hernaniko Aholza Elkarteak
 Sagartzuale 1a berriak - 48100 129 Ponto kudeatza
 30 120 Hernani
 Tel: 943 55 43 46 / Fax: 943 33 17 31

MOLOTOFF IRRATIA
 Hernaniko Aholza Elkarteak

Hernaniko Molotoff Irratiaren programazioa.
 (Iturria: <usuarios.lycos.es/sound_selekt/sound_system.htm>).

Hernanitik oso hurbil, Astigarragan, *Irrintzi Irratia* sortu zen 1985ean. Lasarten ere irradi aske bat egon zen, *Tximua Irratia*, alegia. Andoainen ere bere irratia izan zuten, *Leizaur* izenekoak, eta Usurbilen *Patxa Irratia* izenekoak kokatzen dute pertsona batzuek.

Nafarroako lehenengo irrati askea *Sorgina Irratia*/Radio Paraíso izenekoa izan zen. Emisora hori 1979an sortu zen Iruñean *Sorgina Irratia*³⁰ izenarekin, eta bere sorreran ORT-PT alderdiarekin lotuta jaio zen arren, beste taldeengana ireki zen beranduago, eta bakoitzak irratsaio propioa zuen. Euskararen presentzia, ordea, oso murrizta zen. 1980an *Radio Paraíso* izena hartu eta mantendu zuen 1984an itxi artean. Urte horretan egindako inkesten arabera, oso audientzia handia zuen irrati aske horrek: 6000 pertsonak inguru entzuten zuten irrati Iruñean, FMko emisora komertzial entzutenak zituen 30.000 entzuleen bostena, alegia³¹.

Iruñeko Nuklearren aurkako Komiteak eta Ekologistak izeneko taldeak bultzatuta, *Eguzki Irratia* jaio zen 1982ko azaroan³². Gaur egun martxan dauden euskal irrati askeen artean, zaharrena da, itxiera eta konfiskazio asko jasan arren, bizirautea lortu duena. Itxi bezain pronto, prezintoa apurtu eta emititzen jarraitzen zuen *Eguzki Irratiak*, isuna ezartzeko mehatxuari aurre eginez. 1988ko otsailaren 9an, berriz, Espainiako Erregeek Nafarroan egiten zuten bisitaldiaren bigarren egunean, poliziak itxi ez ezik, tresneria hartu eta konfiskatu egin zuen. Monarkia espainiarraren aurka burutzen ari ziren protestak haren uhinetan zuen islari erantzuna izan omen zen ekintza poliziala. Irratiko langile bat ere atxilotu zuen poliziak. Dena dela, berehala hedatu zen irratiaren eta adierazpen-askatasunaren aldeko mugimendua eta, horren ondorioz, hamaika egun beranduago, emititzeari ekin zion *Eguzki Irratiak*, potentzia txikiagoaz bazen ere³³.



Iturria: <www.eguzki.net>.

Beste aldetik, *Zaborra Irratia* sortu zuen Altsasun izen bereko taldeak, *OR Konpon* aldizkariaren osagarri gisa. Nafarroako Sakanako herrietan ziren herri-talde ezberdinek osaturiko asanbladak kudeatzen zuen emisorearen martxa, bakoitzak bere helburu eta aldarrikapen propioak baztertu gabe³⁴. Lehenengo emanaldia 1983ko abenduaren 24an eskaini zuen, eta astebete beranduago ixtera behartu zuten arazo teknikoek. Arazo teknikoak konpondu eta gero, 1984ko Maiatzaren

30. Iturrien arabera, *Sorgina Irratia* edo *Sorgine Irratia* izenekin agertzen da.

31. Rad Lopetegui, C. (1985): "Radios libres en Navarra", *Punto y Hora*, 353, 16.

32. Urtarrilean, Xabier Martinen esanetan. Martín, X: (2001): "Eguzki Irratia. Kontrainformazioa, eguneroko lanaren ardatza", *Euskaldunon Egunkaria*, irailaren 27.

33. Ibidem.

34. «(...) funciona asambleariamente, formada por todos los colectivos o movimientos de la zona de Sakana y más concretamente Alsasua: Gestora pro-Amnistía; Sakanako Ekologiaren Taldea; Altsasuko Feministas; Gau Eskola; Colectivos de Jóvenes, Parados, etc... (...) ha nacido de un grupo heterogéneo de gentes y como altavoz de los mensajes políticos y sociales que quieran dar a conocer» (Ibidem: 17).

Lehenean berriz hasi ziren emititzen, Nafarroako beste irrati askeekin batera. Programazioa moldatzeko orduan, talde bakoitzak bere irratsaio propioa zuen eta edukia ere libreki aukeratzeko zituen. Hala nola, *Txutxupika* taldeak euskarazko eskolak ematen zituen, Altsasuko feministek feminismoari buruzko informazioa eskaintzen zuen, eta *Amnistairen aldeko Batzordeek* amnistiaren aldeko komunikatuak irakurtzen zituzten. Musikari zegoakionez, «rock-a eta subertsioa»³⁵ ziren nagusi. Gaur egun, berriz, beste emisora bat kokatzen da Altsasun, *Garraxi Irratia*, alegia.

Horiez gain, beste irrati aske batzuk sortu ziren: *Eate Irratia*, San Jorge auzoan; *Zarata*, Donibanen; *Artemis*, Errotxapean, Lanbide Hezkuntzako irakasle eta ikasleek sortua; *Zuen*, *Paranoia* eta *Cocodrilo* izenekoak. Horiekin batera, irrati askeren funtzionamendu berbera zuten beste irrati mistoak aritu ziren: *Iris* zelakoa, 1985eko maiatzean sortua eta *Iruña Irratia*; bi irrati horiek publizitatea onartzen zuten, eta beraz, piratak ziratekeen, askeak baino gehiago. Katalogazio horren barruan sartu beharra dago 1984an Tafallan sortutako *Eltxo Irratia* (Albillo eta Sánchez Aranda, 1995: 295-296). Lizarran izandako irrati askearen berri ere badago, *Lizarra Irratia* izenaz emititzen zuena, hain zuzen.³⁶

Zarata, *Eate* eta *Zuen* irratiak, *Eguzkirekin* eta *Radio Paraíso* zelakoarekin batera, *Iruñeko Irrati Libreen Koordinakundea* sortu zuten. Elkarrekin horren helburua, besteak beste, itxieren eta poliziaen konfiskazioen aurrean protesta antolatua burutzea zen, eta elkarlana bultzatzea ere bai.

Baina hori ez zen izan irrati askeek batera aritzeko egin zuten saio bakarra. Hasieratik, elkarrekin egiteko beharra aurreikusi zuten emisora horiek. Beraz, 1985ean Irrati Askeen Lehenengo Topaketa Nazionala burutu zen Zarautzen. Euskal Herriko emisoren ordezkariak parte hartu zuten bertan, eta, besteak beste, irrati askeen koordinadora osatzeko lehenengo pausoak eman ziren. Garai horretan, informazio-agentzia alternatiboa egiteko ideia ere sortu zen irrati askeren inguruan:

Irrati libreak betetzen zuten esparru lokala gaingitu eta maila nazionaleko informazioa ere eskaintzeko, medio urriekin egin beharra dute aurrera, komunikabide ofizialek izkutaten eta manipulatzeko duten informazioaren alde alternatiboa jaso dezagun³⁷.

Horrela, *Tas-Tas* kontrainformazio-agentzia sortu zuten Euban egindako beste asanblada batean. Irratiak berek landutako informazioa eta herri-mugimenduek helarazten zizkieten deialdiak, eta oharrak banatzen zituen agentzia horrek irrati askeen artean, bakoitzak bere aldetik zabal zituzten. Lan egiteko era honako hau zen: irrati askeek herrietan zituzten korrespontsalek Gasteizko *Hala Bedi* irrati bidaltzen zuten albisteak; emisora gasteiztarreko langileek telefonoaren erantzun-

35. Ibidem.

36. *Argiaren* "Gure Mendean" sailean agertzen da horren berri, 1981ean gobernu-agintariak itxi egin zutelako: <www.argia.com/mendea>.

37. Egaña Osa (1990): "Kristian: «Irrati libreak ideologikoki finkatzen goaz»", *Argia*, **1281**, 61.

gailu automatikoan grabatzen zuten, edonork entzun edo grabatu ahal izateko; beraz, beste irratikoek bertara deitzen zuten informazio bila; beraz, grabatuta jasotzen zuten.

Horrez gain, irrati-kate baten moduko auzolana sortu zuten irrati alternati-boek. Horrela, ekitaldi edo gertaera batzuren inguruan emankizun komunak egin ziren; besteak beste, Herrerako Martxa, 1988ko Abenduaren 14ko Greba edo Lemoizko Zentral Nuklearraren aurkako Martxa batera eskaini zituzten hainbat emisorak. Emanaldi bateratu horiek telefonoz egiten ziren gehienetan. Halaber, irrati guztiak sintonizatzeke aukera zegoen, bata bestearen igorle bihurtzen zelarik. Beste batzuetan, berriz, zinta grabatu bidez informazioak trukutzen zituzten, eta gertaera batzuen emankizunak —adibidez, *Eguzki Irratiaren* itxiera Espainiako Erregeen bisitaldian— diferituan eskaintzen ziren beste emisoretan.

Mugimenduaren krisialdia: (1989-1995)

Eusko Jaurlaritzak 1987an irratiak emititzeko baimenak banatu eta, maiztasun-bandak garbitu nahian isunak indartuko zirelakoan, dialean okupatzen zuten lekua aldatzea erabaki zuten irrati askeek, emisora komertzialen seinalea jasotzea ez oztopatzeko, eta, beraz, itxiarazteko aitzakiarik ez eskaintzeko. Dena dela, erasoak izanda ere emititzen jarraitzeko asmoa zutela adierazi zuten prentsaurrean 1989ko martxoan; hala eta guztiz ere, mugimenduaren ahultze-prozesua hasita zegoen ordurako, eta 1990eko hamarkadaren hasieran, gutxi ziren oraindik zirauten irrati askeek.

Carlos Egia eta Javier Bayon-en iritziz, irrati askeen krisialdia ez da isolaturik ulertu behar, baizik eta 1980ko hamarkadaren amaieran eta 1990ekoaren hasieran herri-mugimenduetan suertatu zen krisialdiaren barruan kokatu behar da. Hori nabariagoa izan zen irrati kasuan, emisora funtzionatzen hasi eta jarraitzeko pertsona askoren elkarlanaz gain, finantzabide eta bitarteko indartsuak behar zituztelako, beste ekimenetan baino handiagoak. Beraz, borondatezko lanean oinarritutako beste herri-ekimenetan gertatu zen moduan, nekea eta inplikazio-falta izan ziren arazorik nagusienak; dena dela, arazo horiei teknikan eta antolaketan ziren hutsuneak ere gehitu zitzaizkien (Egia eta Bayon, 1997: 124).

Hernaniko *Molotoff Irratiko* Mikel Arrietaren ustez, krisialdiaren arrazoen artean, parte hartu zutenen nekea dago:

Jendea erre egin dela uste dut. Irrati libreen mugimenduaren hasieran aritutako jendea beste hamaika kontuan sartuta zegoen eta nekatu egin zen agian. Horiek erre ondoren neurri handi batean ez da erreleborik egon. Beste arrazoia ere elkartasun falta izan da, irrati libreen koordinadora osatzeko saioak izan dira baina ezin dira aurrera atera³⁸.

38. Mikel Arrietak *Argiari* egindako adierazpenak. Irazu, A. (1991): “Mikel Arrieta: Irrati libreek jende berriaren premia dute”, *Argia*, maiatzaren 16, 61.

Dena dela, krisialdia zegoen arren, proiektu berriak sortu ziren. Horien artean, finkatuena Bilboko *Tas-Tas Irratikoa* izan zen, 1992an abian jarri zena. Akatsak ez errepikatzeke asmoz, emisora horren sortzaileek krisiaren arrazoiak aztertu zituzten. Haien ustez, aurrekoen akatsik nagusienetakoa profesionaltasunik eza izan zen:

Denbora joan ahala honako ondorio honetara ailegatu zen: lehenagoko irratiek uhinetan egote hutsaz ahalmen handiak zituztela erakutsi zuten, bidea bera desmitifikatzen zutelarik eta bazegoen irratigintzaren mugak eta maneiuak agerian utziz. Hala ere, ez zuten asmatu benetako irratia izaten ezta libreak ere. Irratigintzan ez zuten maila nahikorik lortu, salbuespenak salbu, antolakuntza eta baliabide ezagatik. Irrati libreen eragilerik gehien elkarte soziopolitikoetatik zetorren, eta irratigintzan iharduteko ahalegin handiak eginda ere, irratia jarraipenik izan zezan ez zen funtzionamendurako era berriak sortzerik lortu³⁹.

Hernanin, bertako *Molotoff Irratiak* antolatuta, Euskal Herriko irradi askeen bilera burutu zen 1994ko apirilaren 5ean eta 6an, mugimenduaren nondik norakoak aztertzeke eta berpizteke helburuz. Topaketa horretan Hego Euskal Herriko irradi askok parte hartu zuten: Nafarroako *Eguzki*, *Zarata*, *Euskalerrria* eta *Xorroxinek*; Bizkaiko *Irola-Irala*, *Tas-tas*, *Pititako* eta *Radixuk*; Gipuzkoako *Molotoff*, antolatzaileak, *Arlote*, *Arraio*, *Irrintzi*, *KakaFlash*, *Txapa*, *Zazpiki* eta *Zintzilikek*; eta Arabako *Hala Bedi*⁴⁰.

Geroztik, beste garai batean sartu dira irradi askeak. Alde batetik, antolaketaren inguruan, profesionalagoak direla esan liteke; hau da, borondatezko lanean oianarritzen diren arren, beharrezkotzat jotzen dute formakuntza. Hori dela eta, ikastaroak antolatzen dituzte bertako langileek gutxieneko jakinkizunak ikas ditzaten. Halaber, irradi batzuetan, langileak —liberatuak— kontratatzea aurreikusi izan dute. Urrats hori ematen den bitartean, emisora batzuetan, boluntarioen lanak saria jasotzen ari da; alde batetik, lanari duintasuna ematen diolako delako, eta beste aldetik, pertsonen erantzukizuna bermatzen delako. Horrez gain, finantzabideak ugaritu dira, eta bazkidetzan zein irradian parte hartzen dutenen inplikazio ekonomikoa funtsezkotzat jotzen dute, aurrera joan ahal izateko. Horrela, diru-iturria lortzeaz gain, parte-hartze zuzenagoa lortzen dute. Teknologia berriak ere sartu dira emandegi horietako estudioetan eta, askok, ekipamendua digitalizatzeaz gain, Interneten aurkitu dute beste dial berri bat, muga geografikorik ez duena.

Aldaketa horiek guztiak zirela medio, milurteko berriaren hasieran irradi askeak bizirik daudela esan daiteke; are gehiago, zahar batzuek —garairik okerretan bizirautea lortu zutenek— jarraitzeaz gain, emisora berriak sortu dira Euskal Herrian zehar, baina horien berri hurrengo atal batean eskainiko da.

39. *Tas-Tas Irratiaren* web-orria: <www.tas-tas.com>.

40. Aranburu, G. (1994): “Radios Libres, hacia la revitalización”, *Egin*, 1994ko otsailaren 9.

IRRATI ASKEEN ZERRENDIA:

Lanean ari direnak:

Arlote (Ordizia)
Arrakala (Lekeitio)
Eguzki (Iruñea)
Eup! (Markina)
Eztanda (Itumendi/Sakana)
Garraxi (Altsasu)
Hala Bedi (Gasteiz)
Irola (Bilboko Irala)
Irrintzi (Astigarraga)
KakaFlash (Azkoitia/Azpeitia)
Koska (Getxo)
Matrila (Eibar)
Molotoff (Hernani)
Pititako (Santurtzi)
Radixu (Ondarroa)
Tas-Tas (Bilbo)
Txantrea (Iruñea)
Txantxibiri (Elorrio)
Txapa (Bergara)
Zaldiko Madldiko (Zorrotza)
Zarata (Iruñea)
Zazpiki (Elgoibar)

Desagertu direnak:

<i>Aldaba</i> (Durango)	<i>Lizarra</i> (Lizarra)
<i>Arraio</i> (Zarautz)	<i>Ortzadar</i> (Uribarri)
<i>Azur</i> (Karrantza)	<i>Osina</i> (Donostia)
<i>Basterra</i> (Biasteri)	<i>Otxasko</i> (Otxarkoaga)
<i>Basurto</i> (Bilboko Basurto)	<i>Patxa</i> (Usurbil)
<i>Bellari</i> (Oñati)	<i>Pirula</i> (Laudio)
<i>Betekada</i> (Gernika)	<i>Potoka</i> (Eibar)
<i>Bost Axola</i> (Getxo)	<i>Satorra</i> (Tolosa)
<i>Eate</i> (Sandu Zelai)	<i>Sorgina</i> (Arrasate)
<i>Ekintza</i> (Barañain)	<i>Sorgina</i> (Iruñea)
<i>Eltxo</i> (Tafalla)	<i>Txantxangorri</i> (Antigua)
<i>Erresistentzia</i> (Amara)	<i>Tximua</i> (Lasarte)
<i>Ganbara</i> (Amurrio)	<i>Txomin Barullo</i> (Bilbo)
<i>Gladys</i> (Tutera)	<i>Zaborra</i> (Altsasu)
<i>Goiko Irratia</i> (Tolosa)	<i>Zirika</i> (Barakaldo)
<i>Gramola</i> (San Inazio)	<i>Zuen</i> (Iruña)
<i>Hozka</i> (Legazpia)	
<i>Iluna</i> (Santutxu)	
<i>Itzurun</i> (Zumaia)	
<i>Karibe</i> (Sestao)	
<i>Kontakatilu</i> (Oiartzun)	
<i>Leizaur</i> (Andoain)	

9. Ipar Euskal Herrian, irrati-eredu propioa lantzen

Monopolio publikoa nagusi izan zen estatu frantseseko irratigintzan 1980ko hamarkadaren erdialdera bitartean, eta kate pribatuak —periferikoak izendatuak— estatu-esparrutik kanpo kokatu behar ziren, barruan jartzea debekaturik baitzegoen. *ORTF*k, lehen, eta *Radio France* delakoak, ondoren, oso berandu hartu zuten programazioa deszentralizatzeko erabakia; beraz, 1945az geroztik, eta ia berrogei urtez, ez zen tokiko edo eskualdeko irratarik egon Ipar Euskal Herrian.

Beste aldetik, jazarpen politikotik ihes eginez, Hego Euskal Herriko euskaldun asko heldu ziren Ipar Euskal Herrira 1960-1970eko hamarkadetan. Errefuxiatu horien inguruan sostengu-taldeak eratzeaz gain, mugimendu euskaltzalea indartzen hasi zen iparreko herrialdeetan. Barnealdean euskal ohiturak ondo gordeta ziren arren, euskara oso egoera latzean zegoen; kostaldean, berriz, turismo basatiaren eraginez, euskara eta euskal usadioak folklorera mugatuta zeuden. Beraz, “beste aldetik” heltzen ziren erbesteratuen inguruan euskal kultura suspertu ez ezik, berzko ezaugarriak ezagutarazten hasi ziren. Ondorioz, 1970-1980ko hamarkadetan hainbat adierazpen kultural sortu eta berreskuratu ziren Ipar Euskal Herrian: ikastolak, Seaska, gau-eskolak, Herri Urrats, maskaradak... Horiek guztiek adierazpide berria behar zuten, Hego Euskal Herriko zein frantseseko komunikabideetan oso isla txikia zuten eta.

Halaber, Hego Euskal Herritik alde egin eta “beste aldean” kokatu ziren euskaldunak ezagutzeaz gain, iparreko biztanleekin historian zehar eraikitako zubiak finkatuz joan ziren. Beraz, hegoaldean kokaturiko irratiek kontuan hartu zituzten Ipar Euskal Herrian bizi ziren euskaldunak, eta horiei zuzendutako irratsaioak eskaintzen zituzten. Adibidez, Donostiako *Radio San Sebastián* delakoak *Radio Océan* izeneko saioa eskaintzen zuen 1960ko hamarkadan, Joan Bonis esatariak gidatuta; irratsaio horren hizkuntza frantsesa zen. Beranduago, 1980ko hamarkadan, Soraya Kefri esatariak irratsaio bat eskaintzen zuen egunero eguerdian frantsesez FMko Donostiako *40 Principales* katearen barruan¹.

Baina *SER* kateko irratietatik ez ezik, *Loiola-Donostia Herri Irratiak* ere eskaintzen zuen irratsaio bat mugaz bestaldeko euskaldunei zuzenduta, kasu horretan euskaraz, frantsesez eta gaskoiez². *Radio Adour-Navarre* adierazleaz egunero,

1. Machain, F.: <www.euskalnet.net/fmachain>.

2. *Argia* (1986): “Euskal Irratiak bost urte betetzen dituen iraultza”, *Argiaren urtekaria*, 183.

goizeko 7etan eta arralsaldeko 6etan ordu erdiko irratsaioa eskaini zuen euskal emisorak 1978tik aurrera. Edukiak Baionan grabatu arren, Loiolatik emititzen ziren. Horrela, estatu frantseseko lurraldeetatik emititzea debekatzen zuen legeria saihesten zuten emanaldi horiek, irrati periferikoek erabiltzen zuten trikimailu bera erabiliz. Ziburutik emititu zuen 1978tik aurrera, izaera propioa zuen emisora bihurtuta, baina *RTL (Radio Luxemburg)* izeneko irrati-kateak erosi zuen emandegia 1981ean, eta bere taldean integratu zuen, baina euskarazko saioak bertan behera utzi zituen.

Emanaldi horiekin batera —edo agian horiek eta euskaraz sorturiko emisora askeek bultzatuta—, irrati publikoa euskal biztanleei zuzendutako programazio propioaren beharraz jabetu zen, eta, 1975ean hasitako deszentralizazio-prozesuari jarraipena emanez, *Radio France* delakoak *Radio-France Pays Basque* izeneko emisora sortu zuen Baionan 1985ean, Ipar Euskal Herriari zuzenduta. Programazio elebiduna eskaintzeko asmoz sortu zen arren, praktikan frantsesa izan da nagusi emanaldietan. Dena dela, euskal musika eta kulturari tokia eskaini ohi diote emisora horretan, eta, adibidez, 2002ko hasieran, aurreko berrogei urteko abestiak jasotzen zituen irratsaio berria —*Haizea Gogoan* izenekoa— abian jarri zuten emisora publikoaren arduradunek, Kattalin Totorika gidari zela³.

Radio France delakoaren kate lokalak eta *France Bleu* batu ziren 2000n; horren ondorioz, Ipar Euskal Herriari dagokion emisora publikoak *France Bleu Pays Basque* izena du gaur egun.

Baina, zalantzarik gabe, Ipar Euskal Herriko irratigintza propioa 1980ko hamarkadan abiatu zen, *Gure Irratiaren*, *Xiberoko Botzaren* eta *Irulegiko Irratiaren* —*Euskal Irratien*— eskutik. Emisora horiek eredu propio bat eratu zuten iparreko euskaldunentzako, bertatik bertara eginda, tokiko ezaugarri bereziak, kultura-adierazpenak eta hizkuntza —euskalkiak eta berezko hizkera— kontuan hartuz.

EUSKAL IRRATIAK

Esan bezala, 1970eko eta 1980ko hamarkadetan irrati askeen mugimendua pil-pilean zegoen, Hego Euskal Herrian ez ezik, Europako beste lurraldeetan. Estatu frantsesean ere irrati asko sortu ziren, monopolio publikoaren aurka. Mota askotako emisorak jaio ziren: ekologistak, feministak, unibertsitarioak... baita tokiko edo herriko emisorak ere, Paristik heltzen zen programazio zentralistari aurre egiteko asmoz. Irrati horiek FMn kokatzen ziren, eta ez zuten emititzeko baimenik; hala ere, gizarteak ondo hartu zituen, monopolio estatuala apurtzen zutelako. Beraz, 1981ean Estatuak irrati aske horiek legeztatzeke legea onartu zuen. 1981eko

3. Arbelbide, N. (2001): "France Bleu Pays Basque. Urtarrilaren 7an estreinatuko dute 'Haizea Gogoan' irratsaioa. Iragana eta oraina bat eginaz", *Euskaldunon Egunkaria*, 2001eko abenduaren 26, 45.

azaroaren 9ko legearen arabera, tokiko elkarte-irratiek —hau da, elkarte ez-komertzial batek sorturikoek— emititzeko baimena zuten, honako baldintza hauek betetz gero: alde batetik, emisoreen potentziak 50 W baino txikiagoa izan behar zuen; beste aldetik, elkartekide batek ezin zuen kapital osoaren %25 baino gehiagoren jabe izan, eta, azkenik, ezin zuten publizitate-iragarkirik eskaini.

Loi Fillioud izenaz ezagutzen den legeak, berriz, estatuaren monopolioa bertan behera utzi zuen 1982ko uztaiaren 29an. Horretan oinarrituta, estatu-esparruaren barruan emititzeko baimena lortu ahal zuten irrati pribatuak, eta, beraz, maiztasunak banatzeko prozesuari ekin zioten, *Haute Autorité* izeneko erakundearen ardurapean.

Esan bezala, tokiko irratiek emititzeko baimena zuten arren, ezin zuten publizitaterik sartu programazioetan. Debeku hori, berriz, bertan behera geratu zen 1984an. Hala ere, hortik aurrera sartu ahal zuten publizitatea oso mugatua zen, eta emisora horien hedadura-eremu murriztean kokatzen ziren zerbitzuei zegokien soilik. 1986an beste aldaketa bat gertatu zen legeari zegokionez, irailaren 30ean onartu zen *Loi Liotard* deiturikoa; horren arabera, *CNCL*⁴ izeneko erakundeari zegokion irrati-maiztasunen antolaketa eta kontrola. *CSA*⁵ izenekoak hartu zuen eginkizun hori 1989ko urtarrilaren 12ko *Loi Tasca* izeneko legearen arabera.

CSAk bost kategoriatan edo mailatan banatzen ditu irrati pribatuak: A kategorian tokiko elkarte-irratia sartzen dira; B kategorian barruan tokiko edo herrialdeko irrati-zerbitzu independenteak kokatzen dira, hau da, identifikaturiko programa estatal baten barruan ez daudenak; C kategorian estatuan hedatzeko asmoa duen programa tematikoa eskaintzen duten tokiko edota herrialdeko irrati zerbitzuei dagokie; D kategorian, berriz, estatu-mailako irrati-zerbitzu tematikoak sartzen dira, eta, azkenik, E kategorian, estatuari dagozkion irrati-zerbitzu orokorrak.

Euskal irratia A kategorian barruan sartuta daude, tokiko irratia, elkarte-irratia, emisora kulturalak edota eskolakoak sartzen diren multzoan, alegia. Beraz, 1986ko irailaren 30eko legearen arabera, irrati-adierazpenerako sostengu-fondoetatik (*FSER*tik⁶) diru-laguntzak jasotzen dituzte eta, horregatik, publizitate-kopuru mugatua dute; hain zuzen ere, iragarkiek edukien %20 baino tarte txikiagoa hartu behar dute. Horrez gain, tokiko interesei erantzuten dien programazioak lau orduz iraun behar du gutxienez, eta 6:00etatik 22:00etara bitarteko ordutegian kokatu. Gainerako denboran, kanpotiko programazioaz bete dezakete ordutegia, baina horren hornitzailea A kategoriakoa denean soilik aipa daiteke, zerbitzua doan denean, edota erakunde ez-gubernamentalek edo elkarteek kudeatzen dutenean. Era berean, A kategoriako beste irratiekin batera egindako irratsaioak eskaini ahal dituzte emisora horiek.

4. CNL: *Commission Nationale de la Communication et des Libertés*.

5. CSA: *Conseil Supérieur de l'Audiovisuel*.

6. FSER: *Fonds de Soutien à l'Expression Radiophonique*.

Dena dela, errekonozimendua lortu artean euskal irratiek egindako ibilbidea ez zen erraza izan, ezta ondorengoa ere. Alde batetik, frantsesa nagusi den eremu batean euskaraz aritzeko erabakia hartu zuten, eta, beste aldetik, eredu propio bat aurkitu behar izan zuten; hala ere, hogeitaz balantzea positiboa da eta emisora euskaldunek oso entzuleria fidela lortu dute, herritarren sostengu-kanpainek agerian uzten duten legez.

Gure Irratia

Lapurdin kokaturiko *Gure Irratia* izeneko emisora 1981eko abenduaren 24an hasi zen emititzen, *Entzun Ikus* elkartearen eskutik. Elkarte horren helburua telebista eta irratia sortzea zen. Hain zuen ere, irratia sortzeko, elkarte horren azpitalde bat eratu zen, “*Sortzaileak*” izenekoa. Talde horren kide bakoitzak 500 libera (76 euro) jarri zituen proiektua aurrera eraman ahal izateko. Luzien Etxezaharreta kazetariak, irratia sortzailea zenak, hogeigarren urteurrenean azaldu zuen legez, egoera politikoa egokia zen horrelako egitasmoa aurrera eramateko, François Mitterrand gobernu frantsesera heldu izanak euskararen eta euskaldunen errekonozimendurako aukera berriak zabaltzen zituelakoan⁷. Lehenengo asmoa Ipar Euskal Herri osorako emisora izatearena izan zen arren, legeak eta bitartekariak zirela medio, Lapurdiko emisora bihurtu zen *Gure Irratia*. Gainera, 1982an Behe Nafarroan eta Zuberoan emandegi bana sortu ziren, eskualde horietan ziren premiei erantzuteko.

Hasieran hiru pertsonak lan egiten zuten arren, 1982an oso krisialdi sakona izan eta gero, langile bakar bat geratu zen. Gorka Palaziok dioenaren arabera, gobernuaren diru-laguntzarik eza, batetik, eta urte horretan Baionako udalak sortutako *Radio Bayonne*⁸ eta *Radio Adour Navarre* izeneko emisoren lehia, bestetik, izan ziren krisiaren arrazoiak (Palazio, 2000: 29).

Lehenengo estudioak Milafrangan egon ziren, eta hortik Baionara eraman zituzten, 1985eko urrian; geroztik, hiri horretan jarraitzen du egoitza nagusiak. Beste aldetik, irratia legeztapena 1984an gertatu zen. Urte berean Baigura mendira eraman zuten antena, hedadura-eremua zabaltzeko helburuz.

Gaur egun 24 orduz egunean emititzen duen arren, lehenengo emanaldiak bizpahiru orduz —arratsean soilik— irauten zuten, eta musika-emanaldiak eskaintzen zituzten bereziki; nazioarteko zein euskal musikak osatzen zuten programazioa. Poliki-poliki emanaldiak aste osora eta asteburuetara zabaltzen ziren eta, musika gain, albisteak eskaintzen zituen, helburua euskarazko programazio orokorra

7. Lopez Arana, H. (2001): “Gure Irratia, hogeitazko esperientzia lagun”, *Gara*, [Aitzinako IV eta V], abenduaren 18.

8. Gorka Palaziok, Muguruzaren ikerketa-lana aipatuz, dio *Sud Ouest* egunkariaren, *UDFren* —*Union pour la Démocratie Française*— eta Baionako udalaren sostengua izan zuela irati horrek (Palazio, 2000: 29).

eskaintzea baitzen; izan ere, hasieratik oso argi izan baitzuten euskaraz arituko zirela.

Esan bezala, finantzabideei dagokienez, irrati-adierazpenerako fondoetatik diru-laguntza jaso arren —batez ere enpleguari zuzendutakoak—, oso diru-kopuru txikia da eta, beraz, herritarren laguntza ezinbestekoa du bizirauteko. Irratiaren historian zehar dirua biltzeko kanpainak burutu dituzte ardura-dunek, eta entzuleen erantzuna oso ona izan da beti. Horrez gain, Ipar zein Hego Euskal Herriko hainbat erakundek ere dirua eman diote irratiari. Adibidez, 1999ko abenduan diru-laguntzak jasotzeko deialdia egin zuen *Gure Irratiak* egitasmo berriei aurre egiteko asmoz —lokala erosi, teknologia berria sartu, lankide-kopurua gehitu eta Nafarroa Behereko eta Zuberoako irratiekin harremanak finkatu—; hegoaldeetik hainbat udalek erantzun zuten: Amorotok, Pasaia, Hernanik, Beasainek, Astigarragak, Bermeok, Oiartzunek, Ordiziak, Zugarramurdik, Barrikak, Arrasatek eta Bortziriek, alegia. Baionako udalak ere dirulaguntza eman zion emisorari.



Iturria: <www.gure-irratia.com>.

Gaur egun, Ipar Euskal Herriko dialean oso errotuta dagoen emisora bihurtuta, hamabi pertsonak lan egiten dute, horietako bederatzik ardura osoz. Horrez gain, laurogei bat kolaboratzaile dituzte: 23 korrespontsal, *Gazte Irratia* izeneko irra-tsaioa 26 gazte, kirola, antzertia, zinemari buruzko adituak. Era berean, eskaintzen duten eduki gehienak berek ekoitziak dira —24 orduetatik 16 ordu eta 30 minutu, hain zuzen ere⁹—. Era berean, Interneten web-orria eskaintzen dute, non irratia ezagutzeaz gain —frantsesez dagoen arren, euskaratzeko asmoa dute—, irratsaioak entzun daitezke <www.gure-irratia.com> helbidean.

Hazparnen estudio berri bat ireki zuten 2001ean, Lapurdiko barnealdeko herritara heltzeko asmoz. Arduradunen ustez, tokian tokiko informazioa eskaintzeko Baiona urrutiegi zegoela, egoitza berria zabaltzea erabaki zuten. Hurbiltzeko prozesu horretan emandako azkenengo pausoa Hendaiaiko *Antxeta Irratiaren* sorrera izan da.

9. Informazio hori irratia berak eskaintzen ditu bere web-orrian: <www.gure-irratia.com>.

Antxeta Irratia, sortu berria

Baionako *Gure Irratia* kudeatzen duen elkarteak berak bultzatu du *Antxeta Irratiaren* sorrera. Proiektua 2000an jarri zuten abian «*Paristik Entzulearen Kalitatea Hobetzeko izeneko laguntza*»¹⁰ jaso eta gero, Txingudi Badian bizi diren euskaldunei zuzenduta dago. Horregatik, mugaren bi aldean dauden herrietara heltzeko asmoa gauzatzeko, bi elkarte arduratuko dira emisoraren kudeaketaz: *Pausu* izeneko Irunen, eta *Entzun-Ikus* —*Gure Irratia* kudeatzen duen bera— Hendaian.

FMko 90,5 MHz-etan kokatuta, «Hendaia, Irun, Hondarribia eta Biriatu herriek eta Urruñako Pausua auzoak osatzen duten “eskualde naturalera”»¹¹ iristen da bere seinalea, bertan bizi diren euskaldunei zuzendua. Hain zuzen ere, emisora berri horren helburu nagusia, Txingudi inguruan bizi direnek eskualde bat osatzen duten kontzientzia hartzen laguntzeaz gain, bertako informazioa eta errealitatearen isla eskaintzea da, eta, bide batez, euskararen normalizazioaren alde lan egitea.

(...) eskualde honetan hiru euskalki baidaude, hiru egoera ezberdinetan gainera: Irun eta Hondarribian euskarak ofizialtasuna du, Pausuan eta Biriatuan, ordea ez. Hendaian, berriz, egoera bitxia dago, Patzuergoaren bidez euskarak ofizialtasuna badu ere, frantziar Estatuari dagokionez ez da horrela gertatzen¹².

Bi pertsonak lan egiten dute momentuz estudioetan, baina korrespontsalen sarea hedatu dute herri guztietan, herri guztietako informazioa eskaini ahal izateko helburuz.

Irulegiko Irratia

Irulegiko Irratia 1982ko otsailean sortu zen Nafarroa Behererako Irulegi herrian, laguntzaile batek utzitako etxe batean. Beranduago, Donibane Garazira eramán zituzten estudioak, alokaturiko etxe batera. 2001ean egoitza finkoa erostea lortu zuten.

Finantzabiderik garrantzitsuena herri-sostengua da. Horrez gain, irрати-adiereazpenerako fondoetatik dirulaguntza jasotzen duen arren, laguntza hori oso murrizta da. Beste emisorek bezala, dirua biltzeko kanpainari ekiten diote urtero, eta entzuleen erantzuna oso positibotzat jo izan dute beti; adibidez, 2001ean, egoitza berria erosteko dirua behar zutela eta, dirua biltzeko kanpainari ekin zioten arduradunek; *Oihartzuna* elkartekoek, alegia.

10. Agus Hernan *Gure Irratiko* zuzendariak *Euskaldunon Egunkariari* egindako adierazpenetan. Urkizu, U. (2001): “Antxeta Irratia. Abenduaren 20an inauguratuko dute Hendaia zentroan emisor berria. Euskarazko Irrati bat Txingudin”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2001eko abenduaren 2, 57.

11. Ibidem.

12. Agus Hernanek *Garari* egindako adierazpenetan. Sorzabal, A. (2002): “Hendaia, Irun, Hondarribia, Pausua eta Biriatu hizpide, Antxeta Irratian”, *Gara*, otsailaren 16, 29.

Etorkizunari begira, Donapaleun beste estudio berri bat sortzea da erronketako bat. Luxi Oxandabarats zuzendariak *Euskaldunon Egunkariari* azaldu zion moduan, «Amikuze nolazpait baztertua da, eta indarrak egin beharko ditugu bertako biztanleak hurbiltzeko. Euskararen kinka larria ikusiz, eskualde horretan indar hori beharrezkoa izanen da»¹³.

Xiberoko Botza

Xiberoko Botza 1982an sortu zen, horretarako eratu zen *Uhaitza* izeneko elkartearen bidez eta 1981eko azaroaren 9ko legean oinarrituta. Ideia, berriz, 1978an sortu zen, eta horrela agertu zen Zuberoako udalen eta administrazio frantsesaren arteko *Contrat de Pays* izeneko itunean (Palazio, 2000: 30). Lehenengo emanaldia 1982ko uztailan egin zen Irabarneko jauregitik; ondoren, estudioak Maulera eramane ziren 1986an¹⁴. Emisorearen bultzatzaileen helburua Zuberoan euskaraz —zubereraz, zehazki— emititzeko irratia sortzea zen. Eduki batzuk frantsesez sartu dituen arren, ez dute garrantzi handia programazioan eta, batez ere, euskara ez dakitenekin elkarriketek edo laguntzaileen parte-hartzeek osatzen dute erdarari dagokion tarte.



Allende Etcharten esanetan, hasieran emisora aske moduan hasi zen emititzen, sektore ezkertiar eta euskaltzaleak bultzatuta. 1986an izandako banaketaren ondorioz, sektore batek *Mendililia Irratia* sortu zuen, eta, «ikastola berrik, AEKK, CGT sindikatuak eta beste hainbat borroka eramaten duten taldeek Xiberoko Botza dute hedabide garrantzitsuen»¹⁵.

Xiberoko Botzak baditu bazkideak, eta horrek bultzatuta dirua biltzeko kanpainak antolatzen ditu. Zuberoan ez ezik Euskal Herri osoan. Horrelako bat, 2000ren hasieran burutu zuen. Ondorioz, 2001eko maiatzaren 14an egoitza eta tresneria berria inauguratzeko aukera izan zuten. Besteak beste, nahasketa-mahai berriak eta tresneria digitala erosi zituzten lortutako diruarekin¹⁶. Orotara, 600.000 libera (91.469 euro) lortu zituzten kanpaina hari esker.

13. Fourcade, L. (2002): “Irulegiko Irratia. Irratiko laguntzaileek lanari ekin diote estudio berriak konpontzeko. 20 urte eta egoitza berria!”, *Euskaldunon Egunkaria*, 2002ko urtarrilaren 22.

14. Etxchart, A. (2000): “Xiberoko Botza Orain”, *Euskonews & Media*, **40**, <<http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0040zbk/media4001eu.html>>.

15. Ibidem.

16. “*Xiberoak Eraik Beza Botza*” leloaren oihartzunak irrati-uhinen mugak gainditu zituen. Besteak beste, Lezon, Lesakan, Urruñan, Donostian, Bilbon, Lekeition, Andoainen, Orion, Muxikan, Markinan, Berangon, Amaiurren eta Izarran ibili ziren Maulen kokatuta dagoen irratiko bultzatzaileak. Denera, berrehun eta berrogeita hamar artistek hartu zuten parte antolatutako ekintzetan. Dantzariak, kantariak, musikariak, antzezleak, guztiak musu-truk aritu ziren emisorearen alde. Aipatzekoa da ekitaldi horien antolatze-lanetan *Irati* kulturguneak egin zuen lana.

Euskal Irratiak, hirurak bat

Gure Irratia bultzatu zutenen asmoa Ipar Euskal Herri osorako irratia sortzea zen; proiektu hori, ordea, bidean geratu zen. Dena dela, aipatu den moduan, beste bi emisorak —*Xiberoko Botzak* eta *Irulegiko Irratiak*— bete zuten hutsunea Zuberoan eta Behe Nafarroan. Beste aldetik, *Radio Pays-Basque* izeneko emandegi publikoak ez zuen inoiz euskararen aldeko apustu sendoa egin, kontrako zurrumurruak egon ziren arren. Hego Euskal Herritik emititzen zuen *Euskadi Irratiak* Euskal Herri osora hedatzeko asmoa aldarrikatu zuen arren, iparreko eskualdeak baztertzen zituen praktikan. Beraz, Ipar Euskal Herriko euskal irratiek lan bateratua egiteko aukera hasieratik aurreikusi zuten, bakoitzaren tokikotasuna gainditu ahal izateko —eta beraz, eskualde izatearen kontzientzia sendotzeko—, norberaren izaerari eta esparruari uko egin gabe.

Beraz, elkarrekin irratsaioak egiteaz gain, bakoitzaren saioak trukatzeko ere hasi ziren, Hego Euskal Herrian egiten zuten irratia askeen erara. 1992an, irratsaio solte batzuk batera egitetik albistegi bateartua egitera pasatu ziren. Horretarako, irratia txandaka arduratzen ziren irratsaioaren ekoizpenaz, albistearen sorburuaren arabera¹⁷. Batera egindako irratsaio horiek, alde batetik emisoren arteko lankidetzak bultzatzea zuten helburu, baina, aldi berean, Ipar Euskal Herriaren ikuspegi orokorra eskaintzea lortzen zuten.

Hain zuzen ere, hiru euskal irratia lotzeko sistema digitala erabili zuten; horri esker, emisora batean egindako grabazio bat berehala eskuratu ahal zuten beste bietan, telefono-konexioan oinarritutako sarearen bidez. Adibidez, era horretan, batean egindako elkarrizketak batetik bestera bidali, eta irratia-ekoizpen batzuk txandaka egin ahal dituzte. Horrez gain, hiru emisoren artean inon argitaratuak izan diren herri-kantuak ere gordeta dituzte disko gogorrean, hirurek erabil dezaten. Hamabost urtez DATen eta beste euskarrietan grabaturiko abestiak biltzen dira horretan, eta hirurak eskuragai daude.

Lankidetzak hori egitura finko batean gauzatu zen 1996an, eta, hortik aurrera, norberak bere izena galdu ez duen arren, *Euskal Irratiak* adierazleak batzen ditu hirurak. *Euskal Irratiak* Ipar Euskal Herriko herrialdeetako informazioa eskaintzen du, eta irratsaio bateratu batzuk ere bai. Horrez gain, hainbat ekitaldi antolatzen dituzte guztiak batera, hala nola Arrosan urtero eskaintzen den kontzertua edota Herri Urrats izeneko jaiak. Milurteko berriarekin batera, Hego Euskal Herriko

17. Mattin Larzabal *Gure Irratiko* lankideak *Argiari* egindako adierazpenean: «*Gure Irratia, Irulegiko Irratia* eta *Zuberoko Boza* duela hogeit hamar egun bildu ginen eta goizetan berri saio bat elkarrekin ematen hasi gara, gaiak txandakatu eta datorren lekuaren arabera bertako irratia ematen du albistea. Hau Iparraldeko ohituran sartu den zerbait da. Jende asko iratzartzen da berri saio hau entzuten, Iparraldearen ikuspegi orokor batekin beraz. Hau alde batetik, baina beste gauza asko ere elkarrekin egiten ditugu, mahainguru, pilota partiduen komentarioa eta abar. Saio mordoa egiten ditugu elkarrekin». Yarza, A. (1992): «Mattin Larzabal: «Beti borrokan gabiltza, baina negarrik gabe», *Argia*, 1376, 69.

irratiekin egitasmo berean sartu dira —*Arrosa Ekoizpen Zentrua* izenekoak—, zeinean hogeita hamar euskal irratik parte hartzen duten. Gainera, Seaskako ikastolen aldeko jaiaren berri zuzena ematen dute maiatzaren bigarren igandean, Ipar Euskal Herri osora ez ezik, Hego Euskal Herrira era hedatuz. Hasieran Nafarroako euskal irratiekin zuten lankidetzaren bidez egiten zuten arren, gaur egun, berriz, Arrosan dauden emisoren artean lotzen dute emanaldia; hain zuzen ere, 2002ko Herri Urratsetik zuzeneko saioa eskaini da Euskal Herriko hogeita hamar irratietan.

Beste aldetik, irrati aske frantsesekin ere lankidetza batzuk izan dituzte. Esaterako, Akitaniako irrati askeak Libourne-n bildu ziren 1999an. Bost departamendu hartzen dituen Akitaniako eskualdean A mailako berreogita hamaika emisora daude, horietako zortzi Ipar Euskal Herrian kokaturik daudela. Aipaturiko *Xiberoko Botza*, *Irulegiko Irratia* eta *Gure Irratiaz* gain, honako irrati aske hauek daude: Zuberoko Maulen *Mendi Lilia* —musika eta animazioa eskaintzen duena, eta *Xiberoko Botzako* banaketa batetik sortua—, Nafarroa Behereko Donapaleuko *Radio Star* —musikala—, Arangoitzeko *Bonne Nouvelle* —protestantea—, Uztaritzeko *Lapurdi Irratia* —katolikoa—, eta Hazparneko *Radio Bonne Humeur* —musika eta animazioa—. *FARDL*¹⁸ izeneko Irrati Libreen Akitaniako Federazioak biltzar nagusia ospatu zuen 2000ko otsailaren 27an. Bilera horretan Interneten sare bat osatzeko egitasmoa aurkeztu zuten. Internet-sare horren bidez, Akitaniako eta Charent-eko irrati askeen arteko sare informatiboa sortuko litzateke; hau da, eskualde batek beste eskualdeko informazio zehatza izan ahalko zuen. Era berean, egunerokotasunaren informazioa helarazteaz gain, sare horrek auzi juridikoetan eta beste motatako gaitan informazioa edo laguntzak eskuratzeko berriak edo informazioak jasotzeko lagunduko luke. Sare hori Akitaniako irrati askeek elkarri laguntzera mugatua bazegoen ere hasieran, helburua egitasmo hori Europan hedatzea zen.

18. *FARDL* izeneko federazio horretan 45 irrati aske daude sartuta, mota guztietakoak eta bakoitzak bere ezaugarri propioak gordez.

10. Nafarroan, euskal irratigintza legez kanpo

Euskara emisora batzuetan tanta moduan agertu zen arren, Ipar Euskal Herrian bezalaxe, 1980ko hamarkadan sortu ziren lehenengo euskal irratia nafarrak: *Xorroxin Irratia* Baztanen, eta *Euskalerrria Irratia* Iruñerrian. Biak jende nafarrak eginak ziren, eta Nafarroako bizitzan sustraituta bertako berezitasunak kontuan hartua, euskararen eta euskal kulturaren egoerari zegokionez, batik bat. Administrazioak, hizkuntza-zonaldeetan zatituta, Euskararen Legeak mugatuta eta Euskal Autonomia Erkidegotik zetorren “okupazio kulturalaren” aurka, egoera ez zen egokiena euskarazko proiektuak aurrera eramateko. Hala eta guztiz ere, euskaldun nafarrak beren komunikabideak sortu eta bultzatzeko prest agertu ziren, eta oraindik egiten ari diren ibilbideari ekin zioten, bidean laguntzak baino oztopo gehiago aurkitu izan dituzten arren.

Xorroxin eta Euskalerrria irratia, aitzindari

Nafarroako lehenengo euskal irratia, Baztango *Xorroxin Irratia* izan zen. 1981ean jaio zen Erratzun irratia aske moduan. Bertako lagun batzuek bosna mila pezeta (30 euro inguru) jarri zituzten lehenengo tresneria erosteko. Erratzutik Iru-retako etxe partikular batera eraman zuten tresneria beranduago, eta, bertan zazpi urte eman eta gero, Elizondora eraman zuten estudioa. Baztango udalerrri horretan kokatzearekin batera, emisoraren profesionalizatzea lortu zen, 1990eko hamarkadaren hasieran¹.

Nafarroako Gobernuaren irratia-maiztasunen lehenengo lehiaketan bazterturik izan eta gero, bigarrenean lizentzia bat lortu zuen *Xorroxin Irratia* Lesakan. Horrek aldaketa batzuk ekarri zituen emandegira 1999an. Baimena eskuratu berri zutela, egoitza inauguratu zuten Elizondon, eta horrekin batera Lesakan estudio berri bat irekitzeko beharra sortu zen, lizentziaren baldintzek behartuta. Bi egoitza horietatik Baztan, Malerreka, Bertizarana eta Bortzietarako berrogei bat herritara heltzen da emisoraren seinalea eta eragina.

Hastapenetako laguntzaileen eta boluntarioen lana baliatzetik, hamar langilek osaturiko plantila izatera heldu da *Xorroxin Irratia*. Hain zuzen ere, bost esatarik,

1. Apaolaza, E., eta Irazu, A. (1991): “Joseba Igarabide: «Irrati profesionala librean izpirituarekin», *Argia*, **1324**, 69.

hiru teknikok, hainbat idazkarik eta publizistak egunero eta egunean 24 orduz emititzea lortu dute.

Profesionaltasunaren eta legeztapenaren helburuak beteta ere, hasierako asmoei eusten jarraitzen diete *Xorroxin Irratiak*ok:

Eskualdeari zerbitzu sozial bat gehiago eskaintzea, funtsezko zerbitzua gainera, eremuaren ezaugarriak aintzat hartuz. Informazioa bide, heziketa osagarri eta kultur sustatzaile izan da bere abiapuntu eta ardatz. Horretaz gainera, erakunde eta talde ezberdinen eguneroko lanaren lagungarri bilakatu da irratia, hala nola: erakunde ofizial, kultur eta kirol zentru, ikasketa zentru eta abar².

Batez ere hasieran, entzuleria gaztea izan zuten, baina geroago publiko hel-duari iristea lortu zuten; gaur egun, ordutegiaren arabera, mota desberdineko entzuleak bereizten dira:

(...) goizean goiz, nekazariak izan ohi dira irratiko entzuleak; eguerdian berriz etxekoandreak. Hortik aitzin, gazte zein helduek entzuten dute. Halaber, aipa dezagun Xorroxingo entzuleen pentsamoldea ere anitza dela. Izan ere, inguruko jende gehiena euskaldun petoa izan arren, UPNri botoa ematen dion euskaldun ugari dago, nekazariak gehienak³.



Xorroxin Irratiaren logotipoa.

Euskalerria Irratiaren sorreran *Euskadi Irratiaren* seinalea Iruñerrira eramateko asmoa egon zen. Hain zuzen ere, Iruñeko *Euskalerria Irratia Elkartearen* lehenengo helburua horixe izan zen, EAEn jaioberria zen eta euskal irratia nazionala izateko asmoa zuen emisora Nafarroan entzun ahal izatea, alegia. Horregatik, Iruñeko euskaltzaleen talde bat bildu zen 1983an, aipaturiko helburua zutela; 1984an elkarte moduan osatu zuten *Euskalerria Irratia Elkarte*a, kide bakoitzak ehun mila pezeta inguru (sei ehun bat euro) jarri zituzten abian jartzeko. Beranduago, irratia kudeatzeko, *Iruñeko Komunikabideak SA* izeneko elkarte sortu zuten. Aurrera jarraitu ahal izateko, oso beharrezkotzat jotzen zuten bazkidetza, eta hori izan da gerora finantzabiderik garrantzitsuena, ia mila bazkidek urtero beren sostengu ekonomikoa eskaini ohi baitiote urtero emisorari. Horrez gain, Iruñerriko euskaldunen atxikimendua oso nabaria izan da sortu zen unetik beretik, eta beti parte hartu dute irratia antolaturiko ekitaldietan.

2. Altzuri, N. (1999): "Xorroxin Irratia solas aitzaki", *EuskoNews & Media*, **53**, <<http://suse00.su.ehu.es/euskoNews/0053zBK/gaia5304eu.html>>.

3. Doxanbaratz, B. (1999): "Xorroxin Irratia. Estudio berriaren xarma", *Argia*, **1704**.

Presidentziako kontseilari nafarraren behin-behineko baimena lortu eta gero, *Euskalerria Irratia* emititzen hasi zen 1988ko azaroren 7an, FMko 91,4 MHz-etan. Tokiko programazioa eskaintzen zuen ordubetez —arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara—, gainerako denboran *Euskadi Irratiaren* seinalea eskaintzen zuen. Beranduago, Iruñean eta Nafarroa osoan gertatzen ziren albisteei eskaintako tartea zabaltzeko ahal zutela konturatu ziren bultzatzaileek eta, ondorioz, bertan egindako irratsaioak eskaintzen hasi ziren 1990ean: «(...) Gure herrialdeko albisteak emana betetzen dugu ordu erdi, gero hamarretan ordubeteko magazinea eta eguerdian, ordubata t'erdietan beste informatibo bat»⁴.

Mikel Bujanda kazetariak zuzendu du emisora hasieratik, eta poliki-poliki langile-plantila profesionala osatuz joan dira. Nafarroako Gobernuak emititzeko lizentzia ukatu diola eta, legetik kanpo emitzera behartu du irratia, baina arduraduen asmoa profesionala izatea izan da —eta ez aske edo pirata moduan aritzea—, Enrike Díez de Ulzurrun irratiko kazetariak *Argiari* azaldu zion legez: «Dena den irratia profesionala da, eta lege barruan jokatu nahi izan dugu hasiera batetik. Lizentzia ezak baldintzatu egin gaitu»⁵. Esatariak zioen moduan, legetik kanpo aritzeak irratia egoera normalizatzeko oztopoak ezarri ditu, batez ere publizitatea erakartzeko eta inbertsioak egiteko orduan. Dena den, aurrera jo, eta oso entzuleria fidela lortu du; adibidez, arratsaldean emititzen duen *Metropoli forala* izeneko magazinak bederatzi mila entzule biltzen ditu egunero.

Hasieratik zituzten helburuak berak dituzte gaur egun irratia bultzatzaileek: «Iruñerriko euskaldunen komunikazio tresna»⁶ izatea, alegia. Mikel Bujandak dioenez,

(...) bada hemen multzo bat euskalduna; kolektibo bat, eta komunikate⁷ horren zerbitzuko komunikabide⁷ izan nahi du gure gailu honek. Elkarren arteko harremana bideratuz, eguneroko bizimoduaren berri emanez, gizarteak sortzen dituen mezuak gizarteari berari iritsarazik. Irrati lokala izanik, etxeko eta etxe ondoko gertaerak, berrikuntzak, kezkak eta pozak, ekimen eta proposamenduak plazaratzeko. Mintzalekua, plaza. Horretan ari gara⁸.

Estudioak egokitu eta teknologia berrietara moldatzea izan zen milurteko berriaren atarian zuten erronkarik garrantzitsuenak. 2001ean estudioak digitalizatu zituzten, Udalbiltzak emandako 37.563 euroko laguntzari esker. Alde batetik, estudio guztietan ordenagailuak jarri zituzten ekoizpen- eta errealizazio-sailean euskari moduan erabiltzeko eta, beste aldetik, ZISD⁹ konexioaren bidez kanpoko erre-

4. Apaolaza, E. (1991): «Enrike Díez de Ulzurrun: «Lizentzi faltak esku loturik gauzka»», *Argia*, 1343, 61.

5. Ibidem.

6. Bujanda, M. (2000): «Euskalerria Irratia: 13 urte paperik gabe», *Euskaldunon Egunkaria*, iritzia, azaroaren 7.

7. Kurtsibaz jartorrizko testuan.

8. Ibidem.

9. Zerbitzu Integratuen Sare Digitala.

transmisioak hobetu dituzte. Hobekuntza horiek guztiak entzuleek nabaritutako zituztelakoan, lizentziaren auzia konpontzea da lortu beharreko hurrengo urrats nagusia.

Euskararen bazterketa maiztasun-banaketetan

Nafarroako *Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari* buruzko 13/1982 Lege Organikoan eta Espainiar Estatuko *Plan Técnico Nacional* delakoan ezartzen zenez, Nafarroko Gobernuari zegokion irradi-maiztasunak banatzeko ahalmena, foru-lurraldean. Ondorioz, 1990eko otsailean FMko maiztasun-banaketen lehenengo lehiaketara deitu zuen Foru-Gobernuak¹⁰. Deialdi horren arabera, zazpi emisio-lizentzia banatu behar zituen gobernuak: bana Elizondo, Altsasu, Tuter, Tafalla eta Peralta herrietan, eta bi Iruñean. Ehun eskaera baino gehiago aurkeztu ziren arren, epaia honakoa izan zen:

- *Información por Ondas S.A. (Inposa)* izeneko enpresak maiztasun bana eskuratu zuen Elizondon, Altsasun eta Tafallan. Enpresa horren %99aren jabea *Diario de Navarra* izeneko egunkaria zen.
- Tafallako maiztasuna *SER* irradi-kateari egokitu zitzaion.
- Peraltako maiztasuna, berriz, *COPE* katearen eskuetan geratu zen.
- Iruñeko maiztasunak, garrantzitsuenak, Blas Herrero enpresarioaren *Radio Blanca* zelakoari eta *Cadena Ibérica* zelako katearen barruko *Compañía Navarra de Radiodifusión* izeneko enpresari eman zizkien gobernu nafarrak. Azken enpresaren jabeak *Miramar* taldea, *Heraldo de Aragón* kazeta eta *Unión Ibérica de Radio* delakoa ziren.

Xorroxin Irratia eta *Euskalerria Irratia* emisora euskaldunek maiztasun bana eskatu zuten, Elizondon eta Iruñean, hurrenez hurren. Ez bata, ez besteak ez zuten emititzeko baimenik lortu, euskaraz ari ziren irradi nafar bakarrak ziren arren. Epai horren aurkako protestak ugaritu ziren Nafarroan zehar, euskaldunak irratiarik gabe uzten zituztelako, askoz gehiago *RTVN*¹¹ zelakoa sortzeko egitasmoa bertan behera zegoenean. Alde batetik, alderdi politikoek —*HB, EA, EE, EAJ* eta *Batzarrek*—, euskal erakundeek —*AEK-k, Euskaltzaindiak, EHEk, Nafarroako Ikastolen Elkarteak, IKAk* eta *Eusko Ikaskuntzak*—, eta udal batzuek —*Aranok, Aresok, Goizuetak* eta *Leitzak*, esaterako— euskarazko emisoreen bazterketa salatu zuten. Horregatik, 1990eko abenduaren 15ean manifestazioa antolatu zuten, bazterketa horren aurka ez ezik, *Ley del Vascuence* delakoaren kontra, eta “*Euskal Unibertsitatea euskaraz*” aldarrikapenaren alde ere bai.

Nafarroako Gobernuaren banaketaren aurkako protesta horiek ugaritu ziren, lizentzien salerosketa hasi baitzen. Hain zuzen ere, *Radio Blanca* izeneko enpresak

10. BON (1990): “1990ko Otsailaren 15eko Foru-dekretua”, martxoaren 4.

11. Radio TeleVisión de Navarra.

50 lizentzia eskuratu zituen estatu espainiarrean zehar, eta bat ere ez zuen erabili emisorarik abian jartzeko. Iruñean lortutako maitzasuna *Onda Cero* katea kudeatzen duen *Unipres* enpresari transferitu zion, gobernuaren baimenaz¹². Erabakiaren aurka azaldu ziren oposizioko hainbat alderdi politiko¹³, eta horiek esandakoaren arabera, *Unipres* delakoa leihaketan aurkeztu zen arren, ez zuen, ordea, lizentziarik eskuratu, eta, beraz, ez omen zen bidezkoa erosita lortu ahal izatea. *Compañía de Navarra* zelakoak, berriz, *Top 40* kateari utzi zion bere maitzasuna. Tafallako lizentzia, berriz, *Antena 3* irradi-kateak kudeatzen zuen *Radio 80* izenekoari transferitu zion *Inponsak*, 1997an.

Beste aldetik, *Iruñeko Komunikabidea SA* enpresak gobernu nafarraren erabakiaren aurkako helegitea aurkeztu zuen Nafarroako Auzitegi Gorenaren aurrean, 1990eko abenduaren 17an. Auzitegiak, berriz, ia lau urte beranduago erantzun zion, helegitea errefusatzuz, epaitegiaren ustez euskarazko irratia «bartzertzailea» izan zitekeelako¹⁴. Era berean, Iruñerrian berezko euskaldunak —hau da, jaiotzez euskaldunak— oso gutxi zirela argudiatu zuen auzitegiak. Azken argudio hori, berriz, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia erakunde zientifikoek gezurtatu zuten, Iruñean bizi ziren 35.000 euskaldunei burla egitea zela salatuz¹⁵. Bi entitate kulturalekin batera, beste hainbat erakunde agertu ziren epaiaren aurka; hala nola *Euskal Herrian Euskaraz*, *EAJ*, *EA*, *Ezker Batua*, *Herri Batasuna*, *Batzarre* eta *Alderdi Karlista* alderdi politikoak eta Nafarroako hainbat komunikabidetan lan egiten zuten ehun bat kazetari eta idazle ere bai¹⁶.

Erabaki horren aurka, kasazioko helegitea aurkeztu zuen *Euskalerrria Irratiak* Espainiako Auzitegi Gorenaren aurrean. Auzitegi horrek ere euskal irratiauren aurkako epaia argitartu zuen ia hamabi urte beranduago, 1990eko irradi-banaketaren

12. 1992ko urtarrilaren 12an. Gobernuari otsailaren 21ean azaldu zion.

13. F. R. (1992): "IU, HB y EA piden que se revoque la licencia de Radio Blanca de Nafarroa", *Egin*, martxoaren 26, 48.

14. *Diario de Noticias* delakoak jaso zuen epaileak emandako argudioa: «*De ahí que una programación en euskara pudiera considerarse perjudicial para el desarrollo cultural general y de la generalidad de las personas*». «*Una radio sólo en euskera en Pamplona sería «discriminatoria»*», *Diario de Noticias*, 1994ko abenduaren 15, 26.

15. Ozkoidi, A. (1995): "Euskaltzaindia y Eusko Ikaskuntza, contra una sentencia «preñada de prejuicios ideológicos», *Deia*, 6.

Efe (1995): "Eusko Ikaskuntza y Euskaltzaindia protestan ante la cúpula de la judicatura", *Diario de Noticias*.

Satrustegi, T. (1995): Euskalerrria Irratiaren aurkako epaia arbuiaut dute Euskaltzaindiak eta Eik", *Euskaldunon Egunkaria*, urtarrilaren 14, 10.

16. López, M. (1995): "Profesionales de la información piden mayor presencia del euskara en los medios", *Egin*, 21.

Satrustegi, T. (1995): "Euskalerrria Irratiaren alde agertu dira Nafarroako ehun bat kazetari", *Euskaldunon Egunkaria*.

Ezker, A. (1995): "Periodistas navarros apoyan en un manifiesto a Euskalerrria Irratia", *Diario de Noticias*, urtarrilaren 18.

auziari amaiera emanez¹⁷, Konstituzio-Auzitegira jotzeko aukera zuten arren, emisoraren arduradunek ez zuten eskaerarik aurkeztu —bigarren maiztasun-banaketaren aurka jarrita baitzuten beste helegite bat—.

Konpondu gabe ere, *Euskalerrria Irratiak* eta *Xorroxin Irratiak* legez kanpo emititzen jarraitu zuten, egoera horrek zekartzan ondorio txarrei aurre eginez, batez ere ekonomikoei.

Nafarroako Gobernuak FMko maiztasun gehiago banatu zituela iragarri zuenean, eta Diputazioarekin izandako negoziazioetatik ezer onik atera ez zuten arren, itxaropena berreskuratu zuten 1997an. Plangintza Teknikoan ezarritako maiztasun-kopurua zabaldu zuen 1997ko irailaren 5eko errege-dekretuak¹⁸, eta frekuentzia horietako batzuk Nafarroako foru-eremuari zegozkion. Beraz, gobernu nafarrak irrati-kontzesio berrien ezaugarri teknikoak ezarri zituen 1997ko azaroan argitaraturiko foru-dekretu batean¹⁹, eta, horren arabera, irrati-lizentziak eskuratzeko deialdi berri bat zabaldu zuen 1997ko abenduan²⁰. Zortzi lizentzia ziren jokoan lehiaketa horretan: bana Lizarran, Izaban, Larraun-Baraibarren, Tuteran, Lesakan, Zangozan, eta bi Iruñean.

Erabakiak 1998ko uztailen hartu zituen gobernu nafarrak, eta irailaren hasieran argitaratu zituen Nafarroako Aldizkari Ofizialean²¹. Erabakiaren arabera, irrati-maiztasunak honela banatu ziren:

- Zangoza, Larraun-Baraibar eta Izabako maiztasunak hutsik geratu ziren.
- Lizarrako maiztasunaren jabea Luis del Olmo kazetaria gertatu zen.
- Tuterako maiztasuna *Ribera de Navarra* izeneko enpresak eskuratu zuen.
- *Xorroxin Irratiak* Lesakako maiztasuna eskuratu zuen.
- Iruñeko maiztasunak *Universidad de Navarra* delakoak eta *Medios de Comunicación 21* izeneko enpresak eskuratu zituzten.

Beraz, berriro ere *Euskalerrria Irratia* legez kanpo geratu zen, erabakiaren ondorioz. Eta berriro ere, auzietara jo zuen irratiak, epaia noiz helduko den oraindik ezagutzen ez den arren.

17. Barandiaran, A. (2002): “1990eko lizentzien banaketari Euskalerrria Irratiak aurkezturiko helegitea baztertu du Gorenak”, *Euskaldunon Egunkaria*, apirilaren 24.

18. “Real Decreto 1388/1997, de 5 de septiembre, por el que se aprueba un incremento de frecuencias para gestión indirecta de emisoras, dentro del Plan técnico nacional de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia”. Dekretuaren testu osoa honako helbide honetan aurki daiteke: <http://www.setsi.mcyt.es/legisla/radio_tv/rd138897.htm>.

19. NAO (1997): 336/1997 FORU DEKRETUA, azaroaren 10ekoa, Nafarroako Foru-Komunitatean frekuentzia modulatu uhin metrikozko irratietarako baimenak ematea arautzen duena, **143**.

20. NAO, 1997ko abenduaren 19.

21. NAO (1998), **107**.

Dena dela, kasu horretan ez zen lehiaketaren aurka helegitea aurkeztu zuen bakarra. Esan bezala, Zangozako maiztasuna hutsik geratu zen, lau enpresa aurkeztu arren. Horietako bat *Mediapres* —*Europa FM irrati musikaren kudeatzailea*— izenekoa izan zen, eta erabakiarekin ados ez zegoenez, epaitegietara jo zuen. 2001eko urriaren 26an Nafarroako Auzitegi Gorenak arrazoia eman zion enpresari²², gobernuaren erabakia bertan behera uzteko agindua emanez. Gobernuaren gortasunaren aurrean, erabakia berretsi zuen auzitegiak, 2002ko urtarrilaren 16an argitaratutako epaian²³.

Nafarroako Auzitegi Gorenaren erabakiak itxaropena piztu zuen *Euskalerrria Irratiko* langileengan. Beren esanetan, euskal irratia ondo frogatu zuen bere bidegarritasun ekonomikoa, *Universidad de Navarra* delako emisorak ez bezala, eta euskaraz ari den emisora bakarra dela, lizentzia lortu zutenek euskarazko irratia orik eskaintzen dutenentz inork ez baitu kontrolatzen²⁴.



Euskalerrria Irratiaren aldeko manifestazioa, 1998an. Iturria: www.argia.com/mendea

RTVN ETA IKUS-ENTZUNEZKO KONTSEILUA

Nafarroako *Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari* buruzko 13/1982 Lege Organikoaren 55. artikuluan jasotzen denez,

Nafarroari dagokio irrati zabalpen eta telebistaren araubidea lege bidez garatzea, baita hura betearaztea ere, irrati eta telebistaren estatutu juridikoa arautzen duen legean erabakitzen den gisan eta halabereko kasuetan. (...) Aitzineko idaztian erabakitakoaren ariora, Nafarroak bere prentsa, irrati eta telebista arautu, sortu eta manten-

22. E. M. (2002): "IU y EA reclaman la dimisión de Palacios tras el dictamen del TSJN", *Diario de Noticias*, otsailaren 7.

23. Barandiaran, A. (2002). "Palacios, Parlamentura berriro", *Euskaldunon Egunkaria*, otsailaren 12.

24. Barandiaran, A. (2000). "Euskalerrria Irratia, zain oraindik ere", *Euskaldunon Egunkaria*, 2000ko urriaren 25.

du ahal izanen du eta, oro har, bere helburuak erdiesteko behar dituen gizarte-hedabide guztiak²⁵.

Lege horretan oinarrituta, 1986an sortu zuen Nafarroako Gobernuak *Radio Televisión Navarra (RTVN)* deiturikoa irrati eta telebista publikoa abian jartzeko helburuaz. Dena dela, proiektu hori ez zen inoiz garatu eta sortu bezain pronto bertan behera geratu zen. Horren inguruan Nafarroako parlamentuan eztabaidak gertatu ziren arren, gobernu nafarrak egitasmoa gelditu zuen 1988an, 1992an berrir hartuko zuela azalduz (Albillo eta Sánchez, 1995: 271). Dena dela, ideia ez zen berreskuratu, lizentzien auziaren inguruan erabilitako argudioen artean sortzear zegoen irrati publikoak euskarazko programazioa eskainiko zuela azaldu zen arren. Proiektua bertan behera geratu zenean, berriz, euskarazko irratsaioen emankizuna *RNE* delakoaren kanal autonomikoan izango zela argudiatu zuten gobernu nafararren ordezkariak. 1990eko hamarkadan izandako berregituraketaren ondorioz, berriz desagertu zen kate publiko espainarraren irrati-programazio autonomikoa; eta, beraz, euskarazko saiorik egiteko aukera ere bai.

Hala ere, Nafarroako Foru Erkidegoaren inizatiba legeilea, ordea, ez zen gelditu ikus-entzunezko alorrean, eta 2001ean Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortu zuen Legebiltzarrak²⁶. Kontseilu horren betebeharren artean, ikus-entzunezko komunikabideen jardura kontrolatzeaz gain, honako funtzio hau dago:

Soinuzko irrati zabalpen eta telebistako zerbitzuen kontzesioa adjudikatzeko lehia-keta bakoitzean, deialdia egin baino lehen, Gobernuak prestatu duen baldintza pleguari buruz nahitaezko aldeko txostena egitea edo Gobernuari itzultzea beste modu baten aurkez dezan²⁷.

Halaber, haxe da kontseiluaren lana:

Irrati zabalpen eta telebistako emisora kudeatzeko eraukipenak emateko lehiaketetan, nahitaezko baiezeko txostena egitea, edo Gobernuari itzultzea beste modu baten aurkezteko, lizitatzailen akziodun-osaeraren gainean, sektore horretan aniztasuna eta konpetentzia libre segurtatzeko, hedabideak esku gutxitan kontzentratzea eta geientasunezko abusuak eragozteko. Kontzesioak berritzeko eskaeren gainean ere eramanen du txostean eraukipenen enpresa titularren kapital soziala aldatzeko espediente Nafarroako Gobernuak baimendu behar dituenen gainea eta kontzesioak eskualdatzeko espedienteen gainean²⁸.

Beraz, hortik aurrera, erakunde horren ardura da irrati-lizentzien banaketaren kontrola.

25. Legearen testu osoa <cf.navarra.parlamento.es> helbidean aurkitzen da.

26. NAO (2001): "18/2001 FORU LEGEA, uztailaren 5ekoa, Nafarroako ikus-entzunezkoen jardura eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua sortzen duena", **86**.

27. Ibidem.

28. Ibidem.

Ikus-entzunezkoen Kontseiluak dituen betebeharretik kanpo geratzen da, ordea, udal irratien kontrola:

(...) horien gaineko kontrola udalaren osko bilkuraren esku baitago, soinu bidezko irradi zabalkunderako udal irratien antolaketa eta kontrolari buruzko 11/1991 Legearen 4. artikulua ezarritako bat²⁹.

Arauren testuan Nafarroako Foru Erkidegoaren nortasunaren, erakundearen eta sinboloen errespetua jasotzen da oinarri gisa, baita kultura nafarraren sustapen eta defentsa ere; ez da, ordea, euskal hizkuntzaren —*Lingua Navarrorum* delakoa— aipamenik egiten.

HALA ETA GUZTIZ ERE, EUSKAL IRRATIAK AURRERA

Euskararen eta euskal kulturaren egoera administratiboa egokiena ez zen arren, edo beharbada horregatik, euskal irradi berriak sortu ziren Nafarroan 1990eko hamarkadan. Euskararen aldeko elkarteei loturik zeuden gehienetan, oso lokalak ziren eta askotan bertako udalek lagunduta sortuak; entzuleria urriari heldu arren, herri-bizitzan oso murgildutakoa zen, eta zeresan handikoa.

Aipaturiko irratien artean, Lekunberriko *Aralar Irratia* udal-emisoraz eta Leitzako *Karrape Irratiaz* gain, Jauntsaraseko *Esan Erran* irratia dago. 1997an sortua, Basaburuko *Ametza* kultura-elkarteak kudeatzen du, *Pulunpe* aldizkariarekin batera. Bere seinalea, berriz, Basaburu, Ultzama, Imotz, Anue, Odieta eta Atez udalerrietara heltzen da. 2002ko otsailean udal-irradi moduan aritzeko baimena lortu zuen, Basaburuako udalak eskatuta³⁰. Irrati horren finantzabideen artean, inguruko udalek —Ultzamakoek izan ezik³¹— emandako diru-laguntzak oso garrantzitsuak dira, nahikoak ez diren arren.

Aezkoako Batzarrak sortu zuen *Irati Irratia* 1993ko urtarrilean, Ariben. Udal-irradi moduan sortu zuen batzarrak, lizentziarik lortu ez bazuen ere. Euskaltzale-talde batek sorturiko *Irati Elkarteak* kudeatzen du emisora, eta bere seinalea Aezkoa, Erroibar, Auritz eta Orreagara heltzen da. Oso programazio laburra eskaini ohi dute hasieratik, goizeko ordutegian eta bereziki nekazariei eta abeltzainei zuzendua, baserritarren eremuan kokaturik baitago emisora³².

29. Ibidem.

30. NAO. (2002): "ERABAKIA, 2002ko otsailaren 25ekoa, Nafarroako Gobernuak hartua, Basaburuko Udalari frekuentzia modulatuak uhin metrikoei soinuak irradi-difusioko zerbitzu publikoaren kontzesioa ematen diona, hura udal titulartasuneko emisore baten bidez eskaini dezan", 43.

31. Gorriti, I. (2001): "Ametza Kultur Taldea demanda al Consistorio por cobrarle el uso del frontón", *Diario de Noticias*, 2001eko azaroaren 23.

32. Rozas, I. (1993): "Mikel Zalba: «Menditarra izatearen kontzientzia piztu nahi dugu», *Argia*, 1426, 63.

Euskal irrati nafarren artean gazteena Sakanako *Beleixe Irratia* da. 1999ko udaberrian sortu zen *Bierrik* elkartearen eskutik. Euskal elkargune horrek beste bi komunikabide gehiago kudeatzen ditu: *Guaixe* aldizkaria —1994ko abenduan sortua—, eta *Oixe* kazeta —2001eko udazkenean lehenengo aldiz argitaratu zena—.

Beleixe Irratia Etxarri Aranatz en dago, estudioak bertako kultura-etxean kokatzen dira, eta hortik Sakanako eremu zabalera heltzen da irrati-seinalea: Burunda, Aranatz eta Arakil eremu historikoek osaturiko eskualdera, hain zuzen ere.

Ustearen aurka, publizitate-alorretik diru-sarrera onak dituzte; hal ere, hori ez da elkartearen eta irratia en finantzabide bakarra. Alde batetik, Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak laguntza ematen diete eta bazkideen sostengua ere izaten dute. Horrez gain, bi euskal txoko ireki dituzte, bata Etxarri Aranatz en —*Leku-Ona*—, eta beste bat Altsasun en —*Bierrik Taberna*—. Halaber, urtean zehar kultura-ekitaldi anitz antolatzen dituzte, eta liburuak zein diskoak argitaratu dituzte azkenengo urteetan. Horien guztien berri ematen dute beren komunikabideetan —eta irratian, bereziki—, euskal kulturaren dinamizatzaile moduan erabiltzen baitituzte.

Esan Erran, *Beleixe* eta *Aralar* irratiek 2000ko urriaren geroztik *Sarea* izeneko magazin bateratua eskaintzen dute, egunero goizeko 10:30etatik 12:30etara. Irratsaio horretan guztiek parte hartzen dute.

(...) Irrati bakoitzak bere aurkezpenak egiten ditu 10:00etan. Gero, 10:30etan hiru irratia batera sartzen gara antenan. Eskualde bakoitzeko eguralda en berri ematen dugu. Ondoren, azkenengo 24 orduetan eskualdean gertatu diren albiste nabarmenak eta irrati bakoitzak *Sarea*-rako zerbait prestatzen du. Egunkarien errepasoa eta albiste bitxia en ere ematen dira. 11:00etatik 11:30era *Esan Erran Irratia* dago, hurrengo ordu erdian *Aralar Irratia*, eta azkeneko ordu erdian *Beleixe Irratia*³³.

Horrez gain, Euskal Herri osoko beste irratiekin batera beste ekitaldi batzuen zuzeneko emanaldietan parte hartu dute: 2000ko eta 2001eko *Sanferminetako Txupinazoa*, 2001eko *Korrika*, *Herri Urrats* 2001 eta 2002, eta abarretan.

Halaber, beste hogeita hamar irratirekin batera *Arrosa Ekoizpen Zentroaren* partaideak dira Nafarroako euskal irratia en.

33. Urkizu, U. (2001): “Nafarroako iparraldean bada zer entzun goizero”, *Euskaldunon Egunkaria* [agenda], urtarrilaren 13.

11. Udal-irratia, gertutik gertura

Udalaren edo tokiko administrazioaren ondasuna diren eta hedadura-eremu lokala duten emisorak dira udal-irratia. Kudeaketari dagokionez, udalek berek kudea ditzakete —udal-elkarte edo organo baten bidez—, edo espresuki sorturiko erakunde autonomo baten bidez.

Definizio horren arabera, tokiko administrazioarekiko harreman instituzionalizatua duena hartzen da udal-irratizat. Hori dela eta, atal honetan aipatzen diren emisorak tokiko administrazio publikoarekiko lotura zuzena dutenak dira, bai udalarenak direlako, bai tokiko administrazioak babes instituzionala ematen dietelako, baita udal-aurrekontuetan diru-sorta finkoa eskaintzen zaielako. Egileak jakin badaki ere, tokiko irratia batzuek udalen babes ekonomikoa izaten dutela subentzio moduan; euskaraz aritzeagatik ematen den laguntza da batzuetan, edota herriko kultur taldeei ematen zaiena besteetan. Hala ere, irratia horiek askotan herriko bizitzan duten eragina onartu arren, emisora horiek ez dira atal honetan sartzen, irratia askeen edo gizarte-emisoren atalean baizik —helburu komertzialik ez dutenean—, edota tokiko irratia pribatuen sailean —xede komertziala dutenean—.

Hori esan eta gero, Administrazioek berek —estatukoa, autonomiakoa nahiz udalekoa izanda— kudeatzen dituztenak dira irratia publikoak. Hori dela eta, emisora horiek ezaugarri komun batzuk dituzte: beren estatutuaren aniztasun erlijioso, politiko, soziala eta kulturala bermatzeaz gain, giza talde guztien parte hartzeko eskubidea jaso behar dute. Era berean, informazioak zuzentzeko eskubidea espresuki azaldu behar dute, gizabanakoen eskubideen berme moduan. Horrez gain, umeak eta gazteak babestu beharra agertzen da estatutuaren, eta baita sistema parlamentarioaren oinarrian dauden eskubide demokratikoak ere.

Berezitasunei dagokienez, herritarrengandiko hurbiltasuna da azpimarratzekoa. Udala biztanleengandik gertuen dagoen instituzioa den bezalaxe, udal-emisoren oinarrian herriko bizitzaren suspertzea egon beharko luke. Horregatik, herritarren zerbitzurako emisorak izan beharko lirateke udal-irratia, bertako taldeei eta biztanleei irekia. Hala ere, kontrakoa gertatzen da askotan, batez ere, udalaren kudeaketa zuzena nabaria den irratietan; goitik beherako egitura batean oinarrituta, informazio instituzionala besterik ez dute eskaintzen, taxuera berriak probatzen ausartu gabe, eta emisora handiek dituzten akats berberak egiten, bitarteko edo baliabide-faltak areagotuta.

Horregatik, herri askotan udalek berek bultzaturiko emisorek aurrera jo ez duten arren, herritarrek bultzaturiko proiektuak bihurtu dira praktikan herriko irradi. Dena dela, udal-irratiek Hego Euskal Herrian izan duten eragina oso txikia izan den arren, izan direnak aipatuko ditugu atal honetan, izan diren guztiak ez agertzeko arriskua dagoen arren.

UDAL-IRRATIEN LEGEZTAPENA

Estatu espainiarreko Udal-irratien Koordinadorak urteetan eskatu eta gero, Soinuzko Irrati Hedapenaren Udal-Emandegien Antolaketa eta Kontrolari buruzko legea onartu zuen gobernuak 1991n¹. Lege horrek *de facto* zegoen egoera arautu eta ordenatzeko helburua izan zuen. Hain zuzen ere, 1980ko hamarkadan estatuan zehar sortu ziren tokiko irradi askoren egoera legeztatzea etorri zen arau berria, batez ere emisora horiek indar handia zuten tokietan, Katalunian eta Galizan, alegia. Hego Euskal Herrian mota horretako emisora batzuek emititzen zuten arren, ez zuten indar handirik, eta, kasu gehienetan, udalaren babesa edota laguntza —egoitza uztea edota diru-partidaren bat ematea— zuten, irradi askeek betetzen zuten udal-emisoraren funtzioa zela eta. Euskal Herrian oso udal gutxi sortu eta bultzatu zuten irradi bat. Legeak esparru juridiko orokorra eman zien, ekarpen berririk eskaini gabe.

Beraz, arau horretan —eta aipaturiko koordinadorak eskatuta—, udal-irratien finantzazioa bikoitza onartu zuen gobernuak: hau da, udal-aurrekontuez gain, publizitatea saldu ahal zuten irradi horiek. Emisoren eta gobernuko agintarien arteko negoziazioen ondorioa izan zen erabaki hori, lehenengo zirriborroan udalak berak zerbitzua ordaindu behar zuela aurreikusten zuten eta. Emisora horien arduradunek, finantzabide bakar horrek itotze ekonomikoa ekarriko zuelakoan, diru-sarrera propioak izatea eskatu zuten. Ondorioz, puntu hori adosteko orduan gertatu zen eztabaidarik garrantzitsua. Beste arlotan, berriz, legea orokorregia zen eta komunikabide publikoen oinarriak azaltzera mugatzen zen. Era berean, komunikabidearen kontrola udal-bilkuraren eskuetan uzten zuten legegileak; hots, udal-erakunde legegilean zegoen erabakitzeke ahalmena, eta ez gobernu-organoe-tan, aniztasun informatiboa zabaltzen eta adierazpen-askatasuna bermatzen zela-koan².

1. BOE (1991): “Ley 11/1991, de 8 de abril, de organización y control de las emisoras municipales de radiodifusión sonora”, **85**, 8479.

2. Ibidem: «(...) la pretensión última es la de facilitar a los ciudadanos unos medios de comunicación radiodifundidos de carácter local que amplíen el marco de la pluralidad informativa, garantizando al mismo tiempo la libertad de expresión reconocida y amparada en nuestra Constitución».

Lege hori garatzeko, gobernu espainiarrak errege-dekretu bat³ argitaratu zuen 1992ko urrian, zeinean irati-maiztasuna lortzeko, udalek bete behar zituzten baldintzak ezartzen zituen, 1987ko *Ley de Ordenación de las Telecomunicaciones (LOT)* delakoan eta 1989ko *Plan Técnico Nacional de Radiodifusión Sonora en Ondas Métricas con Modulación en Frecuencia* izeneko plangintzan oinarrituta. Udal-emisorak FMko dialeko 107 MHz-etatik 107,9 MHz-etara bitarteko tartean kokatu behar zirela ezartzen zuen plangintza teknikoak espresuki azaltzen ziren, salbuespen-egoera batzuetan izan ezik.

Estatuan eta estatu osorako argitaratu zen lege eta dekretu horretan oinarrituta, Nafarroako Gobernuak herrialdeko udal-irratia arautzeko dekretu bat⁴ onartu zuen 1992ko abenduan. Gauza bera egin zuen EAEko Jaurlaritzak 1994an⁵.

Aipatu beharra dago, Jaurlaritzak argitaratu zuen dekretuan euskararen erabileraren gutxieneko portzentajea ezartzen zela lehenengo aldiz. Dekretuaren arabera:

(...) Euskarak gutxienez izan beharko duen agerraldia zehazteko EUSTAT Erakundeak urtero argitaratzen duen Euskal Estatistika Urtekariaren azken aleak udalez udal jakinaratzen diren datuak erabiliko dira, bertan azaldutako multzo euskaradun jakin guztien portzentaien batuketaren arabera izanik euskararen gutxieneko erabilera portzentaia⁶.

Era berean, gazteei eta haurrei espresuki eskainitako emanaldietan portzentajea gazte euskaldunen kopuruaren arabera ezarri behar zela jasotzen zuen dekretuak. Halaber, euskarazko emanaldi horietan, euskararen irakaskuntzari buruzko edukiak sartzeko beharra azaltzen zuen:

(...) tokian tokiko udal euskaltegi homologatuaren bitartez, eta, bestela, euskara irakaskuntza homologatuan diharduten Erakundeekin hitzarmenak edo akordioak eginez⁷.

Euskararen erabilerari buruzko aipamen zehatz horretan, Jaurlaritzaren ausardia eta euskararen normalizaziorako urrats garrantzitsua ikusi zituzten batzuek, lehenengo aldiz gutxieneko portzentajea ezartzen zuelako, goitik mugarik jarri gabe. Beste batzuen iritziz, —aurrerapena zela aitortu arren—, ez zen nahikoa

3. BOE (1992): “Real decreto 1273/1992, de 23 de octubre, por el que se regula el otorgamiento de concesiones y la asignación de frecuencias para la explotación del servicio público de radiodifusión sonora en ondas métricas con modulación de frecuencia por las Corporaciones locales”, 1992ko abenduaren 1.

4. NAO, 1992ko abenduaren 21eko 431/1992 Foru-dekretua.

5. EHAA (1994). “Dekretua, martxoaren 22koa, Euskal Autonomi Elkarteak Udal Erakundeei frekuentzia moduladun uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzu publikorako baimena emateko modua arautzen duena”, **94065**, 3921.

6. Ibidem.

7. Ibidem.

gutxieneko erabilera arautzea, bestelako zehaztapenik gabe. Horrek, praktikan, euskarazko emankizunen bazterketa edo menpekotasuna —gaztelaniazkoekiko— ekarri ahal zuen, eta ordutegirik okerreanean kokatu edo eduki batzuetara mugatu.

Dena dela, dekretu horiek indarrean jartzeak ez zuen lehendik ahula zen mugimendua indartu. Are gehiago, ezarritako bete beharreko baldintzak gogorrak zirela eta, emisora muntatzeko asmoa zuten udal batzuek atzera egin zuten, horretarako gaitasunik izango ez zutelakoan. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan, hamabi bat udal bizkaitarrek eskatu zioten Kultura Sailari emititzeko baimena 1987an: Berango, Gorliz, Loiu, Erandio, Larrabetzu, Ondarroa, Ermua, Leioa, Sondika, Getxo eta Lezamako Udalek eta Durangoko Mankomunitateak, hain zuzen ere. Horietako bakar batek soilik lortu zuen legearen araberrako baimena, Getxokoak. Durangon udal-emisora dagoen arren, ez du Jaurilaritzaren lizentziarik. Gainerako egitasmoek, berriz, ez zuten aurrera jo.

Patxi Monteroren ustez, legea oso mugatzailea zen, eta horrek ez zuen udal-emisorak sortzen lagundu, ezta zeudenak bultzatu ere:

(...) eta lehenagotik martxan edo eratze bidean zirenen artean, batzuk mutu daude, beste batzuk eskolaren bati lotuta jarraitu dute, bat edo beste irrati pirata bihurtu da...⁸.

Arrasate Irratiaren sorreran parte hartu zuen kazetari horrek azaltzen zuenez, udalek berek bultzaturiko emisoren egoera ez zen bat ere ona 1990eko hamarkadaren bigarren erdian, eta herriko bizitzan zeukaten eginkizuna edo eskaintzen zuten zerbitzua zein zen jakin gabe:

(...) noraezean dabilta, sortu duten zerbitzuarekin zer egin ez dakiten udal gobernuen pasibitatearen menara, hil artean bizi, hutsaren hurrengo oihartzun sozial eta entzulego mailak dituztela, aurrera gabe atzera, mirarian edo atea behin betirako itxiko duen udal aginduaren zain⁹.

Dena dela, bizirik jarraitzen dute irrati horiek.

Irrati askok ez zuten legearen bidea hartu eta udalek babestuta emititzen dute, herriko elkarte edo talde batek kudeatuta. Udal-bilkurak urtero aurrekontu-saila emateaz, egoitza uzteaz, edota argia, telefonoa zein alokairua ordaintzeaz gain, tokiko administrazioak ez du bestelako ardurarik izaten, tokiko hauteskunde-kanpainetan propaganda-tresna moduan erabiltzekoa izan ezik¹⁰.

8. Montero, P. (1998): "Udal Irratiak EAEn: ahuntzaren gauerdiko eztula", *Euskonews & Media*, 3.

9. Ibidem.

10. Udal irratietan tokiko hauteskundeetarako propaganda sartu ahal dute alderdi politikoek, 1991ko apirilaren 8ko legeak ezartzen duenaren araberrakoa. BOE (1991): "Ley Orgánica 10/1991, de 8 de abril, de publicidad electoral en emisoras municipales de radiodifusión sonora", 85, 8478.

Finantzabideei dagokienez, Hazienda Lokalak arautzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legeak ezarritakoaren arabera egiten da, eta, esan bezala, irratiek sarrera komertzial propioak izan ahal dituzte. Beharbada puntu horretan dago arazorik handiena udal-irratia bultzatzeko orduan. Udalek lehentasuna duten premiak dituzte; beraz, ez daude irradi-zerbituzan diru asko inbertitzeko prest. Horregatik, abian dauden irradi-proiektu independente bideragarriak onartzeko prest daude, helburua komertziala ez bada, herriko zerbitzurako onuragarriak izan daitezkeelakoan.

SORRERA EZBERDINEKO EMISORAK

Bizkaiko eta seguru aski Euskal Herriko lehenengo udal-irratia *Zornotzako Udal-Irratia* izan zen. 1982an sortu zen Zornotzako Kultur Etxean, aste buruetako emanaldiaz eta inguruko ikasleei zuzenduta, irradi-tailer moduan. Ikasleek ez ezik beste talde batzuek parte hartzeko aukera izan zuten beranduago. 1985etik aurrera irradi-formula musikalean oinarrituriko programazioa eskaintzen zuen, egunero hiru orduz. Hasieran Udaletxetik emititzen zuen 50 W-eko potentziaz, baina egoitzapen teknikoak egin behar zirela eta, 250 W-era igo zuen potentzia 1988an. Era berean, moldaketaren ondorioz, beste lokal batera eraman zituzten estudioak, zine-klub ondoko egoitzara.

Beste aldaketa bat gertatu zen 1993an. Urte horretako martxoan kazetaritzako ikasleentzako bi beka deitzea erabaki zuenean udalak. Programazioa profesionalizatzea eta baita euskarazko irratsaioak sartzea zuten helburu arduradunek. Dialean ere lekua aldatu zuen, eta 102 MHz-etik 107 MHz-era pasatu zen, emankizunak legetari egokituz. Era berean, programazioa luzatu zen, eta, astelehenetik asteazkenera bitartean, arratsaldero emititzen zuten zazpikatik hamarretara artean; ostegunetan 23:30etara luzatzen zen programazioa, eta gauerdiraino ostiraletan. Larunbatetan, berriz, goizean emititzen zuen, eta igandeetan ez zen emanaldirik eskaintzen. Horrez gain, euskarazko lehenengo irratsaioak sartu ziren, nahikoak ez ziren arren. Berritasun teknikoak ere izan zituen irratia garai horretan: 1993ko abuztuan potentziometroa hautsi zela eta, konponketarekin batera emankizunen potentzia indartu zuten, eta Zornotzan ez ezik Bediaraino entzuten zen. Ondoren, emandegitik Urritxeko araztegiara eraman zuten antena.

Galdakaoko *Mozoilo Irratia* irradi aske moduan jaio zen 1979an. Gobernuako agintariek itxiarazi zuten 1981ean, eta 1986an berriro ireki zuten. 1988tik aurrera udaletxearen babesean emititzen hasi zen¹¹, FMko 105,7 MHz-etan. Udalak egoitza uzteaz gain, diru-laguntza ematen dio urtero irratia; dena dela, finantzabide eskasa da hori, eta publizitatetik hartu behar izaten ditu diru-sarrerak, Galdakaoko

11. 1995ean udalak aurrekontuaren 100.000 pezetako —601€, gutxi gorabehera— diru-laguntza eman zion irratia.

denden eta zerbitzuen iragarkien truke. Programazio gehiena gaztelaniaz emititzen du, eta irratia-formula musikala zein disko eskainiak izeneko taxuerak ditu oinarri. Langile gehienak boluntarioak dira, eta Kazetaritza, Ikus-entzunezko eta Publizitateko ikasleek praktikak egiten dituzte bertan.



Mozoilo Irratiaren aurkezpena

<212.73.32.210/hosting/000af/mozoiloirratia/mozoilotop.html> web-orrian.

Itsuki Irratiaren sorreran ez zuen Bermeoko Udalak parte hartu, baina 1986ko ekainaren 10eko Ibilaldiaren egunean abian hasi zirenean, udalari laguntza eskatzeko asmoa zuten arduradunek. Egoitza moduan heldu zen laguntza, baina irratia-aren web-orrian azaltzen den legez, askotan lekuz aldatu behar izan dute, erai-kinen egoera txarra zelako. Bermeoko Saltzaileen Elkartetik abere-hiltegiara joan ziren, gero Institutu Zaharrera, eta bertan geratzeko asmoa dute, moldaketa-lanak amaitu ondoren. Bermeotarrei zuzendutako emisora izateko helburua dute; beraz, bertako informazioa eskaintzen dute, bertako hizkuntza erabiliz —gaztelaniak leku txikia duen arren—. 1994ko Andra Mariko jaietatik aurrera hogeita lau orduz emititzen dute, eta web-orria eskaintzen dute <www.euskalnet.net/itsuki> helbidean.



Itsuki Irratiaren logotipoa, <www.euskalnet.net/itsuki/index.htm> web-orria.

Durango Irratiaren sorrera 1989an kokatzen den arren, proiektua lehenago jaio zen. 1985 inguruan, gazte-talde batek —horietako batzuk *Aldaba Irratia* zelakoaren partaide izandakoek— irratia bat aurrera ateratzeko ideia planteatu zuen, baina ez zen gauzatu. Dena dela, utzitako kutsuak fruituak eman zituen lau urte beranduago. Berrito ere gazte-iniziatibak bultzatu zuen irratia sortzeko ideia. Uda-

letxeko Kultura Saila inplikatu egin zen, eta herriko irratia abian jarri zen. Ardatz nagusiak informazio lokala eta zerbitzu publikoa izan zen. Euskarazko zein gaztelaniazko programazioa eskaintzen dute, eta piskanaka-piskanaka langile-plantila finkatzen doaz; hala ere, praktiketako ikasleak hartzen dituzte programazioa osatu ahal izateko.

Bizkaiko Uribe Kostan 1988ko urtarrilean hasi ziren Getxoko udal-irratia emanaldiak; froga-moduan hasieran, eta erregulartasunez apiriletik aurrera. Hamasei milioi pezetako (96.162 euro) inbertsioa beharrezkoa izan zen *Getxo Irratia* abian jartzeko. Kontrol-kontseilu batek kudeatzen du emisora, 1987ko otsailaren 27ko udalbatzan¹² ezarritakoaren arabera; kontseilu horretan Getxoko alkateak edo bere ordezkari izendutako zinegotziak —zuzendari moduan— eta beste bost zinegotzik parte hartzen dute. Zinegotziak udal-hauteskundeetan emaitzen arabera aukeratuak izaten dira, eta ordezkari gabeko alderdirik egon ez dadin, talde guztiek dute ordezkari bana izateko aukera. Kontseilu horren funtzioen artean, udal-komunikabideen¹³ arduradun teknikoa izendatzea dago. Ekitaldien plangintza ezartzea eta adostutako programazioa betearaztea dira betebeharrak garrantzitsuenak.

Irratiaren bizitzaren lehenengo urtean herriko talde batzuek eta kolaboratzaileek parte hartu zuten arren, azken horien lan-baldintzen inguruan arazoak zirela eta, aukera hori itxi egin zuen udalak. Beraz, informazio-arloa aurrera eramateko, funtzionarioen plantila eratu eta gero, irratisaioak kontratatzeari ekin zion udal-administrazioak. Hala ere, entzule-kopurua oso eskasa zen; esaterako, Getxoko Udalak 1991n eskatutako inkestaren arabera, getxoztarren ehuneko bik baino ez zuen irratia entzuten astean zehar, eta portzentajea ehuneko hamarrera heltzen zen asteburuetan; kirol-saioak tartean zirela¹⁴, noski. Irratien arduradunen esanetan, lizentziarik gabe emititzeak eragindako arazoa zen hori; hala ere, 1997an emititzeko baimena¹⁵ eskuratu arren, entzuleen kopurua ez zen handitu. Gaur egun, goizeko emanaldiak eskaintzen dituzte soilik, udal-informazioaren oinarrituriko buletin elebidunetan, eta arratsaldeko 15:00etatik aurrera *Euskadi Irratiaren* programazioaren bikoiztaile soila da emisora.

Uribe Kostan beste udal-irratia dago, *Gorliz Irratia*. Emisora hori tokiko administrazioaren babesa eta laguntza ekonomikoa dituen arren, ez dago udal-egituretan sartuta, zerbitzu moduan eskainita baizik. Bertako langileek egindako

12. Udalbatzan hartutako erabaki horretan aldaketa batzuk eragin zituen 1987ko ekainaren 3an hartutako beste batek.

13. *Getxo Irratiaz* gain, *Getxoberri* astekaria eta *Getxo* aldizkaria kudeatzen zituen udalak garai horretan.

14. Gutierrez Paz, A. (1996): “Tokiko irratia, herri-partaidetasunaren guneak”, *Uztaro*, **18**, 41-48.

15. EHAA (1998): “Agindua, 1997ko abenduaren 11koa, Kultura-sailburuarena. Horren bidez, frekuentzia modulaturatutako uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzurako baimena ematen zaio Getxoko Udalari”, **1998007**, 00661.

magazin banak betetzen du goizeko eta arratsaleko programazioaren tarterik handiena, gainerako ordutegian praktikak egitera doazen irratilarigaiak aritzen direla. Dena dela, eguneroko hogeita lau orduak betetzeko, musikak betetzen du parrilla. Finantzabide bikoitza du: udalaren diru-laguntza eta publizitatearen salmenta. Emisora elebiduna da, gaztelaniazko ekoizpena nagusi den arren. Beste emisora batzuk bezala, bere burua aurkezten du Interneten, honako web-orrian: <www.euskalnet.net/irratia/Gorliz.htm>.



Gorliz Irratiaren logotipoa <www.euskalnet.net/irratia/Gorliz.htm> web-orrian.

Bizkaiko beste herri batzuek udal-irratia bultzatu zituzten 1990eko hamarkadan; besteak beste, Gatika eta Laukiz herrietan emisora bana kokatu zen. Bidean geratu zen, aldiz, Mungiako egitasmoa, nahiz eta *Mungia Irratia* izeneko emisoren emanaldiak inoiz gertatu ziren. Bertako irratizale batek bultzatuta, *Mungiako Irratiaren* emanaldiak entzungai egon ziren 1990eko jaietan¹⁶. Udal-agintari batzuen onarpena izan arren, irratia muntatzeko egitasmoak ez zuen erantzun ofizialik izan, osoko bilkuran gaia eztabaidatu zen arren; adibidez, 1990eko maiatzean Herri Batasunak eskaria aurkeztu zuen udal-bilkuraren aurrean, eta 2 milioi pezetako (12.000 euro) diru-saila gorde ziren horretarako. Hala ere, Mungia ez zen irratirik gabe geratu, bertatik *Onda Corazón* izeneko emisora piratak bete baitzuen *Mungia Irratiko* lekua; beranduago, horren ordeztu, *Radio Economía* delakoa sortu zuen enpresario batek, gaur egun emititzen jarraitzen duena, baimen administratiborik izan ez arren.

Esan dugun bezala, Gipuzkoako, hainbat herritan sortu ziren udal-irratia, emisorak horien eragina oso handia izan ez zen arren. Lehenengo emisora Idiazabalgo *Zirika Irratia* izan zen, eta 1989ko abenduan hasi zen emititzen udal-txetik. Udalak, egoitza uzteaz gain, ia osotasunean subentzionatzen du emisora. 99,3 MHz-etan kokatua, Idiazabal herria du hedadura-eremu; hala ere Goiherri osora hedatzeko asmoa dute bertako arduradunek. Asteazkenean emititzen du hiru

16. Gutierrez, A. (1990): “«Mungiako Irratia» podría volver a emitir en fiestas”, *Egin-Urbealde*, V, ekainaren 27.

orduko magazina. Herriarentzako interesgarriak diren albisteak zein abisuak ematen dituzte. Era berean, herriko taldeen eta elkarten parte-hartzea bultzatzea dute helburu, bertako ekitaldien dinamizatzailerik moduan erabili ahal izateko.

Oñati Irratia 1991n sortu zen, bi helburu nagusi zituela:

Batetik, Oñati barruan gertatzen den guztiaren berri ematea, udal-kontuak, herrian sortzen diren albisteak... Bestetik, hasieratik garbi geratu zen euskara bakarrik erabiliko gurela eta gure hizkuntza normaltzeko bide bat izango zela. Jendeak bere herriko informazio guztia euskaraz jaso zezan¹⁷.

Udal-egituretan sartuta, tokiko administrazioak kontratatzen ditu irratiko langileak. Emisora horren legaztapena 1997an onartu zuen Jaurilaritzak¹⁸.

EAEn legeztaturik dagoen hirugarren udal-irratia *Arrasate Irratia da*. Hasieran udalak kudeatzen zuen; gaur egun, berriz, *Goiena Kooperatibaren* gestiopean dagoen arren¹⁹. Nerea Zubiete eta Patxi Montero izan ziren irratiko proiektuaren arduradunak, eta, urteetan eman eta gero, 1991ko errege-dekretua indarrean jarri arte itxaron behar izan zuten, egitasmoa praktikara eramanez ahal izateko. Dena dela, 1994ko azaroaren 11n hasi zen emititzen. Proba-emanaldien garaia gainditu eta gero, 1995eko otsailean abian jarri zen emankizun erregularra. Legeztapena 1997ko abenduan onartu zuen Jaurilaritzak²⁰.

Arrasateko informazioa eskaintzea izan dute beti helburu nagusi, hala ere, emisora inguruko beste herrietara heltzen zenez —Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan ere entzuten zen—, korrespontsalak izan zituzten, herri horietan gertatzen zenaren berri eman ahal izateko. Euskaraz aritzea erabaki zuten hasieratik, eta bertan ekoiztiriko irratsaioez gain, *Euskadi Irratiarekiko* konexioek betetzen zuten gainerako denbora; hala ere, oso argi zuten bertako irratilariak herrian zerbait gertatuz gero, kanpoko emankizuna moztu eta bertako informazioa eskainiko zutela:

17. Odriozola, J. (1993): “Miren Urkiola: «Oñati Irratia, etxeko oinetakoan ibiltzeko irratia da», *Argia*, **1433**, 63.

18. EHAA (1998): “Agindua, 1997ko abenduaren 11koa, Kultura sailburuarena. Horren bidez frekuentzia modulaturadun uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzurako baimena ematen zaio Oinatik Udalari”, **1998006**, 00579.

19. AED —*Arrasate Euskaldun Dezagun*— elkartearen antolaketaren barruan ziren *Arrasate Press* aldizkaria eta *Arrasate Telebista* ere sartu ziren kooperatiba horretan, inguruko beste herri-komunikabideak bezala. Dena dela, bi komunikabide horiek, *ARKO* —*Arrasate Komunikabideak*— barruan ziren eta gestio propioa zuten arren, *Arrasate Irratia* Udalaren ardurapean zegoen zuzenean, eta langileak tokiko administrazioak kontratatzen zituen, ez enpresak. Esan bezala, gaur egun *Goiena Kooperatibaren* daude, inguruko herrietako beste komunikabideekin batera; etorkizunean *Oinati Irratia* sartzeari aurreikusten dute.

20. EHAA (1998): “Agindua, 1997ko abenduaren 11koa, Kultura sailburuarena. Honen bidez frekuentzia modulaturadun uhin metrikoetako irratizabalkunde zerbitzurako baimena ematen zaio Arrasateko Udalari”, **1998007**, 00656.

(...) Bapatean zer bait garrantzitsua gertatu ezker, Euskadi Irratiko emanaldia eten eta informazio hori berehala emango genuke. Hori irratia ren abantaila garrantzitsua da, larrialdi batzuk herritarren eguneroko bizitzan eragina izan dezaketela kontuan izanik batez ere. Oraindik ez, baina etorkizunean, edozein gertakariren berri zuzenean emateko aukera ere izango dugu; hau da, jazotzen ari den une berean emango dugu albisteak. Eta aurrerago publizitatea sartzen badugu, merkatariei informazioa modu merkean banatzeko aukera emango diegu²¹.

Milurteko berriaren etorrerarekin, erronka berriei aurre egiteko asmoz, Deba Goieneko herri-komunikabideak bildu dira *Goiena Kooperatibaren* barruan. Hain zuzen ere, *Arrasate Irratiaz gain, Goiena Telebista —Arrasate Telebista zena—, Goienkaria* aldizkaria, Aretxabaletako *Aretxagazeta*, *Arrasate Press*, Bergarako *Berrigara* eta Elgetako *Goienkale* daude egitasmo zabal horren barruan. *Oñati Irratia* oraindik sartu ez den arren, epe laburrean integra dadin ahaleginetan, zabalik daude elkarrizketak bertako udal-ordezkariekin²².

Euskal herri-komunikabide ezberdinak biltzen dituen fundazioaren barruan kokatzen da *Oiartzun Irratia*. Hain zuzen ere, 1999ko uztailaren 7an emititzen hasi zuen emisora *Oarso Komunikabideen Fundazioaren* barnean dago, *Bailaran Lau Haizetara* eta *Orraxi* aldizkariekin eta *Oarso Telebistarekin* batera. *Oiartzun Irratia* udaletxeko lokaletan dago, eta tresneria ere udalarena da. Hala ere, mantenua, langileen ordainketa, materialaren erosketak eta gainerako gastuak finantzatzeko publizitatea saltzen dute.

Herriko biztanleei zuzenduta, helburua honako hau da, Ane Lardi irratiko arduradunaren hitzak erabiliz:

(...) herriko berriak herritasun ikuspuntutik ematen saiatzen gara, herriari protagonismoa eskainiz, Eskualdeko eta Euskal Herriko albisteek ere badute beren tartetxoa. Nahiz eta herrian egunero-egunero berririk ez izan, beti izaten da abisuren bat edo gaitan sakontzeko aukera²³.

Horregatik, ezinbestekoa jo zuten herritarren parte-hartzea hasieratik. Era berean, bertako ikastolako gazteek irratsaioak egiten dituzte. Magazin batek betetzen du programazioaren tarterik handiena; goizeko 10:30etatik 12:00etara zuzenean eskaintzen dute, eta berriz errepikatzen dute arratsaldeko 17:00etatik 18:30etara. Eguneko santuen izenak, urteurrenak eta zozketak eman eta gero, prentsaren irakurketa egiten dute. Ondoren, bertako albisteak garatzen dituzte, *Oarso Telebistarekin*, Erreterria-Oreretako *Lau Haizetara*, Lezoko *Orraxi* eta *Oiartzungo Udala Informatzen* aldizkariekin konexioa eginez. Emisio-ordutegia osatzeko, musika eskaintzen dute.

21. *Arrasate Press*, 1994ko azaroak 11.

22. Urkizu, U. (2001): “Goiena, gero eta sendago”, *Euskaldunon Egunkaria*, urtarrilaren 11.

23. Sarasola J. (2000): “Ane Lardi: Herriari eman nahi diogu protagonismoa”, *Euskaldunon egunkaria*, urtarrilaren 12.

Oiartzundik oso hurbil kokatzen da *Erretereria Irratia*. Erretereriako udalak bultzaturiko emisora 2000ko amaieran jarri zuten abian; hain zuzen ere, abenduaren 27an hasi zen emititzen. Azpiegitura udalak jarri zuen arren, helburu komertziala badute emisoraren arduradunek, eta, horregatik, *Kubide* izeneko enpresak kudeatzen du emisora²⁴.

Programazioa elebiduna da —gaztelaniaz eta euskaraz— eta tokiko informazioari lehentasuna ematen diote. Horrez gain, kulturak eta entretenimenduak badute tokia parrillan, eta herritarren parte-hartzeari zabalik dago; adibidez, irratitailerrak antolatzen dituzte, gazteei praktikak egiteko aukera eskaintzeko asmoz.

Euskal Autonomia Erkidegoan bezalaxe, Nafarroan ere ez da oso nabaria izan udal-irratien presentzia —bakar batzuk egon diren eta dauden arren—, eta, kasu gehienetan, bertako gazteek edo kultura-elkarteek bultzaturiko proiektuei babes legala eman diete udalek, baita laguntza ekonomikoa ere. Horrela gertatzen da Basaburuko *Esan Erran*²⁵ eta Leitzako *Karrape* irratien kasuan; bi euskal irratihoriek udalak eskatutako baimenari esker, legalitatearen barruan emititzen dute eta. Era berean, *Zartako* izenaz 1988an sortu zen irratia askea, *Berriozar Irratia* bihurtu eta gero, Berriozarko udal-emisora moduan emititzen hasi zen gaur egunera arte²⁶.



Berriozar Irratiaren logotipoa, <www.zartako.com> web-orrian.

Dena dela, emisorarik izan zuen lehenengo udal nafarra hiriburukoa izan zen. Iruñeko Udalak bere emisora-proiektua bultzatu zuen, tokiko erakundeak eskaintzen zuen informazio-zerbitzuen barruan, udal-irradiak *Radio Plaza del Castillo* izena zuen, eta Udaletxeko beheko solairuan kokatuta zegoen. 1986an hasi zen emititzen, eta abian jartzeko aurrekontua milioi eta erdi pezetakoa izan zen (9.000 €). Hasieran, musikan eta albisteetan oinarrituriko taxuera zuen, eta tokiko informazioa eskaintzen zuen, trafikoari eta udal-eremuari zegokiona bereziki. Beranduago, tailer moduan funtzionatu zuen, batez ere langabezia ziren gazteei zuzenduta, horren ondoren “hari musikalaren” antzeko zerbitzua bihurtzeko (Albillo eta Sánchez, 1995: 296).

24. Urkizu, U. (2001): “Irrati elebiduna sortu dute Erreterian”, *Euskaldunon Egunkaria*, urtarrilaren 24.

25. Irrati horrek lizentzia lortu du 2002ko otsailean. NAO (2002): “Erabakia, 2002ko otsailaren 25ekoa, Nafarroako Gobernuak hartua, Basaburuko Udalari frekuentzia modulatu uhin metrikoei soinuak irratidifusioko zerbitzu publikoaren kontzesioa ematen diona, hura udal titulartasuneko emisore baten bidez eskaini dezan”, 3.

26. Irrati horren historia honako web-orrian aurki daiteke: <www.arrakis.es/~zartako/hist.htm>.

Aralar Irratia 1991ko apirilean emititzen hasi zen Lekunberrin, emititzeko baimena 1997an lortu zuen arren²⁷. Martxoan zehar dena prestatu eta gero, Bixente Setoain soinujolea egin zen emanaldien kargu. Horrek utzi eta gero, Martin Juanenak hartu zuen ardura, gaur egun emisora gidatzen duen bera. Emisora Lekunberriko kontzejuaren jabetza da, eta Larraun, Basaburua eta Ultzama herrietan entzun ahal da.

Hasieratik euskaraz aritzeko erabakia hartu zuten arduradunek, hala eta guztiz ere, gaiak eskatuz gero, gaztelania erabili behar bazuten, ez zutela baztertuko azaldu zuen Setoainek *Argiari* egindako elkarrizketa batean:

Gure ardatz nagusia euskara da. Hasiera batean Lekunberriko kontzejuan zalantzan aritu ziren ea dena euskaraz izan behar ote zen edo ez. Izan ere, Lekunberrin esate baterako, gazte gehienek ez dakite euskaraz... Azkenean garbi ikusi zen eguneroko programazioa euskaldun batek egin behar zuela eta dena euskaraz egitea. Gai interesgarriren bat izatekotan, eta euskaldunik ez tartean, erdaraz ere egingo litzatele. Ikusi zen hizkuntzak ez zuela oztopo izan behar informazioarentzat²⁸.

Nafarroako irratiekin ez ezik Euskal Herriko beste euskal emisorekin konexioak eskaintzen ditu irrati horrek. Informazio lokala eskaintzeaz gain, musikak garrantzi handia du programazio-parrilla betetzeko. Dena dela, emanaldiak herritar guztiei zuzendu nahi dizkieten arren, gazteek diote beren gustuko saioak falta direla.

Beste udal batzuek, berriz, irratia izan zuten arren, emisora horiek ez dute aurrera jo, eta gaur egun geldirik daude, dialeko zerrendetan agertu arren. Adibidez, Billabonako *Loatzo Irratiak* bere emanaldiak bertan behera utzi zituen 1996ko ekainean, arazo ekonomikoak gainditu ezin zituela. Nafarroako San Adriango udalak emisora bat izan zuen, udal-erakunde autonomo moduan kudeatzen zena eta udal-administrazioaren barruan sartuta zegoena. Martzillako udalak 1997an lortu zuen emititzeko baimena²⁹. Beste aldetik, Fontellasko udalak bertan dagoen emisorarentzako baimen ofiziala 2002an lortu du³⁰.

27. NAO (1997): "Erabakia, 1997ko ekainaren 16koa, Nafarroako Gobernuak hartua, Lekunberriko Udalari frekuentzia modulatuak uhin metrikoren soinuak irratidifusioko zerbitzu publikoaren kontzesioa ematen diona, hamar urtetarako, hura udal titularitateko emisore baten bidez eskaini dezan", **79**.

28. Irazu, A. (1991): "Bixente Setoain: Gure ardatz nagusia euskara da", *Argia*, irailaren 8, 69.

29. NAO (1997): "Erabakia, 1997ko ekainaren 16koa, Nafarroako Gobernuak hartua, Marcillako Udalari frekuentzia modulatuak uhin metrikoren soinuak irratidifusioko zerbitzu publikoaren kontzesioa ematen diona, hamar urtetarako, hura udal titularitateko emisore baten bidez eskaini dezan", **79**.

30. NAO (2002): "Erabakia, 2002ko otsailaren 25ekoa, Nafarroako Gobernuak hartua, Fontellas-eko Udalari frekuentzia modulatuak uhin metrikoren soinuak irratidifusioko zerbitzu publikoaren kontzesioa ematen diona, hura udal titularitasuneko emisore baten bidez eskaini dezan", **3**.

Irrati-tailerrak, udal-zerbitzu moduan

Esan bezala, *Erreterria Irratiak* tailer moduko ekitaldia eskaintzen die bertako gazteei. Horixe izan da, hain zuzen ere, udal batzuek aukeraturiko eredia emisora bat bultzatzeko orduan. Tailer horien artean antolatua, dudarik gabe, Donostiako Altza auzoko *Casares* Kultur Etxeak eskaintzen duena da. Auzo horretako elkarte batzuek bultzatuta, 1991n abian jarri zen *Altzako Irrati-Tailerra*. 1992/93 ikasturtean, emanaldiak *APALZA* izeneko elkarteari esker hasi ziren, eta 1994ko gaurko egoitzara eraman zuten egoitza; Kultur Etxera, alegia.

Urtean zehar gazteei zuzendutako irratikastaroak eskaintzeaz gain, neguan irratitari buruzko aste bat eskaintzen dute. Horrez gain, erakusketak, hitzaldiak eta liburutegi espezializatua eskaintzen dizkiete erabiltzaileei. Ikasleek praktikak egiten dituzte tailerrean, eta ekoitzitako irratsaioak emititzen dituzte. Arduradunen esanetan, ehun bat pertsonak parte hartzen du irrastian, eta helburua honakoa da: «Irrati-proiektu honek, didaktika esparrutik abiatuz, komunikazio-alternatiba lokal eta soziala eskaintzeaz gain, komunikabide honetan parte hartu, ezagutu eta esperientziak gauzatzeko aukera ematen du»³¹.

Beste auzoetan badaude beste egitasmo xumeagoak; adibidez, Barakaldoko *Zopinpa Irratia*. 2001eko irailean emititzen hasi zen, bi urte aurretik jaiotako proiektuan oinarrituta. Lutxana auzoan kokatuta egon arren, Barakaldoko beste auzoetara ez ezik, Bilbora ere iristea zuten helburu. Hori zela eta, antenaren indarra gehitzea aurreikusi zuten 2001eko azaroan.

Goizeko emanaldietan magazin bat eskaintzen zuten, hasieran. Bertan, elkarrizketak, salaketak, eskaintzak eta abar jasotzen dira. Horrez gain, kirolak tarte garrantzitsua du programazioan, batez ere Lutxanako *Sporting*, Bilboko *Athletic*, *Bilbao Basket* eta *Baracaldo-UPV* taldeen informazioa. Horrez gain, euskarazko eskolak eskaintzen zituen Gurutzetako AEK-k.

Eskola-irratia, ikasteko tresna

Udalak ez dira, ordea, tokiko irratia sortzeko aukerak eskaintzen dituzten erakundeak. Hainbat lekutan, eskolek beren irratiproiektu propioak bultzatzen dituzte. Ikasgeletan ikasitakoa eta beren nahiak, kexak, edota zaletasunak mikrofonoen bidez besteei ezagutarazteaz gain, entzunezko komunikabidearen trebeziak bereganatu ahal dituzte ikasleek, eta hori guztia oso modu entretenagarriaz, eta, halaber, talde-harremanak indartuz. Oso irratitxikiak izaten dira, eta oso hedadura-eremu lokala dute; ez dute publizitate komertzialik izaten gehienetan, eta programazioa eskola-ordutegiaren eta egutegiaren arabera antolatu ohi dira.

31. *Altzako Irrati-Tailerrak* banatzen dituen publizitate-orria.

Eskolek bezalaxe, zenbait institutuk eta unibertsitatek ere badute irratia mar-txan. Ikastokiaz gain, emisora bada komunikabidea, eta ikasleek berek egindako irratsaioetan, gustuko duten musika eta interesatzen zaizkien gaiak nahasten dira, parrilla entretenigarria osatuz. Indautxun, Kimika- eta Eletronika-Eskolak bultza-tzen du *Indautxu Irratia*, Bilboko *Nuestra Señora de Begoña* delako ikastetxea-rekin batera. Emisora horretan, ikasleen irratsaioez gain, *Dance Planet* izeneko irrati-formula eskaintzen dute; era berean, Interneten web-orria eskaintzen dute, <www.radioindautxu.fm> helbidean.

Eibarko Unibertsitatetik *Radio Master* izeneko emisora dago entzungai, eta <radiomaster.es.fm> helbidean ere topa daiteke. Irratsaioak bertako ikasleek egiten dute, eta emisio-denboraldia eskola-ordutegiari egokitzen zaio.



Radio Master delakoaren logotipoa <radiomaster.es.fm> web-orrian.

Nafarroako Unibertsitateko Informazio-Zientzien Fakultateak badu bere irrati propioa. Emisorak emititzeko lizentzia lortu zuen Nafarroako Gobernuak 1998an egindako maiztasun-banaketan, *Euskalerrria Irratiaren* kaltetan. Erabakia polemiko-a izan zen, eta auzian dago oraindik, aurreko atalean azaldu den moduan, batez ere kontuan hartuta irratia bideragarritasun ekonomikoa —autofinantzazioa— kolokan dagoela, eta, beste aldetik, euskararen presentzia testimoniala dela. Bere aldetik, *EHU*ko³² Gizarte- eta Komunikazio-Zientzietako Fakultatean Irrati-Laborategia dago, eta *Leioa Irratia*³³ adierazleaz irratsaio-parrillak emititu diren arren, ez da emisora moduan ari, eta ikasleentzako praktika-tailerra da; hala eta guztiz ere, nahi duten ikasleek beren saioak egiteko aukera dute eskola-orduetatik kanpo.

32. *EHU*: *Euskal Herriko Unibertsitatea*.

33. *Leioa Irratia* izenaren ordeaz, *Irrati Unibertsitarioa* adierazlea erabiltzea erabaki zen beranduago, Leioako udal-irradi batekin ez nahastearren.

12. Euskal Irratiak, bat eginda aro berriaren aurrean

Esan bezala, 1990eko hamarkadaren hasieran oso irradi aske gutxi biziraute zuten, eta arazo asko zituztela jotzen zuten aurrera. Milurteko berriaren atarian, berriz, herri-iniziatibak bultzaturiko emisorak ugaritu dira. Krisialditik jakinduria biltzen ikasi duten herri-mugimenduak, iraganeko akatsak berriz ez gertatzeko asmotan tinko direla, komunikabide berriak sortuz joan dira 1990eko hamarkadaren erdialdetik hona. Mota askotakoak dira emisora horiek kudeaketari dagokionez: herri-irradiak irradi askeak, elkartekoak edota udalekoak. Hala ere, ezaugarri komun batzuk dituzte denek:

- Guztien atzean herri-iniziatiba dago, nahiz eta era desberdinetan antolatua: batzuetan elkarte kulturalaren bidez, besteetan enpresaren bidez, eta, zenbaitetan, asanbladaren bidez.
- Aurrekarien akatsetatik ikasita, boluntarioen lana ukatu gabe, profesionalizatu egin dute askok langileen plantila. Alde batetik, norberaren lanaren duintasuna saritzea zilegi jotzen dutelako; beste aldetik, irradiaren ardura duten langileek programazioaren jarraitutasuna bermatzen dutelako, eta, azkenik, sakabanaturiko sailen edota irratsaioen arteko koordinazioa eta harremana ahalbidetzen dutelako. Agus Hernan *Gure Irratiaren* zuzendariaren esanetan, «iraunkortasunak langileak eskatzen ditu, langile komunak, baina langileak. Zeren azken urteetan ikusi dugu borondate hutsetik gauzak asmatzen direla, baina ez direla betetzen»¹. Hala ere, soldata ezartzeko, ez da ekoizpen-irizpiderik kontuan hartzen, eta emisora txiki horiek duten ahalmen ekonomikoa ez da oso sendoa izaten; ondorioz, batzuetan ordainak ez du ezta bizitzeko adina ematen, guztien asmoa horretara heltzea den arren.
- Horrekin lotuta, finantzabide ugari onartzeko prest agertu dira emisora berri horiek, publizitatea barne. Dena dela, helburua ez da komertzial hutsa, eta tokiko dendei zein enpresariei euskarri publizitarioa eskaintzen diete, oso beharrezkoa den diruaren truke. Dena dela, emisora batzuek errefusatu egin dute iragarkiak sartzeko aukera hori, eta beste batzuek, aldiz, herri-

1. Laskibar, A. (2001): "Euskal Herri osoko hogeita bost irratik aurrerantzean elkarrekin lan egiteko erabakia hartu dute", *Gara*, 2001eko uztailaren 1.

-taldeek antolaturiko ekitaldien zein beste hedabideetan agertzen ez diren kultura-jardueren berri soilik ematea erabaki dute. Publizitateaz gain, bazkidetza eta diru-laguntzak dira beste finantzabide batzuk. Bazkidetzari dagokionez, tokiko administrazio batzuek banaka dirua ematerik ez dutela eta, eskualde bereko bat baino gehiagotara jo ohi dute irratiek diru eske. Besteetan, ordea, komunikabide ugari batu dira diru-laguntza horiek kudeatu ahal izateko.

- Era berean, irradi askeen asmo komuna herri-mugimenduetako sektoreak ordezkatzeko zen bezala, sortu berriek euskara eta euskal eremu komunikatiboa sortzeko ideiak batzen ditu, aipatu bezala desberdintasunak dituzten arren. Badaude euskara hizpide bakarra ez dutenak ere, baina horiek ere euskalduntzearen alde agertu dira, gutxienez oinarrietan.
- Azkenik, teknologiaren alorrean, gehienek digitalizazio-prozesuari ekin diote —sortu berri gehienak tresneria digitalean oinarritu dira—, eta horietako batzuek lagungarri dute Internet, bai informazioa jaso eta trukatzeko, bai beren ekintzen eta programazioen berri emateko, baita sarean entzungai izateko ere, mugak gaindituz.

EUSKAL IRRATIAK, IRRATI ASKEEN BIDEK

Ttan Ttakun Donostiako Egian sortu zen 1995ean izen bereko elkartearen ekimenez. Hasieran Egiako Gazte-Lokaleko tailer modura eratu zen, 15 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzenduta. Gero, auzoari ireki zitzaion eta, 1997an, Donostia osoari. Bere ezaugarri nagusia euskaraz emititzea da, inguru erdaldun batean euskal irla izateko asmoz. Horrek finantzazio publikoa ahalbidetzen du, eta, beraz, bere diru-iturririk nagusia Donostiako Euskal Patronatuak urtero ematen dion diru-laguntza izaten da. Horrez gain, irradi askeen ohiko diru-sarrerak izaten ditu: auzoko Porrontxo jaietan jarritako txosnan ateratako sosa eta kamiseten eta pizgailuen salmentetatiko etekinak, alegia². Oraingoz ez dute publizitate komertzialik eskaintzen emanaldietan.

Astelehenetik ostiralera arratsaldero emititzen dituzte bertan egindako irratsaioak; egunero 24 orduz dila betetzeko, berriz, musika eskaintzen dute, estilo askotakoa. Horrez gain, web-orria dute Interneten: <www.geocities.com/ttanttakunirratia>; dena den, bertan oraindik ez dago ezer entzuterik, eta, programazioaz gain, emisorarekin harremanetan jartzeko helbidea eskaintzen dute soilik.

Enpresa-proiektu sendoagoarekin, *Bilbo Hiria Irratia* hasi zen emititzen 1997ko maiatzaren 25ean, Bilboko *Zenbat Gara* kultura-elkartearen eskutik.

2. Argia (2000): “*Ttan Ttakun Irratia*. Beste Donostia ere badelako”, 2000ko martxoaren 5.

Bizkaiko hiriburuan euskal elkarte horrek duen Kafe Antzokia izeneko kulturgunean kokatzen da emisora, eta oso inguru erdaldunean dagoen arren, finkatuz joan da. Hasieratik, irratia sortzaileen asmoa euskaldunak euskaraz bizitzeko elkar-guneak eskaintzea izan da, elkarteak antolatutako beste ekintzetan gertatzen den bezala:

Bilbo Hiria Irratia Zenbat Gara kultur elkartaren ekimena izanik, elkartearen baitan dauden beste ekimen batzuk bezala, euskararen bizibide berriak asmatzea³.

Emisoraren finantzabide nagusia elkartea bera da; hain zuzen ere, beste jardueretatik ateratako dirua erabiltzen da irratia finantzatzeko. Bide batez, independentzia editoriala bermatzen dute horrela, irratia arduradunen esanetan:

Gure zutabeetako bat independentzia horretan datza. Zenbat Gara elkartaren baitan ekimen desberdinak daude, batzuk beste batzuk baino errentagarriagoak direnak. Azken finean, izaera honi esker, Bilbo Hiria Irratiak ez du bere burua sakrifikatzen dirua lortzearen⁴.

Edukien tratamenduari dagokionez, emisoraren arduradunen asmoa informazioa iturritik bertatik jaso eta «duintasunez»⁵ tratatzea da, beti ere euskaraz.

Txolarre Irratia Anoetan emititzen hasi zen 2000ko abenduaren 26an. Andoainen eta Legorretaren arteko herriak batzeko irratia bat eratzeke egitasmoa, berriz, bi urte lehenago sortu zen, 1998an. Proiektu horretan euskara-taldeek, kultur elkarteek, gazte-asanbladak eta herritar ugarik parte hartu zuten, helburua euskaldunei zuzendutako irratia sortzea zutela. Hori oso argi izan zuten hasieratik: bai barruko lan-harremanetan, baita emanaldietan ere, euskaraz arituko zirela. Era berean, egitasmo irekia izateko asmoa zuten, herritarren zein erakundeen parte hartzea bultzatu zuten, eta horretarako baldintzak euskaraz egitea eta hartutako konpromisoa mantentzea ziren. Beraz, asmo horiekin *Txolarre Elkarteak* egoitza eskatu zion Anoetako udalari, eta tresneria Billabonakoari, zeinak *Loatzo Irratiarena* izan zena erabiltzeko baimena eman zion.

Esan bezala, *Txolarre Irratia* Andoaindik Legorretara bitartean dauden hogeita hamar herrien ahotsa da. Beraz, era guztietako herrietara heltzen da, 100 biztanle eskas dituzten herrietara eta ia 20.000 biztanle dituztenetara. Herri handiek nahiz txikiek irratia berena dela senti dezaten, ahalegin berezia egiten dute eguneroko programazioan, herri bakoitzari bere tartea eskainiz. Horretarako aukera desberdinak jorratzen dira: hala nola, herri bakoitzean bertako pertsona bat izatea berriemate gisa, herri bakoitzeko taldeek eta elkarteek arratsaldeko programazioan parte hartzea, langileen lekukoa hartuta.

3. Argia (1999): "Fermin Etxegoien, Bilbo Hiria Irratiko arduraduna: "Duintasunaren aldeko apustua egiten dugu", 1724.

4. Ibidem.

5. Euskaldunon Egunkaria (2000): "Aitor Zuberogitia. Bilbo Hiria Irratia: «Beste irratia ere du bat egiten saiatzen gara», urtarilaren 29.

Partaidetasuna bermatzeko, bi zutabetan oinarritzen da irratia-aren kudeaketa: batzarrean eta talde eragilean. Aipatu bezala, parte hartu nahi duen orori irratia-aren antolaketan aritzeko bidea eman nahi zaionez, esku-hartze hori ahalbidetzen duen egitura *Txolarre Irratiaren* batzarra da. Irratia aurrera atera dadin ahalegintzen direnek eta irratsaioaren bat egiten duten guztiek osatzen dute batzarra; hau da, irrat-esatariek, kolaboratzaileek, herrietako ordezkariak eta saio askean parte hartzen duten taldeek eta pertsonak. Funtzio nagusiak honako hauek dira: programazioa zehaztu eta jarraipena egin, urteko aurrekontua eta balantzea aztertu eta oniritzia eman, helburuak betetzen direla ziurtatu, udalekin harremanak bermatu, egin beharreko hobekuntza teknikoak zehaztu eta finkatu, eta talde eragileko arduradunak izendatu.

Batzarra baino partaide gutxiagok osatzen dute irratia-aren talde eragilea. Emisorako langileak —programazioaren zuzendariak, laguntzaile-esataria-ak eta publizitate-komertzialak—, diruzainak, arlo teknikoko arduradunak eta erakunde-ekiko harremanak garatzen dituzten pertsonak osatzen dute talde eragilea, bere zeregin nagusia *Txolarre Irratiaren* egunez eguneko jarraipena egitea baita.

Finantza-bideei dagokienez, inguruko udal askok urtero diru-laguntza ematen diote, eta hori oso garrantzitsua izanda, ez da nahikoa. Beraz, publizitatea jorratzen dute, eta herrietako dendariei eta enpresarioei irratian iragarkiak sartzeko aukera ematen diete.

Irrati askeak, birsortzen

Irrati horiek beren tokia bilatu behar izan duten bitartean, krisialdiaren ondoren biziraun zuten emisora askeek ere aldaketa batzuk izan dituzte, batez ere digitalizazio-prozesuari ekin ziotelako.

Eredugarria izan da Gasteizko *Hala Bedi* emisoraren birmoldaketa. Bertako informatikariak egindako programa batean oinarrituta, ordenagailu bidezko errealizazioa egiten dute emisoran, eta, horrekin batera, egunean zehar emititzeko aukera, baita emisio-pauten aurretiko planifikazioa ere. Beraz, profesionalizatu gabe —aske izaera galdu gabe—, emanaldien kalitatea hobetzea lortu dute. Era berean, teknikak hedadura-eremua zabaltzea ahalbidetu zuen, eta Gasteizen ez ezik, Laudion eta Arabako Lautadan entzuten dira emankizunak. Interneten entzuteko aukera ere eskaintzen du estazio gasteiztarrek <www.hala-bedi.org> helbidean.

Programazioari dagokionez, iraganeko akatsetatik ikasi eta gero, laguntzaileei konpromiso gehiago eskatzen diete arduradunek, programazioaren jarraitutasuna gal ez dadin. Albistegiak *Hala Bedi*n bertan moldatzen dira, eta bestelako irratsaioak aukeratzeko laguntzaileek proiektu bat aurkeztu behar dute. Horrela, astean zehar laurogei bat orduz emititzen dute zuzenean, gainerako denboran musika eta irratsaioen errepikapenak eskaintzen dituztela. Euskarazko irratsaioak sartzan dituzten arren, emisora elebiduna da; esaterako, goizeko

magazina —*Suelta la Olla* izenekoa— gaztelaniaz eskaintzen dute, eta arratsaldekoa —*Bagazina*—, ordea, euskaraz. Gainerako irratsaioetan egileek aukeratzen dute hizkuntza.

Finantzabidean ez dute publizitaterik onartzen; alde batetik, «estetikoki bat ere maite ez dutelako»⁶ eta, beste aldetik, «(...) kontsumismoaren gainean eraikitako bizimoldea apurtzeko ahalegina delako»⁷. Beraz, autogestionarioak dira, eta oso garrantzi handia dute bazkideen kuotek irratiaaren sostengurako; horregatik, 250 bazkide izatetik 666 izatera heltzeko kanpainari ekin zioten 2002ko udabarrian, bazkide bakoitzari hileroko mila pezeta ordaintzea eskatuz.

Poliki-poliki, dialean izandako lekua berreskuratzeko doazenak ere badaude. Adibidez, Bergarako *Txapa Irratia*, urtebetez uhinetatik urrun egon eta gero, dialera itzuli da. Horretarako, inbertsio handia egin dute teknologiaren aldetik. Antzeko egoeran dago Eibarko *Matralla Irratia*. Lehenengo aldiz 1986an sortu zen emisora hori, *Pottoka* izena zuela, eta denbora luzez itxita egon eta gero, 1990eko hamarkadaren hasieran irekitzeko saioak egin zituen. *Arrate Kultur Elkartearen* laguntzaz, 2001eko San Juan jaian berriz ere emanaldiak hasi ziren, eta arrakasta handia lortu zuen. Izenaren aldaketaren bidez, emisoran egon den funtsezko aldaketa nabarmendu nahi dute arduradunek, bien arteko ezaugarri nagusia euskararen erabilpena baita. *Matralla* irrati euskalduna da, *Pottokak* zuen hutsunea betetz.

Beste emisora aske batzuk berriro hasi dira uhinetan agertzen Hego Euskal Herrian, batzuk denbora luzez geldirik egon eta gero: hori da adibidez Markinako *Eup!* irratia kasua. Teknologia berrien prozesua burutzeko zain eta euskal irratien elkarlanetik sorturiko egitasmo berriak gauzatu zain zeuden 2002ko hasieran, baina ez geldirik, guztietan parte-hartze aktiboa eraginez, baizik.

Bilboko dialean toki finkoa duen *Tas-Tas Irratia* eta Getxon sortu berria den *Koska Irratia* dira krisialdiaren ondoren sortutako beste emisora aske batzuk, aurrekoen akatsak berriz ez egiteko asmoa dutenak.

INTERNET BIDEZKO EMISORAK: IRRATIA.COM

Soinu-iturri ezberdinak jasotzeko eta erreproduzitzeko euskarriak eta ordenagailua nahikoak dira Interneten irrati bat muntatzeko, behar diren gauza bakarrak izan ez arren. Oraingoz ez dago muga legal, administratibo edo geografikorik sarearen bidez irratsaioak emititzeko, eta, konexio ona izanez gero, edonondik entzun ahal dira.

6. Agirreurreta, A. (2002): "666 baietz. Eta hala izan bedi", *Zazpika*, **162**, 22.

7. Ibidem, 24.



Iturria: <www.irratia.com>.

Horregatik, bi lagunek pentsatu zuten ideia ona litzatekeela «euskal irratia digitala»⁸ muntatzea Interneten. *Irratia.com* 2000ko azaroaren 1ean hasi zen emititzen, eta, arrakasta ikusita, asteazkenero zuzeneko emankizuna eskaintzea erabaki zuten. Zuzeneko irratsaioez gain, grabaturiko saioak ere entzun daitezke, irratia askeek ekoitzitakoak, bai banaka, bai taldeka eginak. Horrez gain, sei kanal tematiko eskaintzen dituzte, baita beste komunikabideekiko loturak ere. Kontzertuek, diskoetxeekiko harremanetarako bideek, albisteek eta beste ekintza kulturalak osatzen dute irratia horrek eskaintzen dituen edukiak. Horrela, erabiltzaileek informazio hori eskura izateaz gain, uhinen bidez entzun ezinezko irratien emanaldiak era aditu ahal ditu; adibidez, *Erasmus* egitasmoaren barruan Europan zehar zeuden ikasleek *Hala Bedi* emisoraren emankizunak entzun ahal zituzten ikasturtean zehar, konexio ona izanez gero.

Muga geografikoak gainditzeko aukera azpimarratu dute arduradunek emisoraren aurkezpenean:

Mundu osorako bere seinalea euskaraz eta euskal edukiak mundura zabalduz arituko gara eguneko 24 orduak. Orain arte, mundu osoko irratia eta telebistak gurera noiz helduko zain izan gara. Bada garaia guk mundura gurea igortzeko. Jakingo dute zeintzuk garen eta hemen egiten dena entzungo dute, gure hizkuntza eta gure musika: we are Basque and we are proud⁹.

Aurrekoaren ildoan, beste irratia euskaldun bat sortu zen Interneten 2001ean: <www.irratinet.com> izenekoa. Horretan, bi kanal tematiko eskaintzeaz gain, diskoak edo abestiak eskaintzeko bidea ematen da, uhin bidezko irratigintzan oso arrakasta handia duen taxuera berea eginez. Hala eta guztiz ere, *irratinet.com* emisora bat baino gehiago musika-haria da, programaziorik eskaintzen ez duelako.

Horrez gain, euskal emisora askok eskaintzen dute Internet bidezko emanaldia, gehienetan uhinen bidez emandako programazio bera eskaintzen duten arren.

BATASUNAREN BIDEZ, EUSKAL IRRATIGINTZA OSATUZ

Irrati askeek oso argi zeukaten batasuna beharrezkoa zela boteretik zetozen erasoei —itxierai, batez ere— aurre egiteko, eta esparru komunikatibo alternatiboa osatze-

8. Horrela definitzen dute emisora <www.irratia.com> web-orrian.

9. <www.irratia.com> web-orrian.

ko. Informazio ofizialaren aurrean, herri-ekintzen eta taldeen bazterketaren aurka, beren iturri propioak lantzen hasi ziren, eta guztien artean *Tas-Tas* kontrainformazio-agentzia sortu zuten. Urte batzuetan funtzionatu ondoren, itxi egin behar izan zuten, baina ez zen desagertu, ordea, haren premia. Urtebete beranduago, *Egin* egunkariaren eta *Egin Irratiaren* inguruan beste mugimendu bat sortu zen, *Hitz Egin* izenekoa. Sare horretan emisora aske batzuek parte hartu zuten, eta helburu bikoitza zuten: alde batetik *Orain S.A.* enpresako komunikabideek jasaten zuten boikotaren aurka jotzea, eta, bestetik, emisora batzuen artean informazioa eta grabazioak trukitzea, baita egitasmo bateratu batzuk antolatzea ere.

Halaber, aurreko ataletan aipatu den bezala, Ipar Euskal Herriko irrati euskaldunak *Euskal Irratiak* izeneko egitasmoan batu ziren, eta Nafarroako zenbait emisorak irratsaio bateratuak egin ohi dituzte. Izan ere, Ipar eta Hego Euskal Herriko estazioen lan bateratuei esker, Iruñeko Txupinazoa eta antzeko ekintzak ia Euskal Herri osoan batera entzun ahal izatea lortu da. Horrez gain, une zehatz batzuetan, irratiak emankizunak modu informalean emateko adostu dira.

Beste aldetik, Euskal Herriko egoera geografiko-administrariboak Estatu espainiarreko eta frantseseko irratiaren sartzeko-ahalmena ahalbidetu du, eta, beraz, oso nabaria da horren eragina eta hedadura euskal lurraldean. Gaztelaniazko eta frantsesezko emisorak euskaldunak baino ugariagoak dira, baita handiagoak ere. Publikoek zein pribatuek entzuleria erakartzea dute helburu, eta, horregatik, gehienen hizkuntza erabiltzen dute ohiz, euskarari uzten dioten lekua oso murrizta delarik. Era berean, erdal emisora gehienek katean emititzen dute, eta gero eta nabariagoa izaten da programazioaren zentralismoa, erditik periferiara eginda baitago. Madril eta Paris dira emisora horien erreferentziak, eta, kasu batzuetan, tokiko deskonexioak publizitarioak baino ez dira; hau da, tokiko iragarkiak sartzeko euskarri moduan erabiltzen dira kateen herrialde- edo eskualde-zentroak.

Hori zela eta, euskal esparru komunikatiboa sortzea izan zen emisora batzuen kezka. Horretarako, oso beharrezkoa zen emisora bakoitzaren tokikotasuna gainditzea eta, beraz, herrialde desberdinetako emisoren parte hartzea, horrela Euskal Herri osora heldu ahal izateko. Herriarekiko harreman zuzena eskaintzen zuen eremuan lan egitea funtsezkoa jotzen zuten, bakoitzak berean eta bere euskalkia erabiliz, iturrietatik bertatik informazioa eta lekukotasuna eskaini ahal zutelako, eta horretan zetzan beste komunikabide batzuekiko desberdintasun nagusia: teletipoetako, prentsaurreetako edota beste edonork bidalitako informazioan oinarritu beharrean, lehen eskuko adierazpenak, datuak eta lekukotasunak eskaini ahal zituzten, herritarrek berek emanda, haientzat herri txiki horietara heltzea errazagoa baitzen, kate handientzat baino. Herritarrekiko harreman hori, gainera, euskaraz garatu nahi izan dute emisora horiek, batzuek gaztelania ere erabiltzen duten arren.

Ondorioz, eta izatez oso ezberdinak izan arren, hainbat irrati hasi ziren elkar-tzen, asmo bateratua zutela. Ez zuten oso itxaropen handirik, bakoitzak oso lan handia baitzuen bizirauteko, baina poliki-poliki hainbat puntutan ados jarri dira.

Herriak Mugi! izeneko ekimenak Arabako Barrian 2001eko maiatzean anto-latu zuen topaketen barruan, herri-emisora batzuk bildu ziren beren egoerari buruz mintzatzeko.

Hurrengo hitzordua Hernanin izan zen, *Molotoff Irratiak* gonbidatuta. Ho-rretan, irratiez gain, *Joxemi Zumalabe Fundazioak* parte hartu zuen, koordinazio-lanak egiteko bere burua eskainiz. Hortik aurrera, eginkizun garrantzitsua izan zuen herri-mugimenduak egitasmoa antolatzeako orduan. Era berean, irrati desberdinen “erradiografia” egitea beharrezkotzat jo zuten bildutakoek. Halaber, lan egiteko pauso sendoak emateko ados jarri ziren irratietako ordezkariak.

Beste aurrerapauso bat eman zuten 2001eko ekainaren 30ean. Arrosan ospaturiko *Euskal Irratiek Euskal Herria Zuzenean* jaialdian hogeita bost irratiren ordezkariak bildu ziren. Topaketa horretan, lanean hasteko egutegia finkatu zuten eta teknologia berriak nola erabili aztertu zuten, baita Internet proiektu bateratua-ren zerbitzuan nola jarri ere. Horretarako, *Irratia.com* emisoraren adibidea aurkeztu zuten bertan.

Bileraren lehenengo ondorio zehatza jaialdiari buruzko zuzeneko irratsaioa izan zen, uztailaren 1ean, 13:15etatik 14:00etara. Horren aurrekaria 2001eko Korrikari buruzko emanaldi bateratua izan zen. Orduan, hogeita hamaika irratik eskaini baitzuten emanaldia zuzenean.

Urte bereko urrian, irratien ordezkariak berriz bildu ziren Altsasun. Urte amaieran, 2001eko abenduan, hogeit bat irratik hartu zuten *Arrosa* ekoizpen-zen-troa aurrera ateratzeko konpromisoa, eta publikoki aurkeztu zuten Biarritzen egindako bilkuran¹⁰. Era berean, hortik aurrera erabiliko zuten lan-metodologia eta egutegia finkatu zituzten.

Maiatzean Herri Urrats 2002-ri buruzko irratsaio berezi bat uhineratu nahi izan zuten hogeita hamar emisorak, Senperetik Euskal Herri osoari. Ipar Euskal Herriko *Euskal Irratiek* ekoitzi zuten saioa, eta, akats teknikoak zirela medio, ez zuten arrakasta lortu, irrati batzuek konexiorik egin ezin izan zutelako.

10. Butron, A. (2001): “«Arrosa», Euskal Herri osoko irratien produkzio zentro berria, abian da”, *Gara*, abenduaren 9, 57.



Emanaldi bateratua eskaini nahi izan zuten euskal irratiak Herri Urratsetik.

Iturria: <www.zirikolatz.chez.tiscali.fr/Herri_Urrats.html>.

Lan horren ondorioz, 2002ko maiatzean abian jarri zuten *Arrosa* ekoizpen-zentroa, Andoaingo *Martin Ugalde Kultur Parkean* duen egoitza. Bultzatzaileen iritziz, bi xede nagusi ditu zentro horrek: hedadura-eremu murrizta duten irratiaren arteko harremanak bultzatzea eta euskararen erabilpena bultzatzea irratigintzaren arloan¹¹.

Arrosan mota askotako emisorak bildu dira, batzuk partaide moduan, eta beste batzuk, berriz, egitasmoari atxikiak. Besteak beste, honako irrati hauek parte hartzen dute egitasmoan modu batez edo beste:

- a. Elkarre-irratiak: Lapurdiko *Gure Irratia* eta *Antxeta*, Behenafarroako *Irulegiko Irratia*, Zuberoako *Xiberoko Botza*, Tolosaldeko *Txolarre*, Donostiako *Ttan Ttakun*, Bilboko *Bilbo Hiria Irratia*, eta Nafarroakao *Esan Erran* eta *Beleixe*.
- b. Udal irratiak: Gipuzkoako *Oiartzun Irratia* eta *Arrasate Irratia*, Bizkaiko *Gorliz Irratia*, Nafarroako *Irati* eta *Aralar* irratiak ondo.
- c. Irrati askeak: Errenteriako *Zintzilik*, Bergarako *Txapa*, Eibarko *Matralla* eta *Pottoka*, Hernaniko *Molotoff*, Altsasuko *Garraxi*, Iruñeko *Eguzki*, Markinako *Eup!*, Bilboko *Tas-Tas* eta Gasteizko *Hala Bedi*.

11. Martin, K. (2002): "Euskal Herriko irrati sarea eratzeke asmoz osat da Arrosa", *Gara*, maiatzaren 25, 2.

d. Irrati komertzialak: Loiolako, Donostiako eta Gasteizko *Herri Irratia*, *Bizkaia Irratia* eta *Segura Irratia* eta Nafarroako *Xorroxin Irratia* eta *Euskalerrria Irratia*.

e. Internet bidezko irratia: *Irratia.com*.

Aipaturiko irratien artean, batzuk guztiz profesionalizaturik daude, eta beste batzuek, berriz, ez dute oso egitura finkoa. Era berean, badaude langile-plantila zabala dutenak, eta boluntarioez hornitzen direnak. Udalerria dute batzuek hedadura-eremu; beste batzuek, eskualdea; eta gutxi batzuek, herrialde osoa.

Teknologiaren alorrean ere maila ezberdinetan daude: batzuk guztiz informatizaturik daude, eta beste batzuek oraindik dagoen teknologia analogikoa erabiltzen dute. Arlo horretan oso garrantzitsua jotzen dute denek teknologia berrietara heltzeko aukera izatea, horrek elkarren arteko harremanak eta materialaren trukaketa errazteaz gain, oso kalitate ona eskaintzea ahalbidetuko luke eta. Dena dela, lehenengo garai batean teknologia digitalarekin batera analogikoa erabiltzea aurreikusi zuten irratiek, prozesua hasi gabe zeukaten estazioak ez baztertzeko.

Irrati-ekoizpenerako zentroaren lana lau ataletan banatzen da:

- a. Informazio-alorrean, albistegietako soinu-euskarrien eskaintza, bereziki informazioen lekukoen, protagonisten edo sortzaileen adierazpenen bidez. Edonon sorturiko informazioaren grabazioa, bertan dagoen emisorako langileek egin arren —bestetan jasotako batzuekin bildu eta gero—, batutako irratia guztien artean soinu-bilduna banatzen da, horretarako Internet erabiliz.
- b. Horrez gain, *Arrosak* berak ekoiztiko produktuen eskaintza: magazinak, irratia-nobelak, antzerkiak, ipuinak, sketxak, eta abar...
- c. Irrati guztietatik aukeratutako irratsaioak “parrilla birtual batean” sartu eta nahi duenaren eskura jartzea da beste lan-ildoak, horretarako Interneten programazioa eskainiz.
- d. Azkenik, aurretik egin duten bezala, Euskal Herrian ospatzen diren hainbat ekitaldi ospetsu eta sonaturen berri emisora guztietara zabaltzeko nahi da; hala nola, Herri Urrats, Korrika, Bertsolari Txapelketa, Sanferminetako Txupinazoa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Gipuzkoako ikastolen aldeko jaiak, eta abar.

GEHIGARRIAK

Kronologia

1924

- Portugaleteko Bandaren kontzertu bat emititu zen irratitik (maiatzaren 28an).
- *K-A2* izeneko emanaldiak jaso zituen hainbat irratizalek.
- Udan *Radio Club de Vizcaya* izeneko irratizaleen elkarte osatu zen Bilbon (maiatzaren 18an).
- *Radio San Sebastián* delakoak emititzeko lizentzia lortu zuen (azaroaren 24an).

1925

- *Radio Club de Vizcaya* zelakoak emititzeko baimena lortu zuen (urtarrilaren 24an). Emanaldiak 1925eko martxoan hasi ziren Bilboko *Carlton* Hoteletik.
- *Unión Radio Asociación de Vizcaya* izeneko elkarte sortu zuten *Radio Vizcaya SA* zelako emisora bultzatzeko helburuz (otsailean).
- Maiatzean *Radio Vizcaya* zelako emisora emititzen hasi zen Bilboko *La Terraza*-tik, eta ondoren baimena lortu zuen (ekainaren 19an).
- Bilboko *Palomo* Hoteletik, Santutxu auzotik eta Olabeagatik egindako emisioak jasotzen zituzten irratizale bilbotarrek.
- Irrati-ekoizleak eta saltzaileak bildu ziren *Radio Bilbao* izeneko elkartean, irratigintza maila guztietan hedatzeko asmoz.
- *Asociación Vasca de Aficionados Radio Escuchas* izeneko elkarte osatu zuten irratizaleek udan.
- *Radio San Sebastián* delakoa emititzen hasi zen uztailan proba moduan. Irailean emititzen hasi zen erregularitasunez, eta urrian inauguratu zuten (urriaren 5ean).

1926

- *Radio San Sebastián* delakoak *Radio Barcelona* emisorarekin batera emititu zuen (ekainaren 17an).

1927

- *Radio Club de Vizcaya* zelako emisora *Unión Radio* enpresak erosi zuen (maiatzaren 28an).
- *Radio San Sebastián* delakoa *Unión Radio* enpresaren eskuetan geratu zen (ekainaren 26an).
- *Unión Radio San Sebastián* eta *Unión Radio Bilbao* izeneko irratiek emanaldi bateratuak eskaini zituzten espainiar Estatuko beste emisorekin batera.
- *Radio Club de Vizcaya* eta *Radio Vizcaya* izeneko emisorak batu zituen *Unión Radio* enpresak.

1928

- Batzearen ondoren, arazo administratibo eta teknikoak zirela medio, Bilboko emisoren emanaldiak bertan behera geratu ziren.

1932

- *Radio Emisora Bilbaína* izeneko emisora sortzeko eskaera legeztatu zuen gobernu espainiarrak.

1933

- *Radio Navarra* izeneko emisora emititzen hasi zen Iruñean, hasieran proba-emanaldietan inauratu arte (maiatzaren 27an).
- *Radio Emisora Bilbaína* delakoa emititzen hasi zen (urriaren 31n)

1934

- *Radio Vitoria* delakoa sortu zuen Hernández Peña doktoreak Gasteizen.
- *Radio Tudela* izenekoak emititzeko baimena lortu zuen, baina ez zen abian jarri.

1936

- *Radio Navarra* okupatu zuten “nazionalek” (uztailaren 19an).
- Donostiako *Radio San Sebastián* delakoaren tresneria desmuntatu eta Getxora eraman zuen —Debatik pasa ete gero— Errepublikako buruzagitzaren aginduz.
- *Radio Emisora Bilbaína* zelakoaz jabetu ziren Errepublikako agintariak (irailaren 30ean).
- Echevarría Novoa gobernadore zibilak Autonomia Estatutuaren onarpenaren berri eman zuen *Radio Emisora Bilbaína* zelakoaren bitartez.
- Jose Antonio Agirre lehendakariak Gabonetako agerraldia eskaini zuen *Radio Emisora Bilbaína* irratitik (abenduen 22an).

1937

- *Radio Navarra* izenekoak *Radio Requeté de Navarra* izena hartu zuen. *Radio San Sebastián* eta *Radio Emisora Bilbaína* zirelakoak ere *Radio Requeté* adierazleaz emititu zuten gerra garaian, “nazionalen” eskuetan erori eta gero.
- Jose Antonio Agirre lehendakariak irratitik hitz egin zien euskal biztanleei Gernikako bonbardaketaren ondoren (apirilaren 26an).
- Gernikako bonbardaketari buruzko irratsaio berezia eskaini zuen *Radio Emisora Bilbaína* zelakoak (maiazaren 4an).

1941

- *Pasionariak* sortu zuen *Radio España Independiente* zelakoak lehenengo emanaldia eskaini zuen Moskutik (ekainaren 22an).

1946

- Aberri Egunaren bezperan eta Gernikako bonbardaketaren bederatzi urte-urrenean, agerraldi bana eskaini zituen Jaurilaritzak, *Radio Paris* izeneko emisoratik.
- Lehenengo emanaldi ofiziala eskaini zuen *Euzkadi Irratiak* (abenduaren 21ean).

1948

- *Euzkadi Irratiaren* seinalea sartu zen *Radio San Sebastián* delakoaren emanaldietan, Uztailaren 18ko eta Abuztuaren 15eko ospakizunetan.

1949

- *Euzkadi Irratiaren* egoitza Mugerretik Ziburura eraman zuten.

1952

- *Radio Tudela* izeneko irratia hasi zen emititzen Tuteran, Uhin Laburrean (uztailaren 18an).

1953

- *La Voz de Alava* izeneko emisora emititzen hasi zen Gasteiztik (abuztuaren 8an).
- Eibarko *Radio Juventud* zelakoa emititzen hasi zen Uhin Ertainean.

1954

- *Radio Euzkadi* irratia Ipar Euskal Herritik eskainitako emanaldiak bertan behera utzi zituen gobernu frantsesak, François Mitterrand barne-ministroa zela (abuztuan).
- Bilboko *Radio Juventud* zelakoa emititzen hasi zen.

1955

- Zesareo Elgarreta apaizak *Segura Irratia* sortu zuen.

1956

- *Segura Irratia* emititzen hasi zen (apirilaren 2an).
- *La Voz de Guipúzcoa* izeneko irratia sortu zen Donostian.
- *Segura Irratia* emititzen hasi zen Gipuzkoako Segura herritik (apirilaren 2an).
- *Radio Tuter*a zelakoak Uhin Ertainean emititzeari ekin zion.

1957

- *La Voz de Navarra* izeneko irratia emititzen hasi zen (apirilaren 1ean).

1959

- *Arantza Irratia* emititzen hasi zen Arantzatik, Esteban Irigoyenen esku.
- *Iruñeko Herri Irratia* inauguratu zuten (abuztuaren 4an).
- *Arrate Irratia* hasi zen emititzen Eibartik (abenduarien 23an).

1961

- *Segura Irratia* itxi zuten.
- Donostiako *RNE* emititzen hasi zen.
- *Loiolako Herri Irratia* emititzen hasi zen Loiolako Santutegitik (otsailaren 11n).

1962

- *Iruñeko Herri Irratiaren* estudioak Iruñeko Santo Domingoko Komentura eramane zituzten.
- Donostiako *Herri Irratiaren* emanaldiak abiatu ziren (abuztuaren 15ean).

1963

- *Radio France* izeneko emisorak emanaldi batzuk eskaintzen hasi zen Baionatik.

1964

- *Segura, Tolosa* eta *Arrate Irratiak* itxi zituen Informazio eta Turismoarako Ministerio espainiarrak.
- Eibarko *Radio Juventud* zelakoa hasi zen Maiztasun Modulatuan emititzen.

1965

- *Radio Tudela* zelakoa itxi zen, Uhin Ertainen Plangintzaren arabera.
- Loiolako *Herri Irratia* itxiarazi zuen gobernu espainiarrak (uztailaren 26an).
- *La Voz de Tafalla* izeneko irratia hasi zen emititzen.
- Venezuelako Caracas hiriburutik emititzen hasi zen *Radio Euzkadi* Uhin Laburrean (irailaren 15ean).

1966

